

HITZAURREA

Laster iragan izango dira hirurogei urte Sigmund Freud, amaitzera doan XX. mende honetako pentsalaririk eragileenetakoa, hil zenetik.

Sigmund Freud (1856-1939), Moraviako Freibergen jaio zen. Vienan ikasi zuen medikuntza. 1881ean graduatu zen. Brücke fisiologoaren eta Parisen Charcoten ikasle izan zen. Mediku eta irakasle gisa lan egin zuen, 1886az geroztik. Hasierako bere lanak histologia eta zerebroaren anatomia buruzkoak izan ziren eta gerokoak neuropatologiako gai klinikoek buruzkoak. J. Breuer-ekiko lankidetzan Studien über Hysterie (1895) argitaratu eman zuenetik psikoneurosia aztertu eta tratatzen ari izan zen.

«Histeriari buruzko azterlanak» argitaratu zirenetik ehun urte iragan direlarik eta Freuden obretako batzuk euskaratu diren albiste ona dela-eta, galde egin liteke, ea horiek eta obrak bere osotasunean gaur egun oraindik indarrean al dauden. Erantzuna, gure kasuan, baiezkoa da inolako zalantzarik gabe. Freudek bezala uste dugu psikoanalisiaren interesa era askotakoa dela.

Baita egin zaizkion kritikak ere, hasieratik bertatik eta alderdi askotatik. Hemen horiei erantzutea ezinezkoa da, eta gainera ez da hitzaurre honen egitekoa. Aski bedi esatea urtean-urtean iragartzen dela horren heriotza eta hala ere osasun bikaina duela.

Freuden obran harrimen handiena sortzen duten gauzen artean horren emankortasuna dago. Gaur egun ezinezkoa da psikologia, antropologia kulturala, filosofia, pedagogia, psikiatria,... benetan aztertzea Freud pentsamenduarekin dialektikoki aurrez aurre jarri gabe.

Bere obrak, Ch. Darwin edo A. Einsteinenak eta beste batzuenak bezala Gizateriaren ondarea osatzen du.

Badakigu gure kultur tradizioan, Grezian abiatzen den proposamenak, «Gnosce Te ipsum» (Ezagutu zeure burua) jartzen duela Jakituriaren helmuga gorentzat. Ezagutza eta askapen pertsonaleko desira faustiko eta dionisiako horrek fundatzen du Mendebaldeko kultura. Desira hori eskuratzeko Sigmund Freud obra erabakigarria da.

Freudek auzitan jartzen ditu Descartesengan fundaturiko paradigma zientifiko eta epistemologikoak, zeinak gauzak zalantza-eremuak direla eta agertzen diren modukoak ez direla onartzen duen arren; aldiz, ez du ezbaian jartzen kontzientzia bere buruari agertzen zaiona bezalakoa denik; horretan bat dator zentzua eta zentzuaren kontzientzia.

Freudek, aitzitik, erotik erakusten digu ez dugula geure burua ezagutzen eta bide berriak urratzen dizkigu gure buruaren eta besteen ezagutzarako garen hori —eta ez garen hori—, geure buruaz ez dakigun hori, geure inkontzientea, kontzientetzat daukagun horretaz harantzagoko hori hobeki ezagutzeko. Gure kontzientziak ez dakien hori ezagutzea eskaintzen digu eta geure eskura jartzera, hitz batean, geure burua ezagutzera, Desira aztertzea gonbidatzen gaitu.

Beraz, ez dago inolako zalantzarik Freud obraren garrantziaz gizaki garaikideaz kontzientzia hartzeko. Freudek auzitan jartzen du kontzientziaren, bere burua dakien eta bere buruaren jabe den kontzientziaren ahalguztiduntasuna, eta bukatu egiten du lilura hori edo, gutxienez, asko moteltzen. Gizakiaren nartzisismoari egindako hirugarren zauria da.

Bada Freud obran ilustrazioko Arrazoiaren —Arrazoia jainkosaren— desmitifikazio bat ere gogoeta berri batera, burugogoeta kritiko behartzen duena. J. Rof Carballoren hitzetan: «psikoanalisi da burugogoeta sakon egiten duen zientzia bakarra,

hau da, ezagutza ezarian-ezarian baldintzatuz doazen maila inkontziente, pertsonal eta emozionaleko motibazioei buruzko gogoeta sakona».

Zentzu berean J. Habermasek baieztatzen du Freudek egiten duena giza zientzia berri bat sortzea dela, baina natur zientzia izateari uzten ez dion giza zientzia bat. «Ezagutza eta interesa» bere liburuan ezagutzaren atzean beti dagoen eta ezagutzaren posibilitatea bere horretan erasaten duen interesen substratua agerian jartzen du. Berarentzat burugogoeta konturatze bat eta emantzipatze bat izango litzateke, interes horiek hautemate bat eta dependentzia horrekiko jaregite bat edo jaregite-ahalegin bat. «Psikoanalisi —idazten du Habermasek— orain arte zientzia batek gogoeta eskakizun metodologiko gisa hartzen duelakoaren adibide nabarmen eta muntadun bakarra da».

Freuden egitasmoa —eta horrela idazten du— «Neurologoentzako Psikologia baten Egitasmoa»n «natur zientzia bat izango den psikologia bat» egituratzearena da.

Gaur egun psikoanalisiari, eta ondorioz Freudi egiten zaizkion kritikarik gehienak zientziaren filosofiaren jarretako batzuetatik datoz.

Epistemologia modernoa ez da gauza izan zientifikotasun-irizpide bakar bat adostu ahal izateko eta ez da hau psikoanalisiaren izaera aztertzeke lekua jarri epistemologiko desberdinetatik eskaturiko irizpideetako bakoitzetik: neopositibista, arrazionalista, konstruktibista, anarkista,eta abarretatik.

Alabaina, baldin eta Kuhnek defendatzen zuenez, bilakaera zientifikoa gauzen ikuspen propioaren bilakaera bat bada, Freuden obrak zalantzarik gabe eta era oso ohargarrian lagundu dio gauzen ikuspenaren bilakaera —iraultza— horri. Lehenago aipatu dugu nola eraldatu duen gizakiak bere buruaz eta bizileku eta bizikide duen gizarteaz ikuspena.

E. Morinek ere dioen bezala «ezagutzaren joko mugen joko bat baldin bada, argiaren eta ilunaren, pentsagarriaren eta pentsaezinaren hegetan», Sigmund Freud joko horretan ari da, zeren mugak erakutsi eta ezagutzaren aurrerabide bat dagoen bitartean ziurgabeziaren eta ezjakintasunaren gehitze bat ere badagoela irakasten baitu.

Freudek irakasten digu erabateko ezezagutza dugula geure buruarekiko eta bide berriak urratu nahi ditu geure burua eta besteak ulertzeko Inkontzientea eta haren mekanismoen bere ezagutza sakonak agerian jartzen du ezezagutza hori, baina aldi berean osotasunean sartzeko aukera eskaintzen du. Inkontzientea kontziente bihurtu nahia, hitz batean, geure burua hobeki ezagutu nahia da.

J. Rof Carballorentzat historia garaikidearen atzean dauden bi mugimendu handitan sartzen da. Alde batetik, gizakiaren errealitatea zabaltzea, berak mesprezuaren ezabatze gisa definitzen duena. Ezezagunaren mesprezua, oro har.

Bestalde, autokritika eta burugogoetaren garapena, zeina hartzen duen atsedena, susmatu gabe, gure kultura markatzen duten tabuen hausturaren gainean.

Gure behaketak eta gure ikerketa-metodoek, zientzia progresio aritmetikoan haziarazten dute eta gure ezjakitea progresio geometrikoan.

Begi-bistan dago sinpletze-ahaleginak ezagutzaren aurrerabideari lagundu egiten diotela, baina, era berean, nabaria da sinpletzeak mugak dituela eta muga horietan planteatzen dira ziurtasun-arazoak.

Psikoanalisiak subjektua ezagutza zientifikoan sartzen du berriro, subjektu berri atzemanezinagoa baina errealagoa. Ahalguztiduntasunaren lilura suntsitu egiten du,

deseraiki egiten du subjektu zahar idealizatua eta bere ziurgabezia eta bere porrota aitortzen dituen subjektu berri bat jaioarazten du. Behar bada Freuden obra XX. mendearen azkenetan inoiz baino egungoagoa da, baldin eta Habermasek baieztatzen duenez: «psikoanalisiak begirada trebatzen badu amildegikoa atzemateko; amildegia ertzean bizi garela azaltzen digu».

XX. mende honek, bere garapen zientifiko eta teknologiko ikaragarriarekin, ez dio sortu nahi zen bezala gizakiari segurtasun eta ongizate handiagoa. Arazo politiko, ekonomiko, sozial, psikologiko,... eta abarrek hertsatu egiten dute, Zientzia ezarritako sinesmena arrakalatzen ari da eta Progresuaren mitoa ilauntzen. Ziurtasun gutxiago azken finean, nahiz eta lilurazkoak izan.

Irakaspena, berriz ere, umiltasunezkoa da. Gogor deituriko zientzien gaur eguneko garapena ere norabide horretatik doa.

Psikoanalisiak, gure iritzian, psikologia abisal edo sakoneretakoa —horrela deitzea gustatzen zitzaion Freudi— den heinean lagundu du eta oraindik laguntzen jarraitzen du errealitatea ulertzen eta ezagutza oro har eta gizakiarena bereziki garatzen, bai hau eta bai hura ahalguztiduntasunaren liluratik askatuz. Ondorioz, askatasun handiago bat ahalbidetuz.

Psikoanalisiak psikologia abisal gisa hartuta gizakiaren misterio sakondu nahi du; haren desirak, haren motibazioak, haren benetako premiak, haren fantasiak, haren identitatea, hitz batean, bere baitan gordeta daukan eta ia beti ezagutzen ez duen hori guztia.

Freudek, gizaki osora, haren misteriora irekitzea eskaintzen dio psikologiari, nahiz eta zaila gertatu hura ezagutzea. Edipok bezala egia nahi izan zuen, beretzat ezagutza zientifikoaren eta bere lanbidearen helmuga zena. Hala idatzi zion Albert Einsteini: «Jadanik ez daukat neure merituetakotzat beti egia esatea ahal den neurrian; lanbide bihurtu zait». Beste gauza batzuen artean gizakiak bere baitan daukan misterioaren berrezagutze hori, erredukzio, kuantifikazio, disezio edo desintegrazio-ahalegin oroz harantzago psikoanalisiaren partaidetza datorren mendeko psikologia izango den horretan. Jadanik Freudek esaten zion Zweig-i gutun batean: «psikoanalisiaren egiteko nagusia demonioaren aurka baretasunez borroka egitea da». Freudentzat demonioa irrazionaltasuna zen eta hori demonioa bezala formaz aldatu egiten da. Arrazoi «zientifiko» gisara ere ager daiteke.

Horregatik guztirengatik albiste on bat da eskuetan daukazuen liburua, bertan Freuden obretako batzuk euskaraturik ageri baitira. Ea hasiera besterik ez den eta pixkanaka obra guztiak argitaraturik ikusteko aukera izaten dugun.

Sigmund Freud idazle ona zen, bazekien lengoaiaren garrantziaz, izan ere, azken finean hitzaren bitartez osatzen baitzuen. Bazekien hizkuntzak esan eta estali egiten duela aldi berean. Hitz batean, harantzagoko zerbaitea igortzen duela baina bere buruaren bitartez. Horregatik zorionak eman behar dizkiogu geure buruari obra hori euskarara, gizateriaren hizkuntzarik originalenetako batera itzuli izanagatik, planetan dagoen herririk zaharrenetako baten komunikabide eta altxor baita. Jatorri ezezagunak baditu ere, jakin-mina eta harrimena sortarazten ditu, besteak beste, hain sorrera misteriotsua duelako.

Freuden obrak eta ondorengo garapen psikoanalitikoek gure jatorria ezagutzen lagun diezagukete, --ongi ezaguna da Freudek zuen arkeologiarako zaletasuna eta horren eta psikoanalisiaren artean egiten zuen alderaketa, gure lotura, gure oinarritzko

nortasuna, gure sozializatzeko-prozesuak eta gure motibazio eta desira sakonenen artean egiten zuena.

Aurkezten diren obrak, zilegi bazez metafora gastronomiko bat egitea, freudiar sukaldaritzaaren dastapen-menu bikaina dira. Freuden obrako aldi desberdinak sortutako artikulu, entsegu eta hitzaldiak dira. Kronologikoki ia bere obra osoa hartzen dute, 1903tik hasi eta 1926ra arte, eta horrek haren pentsamenduaren bilakaera ezagutzeko aukera ere ematen digu.

«Metodo psikoanalitiko»-n, 1903ko datarekin, sugestioa eta hipnosia metodo terapeutikotzat erabiltzeko uko egiteko izan zituen arrazoiak azaltzen ditu eta nola aurkitu zuen nahigabeko asoziazioaren edo asoziazio askearen metodoa, metodo psikoanalitiko goren edo oinarritzeko arau bihurtuko zena.

Metodoaren helburua inkontzientea kontzientziari eskuragarri bihurtzea da, ezezaguna hartan sartzea. Lortuko ez bazuen ere, helburu hori ere bazuen, subjektu-pazientean gozamina berrezartzea metodoa ongi aplikatzetik etorriko zen kontzientziaren hedatze bat eta nork bere burua eta bere determinatzaileak hobeki ezagutzea.

Oso ongi adierazi zuen Alexander Mitscherlichek hau esatean: «Terapiak sarritan gaixotasuna sufrimendu bihurtzea besterik ez du lortzen; baina gizakiaren askatasuna deuseztatzen ez duen sufrimendu bat da.»

Artikulu horretan Freudek tratamendu psikoanalitikorako beharrezko diren baldintzak aipatzen ditu.

1909koak dira Freud (EEBB) Clark Unibertsitatean emandako hitzaldiak; 1910ean argitaratu ziren «Psikoanalisi» izenburupean eta, gure iritzian, une hartako jakite psikoanalitikoaren azalpen bikaina da.

Sigmund Freud (Massachusetts) Worcester-ko Clark Universityko Dr. Stanley Hallek gonbidatu zuen bere ikerketa psikoanalitikoak azaltzera. Jardunaldien amaieran honoris causa doktore izendatu zuten Sigmund Freud. Freudek bere ahaleginen lehen aintzatespen ofizialtzat hartu zuen hori.

Hitzaldi haietan Freudek psikoanalisiaren sintesi bikaina eskaintzen du. Argitasun eta zehaztasun handiarekin azaltzen die psikoanalisiaren entzule interesaturik zeuden baina adituak ez ziren batzuei une hartako jakite psikoanalitikoak; haren aurrekoak, hasiera zalantzakorrak, lehen aurkikuntzak, haiekiko erresistentziak, nerbiozko deituriko gaixotasunak ulertzeko haien garrantzia eta haien ahalbide terapeutikoak.

Freudek bere aurkezpenetan psikoanalisiaren definitzen duten oinarritzeko hiru aspektuak artikulatzen ditu, hots: psikoanalisi da aldi berean metodo terapeutiko, inkontzientea ikertzeko metodo bat eta teoria psikologiko bat. Kasuren bat aditzera emanez erabilitako ikerketa-metodoa, lortutako aurreratze terapeutikoak eta ateratako ondorio teorikoak aurkezten ditu.

Lehen hitzaldian metodo berriaren jatorria aurkeztu zuen, asoziazio askearena, Berta Papein neska gazte histeriko baten tratamenduan lehen aldiz erabiliarena, zeinaren historiala bilduta ageri den Dr. J. Breuer eta S. Freudek elkarrekin argitaratu eman zuten «Histeriari buruzko azterlanak» (1895) obran.

Kasu hori oinarritzat harturik neurosi histerikoaren funtsean barrentzen da, eta sintomen eta gertakari traumatikoen arteko erlazioa aurkezten du, haiek hauen hondar

eta sinbolotzat hartuz. Hitz batean, kausa-harremana aurkitzen du pazientearen sintoma eta bizitzaren artean, horrela ordura arte ulertezinak diren gertalariak —gaixotasuna— ulertzea ahalbidetuz.

Bigarren hitzaldian metodoaz hitz egiten du, Asoziazio askeaz, eta horren jatorriaz. Metodo berriari esker erresistentziek duten zeregina ulertu zuen bai prozesu patogenoari eta bai sendatzeari buruz eta errepresioaren mekanismoa aurkitu zuen, zalantzarik gabe psikoanalisiaren zutabeetarikoa dena.

Bestalde, metodo berria Freudek determinismoa onartzean zetzan, nahiz eta bere kasuan prozesu psikologikoei aplikatua izan. Ikuspegi horretatik bere hirugarren hitzaldian gutxien ulerturiko giza portaerak azaltzen ditu: ametsak, ahazmenduak, erroreak, eta abar. Portaera horien ikerkuntzaren emaitza dira, besteak beste, «Ametsen interpretazioa» (1900) eta «eguneroko bizitzaren psikopatologia» (1901) bere obrak. Hori dela eta, Freudek ateratzen du ondorioztat portaera-mota horiek desira erreprimituaren gauzatze mozorrotuak direla.

Laugarren hitzaldian ikerkuntza psikoanalitikoan polemikoenetakoa izan zen gaietako bat darabil: haurren sexualitatea.

Esan beharra dago Freudek zabaldu egiten duela sexualitate kontzeptua, adin heldura eta genitalitate-birsorkuntza binomiora ia bakarrik mugatua, bi zentzutan: 1. Sexualitatean sartzen ditu nola aspektu emozional, afektibo eta sentsualak hala gune erogeno berrien berrezagutza. 2. Gizabanakoaren bizitza osoa besarkatuko luke, jaiotzatik heriotzara arte. Zentzu horretako argitalpen gailena «Teoria sexual baterako hiru entseiu» (1905) da, eta bertan agerian jartzen du haurtzaroaren eta haurraren garapen psikosexualaren garrantzia gizabanako guztien bizitzarako.

Bosgarren eta azken hitzaldian neurosien eta garapen psikosexualaren arteko erlazioetako batzuk azaltzen ditu, erregresioaren arazoa bi alderditatik aztertuz: denborarenetik eta formarenetik. Erregresio tenporalak adierazten du subjektuaren itzulera garapen-aldi gaingiduetara. Erregresio formalak aipatzen du adierazpen- eta portaera-modu primitiboenetarako itzulera, konplexutasun, egituratze eta desberdintzearen ikuspuntutik.

Azkenik, aurkikuntza terapeutiko berri garrantzitsuenaren —transferentziaren— berri ematen du; horren bitartez gaixoak birbizitu egiten ditu analistarekiko bere harremanean, bere bizitza afektiboko aspektuak, zeinek berresten duten, Freuden iritzian, bulkada sexualen pazientearen bizitzan duten garrantzia.

«Psikoanalisiaren interesa beste zientzietarako», 1913an argitaratuan, Freudek jakitearen beste alor batzuei psikoanalisiak egin diezazkiekeen ekarpenen berri ematen du.

Lehenik, psikoanalisiak Psikologiarako duen interesa azpimarratzen du, zenbait gaixotasun mental ulertzeko aukera ematen duen heinean. Baita, prozesu normal eta patologikoen arteko jarraitasuna agerian jartzen duen heinean ere, horrela psikologiantzat eremu terapeutikoa irekiz. Beste ekarpen batzuk, zeren ezinezkoa baita hemen guztiak aipatzea, hauek dira: prozesu afektiboen garrantzia, Inkontzientearen eta horren mekanismoen ikerkuntza, garapen psikosexuala, motibazioa... eta abar.

Biologiarako Freudek nabarmentzen du psikoanalisiaren aldetik funtzio sexuala eta gizabanakoaren garapen psikosexuala aztertzea. Biologia eta psikoanalisiaren arteko

erlazioei buruzko ekarpenik hoberenetako bat J. Rof Carballoren «Biología y psicoanálisis» da.

Halaber, badu interesa Filologiarako ere pentsamendua hitzetan adieraztea ez ezik keinuen lengoaia eta, batez ere, sinboloek komunikazioan duten zeregina aztertzen duen heinean.

Filosofiari bagagozkio, zeinak —Freuden hitzetan— oinarritzat Psikologia daukan, kontuan edukitzera behartzen du fisikoa eta psikikoaren artean psikoanalisiak ezartzen duen erlazio berria, baita giza jardueraren determinazio inkontzientea ere.

Bilakaeraren historiarako ere badu interesa bi ikuspegitatik: filogenetiko eta ontogenetikotik. Ikuspegi filogenetikoan, zibilizazioa eta kulturaren garapena bultzatzen duten motibazio sakonak ulertzen laguntzen duen neurrian. Ontogenetikoan, gizakiaren bilakaera, batez ere, aspektu afektibo-sexualetan ikertzen duen neurrian.

Era berean, Soziologiarako duen interesa adierazten du, psikoanalisiak inguruabar eta eskakizun sozialen garrantzia agerian jarri duen heinean, ez neurosien etiologian soilik, baita oro har subjektuaren bizitzan ere.

Pedagogiarako, zeren haurren desirak, bilakaera-aldiak, mekanismo inkontzienteak, atxikipen-motak eta abar ulertzeko aukera ematen baitu.

Gaur egun psikoanalisiak beste zientzia batzuetarako duen garrantzia gehi dezakegu: Antropologia, Medikuntza, Komunikazioa, Hermeneutika eta abarretarako. Oro har, Freudek artikulua horretan agerian jartzen duena psikoanalisiak ikerkuntza-metodo gisa duen garrantzia da gainerako zientzietarako eta horietako bakoitzean ezagutzak aurrera egin dezan. Freud zientzien arteko elkarrizketaren aldeko agertzen da bakoitzaren ikusmugez haraindi eta horretan ere badu egungotasunik.

Liburu honetan jasotako beste testuetako batean «Analisi profanoa», 1926an argitaratuan, Freudek mediku ez direnek praktika terapeutiko psikoanalitikoa egin ahal izatea defendatzen du. Freudek kaltegarritzat zeukan —hala aitortu zion Sandor Ferencziri— psikoanalisi espezialitate mediko huts bihurtzea. Psikoanalisiaren geroko garapenerako hiltzizikoa den testu horretan, Freudek psikoanalisi medikuek soilik praktikatu behar zuten ala ez auziari buruzko bere jarrera finkatzeaz gainera, maisukiro azaltzen du psikoanalisiaren funtsa teoria psikologiko eta praktika terapeutiko den heinean.

Azken zentzu horretan psikoanalisiaren berezitasuna defendatzen du eta, ondorioz, psikoanalisten prestakuntza, praktikarako beharrezko baldintzetako batzuk proposatuz. Garrantzitsuena, zalantzarik gabe, beren buruak psikoanalizatzeko premia da.

Baina psikoanalistak bere baitan bildu behar dituen baldintzez haraindi, bereziki azpimarratzea merezi du Freudengan praktika psikoanalitikoa gizabanako guztietara irekitzea, eta ez orduan zenbaitek nahi zuenez, medikuetara bakarrik. Bat dator hori elkarrizketa zientifikoko bere izpirituarekin. Zergatik baztertu filosofoak edo psikologoak edo pedagogoak, biologoak, eta abar, ezagutza eta praxi psikoanalitikotik? Ez dago inolako arrazoirik horiek baztertzeko dio Freudek.

Amaitzeko, «Psikoanalisiaren zailtasun bat» (1916) lanean izaera afektiboko zailtasun bat aipatzen du Freudek, edo hobeki esateko, izaera nartzisistikoa, psikoanalisiak gure portaeraren determinazio inkontzienteak agerian jartzen dituen heinean. Beste era batera esanik, psikoanalisiak irakasten digu —dagoeneko lehenago

ere esan dugunez—, geure burua ez ezagutzeaz gainera geure buruaren erabateko jabe ere ez garela. Hori da, Kopernikok eta Darwinek egindakoez gainera, gizakiaren nartzisismoari egindako hirugarren zauria. Baina, bestalde, psikoanalisiak gure burua hobeki, errealkiago ezagutzeko aukera eskaintzen digu. Psikologia abisala den neurrian, gure kontzientziaz haraindi miaztera eta gizakiak bere baitan daukan misterio hondargabeen murgildurik aritzera gonbidatzen gaitu.

Donostian, 1996ko azaroaren 11n

Enrique
Angel GONZÁLEZ ALONSO
UPV/EHUko irakasleak

FREIJO

BALSEBRE

Bibliografia

Freuden obrak

FREUD, S. Gesammelte Werke: Chronologisch geordnet, 18 liburuki (1940-68).

STRACHEY, J.: (de.) The Standard Edition of Complete Psychological Works of Sigmund Freud, 24 liburuki, alemanetik itzuliak (1953-74), 1981 berrimprimatua.

Freudi buruzko obrak

ASSOUN, P.L.: Freud, la filosofía y los filósofos. Paidós. Barcelona, 1982.

BOFILL, P. eta TIZON, J.L.: Qué es el psicoanálisis. Herder. Barcelona, 1994.

FINE, R.: Historia del psicoanálisis. 2 lib. Paidós. Buenos Aires, 1982.

FREIJO BALSEBRE, E.: El Psicoanálisis de Freud y la psicología de la moral. Razón y Fe. Madrid, 1966.

FREIJO BALSEBRE, E.: Lecciones sobre psicoanálisis y psicología dinámica. DDB. Bilbao. 1986.

- FREUD, S.: Epistolario (1873-1939). Biblioteca Nueva. Madrid, 1963.
- GARMA, A.: El psicoanálisis. Teoría clínica y técnica. Paidós. Buenos Aires, 1978.
- GAY, P.: Freud. Una vida de nuestro tiempo. Paidós. Barcelona, 1989.
- GRINBERG, L.: Psicoanálisis. Aspectos teóricos y clínicos. Paidós. Barcelona, 1981.
- JONES, E.: Vida y obra de Sigmund Freud. Hormé. Buenos Aires, 1989.
- ROAZEN, P.: Freud y sus discípulos. Alianza. Madrid, 1978.
- ROF CARBALLO, J.: Biología y psicoanálisis. DDB. Bilbao, 1972.
- ROBERT, M.: La revolución psicoanalítica. FCE. México. 1965.
- SCHUR, M.: Sigmund Freud. Enfermedad y muerte en su vida y su obra. 2 lib. Paidós. Barcelona, 1980.
- WYSS, D.: Las escuelas de psicología profunda. Gredos. Madrid, 1975.

Azterbide psikoanalitiko freudiarra

Freudek praktikatu ohi duen eta psikoanalisia izenez ezagutzen den azterbidea Freudek berak Breuerrekin batera 1895.ean argitaratutako «Histeriari buruzko azterlanak» bilduman adierazitako katarsi-jardunbidetik sorturikoa da. Breuerri zor zaio katarsi-terapiaren sorrera, zeinen bitartez hamarkada bat lehenago pertsona batengan histeria-gaixotasun bat eragin zuen eta horrela jokatzuz sintoma horren patogenesiaz ikuspegi bat lortzeko aukerak moldatu ahal izan zituen. Breuerren beraren eragin pertsonal bati esker azterbide berari berrekin zion Freudek eta gaixo gehiagoren kasuetan frogatu ahal izan zuen.

Gaixoa hipnotizatua izatea suposatzen zuen katarsi-azterbideak, eta hipnosia-aldian gauzatzen zen kontzientziaren hedapenaz baliatzen zen. Gaixotasun sintoma ezabatzea zuen helburu azterbide horrek, eta lortu, eria gaixotasun sintoma hori lehenengoz agertu zeneko egoera psikologikoan jarritz lortzen zuen bere helburua. Gaixoaren kontzientziatik desagerturik zeuden oroitzapenak, pentsakizunak eta

bulkadak agertzen ziren hipnosi-egoera horretan eta psike-gertakari horiek guztiak eriak afektu-karga handiz sendagileari adierazten zizkionean sintoma desagertu egin ohi zen eta bere berragerpena ezinezko gertarazten zen horrela. Behin eta birritan eginiko esperientzia hori honako modu honetan argitzen zuten aipaturiko bi autoreek beren lanean, erreprimitutako eta kontzientziara agertu gabeko gertakari psikikoen lekua hartzen zutela sintoma horiek, eta haien itxuraldaketa («konbertsioa») bat baino ez zirela azken hauek. Beren azterbidearen eraginkortasuna, berriz, beste modu honetan, alegia, erreprimitutako psike-ekintzekin erlazionatutako ordurarteko afektu lotuok askatu egiten zirela horrela. Sendabide soil hau, ordea, nahastu egiten zen ia beti, zera agertzen baitzen gehienetan, ez traumatzaile bakar bat baizik eta horrelakoen ikuspegiztatu ezinezko multzo oso bat egon ohi zela sintomaren sorreran.

Bestelako psikoterapia-jardunbide guztietatik ezberdintzen den azterbide katartikoaren ezaugarri nagusia honako hau da, beraz: bere eraginkortasun terapeutikoa ez zaiola sendagilearen galerazpen sugestiokor bati menpekotzen; sintomak berez desagertuko direla, mekanismo psikikoei dagozkien aurrebaldintza batzuetan oinarrituz, eskuhartzeak beste hau lortuko balu, gertakari psikikoak sintomen iturburu izan ziren prozesuetara bideratu ordez beste batzuetara gidatzea, alegia.

Breuerren azterbide katartikoan Freudek burutu zituen aldaketak teknikaren arlokoak izan ziren lehenik; emaitza berriak lortu ziren horrela eta lan terapeutikoaz aurrez zegoen ikuspegiarekin kontraesanean ez zegoen beste ikuspegi modu bat moldatu ahal izan zen ondorioz.

Azterbide katartikoak sugestiobidea alde batera utzi zuen bezalaxe utzi zuen saihetsera Freudek, urrats bat aurrera emanez, hipnosia. Bestelako eraginik gabe lasaipen ohe batean lasai etzanda daudenean tratatzen ditu berak bere gaixoak, bera, horien begibistatik desagertuz, atzealdean aulki batean eseritzen delarik. Ez die eskatzen ezta begiak itxi ditzatenik ere, eta ukitzeari edo hipnosiarekin zerikusia izan dezakeen bestelako prozedurei ere uko egiten die. Esna dauden bi pertsonen arteko edozein elkarriketaren antzekoa da horrelako saioaldi bakoitza, bietako batek, hori bai, bere jarduera psikikoari eskaintzen dion arretarekiko kontzentrazioa galarazi diezaiokeen edonolako zentzumen-ekintza edo gihar-saio alde batera uzten duelarik beti ere.

Sendagilearen iaioetasuna handia izanagatik ere hipnotizatua izatea gaixoaren nahimenaren menpe dagoenez gero eta pertsona neurotikoen kopuru handi bat ezin hipnotizatu daitekeenez edozein bidez baliaturik ere, hipnosia alde batera utziz azterbidearen erabilgarritasuna ziurtaturik zegoen. Bestalde, gainera, kontzientziaren hedapenari uko egiten zitzaion, hau da, sintomen itxuraldaketa eta afektuen askapena ahalbidetzen zuten oroitzapen- eta irudikapen-materialak sendagileari eskaintzen zizkion kontzientzia-hedapen harixe, alegia. Horrela sortutako hutsune horri ordezkapen bat aurkitu ez balitzaio ezin hitz egin ahal izango litzateke eskuhartze terapeutiko batetaz.

Gaixoaren burutapenetan aurkitu zuen Freudek horretarako erabateko ordezkapena, esan nahi da, nahi gabeko eta oztopagarri moduan sumatutako eta, arrazoi hori bitarteko, baldintza arruntetan ekidineko gogoetetan, alegia; xedetutako aurkezpen baten barne-erlazioa galerazten zuten beraietxetan, beraz. Burutapen horiek kontrolpean hartu ahal izateko, berorietaz hitz egiteko eskatzen die berak bere gaixoei, «edozein elkarriketatzen ehunekoetatik milakoetara pasa ohi garen bezalaxe jokatzu». Beren gaixotasun-historiaren zehaztapenetara iragan aurretik, burura datorkien guztia adierazteko eskatzen die berak, nahiz eta garrantzirik gabekotzat edo zentzurik gabekotzat edo arazoarekin zerikusirik

gabekotzat jo burutapen horiek. Eta eskatu ere ardura bereziz eskatzen die, esateko lotsagarri edo samingarri sumatzen dituzten gogoeta eta burutapenak ere adieraz diezaizkiotela. Bestela kontutan hartzen ez diren material horiek biltzerakoan bere ikuspegirako erabakitzaile gertatu ziren behaketak egitea suertatu zitzaion Freudi. Oroitzapen-hutsuneak gertatzen zaizkie gaixoei beren gaixotasunaren historia adierazterakoan: batzuetan hainbat gertakari egitan ahaztu, edo gertakarien arteko denborazko erlazioak nahastu, edo kausa-ondoriozko loturak erabat eten egin dituztelako. Ez dago nolabaiteko amnesiarik gabeko neurosi-gaixotasun baten historiarik. Bere oroitzapenetako hutsune horiek aditasun-lan tinko batez osatzera bultzatzen bada gaixoa, zera nabarmen daiteke berehala, era askotako kritikamoduz saiatzeko dela datozkion burutapenei gorderik irautarazten, ahalik eta oroitzapenek benetan dagokien lekua hartzen dutenean berak, azkenik, ondoeza zuzen-zuzenean sumatzen duen bitartearaino. Esperientzia honetan oinarriturik, berak erregresio izenez adierazten duen gertakari baten ondorioa dela amnesia dio Freudek, eta ondoez-sentipenak direla horretarako arrazoiak. Birgogoratzearen aurka moldatzen den erresistentzia ikusi nahi ditu berak erregresio hori bideratzen duten indar psikikoak.

Bere teoriaren oinarrietako bat izatera iritsi da erresistentziaren unea. Era guztietako aitzakiaz (lehentxeago adierazi denez) saihestutako oroitzapen horiek erreprimitutako irudikapen psikikoen (gogoeten eta sentipenen) deribatu bailiran ulertzen ditu berak, berorietxen erreproduzioen aurkako erresistentziaren desitxuraketa moduan, alegia.

Erresistentzia zenbat eta handiagoa izan, orduan eta indartsuagoa jarrera hori. Ustekabeko oroitzapen horiek erreprimitutako material psikikoarekiko duten erlazioan ikusi behar da, hain zuzen ere, teknika terapeutikorako duten balioa. Oroitzapenetatik erreprimitutakora, sentipenetatik sentitutakoetara iristeko bide bat lortzen bada, era berean lor daiteke, hipnosiarik gabe, lehenago psike-bizitzan inkonszientea zenetik kontzientziarako pasabidea.

Esanahitzearen azterbidea sortu zuen horretatik Freudek; eta honako eginkizun hau dagokio azterbide horri, ustekabeko oroitzapenen metal-gaietatik, nolabait esateko, erreprimituriko gogoetetako metal-edukia aurkeztea. Ez bakarrik gaixoaren oroitzapenak dira esanahitze-lan horren aztergai, baizik eta baita inkontzientea ezagutzeko bidea irekitzen duten bere ametsak, bat-bateko eta planifikatu gabeko bere ekintzak (sintoma-trataera) eta egunerokotasuneko bere erruak ere (nahasketak, gaizki-ulertzeak eta antzekoak). Freudek ez ditu argitaratu oraindik esanahitze- edo itzultze-teknika horri dagozkion zehaztapenak. Bere adierazpenek diotenez, oroitzapenetatik material inkonszientea nola eraiki daitekeen adierazten duten arau enpirikoen multzo bat izango da, edo gaixoaren oroitzapenek porrot egiten dutenean hori nola ulertu behar den adierazten duten irizpideak, eta era honetako tratamenduan zehar agertu ohi diren ohiko erresistentzi garrantzizkoenei dagozkien esperientziak. Freudek 1900.ean argitaratutako ametsen esanahiei buruzko liburua bera teknika honetarako sarrera moduan ulertu behar da.

Azterbide psikoanalitikoaren teknika aurkitu duenak konplexutasun gutxiko jardunbide hipnotikoa utziz alferrikako lanak hartu eta oker jokatu duela, pentsarazi diezaiokete norbaiti orain artean egin ditugun azalpenek. Egin dugun deskribapenak adieraziko lukeen baino erabilerrazagoa da psikoanalisiaren teknika, behin ikasiz gero behintzat, eta horretaz gain ez dago beste biderik helmugara iristeko, eta, neketsua bada ere, bera da biderik motzena. Hipnosiaz esan ere zera esan behar da, erresistentzia estali egiten duela, eta horrela indar psikikoen jokoekiko ikuspegia galarazi egiten diotela sendagileari.

Erresistentzia gainditu ez baina bigundu baino egiten ez duenez, ezin eskura daiteke informazio osorik eta lorpenak ere oso behin-behingoak izan ohi dira.

Bere oinarritzko izakeran balio berekoak diren formula ezberdinetan adieraz daiteke azterbide psikoanalitikoak beretzat hartzen duen eginkizuna. Nolabait adierazteko, amnesia gainditzea da tratamenduaren eginkizuna. Oroitzapen-hutsuneak osatzen eta bizitza psikikoko efektu ulertezinak argitzen badira, sufrimenduaren jarraipena edo bere berragerpena ezinezko gertatuko dira. Beste era batera ere adieraz daiteke baldintza hori: errepresio guztiak erregresibo bilakarazi behar dira; amnesia guztiak osaturik leudekeen egoeraren antzekoa litzateke orduan egoera psikikoa. Aurrerago joaz hona beste ulerkerak bat: inkonszientea kontzientziari irekitzea da arazoa, eta hori erresistentziak gaindituz baino ezin lor daiteke. Ezin ahaztuko da, ordea, pertsona normalarengan ere ez dela horrelatsuko egoera idealik ematen, eta oso gutxitan gertatuko dela tratamenduz horrelatsuko egoerara gerturatzerik. Egoera osasuntsua eta gaixoaren egoera printzipioz ezberdinak ez, baizik eta praktikoki zehazgarri diren gehikuntza-mugez berezirik dauden bezala, ezin jarri ahal izango da tratamenduaren helburutzat gaixoaren sendatze praktikoa bat baino zerbait gehiago: bere errendimendu-eta gozamen-gaitasuna baino zerbait gehiago dena, alegia. Tratamendua bera osatzen ez denean edo bere ondorioak erabatekoak ez direnean ere, hobekuntza nabaria sumatu ohi da egoera psikiko orokorrean, nahiz eta sintomek, gaixoarentzat garrantzi gutxiagorekin, aurrerantzean ere jarrai dezaketen, horregatik sintomaduna gaixo bihurtarazi beharrik gabe.

Aldaketa txiki batzuk izan ezik, terapia-jardunbide hau berdina da era anizkorreko histeria-mota guztien sintomentzat eta baita obsesio-neurosiaren agerpen guztietarako ere. Ez da esan nahi, ordea, bere erabilgarritasunak inolako mugarik ez duenik. Tratatu beharreko personarengatik bezala tratatu beharreko gaixotasunaren egituratik ere sortzen dira bai erabilgarritasun-indizeak eta baita aurkakoak ere azterbide psikoanalitikoaren izaerari dagokionean. Oldartasun edo arriskugarritasun gutxiko sintomak dituzten psikoneurosien kasu kronikoak lirateke egokienak psikoanalisiatzatratatzeko, hau da, era guztietako obsesio-neurosiak, obsesio-pentsamenduak eta obsesio-jarduerak lehenik, baita fobiak eta abuliak ezaugarri nagusitzat dituzten histeriak ere, era berean histeriaren somatizazio-mota guztiak, baldin eta sendagilearen eginkizun nagusia sintomaren desagerpena berehala gauzatzea ez bada, anorexiaren kasuan bezala. Egoera lasaitu zai egon beharra dago histeria-kasu larrietan. Lehen ondorio ziurra erabateko nerbio-nekea duten kasuetan nekea eskatzen duten terapia-jardunbideei, edo oso aurrerapen motzak gauzarazten dituztenei eta epe luze batez sintomaren iraupenari inolako ardurarik eskaini ezin diezaioketenei ere uko egin behar zaie horrelatsukoetan.

Era ezberdinetako eskakizunak jartzen zaizkio psikoanalisiaren abantailez baliatu nahi duen pertsonari. Lehenik eta behin, egoera psikiko normal baterako gai izan behar du; histeria kasuetako nahasketa-egoeran edo malenkonia-depresioarenean ez litzateke ezer lortuko. Adimen naturalaren eta garapen etikoaren halako maila bat ere eskatu beharko litzateke. Gaixoaren arima-bizitzan sakontzeko gaitzen duen interesik gabe utziko luke sendagilea etikarik gabeko pertsona batek. Karaktere-deformazio markatuek eta benetako konstituzio endekatzailerek ere ia gaindi ezinezko erresistentzia agertzen dute terapia bitartean. Zentzu honetan, psikoterapiaren bitartezko gaixotasun baten sendagarritasunarentzako muga suposatzen du izaerak. Era berean bosgarren hamarkadaren inguruan dabilen adinak berak ere baldintza desegokiak sortzen dizkio psikoanalisiari. Material psikikoaren kopurua gaindiezina izan ohi da orduan, luzeegia

egiten da elaboraziorako beharrezko den denbora, eta gertakari psikikoak bergogoratzeko gaitasuna mugatzen.

Adierazitako mugapen horiek horrela direlarik ere, bereziki handia da psikoanalisirako egokiak diren pertsonen kopurua, eta jardunbide horren bitartez gure ahalmen terapeutikoetan lor daitekeen hobekuntza nahikoa garrantzizkoa, Freuden adierazpenek diotenez. Epe luzeak eskatzen ditu Freudek, urte erditik hiru urterakoa tratamendu eraginkor batetarako; berak eskaintzen duen informazioaren arabera, ordea, errez uler daitezkeen gora-beherak direla eta, bere tratamendua oso kasu zailetan aproba ahal izan du: urte luzeetako gaixotasuna eta ahalmen gutxi zuten pertsonekin alegia, bestelako terapiabide guztietatik aldatuz beren azken itxaropena berea bezalako jardunbide berri eta zalantzakorrean bilatu dutenak. Tratamendu-epea asko moztu ahal izan zen gaixotasun arinagoko kasuetan, baita prebentzio-neurri handiak lortu ere etorkizunerako.

Grekerazkoa da psike hitza eta euskarara itzuliz arima esan nahi du. Tratamendu psikikoak, beraz, arimaren tratamendua adierazten du. Pentsa daitekeenez, zera uler daiteke horrela: arimaren bizitzako gaixotasun-adierazpenen tratamendua. Ez da hori, ordea, hitz horien esanahia. Askozaz zuzenagoa litzateke beste adierazpen hau: arimatikako tratamendua, lehenik eta zuzen-zuzenean beren eragina giza-ariman duten baliabidez moldatutako tratamendua, okerra arimakoa edo gorputzekoa izan daitekeelarik beti ere.

Hitza da baliabide horietako nagusienetakoa, eta hitzak dira arimaren tratamendurako oinarritzko tresnak. Arimako eta gorputzeko gaixotasun-arazoak sendagilearen hitz «hutsez» sendatu behar dutenik ulertzea zail gertatu behar zaio arazo hauetan ez-ikasiari. Pentsa ere pentsa dezake eta, aztikerian sinestarazi nahi zaiola. Ez dabil erabat oker; gure eguneroko hizketaldietako hitzak indargabetutako aztiak baino ez dira eta. Oraindik ere beste zeharbide bat egin beharra dago, zientziak hitzei lehenagoko azti-indar hartatik zati bat berritzultzeko egiten duen proposamena ulertu nahi bada.

Eskoletan prestaturiko sendagileek berek ere azkenaldi honetan baino ez dute ikasi arimaren tratamenduaren balioa aintzakotzat hartzen. Eta hori ulerterraza da, baldin eta sendakuntzak azken gizaldi-erdi honetan izan duen garapena kontutan hartzen bada. Horrela izendaturiko Naturaren Filosofiaren aldi bateko menpekotasun antzutik askaturik, eta Natur Zientzien zorioneko eraginari esker egin ditu medikuntzak bere aurrerapenik garrantzitsuenak, nola zientzia bezala halaxe iaioatasun moduan ere: organismoaren eraiketa mikroskopikoki txiki diren osagaiez (zelulaz) moldatua dagoela frogatu, bizi-funtzio bakoitza fisikoki eta kimikoki ulertzen ikasi, gaixotasun-prozesu ezberdinen ondorio diren soin-aldaketa ikuskorak eta ukikorak ezberdindu, baita oso sakonean gauzatzen ari diren gaixotasun-prozesuen ezaugarriak gorputzean ezagutu ere, era berean berrindartutako gaixotasun-eragile ugari aurkitu eta lortutako aurrerapenei esker ebakuntza zailen arriskuak nabarmenki gutxitu. Giza soinari dagozkionak dira aurkikuntza eta aurrerapen horiek guztiak, eta horrexegatik sendagileen irizpideak, nahiz eta ulergarriak izan ez beti zuzenak, soin-arazoetara mugatu ziren eta arimagaiak, haien begirunea galdurik zuten, filosofialarien ardurapean utzi zituzten gogo onez.

Gorputzaren eta arimaren artean dagoen ukaezinezko lotura ikertzeko nahikoa arrazoi bazuen sendakuntza modernoak, baina arimagaiak beti gorputzekoei menpeketurik bezala ikusi izan ditu eta honi baldintzapeturik aztertu. Eta azpimarratu ere azpimarratu ohi zen, normalki garatutako eta nahikoa elikatutako burmuinei baldintzapeturik dagoela gogo-jarduera guztia eta soinatal horren edonolako arazok okerbidera daramala jarduera hori; eta odolbidea pozoituz egoera psikopatologikoak eragin daitezkeela, edo garrantzi gutxiagoko kasuetan, gauzatu nahi den saioaren helbururako erabiliko diren eraginen arabera moldarazi daitezkeela lotan dagoenaren ametsak.

Soinaren eta arimaren arteko erlazioa (abereetan bezalaxe pertsonetan ere) elkarreraginetako bat da, baina erlazio honen beste aldeak, arimak soinean duen eraginarenak alegia, erruki gutxi aurkitu zuen iraganean sendagileen begietan. Arimaren bizitzari berezkotasun bat onartzeak lotsarazi egiten zituela dirudi, oinak zientziaren esparrutik aterako balituzte bezala.

Sendakuntza soinaren esparrura mugatzeko joerak, ordea, aldaketa bat izan du, poliki-poliki, azken hamarkada t'erdi honetan; zuzen-zuzenean sendagileen jardueratik etorri den aldeketa bat, gainera. Beren ezerosotasun eta kexen bitartez sendagilearen iaotasunari eskabide handiak suposatzen dizkioten gaixotasun larri eta arin ugari daude; hala eta guztiz ere, eta nahiz eta sendakuntza zientifikoaren azterbideetan aurrerapen handiak egin diren, ezin aurki daiteke, oraindik behintzat, gaixotasun-prozesu ikuskorrik eta ukikorrik, ez pertsonak bizi diren bitartean, ezta hilda gero ere. Gaixotasun-sintomen ugaritasunagatik eta anizkortasunagatik suma daiteke horrelatsuko eritasun-multzo bat; buruko minak eta aditasuna galtzeak bide direlarik ezin gogo-lanik gauza dezakete, begiak mintzen zaizkie irakurtzerakoan, hankak nekatzen zaizkie ibiltzerakoan eta pisutsu sumatzen dituzte edo lokartu egiten zaizkie, sentipen mingarri edo urdail-kolpeztu eta ziztadaz liseriketan arazoak dituzte, ezin egin ditzakete bereak laguntzarik gabe, loa galtzen dute, e.a. Sintoma horiek guztiak batera ager daitezke, edo bata bestearen atzetik jarraieran, edo horietako batzuk besterik ez; dirudienez beti gaixotasun bera da kasu guztietan. Askotan aldakorak izan daitezke gaixotasunaren sintomak, bata bestea desagertarazi edo ordezkatu dezake; buruko minak zituela eta lan egiteko gauza ez zen gaixo berak liseriketa zuzena izan zezakeen, baina buruko minik gabe jaiki zitekeen hurrengo egunean eta elikagai gehienak liseritu ezinik aldi berean. Bere bizibide-egoera oinarriz aldatzen dela eta, mindura guztiek utzi dezakete bat-batean eria; oso ondo senti daiteke bidai baten zehar eta era guztietako janariak inolako arazorik gabe jan, baina mamia jatera mugatu beharko ditu, agian, bere jatorduak, berriz etxeratutakoan. Soinaren alde batetik bestera, eskuinetik ezkerreko edo, alda daiteke ondoeza —min bat edo perlesi moduko ahuldura bat— horrelako gaixo batzuetan. Kasu guztietan egin daitezkeen behaketa da honako hau ere: urduritasunaren, kezken, hunkipenen eta antzeko egoeren eraginpean daudela argi eta garbi sintoma horiek guztiak, eta era berean, luze iraun eta gero, inolako arrastorik utzi gabe desager daitezkeela, erabateko osasunari toki eginez.

Medikuntza-ikerketek jadanik argitu dutenez, horrelatsuko gaixoak ezin trata daitezke begietako, urdaileko edo antzeko gaixotasun bat baleukate moduan; oso bestela, nerbio-sare orokorreko eritasun bezala tratatzekoak lirateke horrelakoak. Era honetako gaixoen burmuinetan eta nerbioetan egin diren ikerketek ez dute inolako aldaketa sumagarri aurkitu eta hainbat gaixotasun-sintomak horrelatsuko aldaketarik gertatzen denik frogatzeko itxaropenerako ateak ixten ditu, nahiz eta horretarako ikerketa-baliabide xumeagoz baliatzen saia gintezkeen aurrerantzean ere. Nerbiositate izena (neurastenia, histeria) eman zaie egoera horiei eta nerbio-sarearen ondoez funtzional bezala ulertu izan dira. Horretaz gainera, nerbioetako beste eritasun iraunkorragoen kasu ugaritan eta arimaren eritasun-sintoma soilak agertzen dituztenenetan (obsesio-ideiak, ideia eldarniotuak, dementsia) eginiko burmuin-ikerketetan (gaixoak hil ondoren) ez da ondoriorik eskuratu ahal izan.

Sendagileei zegokien, beraz, horrelatsuko nerbioz jotakoen eta neurotikoen gaixotasun-adierazpenen izaera eta jatorria aztertzea. Modu horretan jokatzu egin zen honako aurkikuntza hau, horrelako gaixoen talde batean behintzat beren arima-bizitzak soinean duen eragin aldatua baino ez dutela adierazten beren eritasun-sintomek, hau da, ariman bilatu behar dela ondoezaren zergati hurbilena. Beren aldetik soinean eragozpenak sortuz arimatik datozen ondoez horien jatorrizko kausak zeintzuk diren aurkitzea beste arazo bat da, eta hemen, oraingoz, ezin aztertuko dugu. Baina aurkitu ere hortxe aurkitu zuen sendakuntza-zientziak ordurarte alde batera utzitako soinaren eta arimaren arteko erlazioei bere erabateko ardura eskaintzeko abiapuntua.

Eritasunak aztertuz bakarrik ikasten da normala dena ulertzen. Arimak soinarekiko zituen eraginei zegokienez gauza asko ezagutzen baziren ere, orain aurkitu da berorietarako benetako argibidea. Horrela deituriko hunkipenek aurkezten dute arimak soinarekiko duen eraginaren adibide edonorentzat behagarri erregular arruntena. Bere aurpegiko giharren tiranduran eta lasaipenean, bere begiradan, azalaren gorriduran, ahots-aparatuaren tesituran eta soinadarren jarreran eta bereziki bere eskuenenean adierazten dira gizaki baten arima-egoera ia guztiak. Soin-aldakuntza horiek ez diote ekartzen, ia inoiz, inolako onurarik dagokionari; alderantziz, bere arimako gertakariak ezkutupean gorde nahi dituenean arazoak sortzen dizkiote eta ingurunekoei bere arimako gertakarien berri ematen dieten zeinu ziur bilakatzen dira, eta, aldi berean, egiten diren hitzezko adierazpenei baino garrantzi handiagoa eskaini ohi zaie, gainera, horrelatsuko soin-agerpenei. Halako arima-jardueren bitartean pertsona ikerketa zehatzago baten aztergai egiten bada, beste soin-adierazpen batzuk ere suma daitezke bere bihotzaren aktibitatean, gorputzean zeharkako odolaren banaketan, e. a.

Afektu izeneko arima-egoeretan gorputzaren partehartzea hain nabarmena eta handia denez, ikerlari batek baino gehiagok pentsatu izan du soin-adierazpen horietxek direla afektuen gune nagusia. Ezaguna da zenbaterainoko aldaketak eman ohi diren aurpegieran, odolaren zirkulazioan, norberaren beharrak egiterakoan, gihar kontrolatuen narritaduran, adibidez, beldurraren eraginpean, haserrearenean, tristurarenean, sexu-gozapenarenean. Ez hain ezagunak baina erabat ziurtatuak dira afektuen beste soin-adierazpen batzuk ere, nahiz eta ez diren horrelakotzat hartzen. Izakera mingarriko edo, esan ohi denez, depresiozko kezka, ardura eta tristura bezalako afektu-egoera iraunkorrek gorputzaren elikadura erabat gutxitu dezakete, edo ilearen zuriztaketa goiztiarra, grassen desagerketa eta odol-zainen aldaketa erikorra eragin ditzakete. Alderantzizkoa sumatu ohi da eragin pozgarrien, «zorionaren» ondorio moduan gorputz osoa gaztetzen denean, berriro gaztetasunaren ezaugarriak hartzen dituenean. Kutsadurazko eritasunen aurkako erresistentziarekin zerikusia dute, dirudienez, afektu handiek; horren adibide egokia da sendagileek egiten duten behaketa hau, menpekotutako armadako kideek irabazlekoek baino erraztasun handiagoz harrapatzen dituztela kanpamendu-gaixotasunak eta disenteria bera ere. Afektuak, eta ia depresio-izaerazkoak bakarrik, gerta ohi dira sarritan gaixotasunetarako jatorri, eta hori bai aldaketa anatomiko frogagarriak sortarazten dituzten nerbio-sareko gaixotasunetarako eta baita beste soin-organoetarako ere, zeinetan, suposatu ohi denez, gaixoak aurrez ere bazuen ordurarte gaixotasun horretarako eragin sumagarriarik agertzen ez zuen berezko joera.

Oso modu nabarmenean alda daitezke gaixotasun-egoerak afektu erauntsitsuen eraginez, ia beti okerrerragoko bidea hartzen dutelarik; baina egon badaude bestelako adibideak ere, hau da, beldur handi baten edo bat-bateko ardura baten ondorioz bideratutako organismo osoko aldaketa batek gaixotasunean hobekuntza edo baita erabateko sendakuntza ere eragin duela adierazten dutenak, alegia. Afektu depresiboek bizitzaren iraupena nabarmenki moztu dezaketela, edo izualdi handi batek, lotsaldi batek edo «gaixoaldi» erretzaile batek heriotza bera bat-batean ekar dezaketela inolako zalantzarik gabe ezagutzen dugun gauza da gaur; harrigarria bada ere, ustekabeko pozaldi handi batek ere eragin dezake azken ondorio hori.

Gorputzaren gora-beherekiko erlazio bereziek ezaugarritzatzen dituzte, zentzurik estuenean, afektuak; baina arima-egoera guztiak, baita guk gogoeta izenez adierazten ditugunak ere, dira neurri batean afektuzkoak, eta denek dute nolabaiteko adierazpen somatikoren bat eta denek eragiten dituzte aldaketak gorputzaren gora-beheretan.

Irudikapenezko gogoeta lasaiean bertan ere gogoeta-edukiari dagozkion eragiteak bideratzen dira gihar luze eta zeharkakoetara, baliabide egokiz sumagarri bilakarazi eta zenbait agerpen nabarmenatarako eta bereizgaindikotarako argibide izan daitezkeen eraginak, hain zuzen ere. Hor dago, adibidez, gogo-asmatzaileen kasua, saio-egoeran «mediumak», nahi gabe, egin ohi dituen gihar-mugimenduen bitartez gorderik dagoen objektu bat bilatzeko adierazpideak nola eskaintzen dituen argituko lukeena. Egokiago dagokio pentsamenduen-traidore izena gertakari honi guztiari.

Nahimen- eta aditasun-jarduerak ere eragin sakona izan dezakete gorputzaren ekimenetan, soinaren eritasunetan eragile edo oztopatzaile moduan garrantzi handia har dezaketelarik. Sendagile britaniar batek jakinarazten duenez, bere oharren guztia kontzentratu nahi duen soin-atalean bilduz, era ugaritako zentzazio eta minak eragiteko gauza omen da, eta dirudienek modu bertsuan joka ohi omen dute pertsona gehienek ere. Orain artean gorputzeko adierazpen soil bezala ikusiak izan diren ondoezak aztertzerakoan, kontutan hartu behar da beroriek, probabilitate handiz, arimaren eragin garbiaren menpe egon daitezkeela. Arimaren eragin horiek joeraz irudikapen huts direla dioten pertsona ez-ikasiek begirune gutxi eskaini ohi diete, zaurien edo eritasun edo infekzio baten ondoriozkoei ez bezala, irudikapen horien eraginez sortutako minei. Izan, erabateko bidegabekeria bat da hori; minaren jatorria edozein izanik ere, baita irudikapena bada ere, minak ez baitira horregatik txikiagoak edo ez hain egiazkoak.

Oharpenaren zentratzeak mina sortu eta handiagotu dezakeen modu berean desagertarazi daiteke hori guztia oharpena desbideratuz. Edozein haurrekin erabil daiteke esperientzia hori lasaipena lortzeko; gudariak ez du sumatzen zauriaren oinazetik burrukaldiko eskaintza adoretzuaren bitartean; bere sentipen erlijiosoen eremuko burrukaldiaren berotasunean, bere gogoeta guztiak datorkion sari zerutiarrean bildu dituen martiriak oinazeetarako sentikortasuna erabat galduko du ziurraski. Nahimenak gorputzaren eritasunetan duen eragina ezin froga daiteke hain erraz adibideen bitartekotasunez; baina oso posible dena da, osasuna berreskuratzeko erabakiak edo hiltzeko gogoak badutela beren garrantzia gaixotasun-kasu latz eta zalantzakorreki konponbidea aurkitzeko orduan.

Espektatiba-egoerak adikortasun handia eskatzen dio gure interesari, bere bitartez bilakarazi baitaitezke eraginkor, bai eritasunetarako eta baita sendakuntzarako ere, hainbat eta hainbat arima-indar. Herstura-egoera batek badu eraginik arrakasta lortzeko orduan; gaixotzerakoan uste izan ohi den neurriko garrantzirik baduen ala ez ziurtasunez jakitea komeniko litzateke, egia ote den izurrite-egoera batean gaixotzeko arriskurik handiena dutenak gaixotzeko beldur diren haietxek ote diren, adibidez. Espektatiba itxaropentsuen eta sineskorren egoera litzateke horren aurkakoa eta indar eraginkorrezkoa, guk gure tratamendu eta sendakuntza-saio guztietan kontutan hartu beharrekoa. Bestela ezin argituko genituzke sendagaien erabileran eta sendakuntza-saioetan sumatzen ditugun ondorioetako berezitasunak. Gure begien aurrean, sendakuntza-jarduerarik gabe, espektatiba itxaropentsuen eraginpean gertatzen diren hala-holako sendatze mirarigarriak dira kasurik nabarmenenak. Erlijio-sentipenak indartzeko egokiak diren ekintzen eraginpean eman ohi dira, sinestunen artean, egiazko sendatze mirarigarriak, hau da, Birjinaren irudi mirarigarritsu bat gurtu ohi den lekuetan, edo gizakiei pertsona santu edo jainkotiar bat aurkeztu eta otoitz egitearen truke hobakuntza bat agintzen zaienetan, edo santu baten erlikiak ondasun moduan gorde ohi direnetan. Itxaropenaren bidetik eritasun bat desagertaraztea ez zaio erraz gertatu behar erlijio-fededunari, sendatze miragarriak gertatu ohi direnean beste baldintza batzuk ere eman ohi baitira une bertsuan. Jainko-laguntza bilatzen deneko

uneek bestelako erlazio berezi batzuk ere izan behar dituzte ezaugarri moduan; hartzen dituen soin-nekeek, erromes moduan ibiltzeak bere dituen ondoezek eta sakrifizioek grazi horretarako duin bilakarazi behar dute gizaki eria.

Kezka handiegirik gabe uka daiteke sendatze miragarri horiek fedearen ondorio direla, eta berorietaz dauden kontakizunak engainuo eta zehaztasunik gabeko behaketen emaitza direla esan, baina hori ez litzateke zuzena. Argibide hori hainbatetan zuzena izan bada ere, sendatze mirarigarrien arazoa deusezteko adina indarrik ez du. Gertatu egiten dira, aldi guztietan zehar eman ohi izan dira eta ez bakarrik arimaren gaixotasunen esparruan, erromes-egoerak eragin berezia izan dezakeen irudipen hutsezkoak diren horietan alegia, baizik eta, oso bestela, baita aurrez sendagileen ahalegin guztiekiko erresistentzia erakutsi izan duten organikoki oinarritutako eritasun-egoeretan ere.

Sendatze miragarri hauek argitu ahal izateko, ordea, ez dago arima-indarrez gainetiko beste indarren beharrik. Badaude gure ulermenarentzat ulergaitz diren ondorioak, adieraziriko baldintza horietan gertatu ohi ez direnak. Naturaren bidetik gertatu ohi da dena; benetako giza eragin-indar ugariaren elkarkuntzaz indarberritu egiten da hemen erlijio-sinesmenaren eragingarritasuna. Gizataldeen garrak berotu egiten du norbanakoaren sinesmena, eta giro horretan inguratu nahi izaten du berak toki santura. Talde-eragin horren bitartekotasunez neurririk gabekotasunera igo daitezke gizabanako bakoitzaren arima-sentipen guztiak. Eta norbanako bakoitza toki jainkotiar horretan bere sendakuntzaren bila dabilenean ere, tokiaren izenak, tokia ikusteak ordezkatzan dute gizataldearen eragina, hau da, gizataldearen indarra agertzen da berriz ere eragile moduan. Beste bide batzuk ere hartzen ditu eragin horrek. Ezaguna denez, beregana jotzen dutenetatik gutxi batzuek baino ez dutenez jasotzen grazia jainkotiarra, aukeraturiko horien artean egon nahi izaten du bakoitzak; bakoitzagan lokaturik dagoen anbizioa dator hemen sinesmenari laguntzera. Hainbeste indarrek bat egiten dutenean, ezin harrituko gara noizbehinka norbaitek bere helburua lortzen badu ere.

Sinesgabeek berek ere ez daukate sendatze miragarriei zertan uko egin behar. Itxurak eta talde-eraginak ordezkatzan dute horrelakoetan sinesmena. Bereziki gizarte aukeratuenetan nagusitu ohi diren modazko sendabideak eta sendagileak agertu ohi dira beti, zeinetan besteak baino gehigo eta aukeratuenen antzeko izan nahia arima-indarrik eraginkorrenetakoa izatera iristen baita. Beren izakeran inolako indarrik ez luketen eraginak garatzen dituzte modazko sendabide horiek, eta norbait ospetsuren laguntzaile moduan ezaguna egin den modako sendagilearen eskuetan beste sendagile batenetan baino askozaz eragin gehiago hartzen dute aipatutako baliabide horiek. Horrela, bada, mirarigile jainkotiarrek bezalaxe aurkituko ditugu mirarigile gizatiarrak ere; beren indar eraginkorren izakerari dagokion moduan, iraupen gutxikoa izan ohi da horrelatsuko moden eta itxuren imitaziora emandako gizakien mesedea.

Sendakuntzak askotan eskaintzen duen laguntzaren eskakizunekiko deskontentamenduak, eta, behar bada, baita gizakiei naturaren gogortasuna aurrez aurre jartzen dien jakintza zientifikoaren ezarpenarekiko aurkakotasunak beti sortu izan dituzte, eta baita egungo egunean berriro ere, hainbat pertsonen eta baliabideen sendatze-indarrerako baldintza harrigarriak. Laguntzailea sendagile bat ez denean eta sendakortasunaz ezertxo ere ulertzen ez duelakoaren hotsak zabaldu direnean, eta sendagaia azterketa zehatz batez frogatu ez bada ere, herri-ahotsak gomendatua duenean sortzen da sinesmenerako itxaropen-jarrera. Horregatik gaur egun sendagileei beren lanbidea eztabaidagarri egiten dieten natur sendabideen eta natur sendagileen kopuru handia, nahiz eta guk horietaz guztietaz nahikoa ziurtasun handiz zera esan dezakegun,

laguntza baino ugariagotan ekarri ohi dietela kaltea sendabidearen bila dabiltzanei horrelakoek. Erien sinesmenezko itxaropenen aurka jartzeko nahikoa arrazoi badugu ere, ezin izan gintezke buruarinak eta zera ahaztu, indar horrek gure ahaleginei ere etenik gabe laguntzen diela. Sendagileak agintzen dituen sendagaiak eta egin ohi dituen ebakuntzak bi osagai ezberdinez moldaturik daude. Batzuetan handiagoa eta beste zenbaitetan txikiagoa, baina beti kontutan hartzeko dena eria-aren arima-jarrera da bata. Eriak sendagilearen erabakien berehalako eraginekiko dituen sinesmenezko espektatibak oinarri ezberdinak ditu: sendatzeko duen nahiaren neurria litzateke bat, eman dituen urratsen egokitasunaz duen ustea litzateke bestea, hau da, sendagileen iaotasun orokorrean duen ustea, eta bere sendagilearen trebetasunarekiko duen itxaropena, baita sendagileak sortzen dion begikotasun-jarrera ere. Gaixoaren konfidantza irabazteko duten ahalmenaren arabera sendagile batzuk beste batzuk baino egokiagoak dira; sendagilea gelara sartzen ikusi orduko sumatzen du, askotan, lasaipena gaixoak.

Betidanik landu izan dute sendagileek arimaren tratamendua, eta gaur baino arreta handiagoz lehenago. Gaixoarengan sendakuntzari lagunduko dioten arima-egoerak eta baldintzak sortaraztea bada guk arimaren tratamenduaz ulertzen duguna, sendabide hori da, ezbairik gabe, historiako zaharrena. Tratamendu psikikoak ziren herri zaharrek zituzten irtenbide bakarrak; senda-edarien eta bestelako sendagaien eragina indartu asmoz arima-tratamenduei ekiten zieten lagungarri moduan. Formula miragarrien erabilerak, garbiketa-bainuek, tenpluetako loaren bitarteko ametsen esanahia argitu nahiak eta antzekoek arimaren bidetik baino ezin zezaketen izan bere eragin sendatzailea. Zuzenean jainkoetatik zetorren begirunea eragiten zuten sendagileek, sendatze-indarra apaizen esku baino ez baitzegoen bere hastapenetan. Sendakuntzarako arima-egoera egokiak eriengan bideratzeko oinarritzko instantzia izan dira sendagileak lehenago, eta horrelaxe dira orain ere.

Has gintezke, beraz, hitzaren «aztitasuna» ulertzen. Izan ere, hitzak baitira gizakiok elkarrengan eragina izan nahi dugunean ditugun baliabide garrantzizkoenak; zuzendu zaizkion haren arima-egoeran aldakuntzak eragiteko baliabide egokiak dira hitzak; hori dela eta, ez da harrigarria gertatzen honako beste baieztapen hau ere, eritasun-agerpenak desagertaraz ditzakeela hitzaren aztiak, eta arimaren egoeran oinarrituriko agerpen haiek, gainera, bereziki.

Gaixotasunak desagertarazteko eraginkor agertu diren eragipen guztiek badute sumatu ezinezko zerbait. Zenbaitetan ondoeza sendatzen duten afektuek, ardurapenek, aditasun-bazterkuntzak, sinesmenezko itxaropenek porrot egiten dute beste batzuetan, nahiz eta gaixotasunaren izakerak zerikusirik izan ez ondorio ezberdin horietan. Psikikoki hain ezberdinak diren nortasunen berezkotasuna da sendatze-eragintza erregularrei oztopo egiten diena, inondik ere. Sendakuntzarako arimaren egoerak duen garrantzia onartu dutenetik sendagileek badakite ezin utz dezaketela gaixoaren esku honek sendakuntzarako bere aldetik jarri beharko lukeen arima-gogoia, eta helburu zuzenez arima-jarrera egokia eragin behar dutela, proposenak diren baliabideak aukeratuz horretarako. Kezka eta asmo honekin abiatzen da arima-tratamendu modernoa.

Era askotako tratamendu-moduak sortzen dira horrela, batzuk berez ulergarri direnak, eta beste batzuk, berriz, oso aurrebaldintza konplexuen ondoren uler daitezkeenak. Jakina, gaur geroz ez apaiz eta ez ezkutuko jakintzaren jabe denez, sendagileak ezin eragin dezake mirespenik berez eriarengan, eta horretxegatik gaixoarengan konfidantza eta aldeko jarrera pizten saiatu beharko du bere jokabideen

eraginez. Helburu zuzenen banaketaren zerbitzura egon daiteke berak gaixo batzuen kasuan bakarrik lor dezakeela emaitza egokirik eta beste batzuk, beren prestakuntza eta joerak bitarteko direlarik, beste sendagile batzuetara bideratu beharko dira. Sendagilea hautatzeko aukera kenduz, ordea, gaixoengan gogamen-eragina bideratzeko baldintza garrantzizko bat desegin da.

Arima-baliabide eraginkor ugari utzi beharko dio sendagileak ihes egiten. Berorietaz baliatzeko ahalmenik ez duelako izango da batzuetan, edo beste zenbaitetan, berriz, horretarako eskubiderik izango ez duelako. Afektu bortitzak eragiteko orduan balio du bereziki horrek: arimak gorputzeango bere eragina gauzatzeko orduan erabili ohi dituen baliabiderik aproposenen kasuan, alegia. Eragin pozgarrien bitartez ere sendatzen ditu zorte onak hainbat eta hainbat gaixotasun, beharrak bete izanaren bitartekotasunez, desira batzuk errealitate bilakatuz e.a.; ezin ibil daiteke, ordea, horrekin apustuak eginaz, askotan bere iaiotasunaz aparte beste indarrik ez duen sendagilea. Bere esku egongo da beldurra eta ikara sortaraztea sendakuntzaren zerbitzuan, baina haurren kasuetan izan ezik oso zalantzarokorra izan beharko luke horrelatsuko baliabide bipuntadunez baliatzeak. Gaixoarekiko harremanetan laztantasanarekin nolabaiteko lotura duten sentipenezko erlazioak ere tokiz kanpo geratuko lirateke sendagilearentzat, arima-egoera horiek bizitzarako duten esanahiagatik. Arrazoi guztiegatik bere gaixoen arima-egoeren aldakuntzarako duen ahalmen-kopuruan hain mugaturik sumatzen denez sendagilea, lehengo sendabideekin alderatuz gero ez da abantailarik ikusten intentzioz bideratutako arima-tratamenduan.

Gaixoaren nahimena eta oharrena gidatzen saia daiteke, bai, sendagilea, eta zenbait gaixotasun-egoeratan badu horretarako nahikoa arrazoi ere. Adibidez, elbarriturik dagoela uste duena itxuraz egin ezin ditzakeen mugimenduak egitera behartzen duenean, edo ziurtasun osoz ez duen gaixotasun bategatik errekonozimendu bat eskatzen dion beldurtiari errekonozimendu hori egitera ukatzen zaionean, bide zuzena aukeratu du sendagileak; horrelako aukerak ugariak ez badira ere, horrek ez damaigu arima-tratamendua oso sendabide berezitzat jotzeko eskubiderik. Oso bestela, bere erien arima-bizitzan aldi laburrerakoa izan daitekeen eragin sakon bat izateko eta horretaz sendakuntzarako baliatzeko aukerabideak eskaintzen zaizkio sendagileari oso bide berezi eta aurrikusezinezkotik.

Loarenarekin duen antz handiagatik hipnosi izena eman zaion arima-egoera oso berezira aldarazi daitekeela gizakia oso eragin lasaien bitartekotasunez, aspalditik ezaguna izan den zerbait da, horretaz oraindik zirauten zalantzak azkenaldi honetan bakarrik gainditu ahal izan badira ere. Hipnosi-egoera eragiteko jardunbideek ez dute elkarrekiko antzekotasun handiegirik lehen begirada batean. Objektu distiratsu bat begien aurrean minutu batzuez geldirik edukiz hipnotiza daiteke, edo poltsiku-ordulari bat saio-pertsonaren belarriaren ondoan denbora berdinez edukiz, edo bere soinadarrak eta aurpegia hipnotizatzailearen zabalduko eskumasailaz, distantzia txikira, behin eta birritan igurtziz. Egoera berdina eragin dakioke hipnotizatua izan nahi duen pertsonari, hipnosi-egoeraren berehalakotasuna eta bere ezaugarriak ziurtasun lasaiez adierazten bazaizkio, hau da, hipnosirako «konbentzitzen» bada. Bi jardunbideak elkartu ere elkar daitezke. Saio-pertsonari eser dadila eskatu ondoren, behatz bat jartzen zaio begien aurrean eta aditasunez begira diezaiola eskatzen, honelatsu hitz egiten zaion bitartean: «nekaturik sentitzen zara. Begiak ixtera doazkizu, nahita ere ezin eduki ditzakezu irekita. Pisu handia dute zure soinadarrek, nahita ere ezin mugi ditzakezu. Lo hartzera zoaz», e.a. Ikus daitekeenez, arreta lotzen da jardunbide hauen guztien bitartez; zentzu-eragin ahul eta erregularren bitartez adikortasuna nekarazten da, lehenik, aipatutakoetan. Konbentzitze hutsak beste jardunbideek lortzen duten egoera berdina nola lortzen duen

oraindik argitu gabe dagoen arazoa da. Esperientzi handiko hipnotizatzaileek diotenez, %80tan lortzen da aldakuntza hipnotiko garbia. Zein pertsona den hipnotizagarri eta zein ez auresatea ahalbidetzen duen berezitasunik ez da ezagutzen oraindik. Eritasun-egoera bat ez da hipnosirako baldintza; pertsona arruntek, berriz, oso hipnotizagarriak izan behar dute, eta pertsona urduriek eta talde handi batek oso hipnotizagaitzak; zoratuak, aldiz, hipnotizaezinak. Oso maila ezberdinak ditu hipnosi-egoerak; mailarik ahulenean logura pixka bat duten kasuen antzeko egoera sumatu ohi du hipnotizatuak; mailarik larrienari eta adierazpide harrigarriez ezagutzen dugunari sonanbulismoa izena eman ohi diogu, naturazko lo-ibilerarekin duen antzekotasunagatik. Hipnosi-egoerak ez du, ordea, zerikusirik gaueko loarenarekin edo lokartze-botikaz eragindakoaarenarekin. Hainbat eta hainbat aldakuntza agertzen da bere bitartean, eta lo-egoera arruntean zehar falta ohi diren gogamen-jarduerek eraginkor izaten jarraitzen dute kasu honetan.

Hipnosi-egoera bitartean giharren ekintzakortasunean agertzen diren bezalako aldakuntzek interes zientifikoa baino ez dute. Hipnotizatuak hipnotizatzailearekiko hartzen duen jokamoldea da hipnosiaren ezaugarri garrantzizkoena eta guretzat esanguratsuena. Hipnotizatuak, bere ingurunearekiko harremanetan, lokartu batek bezala jokatzeko duen bitartean, hau da, bere zentzumen guztien jardura desagertu den bitartean, esnatuaren harreman-motak ditu bera hipnotizatu duen pertsonarekin: bera bakarrik ikusten du eta berari bakarrik entzuten dio, ulertu ere berari bakarrik ulertzen dio eta berari bakarrik erantzuten. Hipnosiaren munduan rapport izenez ezagutzen den gertakari honek hainbat pertsonen lo egiteko duten eran aurkitzen du bere aurkako osagaia, bere haurrari elikagaia ematen ari zaion amaren kasuan, adibidez. Hain nabarmena denez, hipnotizatuaren eta hipnotizatzailearen arteko harremanak ulertzen lagundu beharko liguke gertakari horrek.

Hipnotizatuaren mundua hipnotizatzailearekiko harremanetara mugatzen delakoa ez da, ordea, gertakari bakarra. Hura erabat honen esaneko bilakatzen dela gehitu behar da, hau da, esaneko eta sineskor, eta hipnosi-egoera sakonean inolako salbuespenik gabeko esaneko eta sineskor gainera. Esanekotasun eta sineskortasun hau gauzatzerakoan agertzen da hipnosi-egoeraren ezaugarri nagusia: modu nabarmenean gehitzen dela hipnotizatuarengan arima-bizitzak gorputzarekiko duen eragina. Hipnotizatzaileak esaten badio: «ezin mugi dezakezu besoa», besoa behera erortzen zaio mugituezinezko bihurtu izan balitzaio bezala; antza denez, hipnotizatzaileak indar guztiak mugatzen dizkio eta mugituezina sortarazten dio. Hipnotizatzaileak zera badio: «besoa berez mugitzen zaizu, eta ezin eduki dezakezu geldia», besoa mugitu egiten zaio eta hipnotizatu bere besoa geldia edukitzeko saio larriak egiten ahalegintzen dela suma daiteke. Hipnotizatzaileak bere hitzen bidez hipnotizatuari eragin dion irudikapenak gauzarazi dizkio, hain zuzen ere, hitzen esanahiari dagozkion arima-gorputzeko jokabideak. Alde batetik horretantxe datza esaneko izatea, eta bestetik ideiak gorputzean duen eraginaren gehikuntza. Azti bilakatu da berriro ere hitza, benetan, hemen.

Gauza bera gertatzen da zentzuen hautemate-esparruan ere. Honelatsu dio hipnotizatzaileak: «suge bat dakusazu, larrosa bat usaintzen duzu, musikarik ederrena entzuten ari zara», eta eskainitako irudipen horiek eskatzen dutenaren arabera ikusten, usaintzen eta entzuten du hipnotizatuak. Nondik dakigu, ordea, hipnotizatuak benetan hautemate horiek izan dituela? Bere irudikapen huts izan direla, pentsa daiteke; baina egon, ez dago inolako arrazoirik hori zalantzan jartzeko; ze jokatu benetan horrela sumatuko balu bezala jokatzeko du, egoera horiei dagozkien afektuak adierazten ditu, eta zenbaitetan izandako hautemateen eta bizitzapenen berri ere ematen du hipnosi-egoeraren ondoren. Orduan antzeman daitekeenez, ametsetan ikusi eta entzun ohi dugun moduan ikusi eta entzun du berak, hau da, haluzinatzen jardun du. Hain da

hipnotizatzailearekiko sineskor, ze komentziturik baitago suge bat ikusi beharra dagoela hipnotizatzaileak hori dionean, eta konbentzimendu horren eragina gorputzean hain da handia, ze sugea ikusi ere benetan ikusten baitu, hipnotizatu gabeko zenbait pertsonetan zenbaitetan gertatu izan den bezalaxe.

Zeharbidez azpimarratuz, hipnotizatuak hipnotizatzailearekiko agertzen duen sineskortasun hori haurrengan bere guraso maiteekiko harreman-egoeretan bakarrik agertu ohi da hipnositik kanpoko bizitza errealean, eta norberaren arima-bizitza beste pertsona batenarenaren menpe modu horretan ezartzeko jarrerak badu beste pareko adibide bakar bat zenbait maitasun-erlaziotako erabateko eskaintzan. Nagusiki maitasunaren ezaugarri bat da esanekotasun sineskorren eta norberaren balorapenaren elkarketa hori.

Badago oraindik hipnosi-egoeraz beste zerbait esan beharrekorik. Adierazitako ondorio magikoak dituzten hipnotizatzailearen hizketaldiei sugestio izena eman ohi zaie, eta antzeko emaitzak lortzeko asmo hutsa dagoenetako egoerari ere izen berdinez deitzeko ohitura hartu da. Mugimenduak eta hautemateak bezalaxe jarraitzen diote sugestioari hipnotizatuaren beste arima-jardunek ere, baita berak berez ezer egin nahi ez duenean ere. Arima-jardunbideetan ikuspegi sakon bat ahalbideratzen duten eta behatzaileari arimak gorputzean duen pentsa ahal ezinezko eraginaz erabateko komentzimendua eskaintzen dien saio oso nabarmenatarako erabil daiteke hipnotizatuaren esanekotasuna. Hipnotizatuak han ez dagoena ikustera behartu daitekeen modu berean galerazi dakioke han dagoen eta bere zentzumenak eragiten dituen zerbait ikustea —pertsona bat, adibidez— (haluzinazio ezkorra esaten zaiona, alegia), eta pertsona horri ezinezko gertatzen zaio orduan hipnotizatuarentzat edonolako eraginez han dagoela sumaraztea; haizea balitz bezala tratatzen du hipnotizatuak. Beste modu honetako sugestioa ere sumaraz dakioke hipnotizatuari, hipnosi-egoeratik esnatu eta handik denbora batera ekintza zehatz bat bideratu behar duenarena (hipnosi ondorengo sugestioa); denbora hori pasatzen uzten du hipnotizatuak eta, esna egonik ere, sugestionatutako ekintza hura gauzatzen du, horretarako inolako arrazoirik emateko gauza ez bada ere. Eta orduna zergatik jokatu duen horrela galdetzen bazaio, gaindi ezin zezakeen indar ilun batek bultzatzen zuela horretara dio, edo erdi-arrazoizko izan daitekeen aitzakia bat aurkitzen du, benetako arrazoiak —sumarazi zaion sugestioaz— jabetzeko gauza ez delarik.

Ez dago inolako nekerik hipnosi-egoeratik esnatzeko hipnotizatzailearen aginduari jarraituz: «esna zaitez!» Hipnosi-egoera sakonean hipnotizatzailearen eraginpean bizi izandakoaren edozein oroitzapen falta ohi izaten da. Arima-bizitzaren zati honek beste guztitik bereizirik irauten du. Badira amets-oroitzapenak gorde ohi dituzten hipnotizatuak, badira era berean gertatutako guztiaz gogoratzen direnak ere, baina aurka egin ezin zioten arima-indar baten menpean aurkitzen zirela diote aldi berean.

Hipnosi-egoeratako gertakarien ezagutzak sendagileei eta arima-ikertzaileei eskuratu dien aurrerapen zientifikoa baloratzea oso nekeza da oraindik. Baina ezagutza berrien esanguratasun praktikoa azpimarratzeko hipnotizatzailearen tokian sendagilea eta hipnotizatuarenean pertsona eria jartzea besterik ez da behar. Ez ote die, bada, erantzuten hipnosiak pertsona eriaren aurrean «arima sendatzaile» moduan agertu nahi duen sendagilearen behar guztiei? Hipnotizatuaren arima-interes guztiak beregan biltzen dituelarik, apaiz batek edo mirarigile batek inoiz izan ez duen autoritatea damaio hipnosiak sendagileari; arima-bizitzaren arbitrariotasuna deusezten du hipnosiak gaixoarengan, gorputzarekiko arima-eraginen adierazpiderako humorezko oztopoa antzematen dugunean; bestela afektu-eragin indartsuen ondorioz bakarrik suma daitekeen arimaren gorputzarekiko

nagusigoa handiagotzen du berez hipnosi-egoerak eta honako beste aukera hau sortzen: gaixoari egoera horretan agindutakoa gero egoera arruntean agertzerakoan (hipnosi ondorengo sugestioa) sendagileak bere esku dauzka hipnosi bitartean gaixoarekiko duen agintetzaz gero egoera arruntean hura sendatzeko baliatu ahal izateko beharko lituzkeen bitarteko guztiak. Arima-tratamenduaren bitartekaritzazko sendabidearen froga simple bat baino ez da hori guztia. Hipnosi-egoeran jarrazten du sendagileak gaixoa, egoera bakoitzari dagokion sugestioa sortarazten dio, hau da, ez dagoela gaixotuta eta esnatzen denean ez duela sumatuko bere ondoezaren inolako aztarnarik; esnarazten du eta sugestioak gaixotasunaren aurkako bere eginbeharra gauzatu duela ere suposa daiteke. Saio bakar bat nahikoa ez balitz, nahi den hainbatetan errepika daiteke jardunbide bera.

Zalantza bakar bat dela eta gera daitezke sendagilea eta eria sendabide emankor honetaz baliatu gabe. Zera gertatuko balitz, alegia, hipnosi-egoerak sortaraz dezakeen onura beste nolabaiteko kalte batez okertzeko arriskua legokeela, hipnotizatuaren arima-bizitzan kalte edo ahuldura iraunkor bat utziko lukeela, esate baterako. Dena dela, orain artean egindako saioek argi eta garbi uzten dute, ordea, ez dagolea horrelatsuko zalantzetarako arrazoirik; hipnosi aldi bakar batek ez du inolako kalterik eragiten, ezta maizago errepikatutako hipnosi-saioek ere. Hala eta guztiz ere, honako hau azpimarratu beharra dago: egoerak hala eskatuta hipnosiaren jarraipenezko erabilera bat beharrezko denean, hipnosiarekiko ohitura moldatzen da eta horrekin batera sendagile hipnotizatzailearekiko menpekotasuna; baina sendabide honen asmoetan inolaz ere ez dagoen gertakari bat dela hori esan behar da era berean.

Sendagilearen ahalmen-esparruaren benetako hedapen bat suposatzen du horrela hipnosi-tratamenduak, eta aldi berean sendabiderako aurrerapauso handi bat. Sendabide honetan konfidantza jartzeko aholkua eman dakioke edozein gaixori, baldin eta konfidantza osoko sendagile iaio batek bideratuko badu guztia. Baina gaur duen ez bezalako modu batean erabili beharko litzateke hipnosia. Beste baliabide guztiek porrot egin dutenean, gaixoak bere itxaropenak galdu dituenean eta ilusio gehiagorik ez duenean ekin ohi zaio ohituraz tratamendu-modu honi. Hipnotizatu ezin duen edo sendabide horretaz baliatu ohi ez den bere sendagilea utzi, eta hipnotizatu baino egiten ez duen edo besterik ezin duen sendagilearengana jo ohi du orduan gaixoak. Biak dira bide desagokiak gaixoarentzat. Hipnosi-sendabideaz baliatzen dakiena izan beharko luke etxeko sendagileak, eta kasuak eta gaixoak horretarako egokiak balira, hasiera beretik baliatu beharko litzateke bide horretaz. Erabilgarria den horretantxe baliatu beharko litzateke hipnosiaz, beste sendabideen maila berean egon beharko luke, eta ez luke izan behar, inolaz ere, azken ihespide bat edo jakintzazkotasunetik sendakerietarako beherakako urrats bat. Baina ez bakarrik urduritasun egoeratarako edo «irudipenez» sortarazitako ondoezetarako edo ohitura kaltegarrien (alkoholzalekeria, morfinomania, sexu-nahasmena) desohituraketarako da gomendagarria hipnosi-sendabidea, baita soin-gaixotasunetarako eta gaiztotzen direnetarako ere, baldin eta oinarritzko eritasunak irauten duen bitartean bere ezaugarri mingarriak (oinazeak, mugiezintasunak e.a.) saihesteko itxaropena badago behintzat. Hipnosi-sendabidea erabiltzeko zein kasu den egokia erabakitzea nagusiki sendagileari dagokion eginkizuna da.

Ordua da, ordea, hipnosiaren baliabidearekin sendagilearentzat mirarikerietarako denbora lasaia etorri delakoaren ustea deuseztatzeko. Beste baldintza ugari hartu behar da kontutan eta horiek hipnosi-sendabidearekiko gure itxaropenak nabarmenki mugatuko dituzte eta gaixoarengan piztutako itxaropenak dagozkien neurritara bilduko. Ezin manten daiteke honako oinarritzko uste hau, hipnosiaren bitartez gaixoei

beren arima-bizitzan duten arbitrarietate ondoezgilea kenduko zaienarena. Beraiek autodefendatzen dira eta hipnotizatuak izatekoaren aurkako jarreraz erakusten dute hori hasiera beretik. Lehenago pertsonetatik %80 hipnotizagarriak direla esan bada ere, kopuru hori honako modu honetan kalkulatu dela esan behar da orain, nolabaiteko hipnosi-eragina adierazi duten pertsona guztiak hipnotizagarritzat hartuz, alegia. Erabateko moldakortasuna lortzen duten benetako hipnosi-kasuak, deskribapenak egiterakoan eredutzat hartu nahi izaten diren horietakoak, gutxi izan ohi dira, sendakuntzaren interesetarako nahi liratekeenak baino nahikoa gutxiago behintzat. Errealitate horrek sortzen duen ikuspegia zertxobait arindu daiteke, hala ere, beste hau azpimarratzen bada, hipnosiaren sakontasuna eta sugestioarekiko moldakortasuna ez doazela beti parean, eta horrela hipnosi arineko zenbait kasutan sugestioaren eragin ona suma daitekeela. Baita hipnosi-moldakortasuna bera hartzen bada egoeraren ezaugarri nagusitzat ere, honako beste hau ere esan behar da, gizaki bakoitzak bere izakera berezia beste era honetan adierazten duela, moldakortasunaren maila bateraino bakarrik utziz eragingarri izaten eta maila horretantxe alto eginaz. Hipnosi-sendabidearen erabilgarritasunean, beraz, oso maila ezberdinetako pertsonak aurki daitezke. Hipnosi egoeraren maila ezberdin horiek guztiak erabateko hipnosi-egoerara moldatzeko moduak aurkituko balira, gaixoaren bakoitzasun berezia gaintitu ahal izango litzateke horrela eta arima-tratamendurako ideala lorturik legoke. Aurrerapen urrats hori ez da lortu oraindik, ordea; eta sendagilearen esku baino gehiago dago gaixoaren esku sugestioarekiko zein neurritako moldakortasun-maila utzi nahi den, hau da, gaixoaren nahimenaren menpe dago arazoa.

Badago garrantzi gehiagoko beste ikuspuntu bat. Hipnosi-egoerako sugestioaren emaitza benetan harrigarriak deskribatzen direnean, gogo onez ahaztu nahi izaten da, bestelako arima-eraginetan bezalaxe, neurri eta indar ezberdinen arteko erlazioak agertzen direla hemen ere. Osasun oneko gizaki bat hipnosi-egoera sakon batera ekartzen badugu eta udare moduan aurkeztu zaion patata jan dezala agintzen bazaio, edo berak agurtu behar duen ezagun bat ikusten duelakoaz komentitzen badugu, erabateko moldakortasuna suma ahal izango da, ze sugestioaren aurka jartzeko inolako arrazoi pisuzkorik ez baitu hipnotizatuak horrelakoetan. Baina bestelako eginkizunetan, adibidez, bestela lotsati den neskaxa bati bere jantziak kentzeko, edo gizon zuzen bati balio handiko objektu bat lapurtu dezala eskatzen bazaie, sugestioari bere esanekotasuna erabat ukatzeraino iritsi daitekeen aurkako erresistentzia sumatu ahal izango da hipnotizatueta. Guzti honetatik ikas daitekeenez, hipnosi-kasurik onenean ere sugestioak ez du mugagabeko indarrik; maila mugatu bateko agintetza lor daiteke onenean ere. Sakrifizio txikiak egiteko prest dago hipnotizatu, eta handietan atzera egiten du esna dagoenetan bezalaxe. Baina gaixo baten kasua bada, eta sugestio bidez gaitzari uko egin diezaiola eskatzen bazaio, hori beretzat sakrifizio handi bat dela, eta ez ttikia, ikus ahal izango da. Gaitzaren sintomak sortarazi eta iraunarazten direneko indarrarekin ere neurtu ohi da sugestioaren eragina, baina esperientziak erakusten duenez, hipnosi-eragina baino indar handiagokoak dira haiek. Sortarazten zaizkion amets-egoeretan —ez, ordea, lotsagarrietan— erabateko moldakortasunez jokatzeko duen gaixo berak sugestioaren aurkako erabateko jarreraz erantzun dezake berak irudikatutako perlesia ukatzen zaionean. Honetaz gain pertsona urduriak hipnotizazailak gerta ohi dira gehienetan praxian, eta ondorioz ezin konta daiteke hipnosi-eraginaren erabatekotasunarekin, horren zati batekin baino, gaixoturik dagoen arima-bizitzako indarren aurka borrokatzerakoan.

Nahiz eta hipnosia eta hipnosi sakon bat bideratu, horrek ez du sugestioa lortuko denik ziurtatzen. Borroka baten aurrean jartzen gaitu sugestioak, emaitza aldeztu aurretik

ezagutzen ez dugularik. Arimatikako ondoez larrietan, arrazoi honegatik, ez da nahikoa izaten hipnosi-saio batekin. Saioak errepikatuz, ordea, mirari-zentzua galtzen da, gaixoaren usteon guztiaren oinarri zen zentzu hura, alegia. Honako helburu honekin saiatu beharko orduan, gaitzarekiko hasierako eragin gutxi hura nabarmenki gehitzen joan dadila hipnosi-saioak errepikatu ahala, erabateko emaitzak lortu bitartean. Modu honetako hipnosi-tratamendua oso luzea eta neketsua gerta daiteke horrela, beste edozein tratamendu baino luzeagoa eta neketsuagoa sarritan.

Sugestioaren bitartez ondoezaren sintomak desagertarazi ohi dira, bai, baina epe laburrerako gertatu ohi da hori zenbaitetan, eta gertakari horrek erakusten du burukatu behar duen gaitzarekiko sugestioak duen beste ahultasunetako bat. Epe hori iragan orduko gaitzaren oinazeak agertzen dira berriro eta hipnosi-saio berrien bitartezko sugestioz deuseztatu beharko berriz. Saio hauek maiz errepikatzen badira, gaixoaren pazientzia amaitzen da eta baita sendagilearena ere, eta azkenik hipnosi tratamenduari uko egiten zaio. Honelatsuko kasuak dira gaixoaren sendagilearekiko menpekotasuna eta hala-holatsuko hipnosi-zalekeria eragiten dutenak.

Hipnosi-sendabidearen mugak eta bere erabilerak sor ditzaketen desengainuak begibistan eduki beharko lituzke gaixoak. Egiazkoa da sugestio hipnotikoaren senda-indarra, eta ez du gehiegizko goraipamenen beharrik. Ulergarria ere bada, bestalde, arima-tratamendu hipnotikoak zezakeena baino gehiagoren itxaropena zuten hainbat eta hainbat sendagile gaixoaren ariman eragin sakonagoa edo ez hain arriskugarria duten bestelako jardunbide berri batzuen bila badabiltza egon ezinean. Sendabide zaharren berrindartze gazte bat den arima-tratamendu moderno kontzienteki erabiliak gaixotasunaren aurka burrukatzeko baliabide indartsuagoak jarriko dituela sendagilearen eskuetan, gaur geroz zalantzan jarri ezin daitekeen zerbait da. Bere hastapenak hipnosi-esperientzian oinarritzen dituen arima-bizitzako gertakarien ikuspegi sakonago bat horretarako baliabide eta bide baino ez da.

Psikoterapiaz

Jaun-andreok! Zortzi urte joan dira, gutxi gora-behera, zuen lehendakari zen von Reder irakasle gogoratuaren eskabidez, zuen elkarte honetan histeriaz hitz egin ahal izan nuenetik. Urte gutxi batzuk lehenago (1895) «Histeriari buruzko azterlanak» izeneko idazkia argitaratu nuen Josef Breuer doktorearekin batera eta, aldi berean, ikerlari honi zor dizkiogun ezagutza berrietan oinarrituz, neurosiaren tratamendu berri bat proposatzeko saioari ekin nion. Zorionez, horrelaxe esan dezaket gaur, gure «azterketetako» ahaleginak arrakastatsuak izan dira; azterlan horietan afektuak saihestuz amets psikikoei eta histeria-sintomak arimatik soinera transferitutako eragin moduan ulertzeko ikuspegiari buruzko ideiak, guk «deskarga» eta «konbertsio» izenez bataiatu genituen haietxek, onartuak eta ezagunak dira gaur egun orokorki. Lurralde alemaniarretan behintzat ez da aurkitzen ideia horiek, neurri batean bederen, kontutan hartzen ez dituen histeriazko aurkezpenik, ezta irakaspide horietaz nolabaitean baliatzen ez den lankiderik ere. Baina esaldi eta izen horiek nahikoa kutsu alienatzailea izan zezaketen berri ziren bitartean.

Ezin esan dezakete, ordea, gauza berdina irakaspide haiekin batera gure lankideei proposatu genien terapia-bideaz. Bere onarpenerako burruka gogorra dago oraindik. Arrazoi ezberdinak aipa daitezke horretarako. Osatu gabea zegoen garai haietan oraindik jardunbidearen teknika; era horretako tratamenduaz erabatekotasunez baliatzeko gaituko zuen orientabiderik ez nion eskaini nahi izan liburuaren irakurle-sendagileari. Arrazoi orokorrakoak ere egonen dira noski. Mistizismo modernoaren emaitza moduan agertzen zaio, gaur oraindik, sendagile ugariri psikoterapia, eta beren erabilera ikuspegi fisiologikoetan oinarriturik duten sendagai fisiko-kimikoekin alderatuz gero, zientziaren aurkakoa eta natur ikerlari baten interesekin bat ez datorrena gainera. Utz iezadazue psikoterapiaren gaia aurkezten eta iritzi horietan okerra dena edo bidezkoa ez dena azpimarratzen.

Zilegi bekit hemen zuei ohar bat egitea, hau da, psikoterapia ez da sendabide modernoa. Oso bestela, sendakuntzan erabili izan den sendabiderik zaharrena da. Löwenfelden lan irakats-aberatsetan (Psikoterapia osoaren irakasliburua) irakur dezakezue zeintzuk izan ziren antzinateko sendakuntza zaharreko sendabideak. Psikoterapiaren esparruan kokatu ahal izanen dituzue gehientsuenak; sendatzeko helburuz «itxaropen sineskorren» egoeran jarrarazten zen gaixoa, eta izena bera ere hortxetik hartzen dugu gaur egun. Sendagileek bestelako sendabideak aurkitu ondoren ere, ez dira inoiz desagertu modu bateko edo besteko joera psikoterapeutikoak medikuntzan.

Bigarren ohar bat ere egin nahi dizuet orain: honako arrazoi honetxegatik ezin utz dezakegu alde batera psikoterapia sendagileok: sendatze-prozesuan oso kontutan hartzekoa den beste partaideak —gaixoak— horrelakorik nahi ez duelako, hain zuzen ere. Ondotxo dakizue honetaz zenbat argibide zor dizkiogun Nancyko Eskolari (Liébauld, Bernheim). Horretarako asmorik ez dugularik ere, gaixoaren jarrera psikikoari baldintzapeturik dagoen faktore bat agertzen da, sendagileak hasitako sendabidearen eraginkortasuna, maizenik modu baikorrean baina zenbaitetan baita oztopatuz ere, baldintzatzen duena. Gertakari hau adierazteko «sugestio» izena erabiltzen ikasi dugu, eta Moebiusen irakatsi digunez, une indartsu honen eragin oztopogarriari zor zaio hainbeste kexu sortarazten digun gure hainbat sendabideren ziurtasuneza. Guk sendagileok, zuek guztiok, etenik gabe baliatzen gara psikoterapiaz, baita zuek jakin gabe eta horretarako inongo asmorik eduki gabe ere; ondorio oker

bakar bat du horrek, erabat gaixoaren esku uzten duzuela faktore psikikoa zuen gaixoarekiko eraginean. Eta horrela kontrolaezina gertatzen da hori, dosifikaezina, gehikuntzarako ezgaia. Ez ote da, bada, sendagilearen nahi zuzena faktore hori kontrolpean hartzea, horretaz helburu batez baliatzea, bera norabideratzea eta indartzea? Horixe baino ez da psikoterapia zientifikoak zuei eskaintzen dizuen.

Hirugarrenez, jaun-andre lankideok, zera dioen beste esperientzia zahar hura gogoratu nahi dizuet, hainbat gaixotasun, eta bereziki psikoneurosiak, beste edozein sendagaiz baino errezago berbidera daitekeela arima-eraginez. Ez da esaera moderno bat, gaixotasun horiek ez dituela sendagaiak sendatzen sendagileak berak baino, esan nahi da, sendagilearen nortasunak bideratzen duen eragin psikikoa dela sendakuntza bideratzen duena. Badakit, jaun-andre lankideak, oso gogoko zaizuela Vischer estetikazaleak Faustoren bere parodian (Fausto, Tragedia, III. atala) eskaini zuen ikuspegia, zera esanaz:

«Nik badakit fisikak, oso maiz,
moralaren arloan bere eragina duela».

Baina ez ote litzateke egokiagoa eta maizago gertatzen dena, gizaki baten moral-arloan baliabide moralen, hau da, psikikoen bitartez bidera daitekeela eragina?

Psikoterapia-bide eta -modu ugari dago. Onak dira denak, sendakuntzaren helburura daramatenak guztiak. Gure ohiko animoetan, «berriro sendatuko zara!» esanaz gaixoarengana hain eskuzabal inguratzen garenean, psikoterapiaren jardunbide bati dagokionez jokatzeko dugu; baina animoetara mugatuz, ez gara sartzen, ez behar hainbat behintzat, neurosiaren izakeraren mundu sakonean. Afektu baliagarriak saihestuz, bideratuz eta praktikatzeko garatu dugu guk hipnosi-sugestioaren, psikoterapiaren teknika. Ez dut horietako biderik baztertzen eta baldintza egokietan guztietan baliatuko nintzateke. Errealitatean sendabideetako batera mugatu izan banaiz, Breuerrek «katarsi-sendabidea» izendatu zuen hartara eta nik «analisi-sendabidea» izendatuko nukeenera, arrazoi subjektibo hutsak izan dira horretara eraman nautenak. Terapia horren moldaketan izan dudana esku hartzeagatik bera ikertzerak eta bere teknika garatzera beharturik sentitzen naiz pertsonalki. Baiezta ere baiezta dezaket, psikoterapiaren jardunbide analitikoa dela sakonenean eragiten duena, emankorra dena, gaixoetan aldakuntza handienak gauzarazten dituen. Ikuspegi terapeutikoa une batez uzten badut, zera ere baiezta dezaket, bera dela interesgarriena, eta berak bakarrik erakutsi diezagukeela zerbait sintomen sorreraz eta hauen arteko loturaz. Berak eskaintzen digun arima-gaixotasunen mekanismoei dagokien ikuspegia dela eta, gaindi ditzake bere mugak eta beste sendabide terapeutikoetarako aukerak ere erakutsi diezazkiguke.

Utz iezadazue psikoterapiaren jardunbide analitikoari edo katartikoari dagokionez hainbat oker zuzentzen eta beste hainbat argibide ematen.

a) Ikusi ohi dudanez, sugestio-tratamendu hipnotikoarekin nahastu ohi da askotan jardunbide hori, eta sumatu ere sumatzen dut nahiko maiztasunez bidaltzen dizkidatela gaixoak, gaixo errefraktarioak noski, bestela ni beren konfiantza-gizontzat hartzen ez nauten lankideek, hipnotiza ditzadala eskatuz. Badira zortzi urte helburu terapeutikoz hipnosiaz baliatu ez naizenetik (salbuespen gutxi batzuk alde batera utziz) eta gaixo horiek atzera bidali ohi ditut zera aholkatuz, hipnosian oinarritu nahi duenak berak bideratu behar duela hori. Sugestio-teknikaren eta analitikoaren artean dagoen aurkakotasuna izan daitekeen handiena da, Leonardo da Vincik artearen mundurako per via de porre eta per via de levare esamoldeaz adierazi zuen aurkakotasuna, alegia.

Margogintzak, Leonardok dionez, per via de porre jardun ohi du; margo-pilatxoak jarri ohi ditu lehenago ez zeuden tokietan, margorik gabeko mihisean; eskulturagintzak, alderantziz, per via de levare lan egin ohi du, harri-puskan gorderik dagoen eskultura estaltzen duen hainbat harri kenduz. Sugestio-teknika, jaun-andreok, per via de porre saiatu ohi da bere eragina bideratzen, ez da kezkatzen gaixotasun-sintomaren jatorriaz, indarraz eta esanahiaz; oso bestela, zerbait jartzen du gainean, sugestioa hain zuzen ere, eta sugestio-jarduerak ideia patogenikoa kanporatzen galerazteko hainbat indar izanen duela espero du. Terapia analitikoak, alderantziz, ez du ezer gehitu nahi, ez du ezer berririk erantsi nahi, kendu eta aldendu baino, eta helburu horrez gaixotasun-sintomen jatorriaren eta ideia patogenikoen artean dauden lotura psikikoak aurkitzen saiatzen da, horiek saihestea baita bere xedea. Gure ulerpenerako eskakizun oso esanguratsuak ekarri ditu horrela ikerkuntzaren bide honetatik. Sugestioak sendatze iraunkor baterako beharrezko den hainbat indar eta iraupen izan ote zezakeenaz neure zalantzak nituelako utzi nion nik hain goiz sugestio-teknikaz baliatzeari, eta honekin batera baita hipnosiari ere. Kasu zailetan erabilitako sugestioa behin eta birritan deuseztu egiten zela ikusi nuen, eta gaixotasun bera edo bere ordezkoko beste bat agertzen zela berriro. Horretaz gain beste hau ere esango nuke teknika horren aurka, indar psikikoen arteko erlazioen ikuspegia ezkututzen digula, esate baterako, gaixoak bere gaixotasunari nolako erresistentzia lotzen zaizkion, eta aldi berean sendatzearen aurka nola jartzen diren ezagutzea galeratzen digu; baina ulertarazi, gertakari horretxek bakarrik ulertaraziko liguke bizitzan beroriek hartzen duten jarrera.

b) Uste dudanez, honako uste oker hau nahikoa hedaturik dago lankideen artean, gaixotasunerako eraginaren ikerketarako teknikak eta teknika horien bitartezko sintomen saihestapena errazak eta berezkoak direla, alegia. Begira nondik moldatzen dudana nik neure iritzi hori, nire terapia-bideaz interesatu eta beren adostasunezko iritzia agertu didaten pertsona askorengandik, inortxok ere ez baitit galdetu benetan nola dihardudan. Arrazoi bakar bat egon daiteke horretarako, ez dagola zer galdeturik eta hori berez ulertzen dela pentsatzen dutela, inondik ere. Entzun ere harriduraz entzuten dut nik zenbaitetan, histeria-gaixo batekin «psikoanalisi» baliatzeko eginkizuna ematen diola ez dakit nongo gaixotegiko zuzendariak sendagile gazte bati. Erabateko ziurtasuna dut, ordea, ez litzaiokeela erauzitako tumore bat eskutan jarriko azter dezan, aurrez histologiaren teknikaz trebaturik dagoela ziurtasunik ez balego. Beste honelatsuko berririk ere iristen zait, tratamendu psikiko bat burutzeko asmoz elkarriketak bideratzen dituela gaixo batekin lankide honek edo hark, horrelako tratamendu baten teknika ez duela ezagutzen ziurtasun osoz esan dezakedan bitartean. Gaixoak bere ezkutupekoak adieraziko dizkiolakoaren itxaropenez egon beharko du, edo beste nolabaiteko informazioetan edo konfidentzietan bilatu beharko du sendabidea. Ez nintzateke harrituko, beraz, gaixo horri bide horretatik abantaila baino oker gehigo sortuko balitzaio. Arima-baliabideen erabilera ez da, inolaz ere, gauza erraza. Inoiz sendagile baten eskutan egon ez eta olerkari baten irudipenetan bakarrik bizi izan den neurotiko ospetsu baten eseratan pentsatu beharra sortzen zait niri horrelakoetan. Danimarkako Hamlet printzeaz ari natzaizue. Rosenkranz eta Guldenstern bi jauregitarrak bidali zizkion erregek jarrai eta bere desadostasunaren sekretua lapurtu ziezaioten. Aurre eman zien berak; txirulak ekar zituzten antzezlekura. Txiruletako bat hartu zuen Hamletek eta bere etsaietako bati eskaini zion jo zezan, gezurra esatea bezain erraza zela esanaz. Ezezkoa dio jauregitarrak, ez baitaki nota bakar bat jotzen, eta txirula jotzera ezin jarrarrazi daitekeenez, lehertzen da azkenik Hamlet: «Ikusten al duzue nitaz nolako gauza ezduina egiten ari zareten? Nirekin jolastu nahi duzue; nire bihotzeko sekreturaino sartu nahian zabiltzate; nire notarik sakonenetik nire ahotsaren

goi-irrintziraino aztertu nahi nauzue, eta honako instrumentu txiki honetan musika ugari dago doinu harrigarri batez, baina hala eta guztiz ere zuek ezin hitz eginarazi diezaiokezue. Burrukalariok, zer pentsatzen duzue, txirula jotzea baino errezagoa dela niri hitz eginaraztea? Har nazazue nahi duzuen instrumentutzat, desafina nintzakezue, baina ezin izango duzue ezer jo nigan» (III ekit, 2).

c) Nire oharrei dagokien ondorioari antzeman diozuelakoaz ez dut zalantzarik egiten, hau da, sendabide analitikoak dituen hainbat ezaugarri dela eta, terapia-bide ideala izatetik urrutitxo geratzen dela, alegia. Tuto, cito, iucunde; ikerkuntzak eta bilakuntzak ez dute berez emaitzen berehalakotasuna adierazten, eta erresistentzi jarrera aipatu izanak desgogozko gertakariak entzuteko prestatu zaituzte. Halaxe da, bai gaixoarentzat eta baita sendagilearentzat ere eskakizun handiak ditu tratamendu psikoanalitikoak; lehenik eta behin, erabateko leialtasuna eskatzen dio lehenari, denbora asko eskaini beharra, eta arrazoi horretxegatik garestia ere bada; sendagileari ere denbora ugari kentzen dio, eta, ikasi eta praktikatu behar duen teknika dela eta, nekagarria ere gertatzen zaio. Zuzentzat jotzen dut nik neuk, beraz, sendabide erabilgarriagoetara jotzea, baldin eta hauek nolabaiteko ondorio egokirik aurrikusten uzten badute. Puntu hauxe da hemen aztertu beharrekoa: teknika nekagarriago eta luzeago horien bitartez laburrago eta erabilgarriagoen bitartez baino askoz ondorio hobeak lortzen badira, zuzen jokatu litzateke lehen horietaz baliatuz. Pentsa bestela, jaun-andreok, garai bateko harraskatze- eta kauterizazio-teknikak baino zenbat ezerosoagoa eta garestiagoa den lupusaren terapia, eta hala eta guztiz ere aurrerapen bat suposatzen du azken honek, askozaz ondorio hobeak baititu, lupusak erabat sendatzen du eta. Ez dut konparaketa hori behartu nahi hemen, baina antzeko lehentasun bat ere badagokio sendabide psikoanalitikoari. Kasu zailetan eta zailenetan bakarrik baliatu eta saiatu ahal izan naiz nire jardunbide terepeutikoz; urte askotan zehar eritegieta egondako eta saio guztiak alferrikako gertatu izan zitzaizkien gaixok izan ziren nire lehen pazienteak. Kasu errazagoekin, noizbehinka agertzen diren eta maiz era askotako eraginpean edo berez ere sendatzen diren gaixotasunetan nire terapia-bideak nola eragiten duen zuei adierazi ahal izateko esperientzia gutxiegi dut oraindik. Bizitzeko eten gabe iraupen-arazoak dituzten erientzat sortutakoa da terapia psikoanalitikoa, eta horixe da bere garaipena ere, horietako asko eta asko bizitzeko gaitu dituela berriro. Horrelako emaitzetarako ahalegin guztia txikia geratzen da beti.

d) Nire jarduerarako aurkitu ditudan mugapen ugariak direla eta, ezin adieraz dezaket, erabatekotasunez behintzat, zeintzuk diren tratamendu honen erabilgarritasunak eta zeintzuk aurkakotasunak. Hala eta guztiz ere, zuekin tratatu nahi nituzke puntu batzuk hemen:

1) Gaixotasunaz aparte pertsonaren beste ezaugarri batzuk ere kontutan hartzen dira, eta nolabaiteko prestakuntza-maila bat eta izakera seguru bat ez duen gaixorik ez da terapia honetarako onartzen. Ezin ahaztuko da, gainera, badaudela ezertarako balio ez duten pertsona osasuntsuak ere, eta horrelako balio gutxiko pertsona horiek bizitzeko ezgauza egiten dituen gaixotasuna dela suposatu ohi da errazegi neurosi-aztarnarik txikiena sumatu orduko. Nire iritziazen arabera, neurosiak ez ditu *dégénére* bilakazten gaixotasun hori dutenak, baina maiz asko narriadura-ezaugarriekin elkarturik agertu ohi da gaitz hori horrelatsuko pertsonetan. Psikoterapia analitikoa ez da narriadura neuropatikoak tratatzeko jardunbide bat; oso bestela, hortxe aurkituko luke bere azkena. Era berean, ez da egokia bere ondorenak eraginik terapia beharrik sumatzen ez eta terapiara bere senitartekoek behartuta datozenentzat. Tratamendu psikoanalitikoaren

erabilgarritasuna bideratzen duen ezaugarria, hau da, hezikortasuna, beste ikuspegi batetik ere azpimarratu beharrean aurkituko gara oraindik geroxeago.

2) Ziurtasunez jokatu nahi baldin bada, egoera normalean aurkitzen diren pertsonak aukeratzera mugatu beharra dago, jardunbide psikoanalitikoan horietatik abiatuz prestatzen baita bat gaixoeikiko lanerako. Psikosiak, nahasmendu-egoerak eta malenkonia sakonak (toxikoak, esan nahi dut) ez dira egokiak psikoanalisiaz tratatzeko, psikoanalisia gaurdaino praktikatu ohi den bezala praktikatzen jarraitzen den bitartean behintzat. Dena dela, nire ustez posible izanen da, jardunbidean aldaketa egokiak bideratuz gero, mugapen horiek gainditu eta psikosiak ere bere sendagaitzat hartuko dituen psikoterapia bat gauzatzea.

3) Tratamendu psikoanalitikoaren erabakitzerakoan gaixoaren adinak ere bere garrantzia du, berrogeita hamar urte inguruko edo gehiagoko pertsonen arima-gertakarien moldakortasuna galtzen hasten baita, eta izan moldakortasun hori da terapiaren oinarrietako bat —adinekoak ez dira hezikorrak aurrerantzean—, eta horretaz gain landu beharreko gaiak tratamenduaren iraupena aurrikusiezinezko moduan luza lezake. Adinaren mugak, gazteagoen norabidean, kasu bakoitzean erabakitzekoak dira; nerabe-arora iritsi ez diren gaztetxoak oso eraginberak dira maiz.

4) Sintoma arriskugarriak azkar desagertarazi nahi direnean ere ezin jo daiteke psikoanalisiaz baliatzera, anorexia histeriko baten kasuan adibidez.

Nire aldetik aurkako aholkuak baino entzun ez dituzuenez, psikoterapia analitikoaren erabilgarritasuna oso mugatua delakoaren susmoa piztuko zen zuengan noski. Hala eta guztiz ere, terapia honen erabilgarritasuna aprobatzeko nahikoa gaixotasun-mota eta -kasu geratzen da hortik zehar, hala nola hondar-sintomak dituzten histeriaren era kroniko guztiak, obsesio-egoeren eta abulien esparru zabala, eta antzekoena.

Benetan pozgarria da, bide honetatik eskain dakiekeela, hain zuzen ere, laguntzarik azkarrena pertsona prestatuenei eta baliozkoenei. Baina psikoterapia analitikoaren bitartekotasunez gutxi lortu ahal izan den kasu haietan, harrotasunez esan daitekeenez, bestelako tratamenduek ez lukete ezertxo ere lortu izango.

e) Galdetu ere galdetu nahiko didazue noski, psikoanalisiaz baliatuz sor daitezkeen kalteez zer esan daitekeen. Erantzuna modu honetan emango dizuet: zuen epaian zuzen jokatu nahi baduzue, beste terapia-jardunbideekiko hartzen duzuen jarrera ireki bera hartu beharko zenukete gure jardunbide honekiko ere; eta orduan nire iritzi bereko izango zarete zera diodanean: zentzuz bideratutako sendabide analitikoak ez lioke berez inolako kalterik sortu beharko gaixoari. Agian beste iritzi batekoa litzateke zera esatera ohiturik dagoen ezjakina, gaixotasun kasu batean gertatzen den guztia sendabidearen errua dela dioena, alegia. Ez da aspaldiko kontua oraindik, gure balnearioei zegokionez ere aurriritzi berdina adierazten zela. Eta norbaiti horrelako senda-etxe batera joateko aholkua ematen bazitzaion, pentsakor jartzen zen, nerbio-arazoak zituela eta horrelako etxe batera joandako bere ezagun bat bertan zoratu egin zela eta. Antzemango zeniotenez, hastapenetan aurkitzen zen perlesi orokor baten kasua zen eta hastapenetan zegoelako balneario batean tratatu zitekeena, eta hor zegoen bitartean sendaezinezko bere bidea eroldiraino gauzatu zuena; ura izan zen aldaketa goibel horretarako arrazoia eta kausa ezjakinarentzat. Eraginbide aurkitu berrien kasua denean, horrelatsuko aurriritziak dituzten sendagileak ere topa daitezke han eta hemen. Oroitzen naizenez, bere bizitzaren zati bat malenkoniatik manietara iraganez eman zuen emakume baten kasuan psikoterapia-saio batzuk bideratu nituen. Malenkonia-aldi baten

azken aldera edo hartu nuen nik hura; bi astez edo ongi joan zen dena itxuraz; hirugarrenean, ordea, mania-aldi berri baten aurrean aurkitu ginen. Gaixotasun-egoeraren berezko aldaketa bat izan zen hura inondik inora, ze bi asteetako epea oso denbora laburra baita psikoterapia analitikoak inolako emaitzarik ager dezan oraindik; baina gaixoa nirekin batera ikusi zuen eta jadanik hilik den sendagile arrakastatsu hark ezin isilik gorde izan zuen bere iritzia, «okerbideratze» haretan psikoterapiak ere bere errua izan behar zuela, alegia. Konbentziturik nagoenez, beste baldintza batzuetan era kritikoagoan jokatu izango luke hark.

f) Eta azkenik, jaun-andre lankideok, nire buruari zera esan beharrean aurkitzen naiz, ezin egon nindekeela zuen arreta psikoterapia analitikoarentzat hainbeste denboraz eskatzen, eta aldi berean tratamendu hau zerez osatzen eta zertan oinarritzen den adierazi gabe. Laburtu beharraren beharrez, aipamen batzuk baino ezin egingo ditut orain. Honako irizpide honetan oinarritzen da terapia-bide hau, gaixotasun-sintomaren lehen kausa irudikapen inkontzienteak direla alegia, edo hobeto esanda, halako arima-prozesu zehatz batzuen inkontzientetasuna dela horren guztiaren benetazko kausa. Frantziar eskolarekin (Janet) batera konpartitzen dugu guk ere konbentzimentu hori, hau da, eta sinplifikazio desegokiz adierazirik, histeriaren sintoma idée fixe inkontzientearen ondorio dela dioen eskolarekin batera, beraz. Ez ezazue beldurrik izan, ordea, gu horrela filosofiarik ilunenean murgilduko garenik. Gure inkontzienteak ez baitu zerikusirik filosofilarienarekin, eta horretz gain, «inkontziente psikikoaz» ez baitute ezer jakin nahi filosofialari gehienek. Zatozte gure ikuspuntura, eta ikusi ahal izanen duzue, inkontziente hau kontziente bilakarazi behar da gaixoaren arima-bizitzan, normaltasunetik desbideratzea zuzendu eta bere arima-bizitza dagoen menpekotasunetik askatu ahal izateko. Borondate kontzientea ba baita, berez, gertakari psikiko kontzienteak hainbat, eta edozelako presio psikikoren oinarria inkontzientea baita beti. Eta ez duzue beldurrik izan behar, inkontzientea kontzientera pasarazteak berez dakarren astindualdiak gaixoari inolako kalterik ekarriko dionik, ze teorikoki arrazoitu dezakezue, kontziente bilakarazitako eraginaren ondorio psikosomatikoak ez baitira inkontzientearenak bezain handiak izango inoiz. Kontzientearekin elkarloturiko gure arima-emaitza gorenenez baliatuz bakarrik har ditzakegu geure gidaritzapean guk geuk geure eraginak.

Beste ikuspegi bat ere har dezakezue, hala nahi izanez gero, tratamendu psikoanalitikoaren ulerkuntzarako. Gaixoren baten aldetikako erresistentzia iraunkor baten baldintzapean gauzatzen da inkontzientearen argikuntza eta itzulpena. Nahigabetasunarekin loturik doa inkontziente horren agerpena, eta nahigabetasun horretxegatik hori atzeratzen saiatuko da beti gaixoa. Gaixoaren arima-bizitzako gatazka horretan esku hartu behar duzu zuk orain; eta gaixoak lehenago nahigabetasunaren erregulapen automatikoaren eraginez onartzen ez zuena (erreprimitzen zuena) orain beste nolabaiteko ikuspegi hobeago baten bitartez onar dezala lortzen baduzu, gaixoarekin heziketa lan-puska bat ere zertu duzula, esan behar. Heziketa-lana baita goizean goiz ohea gogo onez utzi ezin duen bat hori egitera komentziaraztea. Tratamendu psikoanalitikoa, orokorki, barneko erresistentziak gainditzeko horrelatsuko berreziketa baten moduan uler dezakezue orain. Eta nerbiosoen kasuan beste ezertan baino beharrezkoagoa da bere sexu-bizitzako arima-osagaietan horrelatsuko berreziketa bat. Beste edozertan baino kalte handiagoak sortarazi baitituzte kulturak eta heziketak arlo horretan, eta esperientziak erakutsiko dizue, hortxe aurkitu behar dira neurosietarako etiologia gidagarriak; beste osagai etiologikoa, konstituziozko ekarpena, zerbait aldagaitz bezala zaigu emana. Sendagileari zuzenduriko eskabide garrantzitsu bat sortzen da horretatik. Ez du zergatik izakera moral osokoa izan beharrik — «moralitasuna berez berezkoetik ulertzen da», Th. Vichers'en Auch Einer'eko pertsonaia

nagusiak dioenez—, baina beste askok sexu-arazoak tratatzerakoan agertu ohi duten zalekeriaren eta belaskeriaren arteko nahasketa gainditurik izan beharko lituzke bere nortasunean.

Beste ohar baterako aukera sortzen zait orain hemen. Badakit psikoneurosien sorrerarako nik hemen azpimarratu dudan sexualitatearen garrantzia ezaguna bilakatu dela giro ugarian. Era berean dakidan bezala, mugapen eta zehaztapen handiagoek laguntza gutxi eskaintzen diotela publiko zabalari; bere oroimenean toki gutxiegi du ohar gehiegirentzat eta nire baieztapenetik esanahi orokorra baino ez du jasotzen, erraztasunez gorde dezakeen hura baino ez, alegia. Eta horrelako zerbait gertatu ohi zaio, antza denez, hainbat sendagileri ere, ze nire irakaspenetatik honako ideia ilun hau baino ez zaie geratzen, neurosien sorkuntza sexugabetasunari atxikitzen diodala nik edo. Eta ez da horrelakorik falta gure gizartearen bizitza-baldintzetan. Norbaitentzat argi geratuko litzateke, nonbait, tratamendu psikikoaren bide nekagarria alde batera utziz sendakuntzara bideratu beharko litzatekeela zuzen-zuzenean ahalegina, hau da, sendabide bezala sexu-aktibitatea aholkatzera! Ondorio hori zuzena balitz, ez nekike zerk ote naraman ni hori ez onartzera. Sexu-beharra eta sexugabetasuna neurosiaren mekanismoetan parte hartzen duten osagaietako bakar bat baino ez da; eta bera bakarrik balego, ondorioa ez litzateke gaixotasun bat izango, aberrazio bat baino. Hori bezain ezinbesteko den beste osagaia neurotikoaren sexu-ezintasuna da, maitasunerako bere ezgaitasuna, nik «errepresio» hitzez izendatu dudan gertakari psikiko huraxe, hain zuzen ere. Bi joera horien arteko gatazkatik sortzen da gaixotasun neurotikoa, eta arrazoi horretxegatik nekez esan daiteke, psikoneurosiaren kasuan, sexu-aktibitatea gomendatzea aholku egokia denik.

Buka dezadan desbideratutako ohar hau. Aurkako aurriritzi guztietatik garbituriko zuen psikoanalisiarekiko interesa lagungarri gerta dakigula psikoneurosi-kasu zailenak tratatzerakoan ere zerbait pozgarria burutzen ari garelako ustean.

Psikoanalisiaz

Worcesterko	Clark	Unibertsitatearen	hogeigarren
urtemugako ospakizunetan emandako bost hitzaldi			
Clark		Unibertsitateko	Lehendakari
eta	Psikologia-	eta	Pedagogia-irakasle
G. Stanley Hall jaunari eskerronez eskainiak			

I

Jaun-andreok! Sentipen berri eta nahastaile bat sumatzen dut Mundu Berriko jakintzazaleen aurrean hizlari bezala aurkitzen naizen honetan. Uste dudanez, nire izena psikoanalisiaren gaiarekin loturik egoteari zor diot ohore hau, eta hori dela eta natorkizue hona psikoanalisiaz hitz egiteko asmoz. Saiatuko natzaizue, ahalik eta erarik mugatuenean, azterketa- eta tratamendu-bide berri honen historiaren sorreraz eta bere ondorengo garapenaz ikuspegi bat eskaintzen.

Psikoanalisi sortu izana lorpen bat izan bada, irabazia ez da nirea izan. Bere hastapenetan ez nuen nik eskuhartzerik izan. Ikasle nintzen ni eta nire azkeneko azterketa egin beharrean aurkitzen nintzen Wienako beste sendagile bat, Josef Breuer doktorea hain zuzen ere, histeriaz gaixotutako neskato batekin jardunbide honetaz baliatu zenean (1880-1882). Gaixotasun- eta tratamendu-historia hau izango dugu, beraz, gure lehen mintzagaia. Geroago Breuerrek eta nik argitaratutako «Histeriari buruzko azterlanak» izeneko idazkian aurkitu ahal izanen duzue guztia zehatzago aurkezturik.

Lehenik, ordea, beste ohar bat. Atseginez jakin dut nire entzuleetako gehienak ez direla sendagileen eremukoak. Ez dezazuela beldurrik izan, esango ditudanak ulertu ahal izateko sendagileen prestakuntza beharko ote denaren ustetan. Zatitxo baten zehar, bai, sendagileekin batera joan beharrean aurkituko gara, baina berehala bereiziko gara horietatik, eta oso bide berezi batetik jarraituko diogu Breuer doktoreari.

Arreta handiz hartzeko moduko gorputz- eta arima-ondoezak garatu zituen, jadanik bi urtez luzatzen zen gaixotasuna bitartean, Breueren pazientea zen adimenez ondo jantzitako hogeitaz bat urteko neskatzak. Perlesiak joak zituen eskuinaldeko bere gorputzadarrak eta bertako sentikortasuna galdurik, eta aldizka gertakari berdinak ezkerraldekoetan; era berean, arazoak begien mugikortasunean, ikusmena galduz zihoalarik, eta zailtasunak buruaren jarrera kontrolatzerakoan; tussis nervosa gogor bat, nazka jakiak hartzeko orduan eta hainbat astez luzatu zen edaririk hartuezina, nahiz eta egarri gorria sumatu; bere ama-hizkuntza ulertzeko eta mintzatzeko gaitasuna galtzeraino eramane zuten gora behera handiak hizketarako joeran, eta azkenik ausentziak, zoramenak, eldarnioak, bere nortasun osoan aldaketak, guk geroago gure arreta eskaini beharko diegun gertakariak guztiak.

Era honetako gaixotasun-egoera baten berri izan orduko, zuek ere, nahiz sendagile ez izan, honako hau pentsatzera joko zenukete noski, ziurrenik ere burmuinetakoa den gaixotasun larri bat izanen dela, sendatzeko aukera gutxi izanen dituen eta gaixoari oso epe laburrean heriotza ekarriko diona gainera. Ikas ezazue sendagileek erakutsi diezazueketik: horrelatsuko adierazpen larriak dituzten kasu-andana batzuentzat zilegi

dela beste ikuspegi hobe eta egokiagorik moldatzea, alegia. Era horretako gaixotasun-egoera, bizitzarako garrantzi handiko diren barneko organoak (bihotza, giltzurdinak) azterketa objektibo batean normal agertzen direlarik, emakume gazte batengan eman ohi denean, nahiz eta astindualdi gogor atseginak izan baditu ere eta sintoma bakoitza ezaugarri zehatzagoetan normala izan zitekeenetik bereizi, ez dute hain larritzat jotzen sendagileek. Hauen ustez, horrelakoetan ez dago ondoez organikorik burmuinetan, baizik eta greziarren medikuntza garaietatik histeria izenez ezagutzen den eta gaixotasun larri askoren adierazpen ugari oker interpretatzera eraman gintzakeen egoera misterios bat da guztia. Bizitzarentzat ez dute arriskurik ikusten eta gauzagarritzat jotzen dute osasunaren erabateko sendakuntza bera. Ez da beti erraza gertatzen era horretako histeria bat ondoez organiko batetik bereiztea. Ez du guretzat interesik, ordea, modu honetako diagnosi bereizgarri bat nola egiten den jakiteak; nahikoa gerta dakiguke zera jakitea, horietako bat dela Breuerren gaixoaren kasua, eta ohitutako sendagile batek ez lukeela histeria besterik diagnostikatuko horrelatsukoetan. Une honetan, gainera, bere gaixotasun-txostenetik beste hau ere gogora genezake, bere aita maitagarria heriotzara eramango zuen gaixotasun larrian zehar zaintzen zegoen bitartean agertu zela bere ondoeza eta aitaren zainketa utzi beharrean aurkitu zela bere gaixotasun hori zela medio.

Sendagileekin batera ibiltzeak abantailik ekarri badigu ere, berehala banandu beharko dugu horiengandik. Izan ere, ezin itxaron baitezakezue, gaixo batek sendagilearen laguntzaren emankortasunaz duen ustea asko handituko denik burmuinetako oker organiko baten ordeztu histeria bat diagnostikatuko baliote. Burmuinetako ondoez larrien aurrean ezer egin ezinik aurkitzen da, ia beti, medikuntzaren eskuhartzea, baina histeria kasuen aurka ere ez daki zer egin sendagileak. Naturaren onezkoaren esku utzi beharrean aurkitzen da, berak (naturak) bere iragarpen itxaropentsua noiz eta nola gauzatuko duen zain¹.

Histeria bat dela ezagutzeak gutxi aldatzen du egoera gaixoarentzat; askozaz gehiago aldatzen da sendagilearentzat. Ikusi ahal dezakegunez, gaixotasun organiko baten aurrean ez bezalako jarrera hartzen du honek histeria baten kasuan. Halakoari ez bezalako ardura eskainiko dio honelakoari, honelakoa ez baita halakoa bezain egoera larria, nahiz eta garrantzi berekoa balitz bezala tratatuko duela irudituko zaigun. Ezjakinarentzat ulergaitz geratuko den egoera ugari ulertzen lagunduko diote sendagileari bere ikasketek eta ondorioz, adibidez, neoplasia edo apopleksia bezalako burmuinetako gaixotasunen jatorriaz eta aldakuntzaz, neurri batean bederen, zuzena izan beharko lukeen ikuspegi bat moldatzeko gai izan beharko luke, gaixotasun-egoeraren zehaztapenak ulertzeko bidea ireki baitiote. Bere ezagutza guztiek, anatomia eta patologiarik buruzko bere prestakuntzek ez diote, ordea, inolako laguntzarik eskaintzen histeria-kasu baten ezaugarrien aurrean. Ezin ulertu du histeria, eta ezjakin bat bezalatsu aurkitzen da horrelatsuko egoeratan. Bere jakintza hainbeste baloratzen duen batentzat ez da gauza erraza hori onartu beharra. Sendagilearen sinpatia galtzen dute histerikoek; bere jakintzaren legeak hausten dituzten pertsona balira moduan begiratzen die hark, ortodoxoek heresei begira ohi dieten bezalaxe; era guztietako asmo txarrak suposa ohi dizkie; gehiegikeriaz, nahitazko iruzurraz eta plantak egiteaz kulpatu ohi ditu, eta bere interesa ukatuz zigortu.

Breuer doktoreak ez zuen horrelako gaitzespenik jaso bere gaixoarengandik; begikotasunez eta arretaz hartu zuen, nahiz eta hasieran nola lagundu ez jakin. Ziurrenik ere gaixoaren izakera- eta gogo-berezitasun apartekoek asko lagundu zioten, berak gaixotasun-gertakari honi buruz prestatu zuen aitorpenean dioenez. Bere oharpen

arretatsuak berehala aurkitu zuen lehen laguntzak eskaintzeko aukerak ireki zizkion bidea.

Jadanik aipatu dugunez, bere absentzi egoeretan eta nahasmenduz lagunduriko aldaketa psikologikoenetan gaixoa berez hitz batzuk esaten saiatzen zela zirudien, eta itxura guztiagatik bere gogoetarekin zerikusia zuten hitzak ziren, gainera. Hitz horien berri izan zuen sendagileak hipnosi-moduko egoeran jarri zuen gaixoa eta aldi bakoitzean hitz horiek esaten zizkion, berak erlazioa zitzaion asmoarekin. Asmo horri jarraitzen zion gaixoak eta absentzi egoeretan nagusitzen zitzaizkion eta hitz bakan haietan ezkututzen ziren sorkari psikikoak adierazten zizkion sendagileari. Aita gaixotuaren ohe ondoan zegoen neskata baten egoera abiapuntutzat zuten fantasia goibel eta, askotan, poetikoki ederrak ziren irudikapen haiek —egunezko ametsak, esanen genuke—. Era horretako fantasia batzuk adierazi orduko askaturik bezala geratzen zen neskata eta bizitza arruntera itzulirik. Ordu dextenez irauten zuen ongi-aurkitze horri, fantasia berriak berriro kanpora adieraziz gainditzen zuen absentzi egoera berri batek jarraitzen zion hurrengo egunean. Ezin utz zitekeen alde batera susmo hau, absentzi egoera bitartean agertzen ziren aldaketa psikikoak erabat afektuz gaitzartutako fantasi sorkari horietan zutela beren jatorria. Bere gaixoardiko epe honetan harrigarriro ingelesez bakarrik hitz egiten eta ulertzen zuen gaixoak berak «talking cure» izena eman zion tratamendu berri honi edo «chimney sweeping» esan ohi zion txantxetan.

Kasuak berez argitu zenez, beti berritan itzultzen diren nahasmen psikiko horiek behin-behingo saihestu baino gehiago lortzen zen arimako hautsak era horretan astinduz. Hainbat eta hainbat ondoez-sintoma ere era berean desagertarazi zitekeen, baldin eta hipnosi-egoeran afektuak adierazterakoan sintoma horiek zein arrazoiz eta zein egoeratan sortu ziren gogoratzen bazuen. «Udan bero handiko aldi bat zen eta pazienteak egarriagatik oso gaizki pasa zuen; ze, inolako arrazoirik gabe, bat-batean ezinezko gertatu baitzitzaion zerbait edatea. Hainbeste desiratutako baso ura eskuan hartu eta ezpainak ukitu orduko urrutira botatzen zuen, hidrofobiko batek egingen lukeen antzera. Segundo pare horien bitartean, antza guztien arabera, absentzi une batean murgildurik aurkitu ohi zen. Egardia gutxitzeko helburuz, fruta, meloiak eta antzekoak baino ez zituen jaten. Egoera honek sei bat astez edo iraun ondoren, berak batere maite ez zuen bere languntzaile ingelesaren berri eman zuen hipnosi-egoeran zegoen batean, eta era guztitako nazka-zeinuz, behin nola haren gelara joan zen eta haren txakur txikiak, abere nazkagarriak, ura baso batetik nola edan zuen adierazi zuen. Ez omen zuen ezertxo ere esan orduan, heziketa oneko agertu nahi omen eta. Gorderik eduki zuen bere haserre indarrez adierazi ondoren, edateko zerbait eskatu zuen, ur-kantitate handi bat inolako eragozpenik gabe edan zuen eta basoa ezpainetan zuela esnatu zen hipnositik. Betiko desagertu zen, horrela, arazoa» (Studien über Hysterie, 4. Aufl., p. 26).

Utz iezadazue esperientzia honen kontakizunean une batez atsedean hartzen! Bakar batek ere ez zuen saihestu ahal izan histeria-sintomarik horrelatsuko tratamenduz, eta inork ez zuen hainbeste sakondu ondoez horren sorreraren ulerkeran. Ondorio garrantzitsuak izango lituzkeen aurkikuntza behar zuen izan, baldin eta gaixoen beste sintoma batzuk ere, behar bada gehientsuenak, modu bertsuan sortzen eta era berean gainditzen zirela frogatuko balitz. Breuerrek ez zuen nekerik hartu horretaz komentitzeko, eta plangintza bati jarraituz ikertu zituen beste ondoez-sintoma larriago batzuen patogenesiak. Itxaron zitekeen bezala gertatu zen: afektuz kargaturiko bizipenen ondakin bezala, edo nahiago baduzue, porrot bezala sortuak ziren ia sintoma

guztiak, guk geroago horretxegatik «trauma psikikoak» bezala izendatu ditugunak, eta beroriek sortarazi zituzten gertakari traumatikoekiko erlazioen bidez bakarrik argi zitekeen berorien berezitasuna. Adierazpen hitzak adierazten duenez, berorien oroitzapen-ondakin bezala agertzen diren gertakarien bitartez determinaturik zeuden, eta ez zegoen neurosien nahitazko ondorio edo emaitza ulergaitz moduan argitu beharrik. Itxaropen guztietatik bakar bat ez zen bete. Ez zen beti bizitapen bakar bat izaten sintoma eragiten zuena; askotan antzeko eta errepikatutako amets ugarik elkar-hartzen zuten ondorio bera gauzarazteko. Gertatu zireneko denbora-jarraiera berean errepikatu behar zen oroitzapen patogenetikoaren katea osoa, baina alderantzizko norabidean, hau da, azkenak lehenik eta lehenenak azkenik, eta beranduago gertatutakoak saltatuz ia ezinezkoa gertatu ohi zen lehenengoetara eta ia beti eraginkorrenetara iristea.

Entzun nahiko dituzue, noski, baso batetik ura edaten zuen txakurrari hartu zion nazkagatik sortutako urarekiko abertsio-histeri sintomaren kausaren moduko beste adibide batzuk ere. Nire egitasmoari lotu nahi banatzaio, ordea, froga bakar batzuetara mugatu beharrean aurkitzen naiz. Breuerrek kontatzen duenez, honelatsu argi daitezke eriazen ikusmen-arazoak, «pazientea begiak malkoz zituelarik aitaren gaixo-ohearen ondoan zegoen batean, aita zein ordu zen galdetu zion, eta argi ikusten ez zuela eta ahaleginak eginaz ordularia begietara inguratu zuen, eta orduan ordulariko zenbakiak oso handiak iruditu zitzaizkion (makropsia edo estrabismoa); eta malkoak gordetzen saitu zen aita gaixoak ikus ez zezan» (Studien über Hysteria, 4. Afl., p. 31). Aita gaixoa zaintzen zegoen garaikoak ziren inpresio patogeno guztiak. «Gaixoaren sukarra oso goitik zebilela eta ebakuntza bat egiteko Vienako zirujau baten zai zeudelako, beldur handiz esnatu zen gau batez. Ama, aldi baterako, kanporatua zen, eta Ana gaixoaren ohe ondoan eseririk zegoen, eskuineko besoa aulkiaren besaleku gainean zuelarik. Esnazko amets-egoera batean sartu zen, eta hormatik nola suge beltz bat atera eta gaixoarengana inguratzen zen, honi hortzaka egiteko asmoz, ikusi zuen. (Gerta ere gerta zitekeen, etxearen atzealdeko belardian sugeak egotea, eta neska inoiz beldurtu izana ere, eta horretxegatik orain haluzinagaiak hartzea). Sugea aldenarazi nahi zuen Anak, baina perlesiak jota bezala zegoen; besalkiaren gainean zeukan eskuineko besoa lokartuta zegoen, anestesiatua eta paretizatua, eta eskua begiratu zuenean bere behatzak suge txiki bezalakoak ziren kaska-hezur eta guzti (atzazalak). Ziurrenik ere perlesiatutako eskuineko eskuz sugeak uxatzen saiatu ere saiatuko zen, eta horrela esku horretako anestesia eta perlesia suge haluzinazioarekin batera sortua izan daiteke. Hori guztia desagertu zenean otoitz egin nahi izan zuen bere beldur-egoeran, baina ezin hitz eginik aurkitu zen ingelesezko haur-bertso bat burura etorri zitzaion arte, eta hizkuntza horretan bakarrik pentsatzen eta otoitz egiten hasi ahal izan zuen» (Ibidem, p. 30). Gaixotasunaren hasieratik perlesiak jota zuen eskuineko besoa bere onera etorri zitzaion hipnosi-egoeran gertakari hori gogoratu zuenean, eta horrelaxe eman zitzaion amaiera tratamenduari.

Urte batzuk geroago ni neu azterbide eta tratamendu breuertiarrek nire gaixoekin erabiltzen hasi nintzenean bildu nuen esperientzia erabat bat zetorren harenarekin. Edozein urduritasun-egoeratan eta itxuraz inolako arrazoirik gabe agertzen zitzaion tik bat zuen berrogei bat urteko emakume batek, zartada baten moduko hots bat ateratzen zuela, alegia. Bi bizitapenetan zuen jatorria, eta bazuten biek elkarren antzik: ez baitzuen zaratarik atera nahi izan bi egoeratan, eta bietan gogoz kontra bezala hots horrek hautsi baitzuen isiltasuna; behin, ahalegin askoren ondoren gaixorik zegoen bere haurrak lo har zezala lortu ondoren, berekiko zera zioenean, alegia, isiltasun handiz ibili behar zuela bere haurra ez esnarazteko; eta bestean, bere bi haurrekin zaldikarroan zihoalarik ekaitza bitartean zaldiak erabat beldurtu zirenean, eta bera, zaldiak ez

gehiago beldurtzeko, inolako zaratarik atera nahi ezean zebilenean, hain zuzen ere (Ibidem, p. 43 eta p. 46). Histeriari buruzko azterlanak izeneko liburuan agertzen diren beste asko ez aipatzeagatik dakartzat adibide hauek hona².

Jaun-andreok! Hain aurkezpen labur baten ondoren ezinbesteko den orokorketa onartzen badidazue, era honetan laburbil genitzake gure orain arteko ezagutzak: erremisizentziapean daude histeria-gaixotasuna duten gure eriak. Halako bizitapen (traumatiko) batzuen hondakin eta oroitzapen-sinbolo dira berorien sintomak. Beste arlo batzuetako oroitzapen-sinbolo batzuekiko alderaketak sinbolotza horren ulerkerak sakonago bat ahalbideratuko digu agian. Gure hiri handiak apaintzeko jarri ohi ditugun oroigailu eta irudiak ere era horretako oroitzapen-sinboloak dira. Londresetik zehar ibilaldira bat egiten baduzue, ederki apaindutako zutabe gotiko bat aurkituko duzue hiriko tren-geltokirik handienaren aurrez aurre, Charing Cross izenekoa, hain zuzen ere. XIII. gizaldian Plantageneteko erregerik zaharrenetako batek Westminsterera eramana zuten bere erregin maitearen hilotza eta gurutze gotikoak eraikiarazi zituen zerraldoak lurra ukitu zuten tren-geltoki guztietan, eta ibilbide horren oroitzapena bizirik gordetzeko behar duen oroigailuetatik azkenekoa baino ez da Charing Cross hori³. Hiriko beste une batean, Londres Bridgetik ez urruti, beste zutabe luze modernoago bat ikusi ahal izanen duzue, laburtu beharrez The Monument izenez ezagutzen dena. 1666.an hor inguruan piztu eta hiriaren zati handi bat kiskaldu zuten sutearen oroitzapen izan nahi luke. Histeria-sinboloak bezalaxe oroitzapen-sinbolo dira beste horiek ere; zentzu honetan alderaketa zuzena da. Zer esango zenukete, ordea, zuek, baldin eta gaurko londrestar bat Eleonor Erreginaren lurperatze-bidearen aurrean samintasunez begira geratuko balitz, bere betebeharrak gaur egungo lan-harremanek eskatzen duten azkartasunez burutu edo bere bihotzeko erregin gazteaz poztu beharrean? Edo «the Monument»-en aurrean bere aberriaren errautesak gogoratuz negarrez hasiko balitz, gertaturikoaren ondoren eraikitakoa askozaz distiratsuagoa dela jakinik? Praktikotasunik gabeko bi londrestar horiek bezalaxe jokatu ohi dute, ordea, neurotikoa eta histerikoa guztiek; ez bakarrik aspaldi iraganeko bizitapen samingarriak gogoratuz, baizik eta haiei erabat lotuak iraunez, ezin askatu dira iraganaren atzaparretatik eta oraina eta errealitatea ahanzi ohi dituzte. Amets patogenoekiko arima-bizitzaren fijazio hori da, hain zuzen ere, neurosiaren ezaugarriarik garrantzizkoena eta praktikoki esanguratsua.

Atseginez onartuko dizuet une honetan zuten burutapenetan moldatzen ari zireten objektzioa Breuerren gaixo haren eritasun-historia gogoratzerakoan. Gaixorik zegoen bere aita zaintzen zuten garaikoak ziren bere amets guztiak eta haren gaixotasunaren eta heriotzaren oroitzapen-adierazgarri moduan ulertu beharko lirake bere sintomak. Samintasun bati dagozkio, beraz, eta hilaren oroitzapenarekiko fijazio bat heriotza gertatu eta hain denbora gutxira berez ez litzateke patologikoa, oso bestela, sentipen arrunt bati dagokiona da. Onartzen dizuet hori guztia; Breueren pazienteak bere traumekiko duen fijazioa ez da harrigarria. Baina beste kasu batzuetan, ordea, nik tratatutako tikanen bezala, zeinetarako arrazoia hamabost eta hamar urte lehenago gertatu baitzen, iraganarekiko loturaren izakera anormala oso argi ikusten da, eta beste hainbeste gertatu izango litzaioke Breuerren pazienteari ere, baldin eta ametsak izan eta sintomak agertu eta hain denbora gutxira tratamendu katartikoari ekin izan ez balio.

Sintoma histerikoek gaixoaren bizitzaren historiarekiko dituzten erlazioak aztertu ditugu orain artean; Breuerren behaketen beste bi unetatik atera ditzakegun irizpideetatik gaixotasunaren hedapena eta sendakuntza nola ulertu ikas genezake. Lehenari dagokionez zera azpimarratu behar da, egoera patogenetiko guztietan

kitzikadura indartsu bat irentsi beharrean aurkitzen zela Breuerren pazientea, afektu-jarrera, hitz eta jarduera egokiz irtenbide bat bilatu ordeztu. Bere laguntzailearen txakurrarekiko bizitapen txiki haretan bere nazka sakonaren adierazpena irentsi beharrean aurkitu zen hari zion begiruneagatik; aitaren ohe ondoan zegoen bitartean, berriz, bere beldurra eta sosegu ez mingarria gaixoak suma ez zitzan kezkatutik egon zen etenik gabe. Geroago gertakari beroriek sendagilearen aurrean berritxuratu zituen, indar bereziz agertu zen orduan erreprimetutako afektu-adierazpena, garai horretan guztian zehar handitzen joan izan balitz bezala. Bai, bere indarrik gorenena hartu zuen egoera horren zain larriagotu baino ez zen egiten sintoma bere jatorrizko arazoira inguratzen zihoan neurrian, une horretara iritsitakoan erabat desagertzeko. Baina beste esperientzia hau ere egin ahal izan zen, sendagilearen aurrean gogora ekarritako gertakaria inolako ondorioz gabe geratzen zela, baldin eta hori inolako afektu-adierazpenik gabe gertatzen bazen. Neurri aldakorrek bezala irudika zitezkeen afektu hauen halabeharrak ziren, beraz, bai gaixotasunerako eta baita sendakuntzarako erabakigarriak. Honako hipotesi hau ezibesteko egiten zen orduan: egoera patogenetikoa sortzen ziren afektuak irtenbide normalik gabe geratzen zirela, eta gaixotasunaren gunea horrela «lotutako» afektu horien erabilera desegoki batek moldatzen zuela. Neurri batean arima-bizitzarentzat oztopo iraunkor eta urduritasun-iturri moduan iraungo zuten; beste batean, aldiz, soin-inerbazio eta inhibizio itxurak hartzen zituzten, kasuaren soin-sintoma bezala egertuz horrela. Azken gertakari hau adierazteko aldatze historikoa asmatu dugu guk. Gure arimako kitzikadura zati bat soin-inerbazio bidez bideratu ohi da normalki eta ondorioz guk «hunkipen-adierazpide» bezala izendatu ohi dugu. Afektuz betetako arima-gertakari baten prozesuaren zati bat neurri gaitz gehitzen du aldatze historikoa, eta bide berrietatik gidatutako hunkipenen adierazpide intentsiboago bati dagokio. Kanal nagusi bateko urak bi kanaletara bideratzen badira, eta horietako batean oztopo bat aurkitzen badu bertako korranteak, besteak gainezka egiten du berehala.

Ikus dezakezuen, afektuen prozesuei lehen mailako garrantzia eskainiz, historiari dagokion teoria psikologiko huts bat moldatzeko bidean gabiltza orain. Breuerren bigarren ohar batek beste honetara ere behartzen gaitu, gertakari gaixotia berezitasunetan kontzientzi egoerari garrantzi berezi bat eskaintzera. Bere egoera normalarekin bateratsu beste egoera anizkor ugari agertzen zituen Breuerren pazienteak: absente egoerak, nahasmenak, eta izakera aldatuak. Egoera normalean aurkitzen zen bitartean ez zuen gogoratzen gertakari patogenetikorik, ezta berauen sintomekiko erlaziorik ere; gertakariak jadanik ahaztuak zituen, edo erlazio patogenetikoak etenak behintzat. Behin bera hipnosi-egoeran murgilduz gero eta lan esker baten ondoren, gertakariak gogora ekar zitezkeen, eta gogoratze-lan honen bidez sintomak desagertarazten ziren. Arazo handiekin topo egin beharra zegoen gertakari hauek interpretatzeko orduan, baldin eta hipnosiaren esperientziak eta saiok horretarako bidea erakutsi izan ez balute. Hasieran harrigarri gertatzen ziren ikuspegiak ohitu gaituzte gertakari hipnotikoen azterketek, hau da, pertsona bere baten elkarrengandik nahikoa aske iraun dezaketen, elkarren berri «ez dakiten» taldeketa animiko ugari eman daitezkeela aldi berean eta kontzientziara txandaka iritsi daitezkeela. Kontzientzia bikoitza izenez ezagutzen diren era honetako kasuak bat-batean ere agertu ohi dira begibistara. Nortasunaren honelatsuko bikoizketan kontzientzia bi egoeretatik bati lotzen bazaio, arima-egoera kontziente esan ohi zaio horri, eta inkontziente horretatik bereizten denari. Hipnosi ondorengo sugestio izenez ezagutzen den gertakari ezagunean, zeinetan hipnosi-egoera bitartean emandako aginkizun bat indarrez betetzen den gero egoera normalean, osagai kontzienteak beretzat ezezagun iraun dezakeen inkontzienteak

izan ditzakeen eraginak agertzen dituen gertakari eredugarri bat aurki genezake, eta eredu horren arabera, hain zuzen ere, argi daitezke histeriaren kasuan bizi izandako esperientziak. Honako hipotesi hau onartzea erabaki zuen Breuerrek: berak hipnoide izenez bataiatu zituen arima-egoera berezi horietan dutela beren sorrera histeriaren sintomek. Era horretako hipnoide-egoera batean gertatutako edozein eragin patogeniko izatera iritsi daiteke oso errez, edozein bulkada-gertakariren prozesu normal bat eman dadin beharrezko diren baldintzak galeraizten baititu horrelako egoera batek. Horrela bada, ezohiko emaitza bat sortzen da bulkada-gertakaritik, sintoma hain zuzen ere, eta hau gorputz arrotz baten modura sartzen da egoera normalera ere, egoera patogeniko hipnoidearen berririk ez baitu honek. Amnesia bat ere eman ohi da sintoma dagoen tokian, oroitzapenetako hutsune bat, alegia; eta hutsune hori beteko bada, sintomaren sorrera-baldintzak desagertarazi beharko lehenik.

Beldur naiz nire aurkezpenaren zati hau ez ote zaizuen oso iluna gertatu. Kontutan har ezazue, ordea, ikuspegi berri eta zailak direla hauek guztiak, eta agian ezin argiago aurkez daitezkeela; gure ezagutzetan ez dugula gehiegi aurreratu adieraziko luke horrek. Hipnoide-egoerei buruzko Breueren usteak oztropogarriak eta alferrikakoak direla frogatu da bitartean, eta egungo psikoanalisiak alde batera utzi ditu. Geroago entzun ahal izango duzue, zehar bidez besterik ez bada ere, Breuerren hipnoide-egoeren banaketa horretan zein eragin eta gertakari leudekeen oraindik aurkitzeko. Eskubide osoz esan dezakezue Breuerren ikerketek behatutako gertakariei buruz eskaintzen duten teoria eta ematen dituzten argibideak ez direla erabatekoak, baina era berean esan behar da erabateko teoriak ez direla zerutik erortzen, eta eskubide gehiagoz begira diezaiokezue mesfidantza osoz norbaitek behaketen hasiera beretik hutsunerik gabeko teoria biribildu bat aurkeztuko balizue. Bere irudikapenen emaitza baino ez litzateke izango horrelakoa, eta inolaz ere ez errealitateaz aurriritzirik gabe egindako ikerketa baten ondorio.

II

Jaun-andreok! Breuer jaunak bere pazientearekin «talking cure» praktikan jartzen zuen aldi bertsuan hasi zituen Parisen Charcot irakasleak Salpêtrièreko histeria-gaixoei buruzko ikerketak, gaixotasun honi zegokionez ulerkerak berri bati hasiera emango zioten haietxe berak. Emaitzak ezin izan zitezkeen ezagunak garai haietan oraindik Vianan. Baina hamarkada bat beranduago Breuerrek bere lehenengo pazientearekin praktikatutako tratamendu katartikoari lotzen zitzaion histeria-gertakari psikikoaz, Breuerrek berak eta nik gure behin-behingo lana argitaratu genuenean, ikerketa charcotiarrek zuten norabide berdinean aurkitu ginen. Gure gaixoen bizipenak trauma psikiko ziren heinean trauma fisikoei parekatzen genizkien guk, zeinen eragina perlesi histerikoetan Charcotek frogatua baitzuen, eta hipnoide-egoerei zegokien Breuerren ikuspegia Charcotek hipnosi-egoeran artifizialki gauzarazi zuen perlesi traumatikoari zegokionaren parekoa baino ez zen.

1885. eta 1886.an nire irakasle izan zen frantziar behatzaile handia bera ez zen ikuspegi psikologikoetara oso emana; bere ikasle P. Janet izan zen histeriaren gertakari psikiko berezietan sakontzen saiatu zen lehena, eta guk bere bideari baino ez genion jarraitu gure ikuspegiaren gune nagusi bezala nortasunaren banaketa eta hausketa jarri genituenean. Heredagarritasunak eta endekatzeak duten garrantzia kontutan hartzen duen eta garai haietan Frantzia nagusi zen histeriari buruzko ikuspegia aurkituko duzue

Janetengan. Bateratze psikikoaren berezko ahultasunaren bitartez agertzen den nerbio-sarearen endekatze-aldaketaren era bat litzateke histeria ikerlari horren ikuspegiz. Arimako gertakarien ugaritasunari batasun bat emateko gaitasunik ez du berez hasieratik gaixo histerikoak, eta horretatik sortzen da arima-bikoizketarako joera. Konparaketa arrunt baina, aldi berean, argi bat onartzen badidazue, erosketak egitera joan eta pakete eta kaxa ugariz kargatuta datorren emakume ahul baten antzekoa da Janetengan gaixo histerikoa. Bere bi besoez eta hamar atzamarrez ezin bil ditzake guztiak, eta horrela batzuk erori egiten zaizkio. Horiek jasotzera makurtzen da, eta beste batzuk erortzen zaizkio, e.a. Histerikoetan suposatu ohi den arima-ahultasun horrekin ez dator bat hainbat eta hainbat ikuspegi, alegia, errendimendua gutxitzearen agerpideekin batera errendimendu-gaitasunaren neurri bateko gehikuntzarenak ere, orekatze-neurri baten modura edo, beha daitezkeela diotenak. Breueren pazienteak bere jatorrizko hizkuntza eta ingelesa ez beste hizkuntza guztiak ahaztu zituen denbora bertsuan ingelesean lortu zuen gaitasuna hainbesterainokoa zen, ze alemanezko liburu bat irakurtzen bazitzaion orriz orri inglesera inolako akatsik gabe itzultzeko gaitasuna baitzuen.

Breuerrek hasi zituen ikerketak beranduago nik neronek nire esku hartu nituenean, disoziazio histerikoaren (kontzientzia-zatiketaren) sorrerari dagokionez beste ikuspegi bat osatu ahal izan nuen. Ezinbestean sortu behar zuen era horretako desadostasun batek, gerorako erabakikorra izanen zena, ni ez bainintzen laborategiko saio batzuetatik abiatzen Janet bezala, baizik eta, oso bestela, ahalegin terapeutikoak baitziren nire lanaren abiapuntu.

Behar praktikoak eragiten ninduen ni. Breuerrek praktikatu ohi zuen sendabide katartikoak auresuposatzen zuenez, gaixoa hipnosi-egoerara eraman beharra zegoen, horrela bakarrik lortzen baitzuen berak bestela egoera normalean ihes egiten zion erlazio patogenetikoei zegokien ezagutza. Laguntza aldabera eta, nolabait esateko, ia mistikoa zen neurrian, desatsegin izaten hasi zitzaidan hipnosia; eta ahalegin guztiak eginagatik ere nire gaixoetatik gutxiengo bat baino ez nuela egoera hipnotikora ekartzen ikusi nuenean, hipnosia alde batera uztea eta sendabide katartikoaz harekiko loturarik gabe baliatzea erabaki nuen. Nire pazienteen egoera psikikoa nire nahietara ezin jar nezakeenez, berorien egoera arruntaz baliatzera gidatu nituen nire ahaleginak. Inolako zentzurik eta ondoriorik gabekoa zirudien hasieran nire erabakiak. Eginkizun hau zen burutu beharrekoa, aurrez ezaguna ez zen eta gaixoari berari ezezaguna zitzaion ezagutzaren bat lortu beharra zegoen gaixo horrengandik; nola itxaron zitekeen, ordea, horrelatsuko esperientziaren bat? Nik neronek Bernheimenean Nancyn ikusi nuen saio harrigarri eta irakasgarri bat etorri zitzaidan burura orduan lagungarri moduan edo. Hona zer irakatsi ohi zigun Bernheimek garai haietan, sonanbulismo hipnotikoaren egoerara eraman ohi zituen eta horrela zeuden bitartean era guztietako bizitapenak sumarazten zizkien pertsonen sonanbulu-bizipen horien oroitzapenak itxuraz baino ez zituztela galtzen eta gauzagarria zela, gainera, oroitzapen beroriek egoera normalean gogoraraztea ere. Sonanbulu-egoera bitartean izandako bizipenei buruz galdetzen bazien, ezer ez zutela gogoratzen erantzun ohi zuten hasieran, baina galderak egiten jarraitzen bazuen eta eskatutakora behartzen bazituen eta bazekitela ziurtatzen bazien, beti gogoratu ohi zituzten ustez ahaztutako oroitzapen haiek.

Horrelaxe egiten nuen nik neuk ere, beraz, nire pazienteekin. Gehiago ez zekitela esaterainoko unera iristen baziren, bazekitela eta esan baino ez zutela egin behar ziurtatzen nien nik, eta nire eskua buru gainean jartzen nien unean zetorkien oroitzapen huraxe izanen zela zuzena, horixe baieztatzeraino ausartzen nintzaion. Ahaztutako gertakari patogenoen eta horiek ondorio bezala utzitako sintomen arteko erlazioak moldatu ahal izateko, gaixoarengandik beharrezko nuen guztia jakiten nuen bide

horretatik, hipnosiaz baliatu beharrik gabe. Baina jardunbide neketsua eta luzera lehegarrikoa ere bazen hori, eta ez zen egokia gertatzen erabateko teknika moduan erabiltzeko.

Baina ez nuen etsi horrela bildutako esperientzietatik zegozkien ondorioak atera baino lehen. Ahaztutako oroitzapenak ez zirela galtzen ziurtatu ahal izan nuen era horretan jokatzuz. Gaixoaren jabegotzan irauten zuten eta prest zeuden berak gogoratzen zuenarekin erlazionatuz kanpora ateratzeko, baina kontziente bilakatzea eragozten zien nolabaiteko indarren batek, eta inkontzientean iraunaztera behartzen zituen. Ziurtasun osoz onar zitekeen indar horren existentzia, ze horri aurka eginaz oroitzapen inkontzienteak gaixoaren kontzientziara iristarazten saiatuz gero, ederki suma baitzitekeen berarengandik zetorren erresistentzia. Gaixotasun-egoerari iraunarazten zion indarra gaixoaren aldetikako erresistentzia-moduan suma zitekeen gainera.

Histerian eman ohi diren gertakari psikikoez dudak ikuspegia erresistentziaren ideia horretan oinarritu dut nik. Erresistentzia horren desagerketa ezinbesteko egiten da sendakuntzarako; sendakuntzaren mekanismoetatik abiatuz gaitzaren sorrera eta gauzatzeari dagokion ikuspegi zehatza molda daiteke orain. Ahaztutakoaren oroitzapenaren aurkako erresistentzia bezala agertzen diren indar berdinek eragin behar dute bai ahaztutze hori eta baita gertakari patogenoak kontzientziaz kanporatzea ere. Errepresio izena eman diot nik auresuposatzen dudak gertakari horri eta erresistentziaren existentzia gezurtaezinak horixe frogatzen duela uste dut.

Beste galdera hau ere egin daiteke, ordea: ea errepresioaren zein indarretan eta baldintzetan ezagutu dezakegun orain histeriaren mekanismo patogenoa. Sendabide katartikoaren bitartekotasunez ezagutu ziren egoera patogenoen azterketa konparatzaile batek ahalbidetzen du galdera horrentzako erantzuna. Honako hau baino ez zen gertatu bizipen horietan guztietan, frontalki norbanakoaren beste desira guztien aurka zegoen eta nortasunaren gogo etiko eta estetikoekin bateraezinekoa zen desira-gogo bat piztu zela, alegia. Gatazka labur bat gertatu zen, eta burruka horren ondorio moduan kontzientziara onartezinezko desira haren eramale bezala agertu zen irudikapena errepresioaren menpekotzara erori zen eta berari zegozkion oroitzapen guztiak kontzientziaz kanpora uxatuak eta era berean ahaztuak izan ziren. Zegokion irudikapena gaixoaren ni-arekin elkartezina zen errepresiorako zioa; norbanakoaren eskakizun etikoak eta bestelakoak, berriz, indar erreprimizaileak. Desiraren sumatze onartezinaren suposizioak edo gatazkaren iraupenak ondorez handia sortaraziko zuten beren garaian; arima-nortasunaren babesle gisara agertzen zen errepresioaren bitartekotasunez izanen zen saihestua ondorez hori.

Errepresioaren baldintzak eta abantailak argi utziko dituen nire kasuetako bat bakarra, askoren orde, agertuko dizuet orain. Gaixotasunaren nondik-norakoak moztu beharrean aurkitzen naiz nire helburuen zerbitzuan, eta bere aurrebaldintza garrantzitsuetako batzuk aitatu gabe utzi beharko. Bere aitaren zainketan parte hartu zuen emakume gazte batek, aita hil eta berehala, —Breueren pazientearen antza handiko kasua, beraz— eta bere ahizpa zaharrena ezkondu ondoren, ia-ia senitartekoen arteko laztantasun itxura hartzen zuen aparteko begikotasun bat garatu zuen bere koinatu berriarekiko. Handik gutxira ahizpa hori gaixotu eta hil egin zen nire pazientea bere amarekin batera kanpotik zen batean. Gertakari berri ziurrik eman gabe presaka deituak izan ziren kanpotik zebiltzanak. Neskak bere ahizparen hilotzaren aurrean aurkitu zenean, ondorengo hitz hauez adieraz daitekeen ideia piztu zitzaion une motz batez: libre geratu da eta nirekin ezkon daiteke orain. Ziurtasunez onar genezakeenez, bere koinatuarekiko sumatzen zuen maitasun sakonaren adierazgarri zen ideia hori, nahiz eta berak horren konszientziarik ez izan, errepresioera makurtarazi zuen

berehala sortu zitzaizkion sentimenduen eraginez. Histeria sintoma larriaz gaixotu zen neskatxa, eta tratamendurako nire ardurapean hartu nuenean argi geratu zenez, bere ahizparen hilotzaren aurreko gertakaria eta une hartan sumatutako sentipen gorrotagarri-egoista erabat ahazturik zituen. Tratamendu bitartean gogoratu zituen berriro, sentipen larriak adieraziz berregituratu zuen une patogeno hura eta tratamendu honen eraginez sendaturik geratu zen.

Errepresioaren prozesua eta honek erresistentziarekiko duen ezinbesteko erlazioa, hain zuzen ere, une honetan aurkitzen garen egoera batetik hartzen dudana konparaketa orokor batez argitu ahal izango dizuet, agian. Suposa ezazue gela honetan, auditorium honetan —nongo isiltasuna eta adikortasuna nik nahikoa ezin eskertu ditzaket orain— edukaziorik gabeko irriz, marmarrez, hankekin ateratzen duen zarataz nire eginkizun honekiko nire adikortasuna galera izan didan norbait legokeela. Eta nik zera diodala, ezin jarrai dezakedala nire mintzaldiarekin baldintza hauetan, eta hori dela eta zuen artetik gizon indartsu batzuk altxatzen direla eta borroka labur baten ondoren zarataz kanpora ateratzen dutela. «Errepresioaren» aurkitzen da orain hura eta nik nire mintzaldia jarrai dezaket. Kanporatuak berriro gelara sar nahi izan dezanean berriro nahasketa berdina gerta ez dadin, nire nahia bete duten gizon berek beren aulkiak atearen kontra jartzen dituzte eta horrela «erresistentzia» osatzen dute errepresioa burutu ondoren. Zuek orain bi une horiek «kontzientea» eta «inkontzientea» bezala psikera aldatzen badituzue, errepresio-prozesuaren irudi nahikoa egokia lortu izanen duzue.

Ikusten duzue, beraz, zein den gure ikuspegiaren eta janetiarraren artean dagoen ezberdintasuna. Gure ustez, haustura psikikoa ez da sintesirako arima-egiturak duen jaiotzatikako ezigaitasun baten ondorio; guk, oso bestela, arima-indar aurkakoen arteko gatazkaren bitartekotasunez dinamikoki argitzen dugu hori, bi taldekuntza psikikoen elkarrekiko egiten duten amor emate jardunkor baten emaitza ikusten dugu guk hor. Gure ikuspegitik begiratuta galdera-kopuru handia sortzen da orain. Gatazka psikikoen egoera maiz suma daitekeena da, oso hautemate arrunta baita oroitzapen mingarriak saihesteko nia-k duen joera, horrek arima-hausturarik eragin beharrik gabe. Ezin bazter daiteke honako beste gogoeta hau ere, alegia, gatazkak haustura hori eragingo badu beste baldintza batzuen beharra dagoela horretarako. Gogo onez onartzen dizuet, errepresioa suposatuz ez garela iritsi teoria psikologiko bat burutuz, baizik eta horretarako hastapenetan gaudela oraindik ere; baina urratsez urrats ibiliz baino ezin jo dezakegu aurrera eta ezagutzaren erabatekotasuna geroagoko eta sakonago saiaturik diren lanen esku utzi beharko dugu oraingoz.

Ez zaitezte saiatu Breuerren pazientearen kasua errepresioarekiko gure ikuspegiaren jartzen. Haren gaixotasunaren nondik-norakoa ez da egokia horretarako, hipnosi-eraginaren bitartekotasunez lortua izan baitzen. Hipnosia alde batera utziz bakarrik hauteman ahal izango dituzue erresistentziak eta errepresioak, baita benetako prozesu patogenoaz ikuspegi egoki bat osatu ere. Erresistentzia estaltzen du hipnosiak eta arima-esparru mugatu bat baino ez du irekitzen, eta erresistentzia guztia esparru horren mugetan biltzen duenez, beste guztia eskuragaitz bilakarazten du.

Bizipen patogenoen edo amets psikikoen eta sintomen arteko loturei zegozkien argibideak izan ziren Breueren behaketetatik guk ikasi genuen garrantzizkoena, eta orain ezin utziko ditugu ikuspegi horiek, errepresioaren irakaspidetik begiratzuz, aintzakotzat hartu gabe. Errepresiotik abiatuz sintomaren sorrerara nola iritsi daitekeen argitzea oso zaila da hasieran. Argibide teoriko nahasiak eman beharrean, erabili dugun gure lehengo adibideari helduko diot berriro hemen errepresioarena argitzeko. Pentsa ezazue ez dela nahikoa gazte zalapartatsua kanporatzea eta zaintzaileak ate ondoan

jartzea gertakaria erabat konpondutzat eman ahal izateko. Gerta ere gerta baitaiteke, kanporatua izan dena erabat haserreturik eta begirune guztia galdurik gu gure onetik ateratzen saiatzen dela berriro. Egia da gutartean ez dagoela, bere presentziarik ez dugu, bere irrifar ironiatsutik eta bere ahopeko oharretatik askatuak izan gara, baina errepresioa, neurri batean bederen, arrakastarik gabe geratu da, ze kanpoan sekulako ikuskaria eskaintzen ari baita, eta bere garrasiek eta ateari ukabilez ematen dizkion kolpeek lehen bere jokabide lotsagabeak baino gehiago galarazten baitidate orain nire mintzaldia jarraitzea. Baldintza hauetan atseginez eskertuko genuke, adibidez, gure lehendakari ohoretsu den Stanley Hall doktoreak bitartekaritza eta bakegiletza lana bere gain hartuko balitu. Gazte nahastailearekin kanpoan hitz egingo luke berak eta gero honako eskabide honekin joko luke guregana, gaztea berriro gutartean onar dezagula eta bere hitza damaigula, hura jokabide egokiz moldatuko dela ziurtatuz. Hall doktorearen autoritatean fidatuz, errepresioari amaiera ematea erabakiko genuke, eta ondorioz bakea eta lasaitasuna lirateke nagusi gutartean berriro. Neurosien terapia psikoanalitikoak bere gain hartzen duen sendagileari dagokion eginkizuna adierazteko ez da desegokia adibide hori.

Oraindik zuzenago esateko: gaixo histerikoak eta bestelako neurotikoak aztertuz honako komentzimentu honetara iritsi gara gu, alegia, desira jasanezina daraman ideiarene errepresioan porrot egin dutela. Egia da kontzientziatik eta oroimenetik kanporatu dutela eta, antza denez, desasosegu asko saihestu dutela horrela, baina indarrean darrai, aurrera ere, erreprimituriko desira-bulkadak inkontzientean, berriro indarrean jartzeko aukera noiz etorriko zain, eta erreprimitutakoaren tokian desitxuratutako eta berrezagutu ezinezko ordezkoko bat kontzientziara bidaltzen asmatzen du, zeinek, berehalakoan, errepresio bidez saihestu uste ziren desosegu berdinak eragingo dituen. Erreprimitutako ideiarene ordezkoko hau —sintoma, alegia— nia-rengandikako erasoekiko kutsagaitza da, eta gatazka motz baten ordezkoko denboran amaierarik izango ez duen ondorez bat agertzen da orain. Desitxuraketarako seinaleekin batera erreprimitutako jatorrizko ideiarekiko, nolabait gauzatutako, antza arrasto apur bat suma daiteke sintoman; ordezkoko eratu zeneko bideak gaixoaren tratamendu psikoanalitikoak aurrera doan neurrian ezagut daitezke, eta sendakuntza ahalbidetzeko ezinbesteko da sintoma, bide berdin horietatik barrena, erreprimitutako ideia iristaraztea berriro. Erreprimitutako arima-jarduera kontzientera itzuliko balitz, horretarako erresistentzia nahikoa indartsuak gainditu beharko direlarik beti ere, gaixoak saihestu nahi izan zuen gatazka psikikoak erreprimituriko moduan baino irtenbide egokiagoak lituzke horrela sendagilearen gidaritzapean. Gatazka eta neurosia amaiera pozgarri batera gidatzen dituzten modu horretako jardunbide egokiak bat baino ugariagoak dira, eta kasu batzuetan elkarrekiko konbinaketa ezberdinez lor daitezkeenak gainera. Edo desira patogenoa inolako arrazoirik gabe saihestu zuelakoaz jabetzen da gaixoaren nortasuna eta neurri batean edo erabat onartzen du, edo desira bera goragoko eta aldi berean arazorik gabeko helburu batera bideratzen da (desiraren sublimazioa esan ohi zaio), edo saihespena zuzena izan dela onartzen da; kasu honetan, ordea, errepresiorako mekanismo automatikoa, eta horretxegatik desegokia, gizakiaren arima-jarduera gorenaren laguntzaz moldaturiko aurkako epai batez ordezkutzen da; manupe kontzientearen gidaritzapean hartzen da horrela.

Barka iezadazue, otoi, orain psikoanalisiaren izendatzen dugun tratamendu-eraren honen ikuspegi nagusiak labur eta argitasunez adierazten asmatu ez badut. Zailtasunetarako arrazoi bakarra ez da gaiaren berritasuna. Erreprimiturik ere inkontzientetik ateratzea lortzen duten desira jasanezinen nolakotasunaz, eta errepresioaren porrota eta ordezkokoaren sintoma moldaera gerta daitezen pertsona batengan eman behar duten

baldintza subjektiboak eta konstituziozkoak zeintzuk diren horretaz, geroago ihardungo dugu zehaztapen batzuk eskainiz.

III

Jaun-andreok! Ez da gauza erraza beti egia esatea, laburtu beharrez hitz egin behar denean bereziki, eta nire azken mintzaldian egin nuen erru bat zuzentzera beharturik nago gaur. Orduan esaten nizuenez, hipnosia alde batera utziz, unean tratatzen ari ginen gaiaz letorkiekeen guztia niri adieraztera bultzatzen banituen nire pazienteak —ze itxuraz ahaztutako guztiaren berri bai baitute, eta gogora datorkienak berekin izanen baitu bila gabiltzana ere—, nire gaixoari zetorkion hurrengo ideiak zuzena zena zekarrelakoaren eta oroitzapenetan ahaztutako harexen jarraipena zelakoaren esperientzia egiten nuen. Baina hori ez da beti horrela; labur izan nahiaren nahiaz aurkeztu nuen nik hori era horretan. Benetan lehenengo saioetan bakarrik gertatzen zen, hain zuzen ere, ahaztutako zuzena birgogora zezatela gaixoei nire aldetikako ahaleginari esker. Tratamenduarekin aurrera jarraitzen zen neurrian, zuzenak izan ez zitezkeen ideiak ere etor zekizkiekeen gogora pazienteari, elkarrekin egokitu ezin zitezkeenak eta gaixoei ere desagokitzat jotzen zituztenak izan ohi baitziren. Ahalegintzeak ez zuen laguntza gehiagorik eskaintzen, eta hipnosia alde batera utzi izanaz damutu ere damutu zitezkeen bat.

Norabiderik gabeko egoera honetan aurriritzi bati lotu nintzaion, urte batzuk geroago Zurichen C.G. Jungek eta bere ikasleek zientifikoki zuzena zela frogatuko zuten aurriritzi bati. Aurriritziekin jardutea noizbehinka emankorra dela esan beharrean aurkitzen naiz, beraz, hemen. Arimako gertakarien determinismoaz oso iritzi itxia nekarren nik, eta ezin sinets nezakeen, gaixoak tentsiopeko egoera batean moldatzen zuen ideia bat erabat arbitrarioa eta guk bilatzen genituen ahaztutako irudikapenekin inolako loturarik gabea izan zitekeenik; horrekin erabat bat ez zetorrena zela erraz argi zitekeen auresuposatutako egoera psikologikotik. Elkarrekiko aurkari ziren bi indar ezberdinek zuten eragina tratatutako gaixoetan: beren inkontzientean ahazturik gordetzen zena kontzientziara ekartzeko egiten zen ahalegin kontzientea zegoen alde batetik; eta bestetik, aldiz, erreprimiturikoa edo bere ordezkoa, kontziente bilakatzearen aurka saiatzeko erresistentzia ezaguna. Erresistentzia hori hutsaren pareko edo oso indar gutxiak bazen, inolako itxuraldaketarik gabe bilakatzen zen kontziente ahazturikoa; suposa zitekeenez, beraz, bilatzen genuenaren kontzientziratzearen aurkako erresistentzia zenbat eta handiagoa, orduan eta gehiago desitxuratuko litzateke bilatzen genuena. Bilatzen genuenaren ordezkari gaixoari zetorkion ideia, honenbestez, sintoma baten modura sortzen zen; erreprimitutakoaren ordezkari berri bat baino ez zen, artifiziala eta hutsala, eta erresistentziaren eraginpean izandako desitxuraketa zenbat eta handiagoa, orduan eta jatorrizkoarekiko antza gutxiagokoa gainera. Sintomaren izaerari esker, ordeza, bilatutakoarekiko nolabaiteko antzekotasunaren jabe izan behar zuen oraindik ere, eta erresistentzia indar handikoa ez bazen, bila genbiltzan ezkutupekoa asmatzeak posible izan behar zuen gaixoari bururatzen zitzaion ideiatik abiatuz gero. Erreprimitutako osagaiarekiko zeharresan moduan jokatu behar zuen bururatutako ideiak, zeharkako esamoldean gauzatutako antzezpen baten modura, alegia.

Arima-bizitza arruntaren eremuan ere ezagutzen ditugu suposatzen ari garen egoeren antzeko ondorioak aurkezten dituzten kasuak. Txistearena litzateke horietako

bat. Txiste-moldaketaren teknika aztertzerakoa beharturik aurkitu naiz jardunbide psikoanalitikoaren arazoak aztertzerakoan. Horrelako kasu bakar bat aurkeztuko dizuet, ingelesez dagoen txiste batena, hain zuzen ere.

Honela dio gertakariak⁴: Ekintza nahikoa ausarten bitartez sekulako aberastasuna eskuratzea lortu zuten eskrupulu gutxiko bi tratalarik, eta gizarte onean sartzea zuten handik aurrerako kezka bakarra. Zera iruditzen zitzaizkien horretarako biderik aproposena, bere margolanak gertakari moduan baloratzen zitzaizkion hiriko margolari ospetsuenari eta garestienari erretratu bana egin diezaiela eskatzea. Erakusgela handi batean erakutsi zituzten bi erretratuak lehenengo aldiz, eta bi margolanak bata bestearen ondoan zintzilikaturik zeuden gelako orma aurrera joanarazi zuten bi jabeek hirian eraginik handiena zuen arte-ezagutzaile eta kritikoa, harridurazko iritzi bat aterako ziotelakoan. Denbora luzez behatu zituen bi margolanak, eta zerbaiten falta sumatu izan balu bezala burua mugitu zuen, eta bi erretratuen artean zegoen hutsunea adieraziz hau besterik ez zuen galdetu: «And where is the Saviour?» (Eta salbatzailea non dago?). Ondotxo ikusten dudanez, txiste hau dela eta denok farrez ari zarete; ba oraintxe ekingo diogu bere egiturari sakontzeari. Denok ulertu dugunez, arte-ezagutzaileak hau baino ez zuen adierazi nahi: bihurri pare bat zarete zuek, Salbatzailea gurutzean zegoenean inguratu zuten bi haiek bezalakoeak. Baina esan, ez zuen hori esan; horren ordez hasieran oso desegoki eta harira ez zetorren zerbaiten antza zuena esan zuen; guk, ordea, berak egin nahi zien burlarekiko zeharresan-lotura duen jolas bezala eta asmo horren erabateko ordezko egoki moduan ulertu dugu berehala. Gure pazienteari ideia gogorra datorkionean gerta ohi diren erlazio guztiak ezin aurkituko ditugu txistearen sorrerakoan, baina txistearen eta gogoratutako ideien motibapen-berdintasunari eskaini nahi genieke orain gure arreta. Zergatik ez ote zien esan zuzen-zuzenean hasieratik esan nahi ziena bi bihurri haiei arte-kritikoak? Inolako estalkirik gabe aurpegira esateko gogoarekin batera aurkako arrazoi onak ere bazituelako noski. Ez baita arriskurik gabekoa norbait iraintzea bere gonbidatua zarenean eta morroi ugariren ukabletako indarra bere esanetara duenean. Aurreko mintzaldian «errepresioaren» analogia moduan ekarri nuen egoera hartan aurki daiteke, erreztasun osoz, arrazoietako bat. Arrazoi honetxegatik ez du zuzen-zuzenean adierazten kritikoak bere burla, baizik eta «osatu gabeko zeharresan» moduan moldatzen du desitxuraturik bere asmoa; konstelazio berak eragiten du bila gabiltzan ahaztutakoaren, gehiago edo gutxiago, desitxuratutako ordezko ideia bat gogorra dezala gure pazienteak, guk uste dugunez behintzat.

Jaun-andreok, egokia da, Zuricheko eskolari jarraituz (Bleuler, Jung eta beste), afektuz kargaturiko eta elkarri lotutako irudikapen-osagai multzo bati «konplexu» izena ematea. Ikus dezakegunez, beraz, erreprimaturiko konplexu bat aurkitu asmoz, gaixo batek gogoratzen duen azkenekotik abiatzen bagara, bila gabiltzana aurkitzeko aukera guztiak ditugu, baldin eta gaixoak gogorra datozkion ideia libreetatik nahikoa kopuru egokia eskaintzen badigu behintzat. Gogoko duenaz hitz egiten uzten diogu, horrela, gaixoari eta honako auresuposapen honi lotzen gatzatzen, bila gabiltzan konplexuarekiko zeharkako lotura duten ideiak baino ez zaizkiola bururatuko. Erreprimaturitako aurkitzeko bide hau neketsuegia irudituko balitzazue, horixe dela ibilgarri dagoen bide bakarra esango dizuet ziurtasun osoz.

Teknika honetaz baliatzen bagara beste eragozpen hau ere aurkituko dugu oraindik bidean: gelditu egiten da bere kontakizunetan gaixoa, trabatu egiten da eta ezertxo ere ez dakiela dio, ez datorkiola ezertxo ere gogorra. Hau gertatuko balitz, eta gaixoak arrazoi balu, berriro ere desegokitzen agertuko litzaiguke gure azterbidea. Horrelako ideiak ezin-gogoratzerik ez dela inoiz gertatzen erakutsiko liguke, ordea,

behaketa zehatzago batek. Itxuraz gertatzen da hori eta modu honetan, gainera: gogoratutako ideien balioaz iritzi kritiko ezberdinez estalitako erresistentziaren eraginpean ideia horiek gorde edo saihestu egiten ditu gaixoak. Jokabide posible honen berri gaixoari aurrez emanaz eta sumatzen duen kritika horri inolako garrantzirik ez emateko eskatuz gaindi daiteke eragozpen hori. Horrelatsuko sentipen kritikoak alde batera utziz gogora datorkion guztia adierazi behar du, baita desegokia iruditzen bazaio ere, edo kontura ez datorrena eta zentzurik gabea dela, eta datorkion ideiaz pentsatzea desatsegin gertatzen zaiola suma dezanean bereziki. Agindu hau betetzen badu, erreprimitutako konplexuaren haztarnetara eramango gaituen materiala eskuratu ahal izanen dugu inolako zalantzarik gabe.

Sendagilearen gidaritzapean egon beharrean erresistentziaren eraginpean dagoenean, gaixoak gutxietsiz kanpora botatzen dituen gogoratutako ideia horietxek osatzen dute landu gabeko meakina psikoanalitikariarentzat, zeinetatik berak intrepresazio-teknika arrunt batzuen bitartez metal preziatua aterako duen. Gaixo baten erreprimituriko konplexuen behin-behingo ezagutza azkar bat lortu nahi baduzue, berorien sailkapenean eta berorien arteko loturetan sakondu gabe, asoziazio-saio izeneko azterbideaz balia zaitezke, Jungék eta bere ikasleek egiten duten eran⁵. Analisi koalitatiboak kimikariari eskuratzen dion hainbat zerbitzu eskuratzen dio azterbide horrek psikoanalitikariari; ez da beharrezkoa berorretaz baliatzea gaixo neurotikoen sendabidean; ezinbestekoa da, ordea, konplexuen demostrazio objektiborako eta Zuricheko eskolakoei hain emaitza arrakastatsuz erabili duten psikosien azterketarako.

Psikoanalisiaren arau nagusiari jarraituz, gaixoari gogora datozkion ideien azterketa ez da inkontzientea argitzeko daukagun jardunbide bakarra. Beste bi azterbidek ere helburu berdina dute: bere ametsen interpretazioarenak eta bere jokabide okerren eta kasualitatezkoen balorapenarenak, hain zuzen ere.

Psikoanalisiaren eremu guztiaz ikuspegi laburtu hau eskaini ordez ez ote litzatekeen egokiagoa ametsen interpretazioaz luze-zabalago jardutea erabakitzerakoan, zalantza handiak izan ditudala aitortu behar dizuet nire entzule adituoi⁶. Arrazoi subjektibo eta itxuraz bigarren mailako batek bultzatzen nau egin dudana egitera. Helburu praktikoetara emana dagoen lurralde honetan, teknika zaharkitu eta lotsagarritzatutako honek beretzat eska dezakeen tokiaz zuek ezer jakiteko aukerarik izan aurretik, nire burua «amets-interpretatzaile» moduan agertzea eskandalagarritzat jo nuen. Inkontzientearen ezagutzarako benetako Via Regia da ametsen interpretazioa, psikoanalisiaren oinarriarik ziurrena, eta, ondorioz, analitikari orok horretaz konbentzitzea eta bere prestakuntza eremu honetara bideratzea nahi beharko luke. Bat psikoanalitikari nola egin daitekeen galdetzen didatenean, «norberaren ametsak aztertuz», erantzun ohi dut nik. Diplomazia osoz saiatu dira, orain artean, psikoanalisiaren aurkariak «ametsen interpretazioa» alde batera uzten, edo objektzio ahulenak aitatzat lortu dute arazoari ez ekitea. Amets-bizitzako arazoei konponbidea jartzeak kezkatzen bazaituzte, ordea, psikoanalisiak zuen gogoetarako aurkezten dizkizuen berrikuntzek ez dizute inolako eragozpenik sortuko behin honez gero.

Ez duzue ahaztu behar, alde batetik arima-gaixotasunetako sorkariekiko barneko aidetasunik eta kanpoaldeko antzekotasunik handiena dutela gaueko gure amets-produkzioek, eta bestalde, gainera, esna-bizitzaren erabateko osasunarekin elkargarri direla. Ez da inolako paradoxa zera baieztatzea, zentzumenen irudikerien, eldarnioen eta izakerazko aldaketa «arrunt» aurrean ulertu beharrean harritzen denak ez duela inolako aukerarik, ez ezjakin batek baino gehiago behintzat, arima-egoera patologikoan

eman ohi diren sorkari ezarruntak ulertu ahal izateko. Ezjakin horietakotzat har ditzakezue gaur egungo ia psikiatra guztiak. Jarrai iezadazue, orain, amets-arazoen eremuan zehar egingo dugun ibilaldi azkar honetan.

Psikoanalitikariak eskatzen dizkion gogoratutako ideiei gaixoak eman ohi dien erdeinuzko trataera bera eman ohi diegu guk ere gure ametsei esnatzen garenean. Guk ere gugandik aldenarazten ditugu ohituraz berehalakoan eta erabat ahazten ditugunean. Zentzuzkoak eta nahasmenik gabeak diren ametsen arrotasunean ere oinarritzen da gure mesprezua, baina bereziki beste amets batzuen absurdutasunean eta zentzugabekotasunean; zenbait ametsetan argi eta garbi adierazten diren joera ezmorealekiko eta lotsagarriekiko erlazioa baino ez du ispilatzen gure ukapen horrek. Antzinateak ez zuen onartzen ametsetik mesprezu hori. Eta gaur egun ere gure herriko maila baxuenek ez dute zalantzan jartzen beroriekiko duten estima; berorien bidez argitu nahi dute beren etorkizuna, antzinatekoek egin ohi zuten modura.

Gure gaur egungo ezagutzetako hutsuneak betetzeko ez dut hipotesi mistikoen inolako beharrik sumatzen, hori horrelaxe aitortzen dut, eta horretxegatik ez dut aurkitu ametsen izaera profetikoa baieztatuko lukeen ezertxo ere. Beste era bateko gauzak, berez nahikoa harrigarriak, esan daitezke ametsei dagokienez.

Lehenik eta behin, ez amets guztiak dira ezezagunak, nahastaileak eta ulergaitzak ameslariarentzat. Urte t'erditik gorako haur gazteen ametsak aztertzeari ekiten badiozue, oso xumeak eta ulerterrazak direla konturatuko zarete. Egunak piztu bai baina bete ez dizkien nahimenen gauzatzea da haur txikien ametsen gai nagusia. Ez da interpretazio-gaitasun handirik behar hain argibie errazak bilatzeko; nahikoa da aurreko egunean (amets-egunean) haurrak izan dituen bizipenen berri izatea. Horixe litzateke irtenbiderik egokiena emetsen hieroglifikoarentzat ere, helduen ametsak haurrenak bezalakoak izatea, hau da, amets-egunak eragin dizkien nahimenen gauzatze bat besterik ez. Eta izan, horrelaxe da; ametsen azterketa sakonago baten bidez gaindi daitezke, urratsez urrats, sortzen diren zailtasun guztiak.

Guztien artean honako hau da lehena eta garrantzizkoena, nahimenen gauzatzearekiko inolako adierazpiderik gabeko edukin ulergaitza izan ohi dutela helduen ametsak. Eta hau litzateke erantzuna: desitxuraketa bat izan dute amets horiek; horien oinarri diren prozesu psikikoek jatorriz erabat bestelako agerpide bat izan behar zuketean hitzetan. Goizean lainotsu gogoratzen eta, nahiz eta, antza denez, horrela nahi izan da, hitzez nekez jazten duzuen ametsen agiriko edukia inkontzientean gorderik daudela suposatu behar diren ezkutuko amets-gogoetetatik bereiz behar duzue. Histeria-sintomen sorkuntza aztertzerakoan ezagutu duzuen prozesu berdinekoa da ametsen desitxuraketa hau; arima-indarren arteko aurkako burruka berbera dela sintomen sorkuntzan eta ametsenean gauzatzen dena adierazten du. Amets-gogoeta inkontzienteen ordezkoko desitxuraketa da ageriko amets-edukia, eta desitxuraketa hori nia babesten duten indarren emaitza da, inkontzientean erreprimaturik dauden gogoetei egunez kontzientziarako bidea erabat eragozten dieten erresistentzia, alegia; hauek, gainera, lo-egoerako ahulezian bertan oraindik ere nahikoa indartsu irauten dutenez, gogoeta haiek desitxuratzerantz behartzen dituzte egoera horretan ere. Histerikoak bere sintomen errefentzia eta esanahia bezain gutxi ulertzen du ameslariak bere ametsen zentzua.

Ezkutuko amets-gogoetak daudela, eta horien eta ageriko amets-edukien artean oraintsu deskribatutako erlazioa dagoela, horretaz, ametsak psikoanalisiaren teknika berberaz aztertzerakoan komentzituko zarete. Ageriko ametsetako osagaien arteko

itxurazko erlazioak erabat baztertu eta psikoanalisiaren lan-arauari jarraituz asoziazio askean amets-eduki bakoitzarekiko moldatzen diren burutapenak bildu behar dituzue. Material horretatik abiatuz antzemango diezue ezkutuko amets-gogoetei, gaixoak bere sintomaz eta oroitzapenez zituen burutapenetatik abiatuz haren ezkutupeko konplexuei antzematen zenieten bezalaxe. Horrela aurkitutako ezkutuko amets-gogoetetan ikusi ahal izanen duzue, inolako zailtasunik gabe, helduen ametsak hurrenetara birbideratzea zein zuzena den. Orain erraz ulertzen da, ametsaren benetako zentzu moduan zerk ordezkatzan duen ageriko amets-edukia; aurreko eguneko bizipenei lotzen zaio eta bete gabe geratutako nahimenen gauzatze moduan agertzen da. Helduen oroitzapenetatik ezaguna zaizuen ageriko ametsa erreprimaturiko nahimenen betetze maskaratu moduan bakarrik deskribatu ahal izanen duzue beraz.

Amets-gogoeta inkontzienteak desitxuratuz ageriko amets-eduki bilakarazi dituen prozesua ere ulertu ahal izanen duzue orain lan sintetikoaren moduko baten bitartez. «Amets-lana» deitzen diogu guk prozesu horri. Gure ardura teoriko guztia merezi du, hor azter baititzakegu, beste inon baino hobeto, zer nolako ustekabeko gertakariak eman daitezkeen inkontzientean, edo zehatzago adierazteko, kontziente eta inkontziente bezalako bi egitura psikiko berezien artean. Kondentsazioarena eta desplazamenduarena dira berriki ezagutu ditugun gertakarien artean gehien nabarmendu direnak. Arimako taldekatzeko ezberdinek elkarrekiko dituzten eraginaren kasu berezi bat da amets-lana, hau da, arima-banaketaren ondorio bat, eta erreprimaturiko konplexuak, porrot egin duen errepresio-saio batean, sintoma bilakarazi dituen desitxuraketa-lan harekin berdindute oinarritzen.

Ametsak aztertzerakoan, eta bereziki zeunak badira, harriduraz aurkituko duzue haurtzaroko urteetako bizipenek eta inpresioek nolako ustekabeko eragina izan duten gizakiaren garapenean. Ametsetako bizitzaren bitartez eman ohi dio haurrak jarraipena bere gizaki-existentziari bere berezitasun eta nahimen guztiekin, geroagoko bizitzan alferrikakoak bilakatu bazaizkio ere. Indar menderagaitzez agertuko zaizue, jatorriz oso bestela hornitutako haur hartatik nolako garapenen, errepresioen, sublimazioen eta erreakzio-moldaketen bidez eratu ohi den normaltzat hartu ohi den gizakia, hainbeste nekez lortutako kulturaren jabe eta aldi berean zerbitzari ere badena.

Beste zerbait ere adierazi nahi dizuet hemen, alegia orain jarraieran doazen aurkikuntzak egin ditugula ametsak aztertzerakoan, bereziki konplexu sexualak adierazteko sinbolismo berezi batez baliatzen dela inkontziente, eta sinbolismo hori neurri batean norbanakoaren arabera aldakorra bada ere, beste batean, ordea, gure sineskerietan eta ipuinetan suposatzen dugunaren arabera tipikoki erabakirik dagoena dela. Ez litzateke harritzekoa izango, baldin eta herrien azkenengo sorkeriek ametsetatik jasoko balute dagokien argikuntza.

Ohar bat egin behar dizuet azkenik, hau da: ametsetan nahimenak betetzen direla ikusi nahi duen gure ikuspegiaren aurka legokeelako beldurrezko ametsak edukitzea dioten objektuak ez zaitezte, inolaz ere, okerbideratzen utzi. Iritzi bat osatu aurretik beldurrezko ametsak ere interpretazio baten beharrean direla alde batera utziz, zera esan behar da orokorki, beldurra ez doala amets-edukiari loturik, beldur neurotikoaren baldintzaz ezagutza gehiagorik gabe sinestu ohi den modu xumean. Indartsu bilakatu diren erreprimaturiko nahimenen aurkako nia-ren errefusapen-erreakzioetako bat da beldurra, eta arrazoi horretxegatik baita ongi argitu daitekeena ere, amets-moldaketak erreprimaturiko nahimen horien zerbitzuan gehiegi eman behar izan duenean.

Ikus dezakezuenez, bestela argitzen zailak liratekeen gertakariei buruz eskaintzen dituen argibideak nahikoa dira ametsen ikerkuntza zuritu ahal izateko. Neurotikoen tratamendu psikoanalitikoaren bitartekotasunez iritsi gara gu horretara. Orain artean esandakoak kontutan izanik erraztasunez ulertuko duzue, nola ametsen interpretazioaren bidetik, baldin eta gaixoaren aldetikako erresistentziak gehiegi zailtzen ez badu behintzat, gaixoaren ezkutupeko eta erreprimitutako nahimenetara eta hauek elikatzen dituzten konplexuetara iritsi daitekeen bat; eta orain arima-gertakarien hirugarren multzo bat aztertzeraz jo dezaket, berorren ikerketa psikoanalisiaren baliabide tekniko bilakatu baita.

Bai pertsona normalen, bai urdurien hutsegiteak dira, bestela inolako garrantzirik eman ohi ez zaien horietakoak: jakin zitzakeen eta besteetan jakin ere badakizkien gauzak ahaztea (norbaiten izena denboraz ez gogoratzea, adibidez); hitz egiterakoan hain maiz gertatzen zaizkigun mihi-trabakuntzak; idazterakoan eta irakurtzerakoan egin ohi ditugun oker berdintsuak; jarduterakoan gauzak nahastea, eta objektuak galtzea edo puskatzea, e. a., bestela inolako determinismo psikikorik bilatzen ez zaien gauza nabarmenak, eta kasualitate bezala, edo adikortasunik ezaren edo antzeko baldintzen ondorio moduan arretarik eskaini gabe pasatzen uzten direnak. Gizakiek konturatzeke, eta arrazoi gehiagoz inolako garrantzi psikikorik eman gabe, egin ohi dituzten keinu eta ekintzak gehitu behar zaizkie horiei: gauzekin jolastea edo habileziak egitea, abesti-doinuak tarareatzea, norberaren gorputzarekin eta bere jantziekin jardutea, eta antzekoak⁷. Gertakari txiki hauek, oker bideratutako ekintzak eta ekintza sintomatikoak eta kasualitatezkoak bezalakoak, ez dira, isilpeko adostasun batez, onartzeko prest egon ohi den bezain garrantzirik gabekoak. Gertatu ohi direneko egoerak kontutan hartuz gero, zentzuz beterikoak dira, erraztasunez eta ziurtasunez interpretatzeko modukoak maiz, eta horretatik ondorioztatu ohi denez, baztertu diren eta norberaren kontzienteari ezkutatu behar zaizkion bulkadei eta asmoei adierazpidea eman ohi dietenak, edo guk jadanik sintomen sortzaile eta ametsen eragile bezala ezagutu ditugun erreprimituriko nahimenetatik eta konplexuetatik datozenak. Sintomen garrantzi bera zor zaie, beraz, eta arima-bizitzan ezkutaturik dagoena argitzera eraman gintzake ardura horrek, ametsei eskaintzen zaienak bezalaxe. Bere sekretu intimoenak ezagutu ditzake horren laguntzaz pertsonak normalki. Eta askotan eta erraztasunez gertatzen badira, baita bere ezkutupeko eraginak erreprimitzea ondo ateratzen zaien pertsona osasuntsuen kasuan ere, berorien garrantzigabetasunari eta ezigauzari zor zaie hori. Baina balio teoriko handia eska dezakete, ze osasun oneko baldintzetan ere errepresioaren eta ordezkoen moldaketaren existentzia frogatzen baitigute.

Ikusten duzuenez, arima-bizitzaren determinismoan duen sinesmen bereziki itxiak ezaugarritzatzen du psikoanalitikaria. Adierazpen psikikoetan ez dago ezer txikirik, ezer nahierakorik eta kasualitatezkoak bere iritzirako; ohituraz horrelako eskabiderik ez badago ere, berak bidezko arrazoiaren baten itzaropena du non nahi; gertakari psikiko bakar bat argitzeko arrazoi anizkorrak aurkitzeko prest dago beti, itxuraz jatorrizko gure arrazoi-beharrek arrazoi psikiko bakar bat nahikotzat emango lukeen bitartean.

Arima-bizitzan ezkutaturik, ahazturik, erreprimiturik dagoena argitzeko dauzkagun baliabideak har itzazue, laburbilduz, kontutan: asoziazio askearen bitartez eraginiko pazientearen burutapenen, bere ametsen, oker bideratutako bere ekintza sintomatikoaren azterketa; gehitu horri tratamendu psikoanalitikoaren bitartean agertu ohi diren beste gertakari batzuen balioztapena, —honetaz geroago «transferentzia» izenburupean hainbat ohar eginen dizkizuet—, eta ondorio honetara iritsiko zarete nirekin batera, hau da, gure jardunbide hau nahikoa eraginkorra dela bere eginbeharra burutu ahal izateko, material psikiko patogenoa kontzientziara bideratzeko eta ordezko

sintomen moldaketen bitartez eraginiko ondoezak bide horretatik saihesteko ere. Ahalegin terapeutikoetan zehar pertsona osasuntsu eta gaixoen arima-bizitzaz dugun gure ezagutza zabaldu eta sakondu egiten dugularik, hori lan honetarako eragin eta hobespen moduan onartzeko hainbateko arrazoi bada.

Bere horniduretan zehar gidatuz gure jardunbidea bereziki neketsua delakoaren susmoa sortu ote zaizuen beldur naiz. Burutu behar duen eginkizunari egokitua dela pentsatzen dut nik. Baina hori bezain egia da ez dela berez ulergarria eta ikasi beharrekoa dela, histologia- eta kirurgia-jardunbideak ikasi behar diren bezalaxe. Harritu egingo zaituzte, behar bada, zera jakiteak, alegia, psikoanalisiari dagozkion iritzi ugari entzun ditugula jardunbide horretaz ezertxo ere ez dakiten eta berorretaz baliatzen ez diren pertsonengandik, eta gero, trufatuz edo, gure emaitzen zuzentasuna froga diezaiegula eskatzen digutela. Aurrakako horien artean izanen dira, ziurrenik, bestela pentsakera zientifikoa ezezagun ez zaien pertsonak ere, eta, adibidez, azterketa mikroskopiko baten emaitzei baliorik ukatuko ez lieketenak prestapen anatomikoan begi hutsez ezin ikus daitezkeela arrazoituz, eta hori gaiari dagokion iritzia mikroskopioaren laguntzaz berek beren erara moldatu baino lehenago gainera. Psikoanaliaren eremuan, ordea, honen onarpenerako indar-erlazioak benetan okerrago daude. Arima-bizitzan erreprimaturik dagoena onarpen kontzientera ekarri nahi du psikoanalisiak, eta psikoanalisiak bere epaia ematen duen oro horrelatsuko errepresioak dituen pertsona da, eta agian neke handiz bakarrik indarrean iraunarazten dien horietakoa gainera. Eta gaixoari eragiten dion erresistentzia berbera eraginarazi behar dio berari ere, eta erresistentzia horri erraza gertatzen zaio ukapen intelektualez janztea eta guk oinarrizko arau psikoanalitikoaren bitartez gure gaixoengan baliogabetzen ditugun arrazoiketa berdinak aurkeztea. Gure gaixoengan bezalatsu, epai-gaitasuna gutxiagotzen duen bulkada afektibo nabarmena aurkitzen dugu, oso maiz, gure aurkarietan ere. Konplexu inkontzienteak argira atera ez daitezen gu guztiok orokorki aurrez horniturik gauden babes-indarretatik nagusienetakoa da, adibidez, ametsak hainbeste gutxien dituen kontzientziaren harrokeria, eta horretxegatik da hain zaila pertsonak inkontzientearen errealtateaz konbentziaztea eta beren ezagutza kontzientearen aurka dagoen zerbaite berria ezagutzen irakastea.

IV

Jaun-andreok! Aurrez zehaztutako baliabide teknikoen laguntzaz konplexu patogenoei eta neurotikoen erreprimaturiko nahimenei dagokienez zer aurkitu dugun jakin nahiko duzue, noski, orain.

Lehenik eta behin, gauza bat: gaixoen ondoez-sintomek beren maitasun-bizitzako bizitapenetan dutela jatorria adierazten digu ikerketa psikoanalitikoak erregulartasun biziki harrigarri; nahimen patogenoak sen-osagai erotikoen izakerazkoak direla erakusten digu, eta beste hau onartzera behartzen gaitu, bizitza erotikoko okerre garrantzirik handiena dutela gaixotasunera bideratzen duten bulkaden artean, eta hori gertatu, bi sexukoaren artean gertatzen dela, gainera, horrela.

Badakit ez zaidala gogo onez sinestuko baieztapen hau. Beren borondatez nire lan psikologikoen jarraipena egiten duten ikerlariak berek ere zera pentsatzera jo ohi dute, osagai sexualen garrantzi etiologikoa gehiegi azpimarratzen dudala, eta era honetako galderak egiten dizkidate, ea zergatik bestelako bulkada psikikoek ere ez duten jadanik deskribatutako errepresio eta ordezkien moldaketen gertakarietarako aukerarik ematen.

Hau da nik erantzun dezakedana: nik ez dakit zergatik ezin dezaketen, eta ez dut ezer horren aurka, baina esperientziak erakusten du ez dutela horrelako garrantzirik, gehienez ere sexu-osagaien eragina handiagotu dezaketela, baina inolaz ere ez ordezkatu. Eta gertakari hau, gainera, ez dut nik teoriaz aurreuposatu; J. Breuerrekin batera 1895.ean histeriari buruz argitaratutako azterlanetan oraindik ez nuen nik ikuspegi hori defendatzen; nire esperientziak ugaritzen eta aztergaian sakonagotzen joan nintzen neurrian bideratu behar izan nuen ikuspegi horretara. Jaun-andreok! Worcesterrera bidaia nirekin batera egin duten nire lagun minenetako eta jarraitzaileetako batzuk zuen artean daude orain. Galde iezaiezue beraiei eta beraiei entzun ahal izango diezue, inolako sinesgarritasunik gabe hartu zutela lehenik etiologia sexualaren oinarritzko garrantziaren baieztapena, ahalik eta beren ahalegin analitiko propioek hori erabat onartzerara behartu zituen arte.

Pazienteen jokabideak ikusita ez da erraza eztabadiatzen ari garen ikuspegiak konbentzitzea. Beren borondatez sexu-bizitzari dagozkion informazioak guri aurkeztu ordez, hori ezkutatzen saiatzen dira beren ahalegin guztiz. Gizakiak ez dira batere irekiak sexuari buruzko kontuetan. Ez dute askatasunez erakusten beren sexu-bizitza; oso bestela, gezurrez moldatutako tapaki lodi batez estaltzen dute, sexualitatearen munduan eguraldi txarrik balego bezala. Eta ibili, ez dabilta oker, ez eguzkia eta ez haizea baitira batere ongi etorriak gure kultur munduko sexu-jardueran; izan ere, gutako inork ezin baitio besteari bere erotika askatasunez erakutsi. Zuen pazienteek susmatu dutenean, ordea, tratamendu bitartean beldurrik gabe egin dezaketela hori, tapaki hura kentzen dute, eta orduan bakarrik osa dezakezue gure eztabaida-ikuspegiari buruzko iritzia. Sexu-bizitzako arazoekiko beren jarrera pertsonalean sendagileak berak ere, tamalez, ez dira beste gizakiak baino irekiagoak, eta sexualitate-kontuetan «kultur pertsona» gehienera jokabidea erabakitzen duen belaskeria eta zalekeriaren arteko elkargoaren menpe daude berorietako asko eta asko.

Utz iezadazue orain gure emaitzen aurkezpenarekin aurrera egiten. Beste kasu-andana batean ikerketa psiakoanalitikoak, egia da, ez du argitzen sintomen sorrera sexu-bizitapenen ondorio moduan, bestelako bizipen arrunten emaitza bezela baizik. Beste baldintza batzuek, ordea, garrantzirik gabeko bilakarazten dute ezberdinketa hori. Gaixotasun kasu bat erabat argitu eta erabat sendatu ahal izateko beharrezko den azterketa-lana ez da mugatzen, inolaz ere, gaixotze-aldiko bizipenetara, baizik eta oso bestela, gaixoaren nerabearoraino eta haurtzaroraino ikertu ohi da, geroago agertu den gaixotasuna eragingo duten bizitapenak eta gertakariak hor aurkitu asmoz. Haurtzaroko bizipenek eskaintzen baitute geroagoko traumen aurkako sentiberatasunaren argibidea, eta, ia erregultasun osoz, ahazturiko oroitzapen-aztarna horiek argitzeak eta kontziente egiteak eskainiko baitigute sintomak saihesteko beharrezko dugun ahalmena. Ametsen azterketako emaitza berdinerara iristen gara hemen, hau da, haurtzaroko nahimen erreprimiteuek, iraunkorrek jarri dutela sintomen sorkuntzarako indarra, eta hori gabe geroagoko traumekiko erreakzioa normala izanen litzatekeela. Haurtzaroko nahimen indartsu hauek sexualtzat jo genitzake orokorrean.

Oraintxe bai, badakit harriturik zaudetela. Ba ote dago, bada, haur-sexualitaterik?, galdetuko duzue. Ez ote da, bada, haurtzaroren ezaugarrietako bat, sexu-senik ez izatea? Ez, jaun-andreok, ziur ez dela horrela gertatzen, sexu-irrika haurrengana nerabezaroan datorrela Ebanjelioan deabrua urdetara doan bezala. Hasieratik ditu haurrak bere sexu-irrika eta sexu-jarduera, berarekin dakartza mundura, eta moldatu ere berorietatik moldatzen da, aldi ugari osatutako eta zentzuzko garapen baten ondoren, helduen hala deitutako sexualitate normala.

Erraztasunez beha daitezke haurren sexu-jardueraren adierazpideak; horrelakoak ez ikusteko edo oker interpretatzeko nolabaiteko abilezia ere behar da.

Patuaren mesede bati esker, nire baieztapenen lekuko bat zeuron artetik aurkezteko egoeran aurkitzen naiz hemen. 1902.ean «American Journal of Psychology» izeneko aldizkarian Sanford Bell doktoreak argitaratu zuen lan bat erakutsiko dizuet orain. Clark Unibertsitateko kideetako bat da egilea, gu gauden gela hauetako Instituto berekoa. A preliminary study of the emotion of love between the sexes izenburua daraman artikuluan,—nire «Sexu-teoriaz hiru saiakera» hura baino hiru urte lehenago argitaratua,—, nik berriki adierazi dizuedan bezalaxe dio egileak: The emotion of sex-love... does not make its appearance for the first time at the period of adolescence, as has been thought. (Sexu-maitasunaren sentipena... ez da agertzen lehenengo aldiz nerabezaroan, pentsatu izan den bezala). Guk Europan esango genukeenaren moduan, amerikarren eran lan egin du berak, 15 urteetan zehar 2.500 behaketa baikor baino gehiago, eta horietatik 800 bere-bereak. Maitemindura horiek agertzen diren zeinuei dagokienez, zera dio berak: The unprejudiced mind in observing these manifestations in hundreds of couples of children cannot escape referring them to sex origin. The most exacting mind is satisfied when to these observations are added the confessions of those who have as children experienced the emotion to a marked degree of intensity, and whose memories of childhood are relatively distinct. (Ehundaka haur bikoteetan agertzen diren adierazpide hauek behatzerakoan, ezin utz ditzake sexu-jatorriari erreferentzia bat egin gabe aurriritzirik gabeko pertsona batek. Haur zirenean sentipena sakontasun bereziz sumatu zutenen eta haurtzaroko oroitzapenak erlatiboki argi dituztenen aitorenak behaketa horiei gehitzen zaizkienean ontzat ematen ditu adimenik zorrotzenak ere). Zuen artean haur-sexualitatean sinestu nahi ez duten haiek harrituko dira gehienik zera entzuten dutenean, maitemindu ziren haur hauen arteko ez gutxi hiru, lau eta bost urteko adin goxoan aurkitzen zirela, alegia.

Ez nintzateke batere harrituko zuen herrikidearen oharpenak nireak baino gehiago sinestuko bazenituzte. Orain dela gutxi izan dut nik ere zortea, beldurraren oinazepean zegoen bost urteko mutikotxo baten azterketatik —bere aitak teknikoki zuzen bideratutakotik⁸— haur maitasun-bizitzaren lehen alditako irrika-adierazpen somatikoei eta arima-ekoizpenei dagokien ikuspegi nahikoa osatu bat lortzekoa. Eta gogorarazi diezazuekedanez, orain dela ordu gutxi irakurri ditu hitzaldi-areto honetan bertan nire lagun C.G. Jung doktoreak neskaxa gazteago bati zegozkion oharpenak, nire pazienteareneko gertakari berdinean oinarrituz —anaiatxo baten jaiotza— ia zentzumen-eragite, nahimen- eta konplexu-moldaketa berdinak ziurtasun osoz ondorioztatzen uzten dutenak. Hasieran arrotz gertatu zaizuen haur-sexualitateari dagokion ideiarekin adiskidetuko zareten itxaropen osoa dut, eta Zuricheko Bleuler psikiatraren adibide ospetsua gogoratu nahi dizuet, zeinek orain urte gutxi «sexualitateari dagozkion nire teoriak ezin ulertu zituela» adierazi baitzuen hitzez hitz, eta ordutik hona bere oharpen propioen bitartez baieztatu baitu haur-sexualitatea bere erabatekotasunean⁹.

Erraz argi daitekeen gertakaria da, gizaki askok, bai sendagile behatzaileek eta baita bestelakoek ere, haur-sexualitateaz ezertxo ere ez dutela jakin nahi. Kulturarako heziketaren indarpean beren haurtzaroko sexu-jarduera ahaztu egin dute, eta erreprimaturikoaz ez dute gogoratu nahi orain. Oso bestelako konbentzimentura iritsiko lirateke baldin eta norberaren analisiatik eta haurtzaroko oroitzapenen birrazterketatik eta interpretaziotik abiatuko balira.

Utz itzazue zuen zalantzak, eta zatozte nirekin lehen urteetako haur sexualitatea goraiatzera¹⁰. Oso konplexutasun handiko bezala agertzen den haur sexualitatea jatorri ezberdina duten osagai ugaritan bana daiteke. Ugalketa-eginkizunetik aske dago erabat, geroago horretara jarriko bada ere. Era ezberdinetako gozamina lortzera bideraturik dago, guk analogi eta erlazioen arabera sexu-gozamen bezala adierazten duguna lortzera, alegia. Berezi estimulagarri diren gorputz-une berezi batzuk eragin egokiz kinatzen lortzen da haur sexu-gozamina, ernalkinetatik aparte ahoa, uzkia eta maskuriaren irekieratik, baina baita azal- eta beste zentzumen-gainetatik ere. Haur sexu-bizitzaren lehen aldi hauetan asepena norberaren gorputzean eta beste objektu arrotz batekiko loturarik gabe bideratzen denez, autoerotismoaren aldia izena ematen diogu Havelock Ellisek ezagutarazitako formula erabiliz. Eta sexu-gozamina lortzeko esanguratsu diren soinguneak adierazteko «gune erogeno» izenaz baliatzen gara. Haur txikien gogozko zupatze-jardura horrelako gune erogeno batetikako asepen autoerotikoaren adibide egokia da; gertakari honen lehen behatzaile zientifikoa Budapesteko Lidner izeneko haur-sendagile bat izan zen eta sexu-asepen bezala zuzen interpretatu zuen eta horretatik bestelako sexu-jardura landuagoetarako pasabidea era aberatsean deskribatu zigun¹¹. Bizitzaren epe horretako beste sexu-asepen mota bat geroagoko bizitzarako hainbesteko garrantzia hartuko duen eta zenbait norbanakok inoiz gaindituko ez duen ernalkinen kinatze masturbatzailea da. Hau bezalako eta bestelako jardura autoerotikoekin batera beste pertsona bat baldintza bezala hartzen duen sexu-gozamenerako irrika-osagaia ere, guk libido izenez adierazi ohi duguna, oso goiz agertzen da haurraren. Elkarren aurkako pare moduan agertzen dira irrika hauek, aktibo eta pasibo moduetan, alegia; talde hauen adibidetzat oinazea sortzearen gozamina (sadismoa) eta bere aurkako pasiboa (masokismoa) aipatuko dizkizuet, eta ikusgura-gozamen aktiboa eta pasiboa, hauetako lehenengotik geroago jakinmina bideratuko delarik eta bigarrenetik adierazpen artistikora eta antzerkizkora daraman ahalegina. Objektu-hautapenaren ikuspegiaren sartuko lirateke haurraren beste sexu-jardura batzuk, zeinetan bere jatorrizko balioa norberaren autoirauen-irrikari zor dion pertsona arrotz batek hartzen duen eginkizun nagusia. Sexu-ezberdintasunak, ordea, ez du garrantzizko betekizunik garapenaren aldi honetan; edozein haurraren ikus dezakezue, inolako bidegabekotasunik egin gabe horregatik, halako joera homosexual bat.

Irrika bakoitza besteekiko loturarik gabe gozamen bila dabilen bizitza sexual aberats eta ugari, eta, aldi berean, batasunik gabeko honek bi norabide ezberdinetatik doazen elkarbatzea eta antolaketa jasaten ditu, pubertaroaren amaierarako norbanakoaren sexu-izakera erabat osaturik geratuko delarik horrela. Ernalkin-gunearen gidaritzapera biltzen da irrika bakoitza, alde batetik, sexu-bizitza guztia, bide horretatik, ugalketaren zerbitzura jartzen delarik, eta irriken asepena berezko sexu-ekintzarako prestakuntza eta biderakuntza moduan bakarrik geratzen delarik garrantzizko. Bestalde, eta aldi berean, objektu-hautapenak aurrea hartzen dio autoerotismoari, sexu-irrikaren osagai guztiek maitasun-bizitzan pertsona maitatuarengan bakarrik aurki dezaketelarik beren asepena. Utzi, ordea, ez zaie uzten jatorrizko sexu-irrika guztiei sexu-bizitzaren erabateko moldaketa honetan parte hartzen. Pubertaroa baino lehenago ere hainbat irrika indartsuren errepresioa gauzatu ohi da heziketaren eraginez, eta lotsakizuna, nazka eta morala bezalako arima-indarrak moldatzen dira, zeintzuk errepresio horientzako zaintzaile moduko bilakatzen diren. Sexu-beharraren uholdea gero pubertaroan datorrenean, hala deituriko bide normaletatik ibilaraziko duten eta errepresiopean dauden irrikak berritzea ezinezkotuko dioten barradurak aurkituko ditu horrela ezagunak diren arima-erreakzio- eta erresistentzia-eraketetan. Berezi kopifiloak dira,

hau da, gorozkiekin batera doazen haurtzaroko gozamen-eraginak, erabat errepresiopean hartuak daudenak; baita, baina gutxiago, lehen objektu-hautapeneko pertsonenganako finkapena ere.

Jaun-andreok! Patologia orokorreko arau batek dioenez, garapen-urratsek berekin omen dakarte joera patologikoa, oztopatua, atzeratua izan baitaiteke edo bere osotasunean moldatuezina sortu ahal baitzaio. Sexu-betekizunen garapen hain konplexuarentzat ere arau berdinak balio du. Norbanako guztietan ez da oztoporik gabe bideratzen garapen hori, eta anormaltasun batzuk edo inboluzio bidetik (erregresioarenetik) geroago gaixotasunak harrapatzeko joera uzten du. Gertatu ere gerta daiteke irrika partzial guztiak ez direla ernalkin-gunearen gidaritzapera biltzen; horrela aske geratutako irrika batek, guk perbertsio izenez adierazten dugunak, moldatzen du eta sexu-helburu normala ere ordezkatzeko. Maiz gertatu ohi da, adierazi denez, autoerotismorako joera erabat ez gaitzitzen ere, eta honen berri ematen dute geroagoko era askotako nahasmenek. Sexu-objektu diren neurrian bi sexuek jatorriz zuten baliokidezkotasunak aurrera jarrai dezake, eta zenbait baldintzetan erabateko homosexualitaterako joera izatera iritsi daitekeen homosexualitate-jardueratarako irrika sor daiteke helduaroan. Sexu-betekizunaren garapen-oztopo zuzenei dagozkien nahaste hauek guztiak; perbertsioak eta, ez gutxitan, sexu-bizitzako umetasuna ere esparru horretakoak dira.

Neurosietarako joerarako abiapuntua bera ere, beste bide batez, sexualitate-garapenaren narritadura batean bilatu behar da. Ezkertasunak baikortasunarekiko joka ohi duen moduan joka ohi dute neurosiekin perbertsioekiko; perbertsioetan aurkitzen diren irrika-osagai berdinak aurkitzen dira hauetan ere konplexu-eramaile eta sintomateratzaile moduan, hauetan, ordea, inkontzientetik moldatzen dutelarik beren eragina; errepresio bat jasan izan dute, baina horren aurka eginaz inkontzientean aurkitu dute beren nagusigoa. Psikoanalisiak erakusten digunez, irrika horien adierazpena oso goiz hiperindartsua denean, fijazio partzial baten modukoa bideratzen da, zeinek sexu-betekizunen esparruan puntu ahul bat adieraziko duen aurrerantzean. Sexu-betekizunen jarduerak oztopoak aurkitzen baditu helduaren bizitzan, haurtzaroko fijazioak gauzatu ziren une beretan aurkituko da garapenaldien errepresioa ere.

Agian honako objektzio hau egingen didazue: horrek guztiak ez du zerikusirik sexualitatearekin. Zuek ohituraz ulertzen jarrita zaudeten baino zentzu zabalagoan darabilt nik hitz hori hemen. Gogo onez onartzen dizuet, beraz, oharra. Baina galdetu ere galdetu beharko litzateke, ea zuek ez ote duzuen zentzu estuegian erabiltzen bere esanahia ugaltzearen eremura mugatzerakoan. Perbertsioen ulerkuntzari, perbertsioen eta neurosien eta sexu-bizitza normalaren artean dauden erlazioen ulerkuntzari uko egiten diozue horrela, eta haurraren maitasun-bizitza somatiko eta arimazkoaren hastapen erraz behagarriak beren benetazko esanahian ulertu ahal izateko aukerak ezabatzen dituzue. Hitzaren edozein erabilera erabakitzen duzuelarik ere, kontutan har beti hau, haur-sexualitatea aintzakotzat hartzetik datorren erabateko zentzuz jarduten duela sexualitateaz psikoanalitikariak.

Itzul gaitezen berriro haurraren sexu-garapenaren eremura. Sexu-bizitzaren adierazpen somatikoei arimazkoei baino arreta handiagoa eskaini diegunez, zer ikasi asko daukagu oraindik arlo honetan. Haurraren laguntza-beharretik sortzen den jatorrizko objektu-hautapenak gure arreta eskatzen digu aurrera jo ahal izateko. Bere zaintzaile diren pertsona guztietara gidaturik badago ere hasieran, bere sortzaile direnek hartzen dute berehala lehentasuna. Haurrarekiko behaketa zuzenek eta geroagoko helduekiko azterketa analitikoek erabatekotasunez frogatzen dutenaren arabera, haurrak

bere gurasoekiko dituen harremanek badute sexu-eraginezko osagairik ere. Bere nahimen erotikoentzat objektu bezala hartzen ditu haurrak bere bi gurasoak, baina beti ere bietako bat lehentasunez. Gurasoen aldetikako eragin bati jarraitu ohi dio normalean, hauen kuttuntasunak sexu-jardueraren izakera argia duelarik, nahiz eta bere helburuetan oztopaturik egon hori. Alabaren alderako joera izan ohi du normalean aitak, eta semearenerakoa amak; aitarenekin tokia hartu nahiaz erreakzionatzen du haurrak semearen kasuan, eta amarenekin alabarenean. Gurasoen eta haurren artean, eta hauek oinarrituz anai-arreben artean sortu ohi diren sentipenak ez dira baikorrak eta amoltsuak bakarrik izan ohi, ezkorrak eta ikusezinezkoak ere gertatu ohi dira eta. Berehalako errepresiora bideraturik dator horrela moldatutako konplexua, baina inkontzientetik eragin handia eta iraunkorra gauzatzen du. Gure honako susmo hau adieraz dezaket hemen, alegia, neurosia guztien konplexu-gunea moldatzen duela bere abarrekina, eta indar berberaz arima-bizitzaren beste eremu batzuetan ere berarekin topo egiteko prestaturik gaude. Bere aita hil eta ama bere emaztetzat hartzen duen Edipo erregearen mitoa geroago intzestu-hesia kontrajarriko zaion haurraren nahimenaren adierazpide oraindik gutxi aldatua da. Shakespeareren Hamlet lana bera ere intzestu-konplexuaren oinarri beretan eraikitzen da, nahiz eta hobetoxeago disimulaturik bada ere.

Oraindik erreprimitu gabeko konplexu-gunearen eraginpean dagoen aldia bere adimen-jardueraren zati garrantzitsu bat sexu-interesaren zerbitzura jartzen du haurrak. Haurrak nondik sortzen diren ikertzen hasten da, eta eskaintzen zaizkion datuak baloratuz helduek suposa dezaketene baino erlaziorrealagoak aurkitzera iristen da. Hasieran konkurrentziakide moduan sumatzen duen anaia edo arreba txiki berri batek suposatzen dion mehatxu materialak pizten dio ikerketarako jakinmina. Beregan diharduten irrika partzialen eraginez, haur-sexu-teorien andana bat moldatzera iristen da, hala nola, bi sexukoei ar-ernalkin berdina dagozkiela, edo janaria hartuz sortu ohi direla haurrak eta heste-bukaeratik jaio, eta sexu-harremanak menperaketa moduko bat suposatzen duten etsaigozko ekintzak direla. Baina bere izakera sexuala erabat moldatu gabe izateak eta sexu-kanale emearen latentziak eragindako ezagupen-hutsuneak bere lana arrakastarik gabekotzat jotzera behartzen dute haurra. Haur ikerkuntza honen gertakaria berak eta horren bidez moldatutako haur sexu-teoria guztiek haurraren izakeraren moldaketan eta bere geroagoko gaixotasun neurotikoen edukian garrantzizko izaten jarraitzen dute.

Saihestu ezinezkoa eta normala da haurrak bere gurasoak bere maitasun-hautapen-objektutzat hartzea. Bere libidoak, ordea, ez luke lehen objektu horiei fijasurik jarraitu behar, oso bestela, arketipo soiltzat hartu beharko lituzke eta erabateko objektu-hautapenaren garaian horietatik pertsona arrotzetara pasa beharko luke. Eta norbanako gaztearen gaitasun sozialak okerrak gabe iraungo badu, saihestu ezinezko eginkizun bihurtzen da haurrarentzat gurasoengandik bereizi behar hori. Errepresioak sexualitatearen irrika patriarkalen artean bere aukerak egiten dituen garaietan, eta geroago errepresio horretarako ahalegina bere gain hartu duen gurasoen eragina indargabetu behar denean, hezkuntzari eginkizun garrantzitsuak dagozkio, oraingoz, behintzat, beti zentzu osoz eta akatsik gabe betetzen ez dituenak.

Jaun-andreok! Ez ezazue pentsa haurraren sexu-bizitzaz eta garapen psikosexualaz egin ditugun oharpen hauen eraginez, psikoanalistik eta nerbio-gaixotasunen sendakuntzaren eginkizunetik urrutiegi joan garenik. Hala nahiko bazenute, haurtzaroko ondakinak gainditzera bideraturik dagoen jarraipenezko hezkuntza moduan uler dezakezue tratamendu psikoanalitikoak.

Jaun-andreok! Haur-sexualitatea aurkituz eta sintoma neurotikoen sorrera irrika erotikoen osagaietan oinarrituz gaixotasun neurotikoen joerei eta izakerari dagozkien aurrikusi gabeko zenbait formulatara iritsi gara. Ikusten dugunez, kanpoaldetikako oztopoak direlako edo barneko egokitze eskasagatik behar erotikoen aseketak errealitatean porrot egiten badu, gizakiak gaixotu egiten dira. Era berean ikusten dugu, gaixotasunean bilatzen dutela beren babesa, horren laguntzaz porrot egindakoaren ordezkotako aseketak bat aurkitu asmoz. Konturatzen garenez, pertsonaren sexu-jardueraren zati bat edo sexu-bizitza osoa gordetzen dute gaixotasun-sintomek, eta errealitateetik urrun iraun nahiean aurkitzen ditugu gaixotasunaren joera nagusiak, baina baita bere kalteak ere. Susmatzen dugunez, gure gaixoei sendakuntzaren aurka jartzen duten erresistentzia ez zaio zergati soil bati bakarrik zor, zergati ugariagoren elkarketari baino. Jatorrizko joeretatik ihes egiten lagundu dien errepresioa ezabatzearen aurka ez da nia bakarrik jartzen, sexu-irriek ere ez baitituzte alde batera utzi nahi beren ordezkotako asebidetako, errealitateak zerbait hoberik eskainiko dien ziurtasunik ez duten bitartean behintzat.

Nahiz eta gaixoarentzat beti berehalako atsegin-lorpenen bat berarekin izan, duen kaltegarritasun biologikoagatik guk gaixotasuna izendatzen dugun egoerarako ihesa erregresioaren bidetik gauzatu ohi da, hau da, bere garaian asepenik falta izan ez zitzaizen sexu-bizitzaren lehenagoko garapenaldietara itzuliz. Antza denez, bi eratakoa da erregresio hori: denborazkoa, libidoak, behar erotikotako, denboraz lehenagoko garapenaldietara jotzen duelako; formala, behar horien adierazpenerako jatorrizko eta hastapenetako adierazpide berdinez baliatzen delako. Baina bi erregresio-era hauek haurtzarora begira daude eta haurtzaroko sexu-bizitzaren moduko bat moldatzerakoan topo egiten dute.

Zenbat eta gehiago sakondu nerbio-gaixotasunen patogenesia, orduan eta argiago agertuko zaizkizue neurosien eta giza bizitzaren beste sorkari batzuen, baita baliozkoenen, artean dauden loturak. Konturatuko zaretenez, gure kulturaren eskabide ikaragarrien eta gure barneko errepresioen indarraren eraginez errealitatea ez dugu gogobetegarri aurkitzen gizakiok orokorrean eta horregatik fantasi bizitza bati iraunarazten diogu, non nahimenentzat asebidetako sortuz errealitateko hutsuneak betetzen ditugun. Norberaren nortasunaren jatorrizko izaeratik eta honek errealitatean erreprimaturiko eraginetatik asko aurki daiteke fantasia horietan. Ahaleginaren bitartez bere nahimen-fantasiak errealitate bilakaratzen dituen da gizakirik biziena eta emankorra. Norberaren ahultasunen eta inguruko munduaren erresistentzien eraginez hori ezinezko gerta dadinean, errealitateetik ihes egin ohi da, eta norbanakoak bere fantasi mundu gogobetegarriagora jotzen du, nongo edukiak sintoma bilakatzen diren gaixotzearen kasuan. Halako baldintza egoki batzuk eman daitezenean fantasia horietatik abiatuz errealitaterako beste bide bat aurkitzea posible gerta daiteke, erregresioen bitartez haurtzarora iraupenez bestekotu ordeztu. Errealitatearekiko areriotutako pertsona psikologikoki lagungarri zaigun iaiotasun artistikoaren jabe balitz, bere fantasiak sintoma bihurtu ordeztu sorkari artistiko bilakara ahalko lituzke, eta horrela neurosiaren patuari ihes egin eta errealitatearekiko lotura zeharbide horretatik birmoldatu ahalko luke¹². Errealitatearen aurkako errebelamenduak iraun dezanean, horrelako baliozko iaiotasunik ez balego edo eskasa balitz, ezinbesteko gertatuko litzaioke orduan libidoari, fantasien jatorriari jarraituz, erregresioaren bidetik haurtzaroko nahimenak berpiztea eta horrela neurosi batean amaitzea. Bizitzaz desgainaturik zeuden edo bizitzarako ahulegi sumatzen ziren pertsona guztientzat

komentuek bete ohi zuten eginkizunaren ordezkapena hartu du neurosiak gure garaiotan.

Neurotikoengan bideratutako azterketa psikoanalitikoaren bitartez lortu dugun emaitzarik garrantzizkoena adierazten utz iezadazue orain hemen, alegia, osasuntsuetan aurkituko ez litzatekeen eduki psikiko berezirik ez dela aurkitzen neurotikoetan, edo C.G. Jungek dioten bezala, osasuntsuok burukatzen ditugun konplexu beretan gaixotzen direla horrelakoak. Elkarren artean apustuan dabiltzan indarren arteko erlazio kuantitatiboek erabakitzen dute burruka horrek egoera osasuntsura, neurosira ala gainerrendimendu konpentsagarri batera bideratuko gaituen.

Jaun-andreok! Neurosiaren irrika-indar sexualei dagokien gure hipotesia baieztatzen duen esperientziarik garrantzizkoena gorde dizuet orain artean. Neurotiko bat psikoanalitikoki tratatzen dugun bakoitzean transferentzia izenez ezaguna den gertakari harrigarria eman ohi da, esan nahi da, sendagilearengana maiz areriozkotasunez nahastutako gehiegizko samurtasun-eraginak isurtzen dituela gaixoak, inolako erlazio errealetan oinarritu gabe eta, beren agerpenen ñarbadura guztien arabera, gaixoaren lehenagoko eta inkontziente bilakatutako fantasi nahimenetan oinarriturik daudenak. Oroimenera ekarri ezin duen sentipen-bizitzako eremu hura sendagilearekiko bere harremanetan bizitzen du berriro orain gaixoak, eta «transferentzia»-egoeran biziberritutakoaren bitartez sexu-eragin inkontziente horien existentziaz eta indarrak konbentzitzen da. Kimikaren alorreko konparaketa batez baliatuz, lehenagoko maitasun-bizitapenen (zentzurik zabalenean) porrota baino ez diren sintomak transferentzia-bizipenen tenperatura altuetan bakarrik urtu ahal izango dira eta horrela beste emaitza fisiko batera bideratuko. S. Ferencziren¹³ hitz egokien arabera, fermentu katalitiko baten eginkizuna betetzen du sendagileak erreakzio horretan, prozesu bitartean askatzen doazen sentipenak beregana biltzerakoan. Hastapenetan gure gaixoengan inkontzientea ikertzeko baliabide tekniko bezala erabili genuen sugestio hipnotikoa ulertzeko giltzarria eskain diezazueke transferentziaren azterketak. Laguntza terapeutiko bezala agertzen zitzaigun orduan hipnosia, baina baita gertakariaren ezagutza zientifikorako oztopo bezala ere, halako eremu bateko erresistentzia psikikoak aldentzen bazituen ere, eremu berorren mugetan pilatzen baizituen gaindiezineko harresiak eraikiz. Ez pentsa, ordea, nik hemen azaletik baino ager ez dezakedan transferentziaren gertakari hau eragin psikoanalitikoaren ondorioz sortzen denik. Gaixoak sendagilearekiko dituen harremanetan bezalaxe gizakien arteko edozein harremanetan berez bideratzen da transferentzia, bera da eragin terapeutikoaren bideratzailea, eta zenbat eta gutxiago susmatu bere presentzia orduan eta indartsuagoa da eskaintzen digun laguntza. Ez da psikoanalisiaren sorkari bat; psikoanalisiak kontzientziaren argitara ateratzen du, eta lortu nahi diren helburuen araberrako prozesu psikikoak bideratzeko baliabide bezala erabiltzen du. Ezin utz dezaket tranferentziaren gai hau aurrez beste zerbait azpimarratu gabe, gertakari hau gaixoaren konbentzimenturako ez ezik sendagilearenerako ere garrantzi handiko bezala hartu behar dela, alegia. Ondotxo dakit transferentziarekin izandako esperientzi zuzenen bitartez baino ez direla konbentzitu neurosien sorrerari buruzko nire hipotesiaz nire jarraitzaileak berak, eta ulertu ere ondotxo uler dezaket iritzi-ziurtasun hori ezin lor daitekeela norberak psikoanalisia bideratzen ez duen bitartean, hau da, norberak transferentziaren eraginak berez behatzen ez dituen bitartean.

Jaun-andreok! Uste dudanez, adimenaren ikuspegitik begiratzuz gero, gogoeta psikoanalitikoaren onarpenaren aurkako bi oztopo onartu beharko lirateke bereziki: lehena, arima-bizitzaren erabateko eta salbuespenik gabeko determinismoa kontutan

hartuz jarduteko ohitura falta, eta bigarrena, ohiko zaizkigun gertakari kontzienteetatik inkontzienteak bereizten dituzten ezaugarriak ez ezagutzea. Lan psikoanalitikoaren aurkako erresistentziarik hedatuena —nola gaixoetan, hala osasuntsuetan— aipatutako azken horretara bideratzen da. Psikoanalisiaren bitartez kalteak eragingo ote diren beldurra dago, eta erreprimaturiko bulkada sexualak gaixoaren kontzientziara agertarazteari beldurra zaio, horrela jokatzearekin gorengoko joera etikoak zanpatzeko arriskua berez loturik balego bezala. Gaixoaren arima-bizitzan zauriak daudela ikusten da, baina horiek ukitzeko ausardiarik ez dago, handiagotu ez daitezen edo. Analogia honetaz balia gaitezke. Egia da: hobe da zauriak ez ukitzea, hori eginaz oinazeak handiagotu baino egingo ez badira. Sendapen iraunkorra gauzatu behar duen ebakuntza bat burutu behar badu, ez dio behaketari eta zauri-ingurunea ukitzeari uko egiten zirujauak, ezaguna denez. Eta inori ez zaio bururatu ere egiten, azterketaren ezinbesteko minak edo ebakuntzaren ondorengo erreakzioak zirujauari leporatzea, horrela jokatzuz helburua lortzen bada eta gaixoaren, nahiz eta bere egoeraren uneko okerragotze baten bitartez, erabateko sendakuntza lortzen bada. Era bertsukoa da egoera psikoanalisiarentzat ere; zirujautzaren eskubide berdinak eska ditzake; gaixoari tratamendu bitartean sortarazten zaizkiola suposatzen den nahasteak zirujauak sortarazten dizkionak baino dexentez txikiagoak dira teknika egokiz baliatuz gero, eta jatorrizko oinazearekin alderatuz gero inolaz ere kontutan hartu ezinezkoak. Eta bulkadak opresiopetik askatzearen bitartez bidera daitekeen kulturazko izakeraren suntsitze hain beldurgarri hura ezin gerta daiteke inolaz ere, gure esperientziak ziurtasun osoz erakutsi diguna ez baitu kontutan hartzen beldur horrek, alegia, nahimen-eszitazio baten indar somatikoa eta arimazkoa, harek porrot egiten duenean, kontzientearen denean baino askozaz handiagoa dela inkontzientearen denean, eta kontziente bilakaraziz ahuldu baino ez dela egiten. Eragingaitza da nahimen inkontzientearen, eta aurkako joeretatik aske dagoena; kontzientearen dena, aldiz, bera bezala kontzientearen den edo aurkakoa den beste edozein nahimenek deusezta dezake. Arrakastarik gabeko opresioaren ordezkio hobeago baten antzera agertzen da horrela lan psikoanalitikoaren, kultur joera gorengo eta baliozkoenen zerbitzura beti ere.

Zein ote da, orokorrean, psikoanalisiaren bitartez aske utzitako nahimen inkontzientearen patua, eta nola asmatzen dugu horiek norbanakoaren bizitzarako kaltegabeko bihurtzen? Bide ugarietatik zehar. Beroriekiko aurrez aurre dauden eszitazio hobeagoen arima-jarduera zuzenaren bitartez lana aurrera doan heinean lortzen da gehienetan arrakasta. Baliabiderik onenen bitartez moldatutako aurkako epaiak ordezkatzeko du orain errepresioa. Eta hori horrela gerta daiteke, nia-ren lehenagoko garapen-mailetakako ondorioak saihestu baino ez ditugulako egin behar orain. Erabilgarri ez zitzaien bulkada baten opresioa gauzatu zuen norbanakoak bere garaian, bera erabat eratu gabekoa eta ahula baitzen orduan oraindik; bere oraingo heldutasunean eta indarrean inolako okerrik gabe menperatu ahal izango du aurka agertzen zaion edozein joera.

Beste hau lan psikoanalitikoaren bigarren irtenbide bat da, arazorik gabeko garapenbidean lehenago gauzatuko liratekeen zentzuzko erabileretarako egokitzea horrela aurkitutako bulkada inkontzienteak. Ez baita garapenaren helburu onargarriena haurtzaroko nahimen-eszitazioak erroetatik ateratzea. Beren ekarriagatik izakeraren moldaketarako eta bizitzan erabiltzeko oso baliozkoak liratekeen arima-indar-iturri ugari ahuldu ditu neurotikoak errepresioen bitartez. Ezaguna zaigu garapeneko gertakari askozaz zentzuzkoago bat, sublimazioarena hain zuzen ere, zeinen bitartez haurtzaroko nahimen-eszitazioen indarrari ez baitzaio hesirik jartzen, baizik eta erabilgarri iraunarazten baitzaio balio gabeko helburu bat jarri ordez beste goragoko bat, agian

sexu-izaerarik gabekoa, emanaz. Sublimazioarako gaitasunaz ezaugarritzatzen dira, hain zuzen ere, bereziki sexu-irrikaren osagaiak, hau da, sozialki onartuago den eta aldenduago dagoen beste helburu batez ordezkatzeko gaitasunaz, alegia. Eta zor ere, bide horretatik gure arima-emaitezarako lortutako energi kopuruei zorko dizkiegu, seguruenik ere, mailarik goreneko arrakasta kulturalak. Sublimazioarako ate guztiak ixten dizkio erreprimaturiko irrikari goizegi gauzatutako errepresioak; errepresio hori saihestutakoan irekitzen dira sublimaziorako ateak berriro.

Ezin ahaz genezake lan psikoanalitikoaren hirugarren irtenbide bat. Erreprimaturiko libido-eszitazioaren zati batek bere asepen zuzenerako eskubidea du, eta bizitzan aurkitu behar du hori. Bizitza astunegia gertarazten dute gure kultur eskakizunek giza erakunde gehienentzat, errealitatetik urruntzea eta neurosien sorrerak eraginez horrela, sexu-errepresioaren gehiegizkotasunez inolako kultur gainirabazirik eskuratu gabe. Ez du merezi geure burua gehiegi jasotzeak, horrela jokatz gure izaeraren jatorrizko aberetasuna erabat galtzen badugu, eta ezin ahantz genezake norbanakoaren gozamen-asepena ezin ken daitekeela gure kultur helburuetatik. Sublimaziorako gaitasunak frogatzen duen sexu-osagaien moldakortasunak gero eta sublimazio handiagoz kultur emaitza ugariagoak lortu nahi izateko tentaldia eragin dezake. Gure makinetan sortu ohi den berotasunaren zati bat baino bilakarazi ezin dezakegun bezala lan mekaniko erabilgarrian, ezin izan daiteke gure helburua sexu-irrikari bere energi osotasunean bere jatorrizko eginkizuna erabat aldaraztea. Ezin lortuzkoa da hori, eta sexualitateari muga hertsiegiak jarriko balitzaizkio, gehiegiikeriaren gaitz-ondorio guztiak ekarriko lituzke horrek berarekin.

Agian harrokeria irudituko zitzaizuen nire mintzaldiaren amaieran egin dizuedan ohar hau. Nire konbentzimentua kontakizun zahar baten bitartez zeharka adieraztera baino ez natzaizue ausartzen, kontakizunari dagokion ikasbidea ateratzea zuen esku uzten dudalarik. Bere biztanleei era guztietako zorrotasunak leporatu ohi zaizkien Schilda izeneko hirixka bat oso ezaguna da literatur alemaniarrean. Eta kontakizunak dioenez, schildarrek zaldi bat ere bazuten, zeinen indarrez denak oso pozik zeuden, baina akats bat aurkitzen zioten, garagar garesti asko jaten zuela. Ohitura hori modu arinean galaraztea erabaki zuten, horretarako ohituraz zegokion portziotik garagar-ziri bat kenduko ziotelarik egunero-egunero erabateko baraura jarri artean. Aldi batez dena bere bidetik zihoan; egunean garagar-ziri bat jateraino jarria zegoen zaldia, eta hurrengo egunean garagar-ziririk jan gabe lan egitea tokatzen zitzaion. Hilik aurkitu zuten hurrengo goizean zaldi maltzurra; zaldia zergatik hil zitekeen ezin argitu izan zuten schildarrek.

Zaldia gosez hil zela pentsatzeko joera edo sumatuko dugu, eta garagar-portziorik gabe abere batek ezin lanik egingo duela, noski.

Zuen aldetikako deialdia eta eskaini didazuen arreta benetan eskertzen dizkizuet.

Psikoanalisiarekiko
interesak
I
Interes psikologikoa

Nerbiositate-era zehatz bat (neurosia) teknika psikologiko baten bitartez sendatzea helburu duen sendabide bat da psikoanalisia. J. Breuerren katarsi-jardunbidetik abiatuz psikoanalisiak izan duen garapena eta Charcoten eta P. Janeten irakaspideekin dituen erlazioak adierazi nituen 1910.ean argitaratu nuen idazki labur batean¹.

Histeria-espasmoak eta eskrupulu-agerpenak eta obsesio-neurosien era askotako sintomak (obsesio-irudikapenak, obsesio-jarduerak) izenda daitezke terapia psikoanalitikoaz tratagarri diren gaixotasunen adibide modura. Zenbaitetan berez ere senda daitezkeen eta, oraindik argitu ez den modu batean, aldar-tearen arabera sendagilearen eraginpean dauden egoerak dira guztiak. Benetako psikenahasketa sakonen agerpen larrietan ez du erabilgarritasun terapeutikorik psikoanalisiak. Psikosien eta neurosien kasuetan, ordea, gaixotasun horien sorreraz eta mekanismoiez ikuspegi bat lor daiteke sendabide horri esker medikuntzaren historian lehenengo aldiz.

Psikoanalisiak medikuntzarako duen interesgarritasun honek ez du eskubiderik ematen, hala eta guztiz ere, zientzien arteko sintesia batean interesaturik dauden ikasien talde baten aurrean berari dagokion aurkezpen bat egiteko. Horrelako aurkezpen bat egiteko goizegi litzateke oraindik, psikiatren eta neurologoen talde handi batek sendabide berriaren aurka jokatzeko baitu, bere aurrebaldintzak eta baita bere emaitzak ere gaitzesten ditu oraingoz eta. Ni hori egitera ausartzen banaiz, honako arrazoi hauetan oinarritzen naiz horretarako, psikoanalisiak psikiatra bezalako beste batzuen jakinmina eskatzen duelako, beste jakintza-eremu ugari ere ukitzen baititu psikoanalisiak, eta hauen eta arima-bizitzako patologien artean ustekabeko loturak aurkitu dituelako.

Alde batera utziko dut oraingoz, beraz, psikoanalisiak medikuntzarako duen interesgarritasuna, eta jakintza-eremu gazte honi buruz egin ditudan baieztapenak adibide batzuen harira argituko ditut.

Nola keinuzko eta hizkuntzazko adierazbideen hala pertsona osasuntsuetan eta baita gaixoetan ere ematen diren burutapenen kopuru handi bat psikologiak ez du bere aztergaitzat hartu orain artean, nahaste organiko baten ondorio moduan edo psiketresneriaren funtzio baten oker eznormal bezala ikusiak izan baitira guztiak. Zera aitatzten ari naiz, errendimendu okerrak (hitz egiterakoan eta idazterakoan egin ohi diren akatsak, ahaztea e.a.), kasualitatezko ekintzak eta ametsak pertsona normaletan, eta konbultsiozko atakeak, eldarnioak, irudikapenak, obsesio-ideiak eta obsesio-ekintzak neurotikotetan. Inolako ardurarik gabe geratzen ez direnean behintzat, patologikotzat jo ohi dira gertakari horiek, eta inolaz ere lasaigarri ez diren argibide fisiologikoak aurkitu nahi izaten zaizkie. Psikoanalisiak frogatu ahal izan duenez, ordea, izakera psikologiko hutsezko suposamenduz argi daitezke gertakari horiek guztiak, eta guri ezagunak zaizkigun jokabide psikikoen multzoan koka daitezke. Ikuspegi fisiologikoa mugatu du horrela psikoanalisiak eta patologiarenean eremu zabala bat psikologiarentzat eskuratu aldi berean. Gertakari arruntei dagokie hemen frogagarritasun-indarrik handiena. Ezin lepora dakioke psikoanalisiari material patologikoetatik bildutako ikuspegia eremu arruntera

transferitu izana. Elkarrengandik aske bideratu ohi ditu berak han eta hemen bere frogak, eta bai prozesu arruntek eta bai patologikoek ere arau berdinei jarraitzen dietela erakusten du.

Hemen aztertzeko ditugun gertakari arruntetatik, hau da, gizaki arruntetan beha daitezkeenetatik, bi landuko ditut sakontasunez, oker bideratutako ekintzak eta ametsak, hain zuzen ere.

Oker bideratutako ekintzak, esan nahi da, bestela ezagunak diren hitzak eta izenak ahaztea, baita asmoena ere, hitz egiterakoan trabatzea, irakurtzerakoan eta idazterakoan akatsak egitea, gauzak tokiz aldatu eta ezin aurkitu ahal izatea edo galtzea, ondo ezaguna denaren aurkako hainbat oker, ohiturazko hainbat eta hainbat keinu eta mugimendu —nik hemen gizaki arrunt eta osasuntsuak oker bideratu dituen ekintza moduan laburbiltzen ditudanak— ez dira aintzakotzat hartuak izan psikologian, aditasunik-ezaren ondorio bezala ikusiak izan dira, eta nekearen, kontzentrazio-eskasiaren eta gaixotasun arin batzuen ondorioztat onartuak. Eskakizun guztiekiko nahiko ziurtasunez erakutsi du, ordea, azterketa analitikoak, azkena izendatutako une horiek babes-balioa baino ez dutela, nahiz eta beti agertu beharrik ez izan. Erabateko balioa duten gertakari psikikoak dira oker bideratutako ekintzak eta beti beren zentzua eta beren joera dituzte. Une bakoitzeko egoera psikologikoagatik bestela adierazteko biderik aurkitu ez duten asmo batzuen zerbitzura daude. Gatazka psikikoei dagozkienak izan ohi dira, normalki, egoera horiek, eta, hauen eragina dela eta, azpiratutako joerak zeharkako adierazpide bat aurkitzen du bide zuzenetik ezinean. Oker horiek egin ohi dituen norbanakoa kontura daiteke joera horretaz, edo horretaz batere konturatzeke joka dezake; gertakariaren oinarrian dagoen erreprimaturiko joeraren berri izan dezake, baina analisirik gabe ezin jakin dezake oker hori joera horren emaitza denik. Oker bideratutako ekintzen analisia azkar eta erraztasunez bidera daiteke oso maiz. Okerraz konturatzen bada, hurrengo burutapenak ekarriko dio dagokionari horretarako argibidea.

Ikuspegi analitikoaren sinesgarritasunaz komentzitu nahi duenak oker bideratutako ekintzetan aurkituko du horretarako materialik egokiena. Lehenengo aldiz 1904.ean argitaratu nuen liburuxka batean horrelako adibide ugari aurkeztu nituen bakoitzari zegokion esanahiarekin, eta orduz gero beste behatzaile batzuen ekarpenekin aberastu ahal izan dut bilduma hura².

Oker bideratutako ekintza baten bitartez agertzero beharturik dagoen asmoaren errepresiorako arrazoirik ohikoena ondoeza saihestea izan ohi da. Horrela isilpeko gorrotoa diogunaren izena ahaztu ohi dugu iraupenez, edo ohitura batzuk betetzea ahazten zaigu bestela ere, behar konbentzional bategatik edo, gogo txarrez beteko genituzkeenean. Objektu batzuk galdu ohi ditugu, objektuak gogoratzen digunarekin —oparitu zigunarekin, adibidez— hasarretu garenean. Hartu behar ez genukeen trena hartzen dugu bidai hori gogo txarrez egiten dugunean edo beste nonbait geratzea gogozkoagoa litzaigukeenean. Bizipenak eta zirrarak ahaztutzerakoan adierazten dugu argienik ondoeza saihestu-nahiaren arrazoia, psikoanalisi sortu baino lehenago hainbat eta hainbat autorek azpimarratu zuten. Alderdikeriara nahikoa emana dago oroimena eta sentipen mingarriak gogorarazten dizkioten bizipenak albora uzteko prest dago beti, nahiz eta joera hau ez kasu guztietan horrela aurrera atera ahal izan.

Beste batzuetan ez da hain erraza oker bideratutako ekintza baten analisia burutzea, eta guk desplazamendu izenez adierazten dugun prozesua bitartekatzen delako aurki daitezkeen argibideak ez dira hain argigarriak. Bere aurka ezer ez daukagun pertsona baten izena ere ahaztu ohi zaigu, adibidez; baina analisiak frogatuko duenez,

izen berdina edo fonetikoki berdintsua daraman eta guri abertsioa sumarazten digun beste pertsona baten izena gogoratzen digu asoziazioz. Lotura hori dela eta errurik ez duen pertsonaren izena ahaztu zaigu, ahazteko asmoa, aldi berean, asoziazio-bide luze batez desbideratu delarik.

Ondoeza saihestekoaz aparte ere, bada oker bideratutako ekintzen bitartez errealitate bilakatzen den beste asmorik ere. Zegozkien egoeretan erreprimituak izan diren eta ezkutupetik matxura moduan agertu behar duten beste joera batzuk ere aurkitzen ditu analisiak kasu ugaritan. Horrela, adibidez, solaskideari ezkutatu nahi zaizkion asmoak edo adieraziko lituzkete hitz egiterakoan egindako okerrekin. Horrelaxe ulertu zituzten olerkari handiek horrelatsuko okerrak eta zentzu horretan erabili zituzten beren idazlanetan. Beldurra zaion zoritxar bat deuseztera bideraturik dagoen sakrifizio baten antzera agertzen da baliozko objektuak galtzea, eta beste sineskeria bat baino gehiago ere agertzen da, era berean, pertsona jantziengan oker bideratutako ekintzen bitartez. Desagertarazteko gogoia baino ez da adierazten beroriekin galduz; objektuak, horretarako asmorik gabe, puskatuz hobeagoen bitartez ordezkatu beharra sortarazi nahi da, e. a.

Kontutan hartzen diren agerpenak itxuraz balio handikoak ez badira ere, mundu-ikuspegiaren halako aldakuntza arin batzuk dakartza oker bideratutako ekintzen azterketa psikoanalitikoak. Uste izan ohi dugun baino maizago aurkitu ohi dugu gizaki arrunta bera ere aurkako norabideetako joeren eraginpean. «Kasualitatezko» bezala jo ohi ditugun gertakarien kopurua asko mugatzen da horrela. Ia-ia animagarria ere bada, objektuak galtzea askotan ez dagoela bizitzako kasualitateen artean jakitea; gure ezkutupeko asmoen estalgarri da, maiz asko, gure trebetasun-eza. Askozaz zentzu gehiago du bestela kasualitateari atxikituko genizkiokeen zorigaitz larri ugari gure, agian, argi eta garbi onartu gabeko gogoaren osagai direla argitzeak analisiaren bitartez. Kasualitatezko zoritxarrak intentzioz bilatutako heriotzatik bereiztea praktikan hain zaila bada, zalantzakorragoa bilakatzen da ikuspegi psikoanalitikotik aztertzen denean.

Argibideak aurkitzeko erraztasunari eta pertsona arruntetan hain maiztasun handiz agertu ohi izateari zor bazea oker bideratutako ekintzen izaera argitu izanaren balio teorikoa, horren guztiaren arrakasta psikoanalitikoaren garrantzia osasuntsuen arima-bizitzako beste gertakari batetik jasotakoaren atzetik doa, hala eta guztiz ere. Ametsen interpretazioaz ari naiz, zeinarekin hasten baita psikoanaliaren etorkizuna jakintza ofizialaren aurka jarritz. Zentzurik eta esanahirik gabeko gertakari somatiko huts baino ez lirateke ametsak sendakuntzaren eremuko ikerkuntzarentzat, eta neurri minimo batean esnatzera behartzen duten sakonki lokarturiko arima-organoaren soin-eraginekiko adierazpideak baino ez ditu ikusten hor. Gertakari psikikoen eremura jasotzen du ametsa psikoanalisiak, norbanakoaren arima-bizitzan zentzua, asmoa eta toki bat dituela onartuz, eta horrela ametsaren arrotasunaren, absurdutasunaren eta inkoherentziaren gainetik jartzen da. Ametsaren moldakuntza bitartean landu beharko diren osagai materialen eginkizuna hartzen dute hor soinen aldetikako eraginekin. Ez dago inolako bitartekaritzarik ametsari buruzko bi ikuspegi ezberdin horien artean. Bere emankortasunik eza jartzen da ikuspegi fisiologiko beraren aurka; psikoanalitikoaren alde, berriz, zera esan daiteke, milaka eta milaka amets zentzuz interpretatu eta gizakiaren arima-bizitza intimoaren ezagupidean balioztatu dituela.

1900.ean argitaratutako lan batean aztertu nuen «ametsen» interpretazioa, eta psikoanalisian lankide ditudan ia guztiek beren ekarpenez han adierazitakoak baieztatu eta indartu izanaren poza daukat³. Ahobatekotasun orokorrean esan beharra dago, ametsen interpretazioa dela psikoanali-lanaren giltzarria eta bere emaitzak direla psikoanalisiak psikologiari egin dizkion ekarpen nagusiak.

Ezin adieraz nezake hemen ametsen interpretazioa burutzeko erabili ohi den teknika, ezta psikoanalisaren bitartez burututako ametsen lanketak ekarri dituen emaitzak oinarritu ere. Kontzeptu berri batzuk aurkeztera, emaitzak adieraztera eta beroriek psikologia arruntarentzat duten garrantzia azpimarratzera mugatu beharra daukat hemen.

Edozein ametssek esanahia duela erakusten du, beraz, psikoanalisiak; esanahi horren adierazpenak izan duen itxuraldaketatik sortzen dela bere arrotasuna; kontraesanaren, irainaren eta burlaren adierazpena baino ez dela bere absurdutasuna; bere inkoherentziak ez duela inolako garrantzirik interpretaziorako. Ametsak, esnatu ondoren gogoratu ohi dugun bezala, ageriko edukia baino ez du adierazten. Berorien interpretazioaren bitartez ageriko edukien azpian gorderik eta berorien bitartez ordezkaturik dauden ezkutuko gogoetara irits gintezke. Ezkutuko amets-gogoeta horiek ez dute arrotz, inkoherente eta absurdu izaten jarraitzen aurrerantzean, gure gogoeta kontzientearen erabateko baliozko osagai dira. Amets-lanketa izena ematen diogu ezkutuko amets-gogoetak ageriko amets-eduki bilakarazi dituen prozesuari; amets-gogoetak amets-edukietan berrezagutzea galera izaten digun itxuraldaketa-prozesu horri zor zaio.

Psikologiaren eremuan antzekorik ezagutzen ez zitzaion moduko prozesu psikologiko bat da amets-moldaketarena. Bi norabidetara gidatzen du gure arreta-prozesu horrek. Lehenik, (irudikapenen) kondentsazioa edo (azentu psikikoa irudikapen batetik bestera darabilkien) desplazamendua bezalako gertakariak, guk esna gaudenean inolaz ere sumatzen ez ditugunak edo gure pentsakera-erruen oinarri bezala ikusi ohi ditugunak, aurkituz. Bigarrenik, bere eraginkortasuna gure oharrenari ezkutupean geratzen zitzaion arima-bizitzako indarjoko bat argi ikusten lagunduz. Ikasi ahal izan dugunez, instantzia aztertzaile bat daramagu barruan, zentsuratzailer bat, alegia: sortzen ari den irudikapen bat kontzientziaraino irits daitekeen edo ez erabakitzen duena, eta ondoeza sortu edo berrerragin dezakeen hainbateko indarraren jabe den edozer erabat baztertzen duena. Hemen gogoratuko dugu, oroitzapenetan ondoeza sortaraz dezakeen guztia saihesteko joeraren eta arima-bizitzako joeren arteko gatazkaren berri oker bideratutako ekintzen analisitik jaso dugula.

Psikologiaren eremuko arazo eztabaidagarrienak konponduko dituela dirudien arima-bizitza ulertzeko ikuspegi bat ezartzen digu ezinbestean amets-moldaketaren ikerketak. Guri ezaguna zaigun jarduera kontzientea baino esanguratsuagoa eta orokorragoa den jarduera psikiko inkontzientea onartzera behartzen gaitu amets-moldaketak. (Psikoanalisiaren interes filosofikoaz jardungo garenean aitaturiko dugu berriro gai berau). Tresneria psikikoa instantzia eta sistema ezberdinez eratzeak aukerak irekitzen dizkigu, eta arima-jarduera kontzientearen sisteman sumatzen ditugun prozesuak ez bezalakoak, oso era ezberdinekoak, erakusten dizkigu jardunbide inkontzientean.

Lo-egoerari iraunaraztea baino ez da amets-moldaketaren eginkizuna. «Loaren babeslea da ametsa». Arimaren eginkizun ezberdinenen zerbitzura egon daitezke ametsetako gogoetak. Ametsetako gogoetatik gauzatzen ari den nahimena bide haluzinatzaileetatik betetzat aurkeztuz burutzen du bere eginkizuna amets-moldaketak.

Esan ere esan daiteke, orain artean suposa ere ezin zitekeen sakontasunaren psikologia-rako ikuspegi berri bat zabaldu digula ametsen azterketa psikoanalitikoak⁴. Psikologia arrunteko oinarritzko aldakuntzak behar-beharrezko izanen dira bi psikologi eremu hauetako ikuspegiak elkarrekin adostasunean jarri ahal izateko.

Ezinezkoa da aurkezpen honen mugen barruan ametsen interpretazioak duen interesgarritasun psikologikoa bere erabatekotasunean azaltzea. Ez dezagun ahaztu gure

asmoa ametsak zentzua duela eta psikologiaren aztergaia dela azpimarratzea baino ez dela, eta jarrai dezagun eremu patologikoan egin diren lorpen berrien aurkezpena egiten.

Ametsetatik eta oker bideratutako ekintzetatik ateratako berrikuntza psikologikoei beste zenbait gertakari argitzeko ere baliagarri izan behar dute, baldin eta guk beren balioan eta beren existentzian sinesten badugu behintzat. Eta jadanik psikoanalisiak benetan erakutsi duenez, gertakari normal haiek aztertuz aurkitu ditugun arima-jarduera inkontzienteak, zentsurak eta errepresioak, itxuraldaketa eta ordezkoen moldaketak gertakari patologiko andana baten lehenengo ulerkera ahalbidetu digute, eta, nolabait esateko, neuropsikologiaren enigmak argitzeko giltzarria eskutan jarri. Ametsa, horrela ulertuz, edozein sorkari patologikoren eredu arrunta bilakatzen da. Ametsa ulertzen duenak neurosien eta psikosien mekanismoak ere gainikusi ditzake.

Ametsenetatik abiatutako ikerketei esker neurosien psikologia bat eraikitzeko prestaturik dago psikoanalisiak, beti ere lan iraunkor baten bidez puntuz puntuosatzen jarraitu beharko bada ere. Orain lantzen ari garen interesgarritasun psikologiko honek zera baino ez du eskatzen, osotasun honetako bi osagai sakontasun handiagoz azter ditzagula, alegia: fisiologiaren bidetik argitu nahi direnologiaren eremuko gertakari ugari ekintza psikiko huts direlakoaren frogak, eta emaitza anormaletarako bidea prestatzen duten prozesuen jatorria irrika psikikoetan aurki daitekeelakoarena.

Adibide batzuen bitartez azaldu nahi dut bietarik lehen baieztapena. Aspalditik izan dira histeria-atakeak eragin emotibo ugarituen adierazpen moduan onartuak eta afektu-leherketekin parekatuak. Adierazpide deskribitzaileetara bildu nahi izan zituen Charcotek gertakari horien agertze-modu anizkorrak; horrelatsuko atakeetan gordetzen ziren irudikapen inkontzienteak adierazi zituen P. Janetek; psikoanalisiak argitu duenez, gaixoaren fantasia inkontzienteki entretenitzen duten bizi izandako edo asmatutako gertakarien adierazpen mimiko baino ez lirateke horrelakoak. Errepresentatutako ekintzen kondentsazioen eta itxuraldaketen bitartez ikuslearentzat ikusezinezko bilakatzen dira pantomima horiek. Ikuspuntu berdinetik aztertuta beharko lirateke histeria-gaixoen beste sintoma iraunkorrak ere. Sentipen-bizitza inkontzienteki menpean hartzen duten eta ezkutupeko nahimen erreprimituak betetzen dituzten fantasien adierazpen mimiko edo haluzinaziozkoak baino ez dira errealtatean. Horrelatsuko nahimen-kitzikadurak burukatu beharrak gaixoaren arima-bizitzan sortzen duen barne-gatazkatik dator sintoma horien izakera tormentagarria.

Beste gaixotasun neurotikotik batean, obsesio-neurosiarenean hain zuzen ere, erritmoz errepikatutako axolagabeko ekintzetan agertzen den itxuraz zentzurik gabeko ohikundezko ekintza-errepikapen batera beharturik aurkitzen dira gaixoak, hala nola garbitze-ekintzetara, jastearenetara, zentzurik gabeko aginduak edo galerazpen misteriotuak bete beharrak, e.a. Obsesio-ekintza horiek, itxuraz balio eta zentzurik gabekoak izanik ere, zein zentzuz beteak diren frogatu izana da psikoanaliaren garaipenetako bat: bizitzako gatazkak, tentaldi eta galerazpen moralen arteko burruka, zanpatutako nahimena bera, zigorrak eta penitentzia horretarako zentzurik gabeko materialetan nola ispiatzen diren argitu izana, alegia. Gaixotasun beraren beste era batean irudikapen eta obsesio-ideia mingarrien zama jasan behar dute gaixoek, ideia eta irudikapen horien edukia indar handiz inposatzen zaielarik eta obsesio-ideia horien hitzezko adierazpenek ia argitzen ez dituzten era eta intentsitate ezberdinetako afektuz lagundurik. Afektu horiek, azterketa analitikoak frogatu duenez, bidezkoak dira, ze errealtate psikiko batean oinarritutako destainei baitagozkie. Afektu horiei lotutako irudikapenak, ordeak, ez dira jatorrizkoak, baizik eta erreprimaturiko zerbitzen desplazamenduaren (ordezkapenaren, sustituzioaren) bitartez lotura horretara

eragindakoak. Desplazamendu horien erredukzioak (atzeragarri egiteak) erreprimitutako ideiak ezagutzeko bideak irekitzen ditu eta afektuen eta irudikapenen arteko loturak erabat ulegarriak direla erakusten.

Beste afekzio neurotiko batean, sendaezinezko dementia praecoxarenean (parafrenia, eskizofrenia) alegia, zeinetako kasurik larrienetan gaixoak erabat axolagabe agertzen diren, estereotipipatutzat hartuak izan diren modu berberean errepikatutako mugimendu eta keinu batzuk baino ez dira behagarri askotan. Hondakin horien azterketa analitikoak (C.G. Jungek bideratutakoak) zentzuz betetako ekintza mimikoen hondarrak direla erakutsi du; garai batean keinu horien bitartez aurkitu ohi zuten beren adierazpidea subjektuaz nagusitzen ziren nahimen-kitzikadurek. Gaixo horien mintzaldirik arraroenak eta jarrera nabarmenenak hipotesi psikoanalitikoez aztertu direnean, zentzu bat aurkitu eta arima-bizitzaren osotasunean toki bat eman ahal izan zaie.

Burutiko eri askoren eldarnioentzat, haluzinazio eta obsesio-sistementzat ere gauza berdinak balio du. Zentzugabekeria handiena nagusitzen zela uste izan denetan, arauzkotasuna, antolaketa eta osotasun-egitura aurkitu eta sumarazi ditu lan psikoanalitikoak, nahiz eta lan hori oraindik amaitu gabe egon. Oinarritz berdinak diren eta kontzeptu psikologikoz ulertu eta deskribatu daitezkeen prozesuen ondorio bezala agertzen dira gaixotasun-era psikiko ezberdinenak ere. Ametsen moldaketan aurkitu diren gatazka psikiko berberak dabilta toki guztietan: beste arima-indar batzuek inkontzientera behartu dituzten irrika-eragineen opresioa, erreprimitutako indarrek moldatutako erreakzioak, erreprimitutako baina beren energiaz erabat hustu gabeko irriken ordezkoen moldaketa. Ametsetatik ezagunak diren gertakari berdinak agertzen dira beti, desplazamenduarena eta kondentsazioarena alegia. Eritetxeetan beha daitezkeen gaixotasun-eren anizkortasuna beste bi anizkortasunei baldintzaturik dago: errepresio-eginkizunetarako dauden mekanismo psikikoen anizkortasuna eta erreprimitutako eraginei ordezkoen moldaketarako aukerak irekitzen dizkien prestamen garapenezko-historikoen anizkortasuna.

Eginkizun psikiatrikoaren ia erdi bat psikoanalisiak psikologiari bidaltzen dio honek burutu dezan. Okerra litzateke, ordea, zera pentsatzea, arimaren ondoezekiko ikuspegi psikologiko huts bat defendatzen duela edo lortu nahi duela analisiak. Ezin ahaz baitezake lan psikiatrikoaren beste erdiaren eginkizuna faktore organikoek (mekanikoek, toxikoek, kutsakorrek) arima-tresnerian duten eragina aztertzea dela. Arimako ondoezen etiologian berorien erarik arinenetarako ere, neurosietarako alegia, ez du suposatzen jatorri psikogeno hutsa egon daitekeenik, eta geroago aipatuko den zalantzarik gabeko une organiko batek arima-bizitzan duen eragina aurkitu nahi izaten du ondoezerako arrazoi bezala.

Ugariak dira psikologia orokorrerako oso esanguratsuak izan beharko luketen psikoanalisiaren eremuko aurkikuntzak, eta horregatik ezin zehaztuko ditugu hemen. Baina aipamen hutsez horietako bi azpimarratu nahi nituzke: psikoanalisiak afektu-gertakariei arima-bizitzan eskaini ohi dien zalantzarik gabeko lehentasuna, eta nola pertsona osasuntsuetan hala gaixoetan ere adimenaren itsutzea eta ondoez afektiboak suposaezineko ugaritasunean ematen direlakoaren frogak.

A) Hizkuntza-zientzientzako interesa

Ohiko esanahitik harantz noa, zalantzarik gabe, hizkuntz ikerlariak psikoanaliasiarekiko suma dezakeen interesa suposatzen dudanean. Ez bakarrik hitzetan adierazitako gogoetak ulertu behar dira hemen hizkuntza moduan, baita mimika eta, idazketa bezala, arima-jardueraren adierazpide diren bestelakoak ere. Baina zera hartu behar da kontutan, guretzat ezezaguna den adierazpide batetik ezezaguna zaigun ezaugera baterako itzulpenak direla psikoanaliaren interpretazioak. Amets bat interpretatzen dugunean, gogoeta-eduki bat (ezkutuko amets-ideiak) «ametsen hizkuntzatik» gure esna-bizitzakora itzultzea baino ez dugu egiten. Horrela jokatzuz ametsen hizkuntza honen ezaugarri batzuk ezagutzen ikasten da eta neurri handi batez adierazpide-egitura arkaiko bateko partaide delakoaren susmoa hartzen da. Adibidez, ezeztapena ez da modu berezian adierazten ametsen hizkuntzan. Elkarren aurkako diren ideiek elkar ordezkatzan dute amets-edukian eta osagai berdinez adierazten dira. Edo beste modu batez esanda, kontzeptuak anibibalenteak dira oraindik ametsen hizkuntzan, eta elkarrekiko aurkari diren esanahiak elkartzen dituzte, hizkuntz ikerlariaren hipotesien arabera hizkuntza historikoen erro zaharrenetan gertatu ohi zen bezalaxe⁵. Amets-edukiak asoziazio indibidualetik inolako loturarik gabe itzultzea ahalbideratzen duen sinboloen erabilera arras ugaria da gure amets-hizkuntzaren beste ezaugarrietako bat. Ikerkuntzak ez du nahikoa argitu oraindik sinbolo horien izakera; zenbaitetan begibistan dauden antzekotasunetan oinarritutako ordezkapenak eta alderaketak dira; bestetan, ordea, suposa daitekeen tertium comparationis delakoak gure ezagutzatik gorderik irauten du. Hizkuntz eta esanahi-moldakuntzaren garai zaharrenetatik datozenak dira, agian, sinbolo horiek. Sexu-organoak eta sexu-funtzioak dira ametsetan aurkezpen sinboliko bat, zuzenaren ordezkari, jasotzen dutenak. Upsalako Hans Sperberg hizkuntz ikerlaria izan da berriki zera frogatu nahi izan duena, jatorriz sexu-jarduera adierazten zuten hitzak izan direla, era horietako alderaketetan oinarrituz, berebiziko esanahialdaketa jasan dutenak⁶.

Ametsen adierazpideak nagusiki irudizkoak, eta ez hitzezkoak, direla pentsatzen badugu, ametsa hizkera mintzatu batekin konparatu ordezkari idatz-sistema batekin alderatzea zuzenagoa dela irudituko zaigu. Egiptoarren hieroglifikoetakoa bezalako irudi-idazketa zahar bat deszifratzearen antzekoa da amets baten interpretazioa errealitatean. Ez interpretaziora, ezta dagokion irakurketara ere bideraturik dauden osagaiak aurkitzen dira bai batean eta bai bestean ere: erabakitzaile eran, beste osagai batzuen ulerkera ziurtatzeko eginkizuna dutenak, beraz. Ametsetako hainbat osagairen esanahi anizkorra idazkera-sistema zahar horretan bezalaxe handik eta hemendik kontestuen arabera osatu behar diren erlazio ezberdinen hutsunetan aurkitzen du bere parekoa. Ametsen errepresentazioei buruzko ikuspegi honek orain artean garapen handiagorik izan ez badu zerari zor izan zaio hori, hizkuntz ikerlariak ametsak bezalako gai bati ekiteko dituen ezagutzak eta ikuspegiak falta zaizkiola psikoanalitikariari.

Amets-hizkera arima-jarduera inkontzientearen adierazpidea dela esan daiteke. Inkontzienteak, ordea, hizkelki bat baino gehiago maneiatzen ditu. Neurosi-mota bakoitza ezaugarritatzen eta elkarrengandik bereizten dituzten baldintza psikologiko aldatuen artean ere arima-eragin inkontzientearen adierazpidearen etengabeko aldaketak agertzen dira. Histeriaren hizkera mimikoa ametsetako, bisioetako eta abarretako irudi-

hizkerarekin bat datorren bitartean, obsesio-neurosien eta parafrenien (Dementia precox eta paranoia) gogoeta-hizkerarako guk jadanik uler eta elkarrekin erlaziona ditzakegun aldaketa idiomatiko bereziak agertzen dira. Pertsona histeriko batek, adibidez, oka eginaz adierazten duena, obsesio-neurotikoa batek infekzioen aurkako prebentzio-neurri penagarriak hartuz adierazten du; parafrenikoak, aldiz, pozoitu egin nahi dutelako susmoak edo salaketak eginaz. Adierazpide ezberdin horien bitartez hemen agertzen dena zera da, haurdun geratzeko horrelakoek duten zanpatutako gogo inkontzientea, edo horren ordezkoa: gaixoak desira horren aurka defendatzeko egiten duen ahalegina.

B) Filosofiarentzako interesa

Filosofia psikologian oinarritzen denez, psikoanalisiak jakintza-eremu horretara egiten dituen ekarpenak zabaltasunez hartu beharko kontutan, eta beste jakintza-eremu berezien aurrerapen garrantzitsuekiko hartzen duen jarrera berdina erakutsi beharko du gure ezagutzen aurrerapenen aurrean ere. Berezi arima-jardura inkontzientea argitu izanak behartu behar du filosofia bere erabakiak hartzera, eta aldeko jarrera hartuko balu, baita arimak gorputzarekiko dituen erlazioei buruzko bere hipotesiak aldatzera ere, ezagutza berriek eskatzen dutenez. Sarritan kezkatu izan da filosofia inkontzientearen arazoez, eta, oso salbuespen gutxiz, orain aurkeztuko ditugun bi jarreretako baten alde erabaki izan du. Edo zerbait mistikoa zen bere inkontzientea, zerbait ukiezina eta erakustezina, arimarekiko bere erlazioa ilunpean geratzen zelarik, edo bestela arimakoa kontzientziarekin identifikatu izan dute eta horretatik abiatuz zera ondorioztatu, inkontzientea ez dela arimakoa eta ezin izan daitekeela psikologiaren aztergai. Arima-jardura inkontzienteen gertakariak ezagutu gabe, hau da, horiek gertakari kontzienteekin dituzten antzekotasunak eta ezberdintasunak kontutan hartzeke inkontzienteaz beren epaia hartu izanetik datoz jarrera horiek. Psikologikoa kontzientearekin berdindu nahi duen jarrerari eutsi nahi badio norbaitek gure ezagutzak dionari jaramonik egin gabe, ezin esango da ezer horren aurka, bereizketa horrek ez duela inolako zentzu praktikorik ez bada. Izan ere, erraztasunez deskriba daiteke inkontzientea kontzientearekin dituen erlazioen aldetik, asko dute eta baterakoa, eta erraztasunez jarrai daiteke bere garapena; prozesu fisikoetatik abiatuz, ordea, beregana inguratzea ezinezkotzat jotzen da oraindik. Psikologiaren aztergai izaten jarraitu beharra du ondorioz.

Beste modu batean ere jaso dezake, oraindik, filosofia psikoanaliarengandik eragina: psikoanalisi beraren aztergai bilakatuz, hain zuzen ere. Nortasun oso bereziko pertsonen talde mugatu baten lana baino ez dira irakaspide eta sistema filosofikoak; beste edozein jakintza-arlotan ez bezalako betekizuna hartzen du filosofiaren eremuko langilearen nortasunak. Eta nortasunaren psikografia bat eskaintzeko moduan jartzen gaitu orain psikoanalisiak. (Ikus geroago «Interes soziologikoa» atala). Edozein norbanakotan auresuposatu behar diren afektuzko osagaiak —bulkadetara makurturik daudenak— adierazten dizkigu berak, eta bulkada-indar horietan jatorria duten aldakuntzen eta azken emaitzen ikerketara bideratzen gaitu. Pertsona baten konstituziozko izakeraren eta bere bizitzako gora-beheren eta dituen gaitasun berezi batzuei esker lor ditzakeen emaitzen arteko erlazioak argitzen ditu. Ziurtasun handiagoz edo txikiagoz asma dezake artistaren nortasun intimoa, beronen lanetan ezkutaturik dagoena, lan berorietatik abiatuz. Era berean, logika-lan inpartzial batetik sorturikoak diren irakaspide filosofikoen eragin subjektiboak eta norbanakozkoak ere argi ditzake psikoanalisiak, eta bide batez baita sistema horien puntu ahulak kritikari erakutsi ere. Ez

da psikoanalisiaren lana kritika hori burutzea, ze, argi dagoenez, irakaspede baten determinismo psikologikoak ez baitu, berez, irakaspede beraren zuzentasun zientifikoa ziurtatzen inolaz ere.

C) Biologiarentzako interesgarritasuna

Ezagutzaren aurrerakuntzan interesaturiko partaideen agurra jasotzeko zoririk ez du izan psikoanalisiak, beste jakintza gazteago batzuek jaso izan zutenaren legeez. Denbora luzez inolako arretarik jaso gabe egon da, eta azkenik, alboraketa luzeagorik ezinezkoa bilakatu denean, bera ezagutzeko inolako saiorik egin ez dutenen isekagai lotsagarri bihurtu da arrazoi afektibo hutsengatik. Honako gertakari honi zor zaio jaso duen harrera mingarria, azkarregi antzeman zuela bere ikerketa-gaietan gaixotasunak sexu-betekizunaren nahaste baten adierazpen zirela, eta horretxegatik nahikoa arrazoi zuela denbora luzez alboraturik edukitako sexu-betekizunaren ikerkuntzari ekiteko. Baina iritzi zientifikoak jarrera afektiboen bitartez ezin baldintza daitezkeela dioenak interesgarritasun handia aurkituko dio psikoanalisiari, honek duen norabide zientifikoagatik, eta honen aurkako erresistentziak bihurtuko ditu bere baieztapenen aldeko froga nagusi.

Psikoanalisiak izan da giza sexualitateari dagokion garrantzia eskaini diona; olerkari askok eta filosofari ugari bizitza izpiritualerako eta praktikorako onartutako, baina zizentzilariek beti ukatuko sexualitatearen betekizuna bere ñabarduretaraino jarraituz egin du, gainera, hori. Horrela egin ahal izateko, ordea, okerbidez mugaturik zegoen sexualitatearen ikuspegiak hedapen zabalago bat eskatzen zuen; sexualitatearen arloko gehiegikeriak (perbertsio izenez ezagunak) eta haurraren jokabidea kontutan harturik erraz ulertzen den egitekoa. Argi ikusi ahal izan zenez, ezin baieztatu zitekeen gehiago haurtzaroa sexurik gabekoa zenik eta pubertaroko bat-bateko bulkadek erabat gainditzen zutenik. Auriritzi eta interesek eragindako itsukeria behin saihestuz gero, erraztasunez frogatu zitekeen honako oharpen hau, ia bizitzako aldi guztietan eta hasiera beretik agertzen direla sexuarekiko interesa eta jardura haurrengan. Ezin gutxietsi daiteke haurraren sexualitatearen garrantzia zera esanaz, ezin zehatz daitezkeela erabatekotasunez horren eta haurraren jardura asexualaren artean dauden mugak. Baina helduen sexualitate «normala» bezala ezagutzen denetik oso bestelakoa da. Geroago sexu-bizitza normalari perbertsio moduan kontrajarriko dizkiogun sexu-jardura guztien hazia, ordea, hortxe dago, nahiz eta ulertezinak eta eramangaitzak gertatuko zaizkigun gerora ere. Ia inoiz erabatekotasun idealez gertatu ohi ez diren garapen-gertakari, asoziazio, desberdintze eta opresio ugariaren bitartez gauzatzen da helduen sexualitate normala haur-sexualitate horretatik abiatuz, eta arrazoi horretxegatik geratzen dira gaixotasun-egoeratan gertatuko diren betekizunaren opresiorako aukerak.

Biologia-ikuspegiarentzat esanguratsu diren beste bi berezitasun ere baditu haur-sexualitateak. Soinaren hainbat inguroneri —eremu erogenoak— loturik agertzen diren bulkada partzialen kopuru batez osaturik itxuratzen da, eta hasiera beretik bulkada partzial horiek aurkako osagaiez moldaturiko bikoteka —helburu aktibo eta pasibozko bulkadak— antolaturik azaltzen dira. Geroagoko sexu-gozamenezko egoeretan pertsona maitatuaren ez bakarrik sexukiak baizik eta bere soin osoa sexu-gai bilakatzen den modu bertsuan, hasiera berean ez bakarrik ernalkinak baizik eta beste hainbat eta hainbat soin-eremu ere bada sexu-eragin-une, eta estimulazio egokien bidez sexu-gozamena ere bidera daiteke horietan. Honekin lotura estuan dago haur-sexualitatearen bigarren ezaugarria ere: bizi-iraupenaren zerbitzuan dauden janari-hartzearekin eta

gorozkiak kanporatzearekin dituen loturak, eta agian baita zentzumen-jardunarekin eta muskulu-nerbakuntzarekin daudenak ere.

Sexualitatea pertsona helduetan psikoanalisiaren laguntzaz aztertzen badugu eta horrela eskuratutako ezagutzen argitan begiratzen badugu haurraren bizitza, sexualitatea ez zaigu agertuko ugalketaren zerbitzura dagoen eginkizun soil bezala, arnasketarekin edo liseriketarekin eta antzeko beste batzuekin parekatzeko moduan, baizik eta berezkotasun apartekoa duen zerbait bezala ikusiko dugu, pertsonaren beste jarduera guztiei kontrajartzen zaiena, eta mugapen ugari garapen korapilatsu baten ondoren norbanakoaren ekonomiaren leihara beharturik dagoena. Sexu-joera horiek ez datozela bat norberaren hugalketa-joerekin dioen jarrera teoriko onargarria neurosi-gaixotasunetan baieztatu daiteke itxura guztien arabera, ze psikoanalisiak neurosien izaeraz eman duen azken formulak zera baitio: neurosiak sortarazten dituen jatorrizko gatazka niari iraunarazten dioten bulkaden eta joera sexualen artean moldatzen dena dela. Niak sexualitatea erreprimitzeko eginiko ahaleginek porrot egin ondoren, sexualitateak niaz duen gainkuntza gehiago edo gutxiago partzialari dagozkio neurosiak.

Beharrezkotzat jo izan dugu lan psikoanalitikoak gauzatzen zen bitartean ikuspegi biologikoak saihestea, eta berorietaz helburu heuristikoetarako ez baliatzea, horrela jokatzaz gure aurrean dauden gertakari psikoanalitikoak inpartzialki epaitzerakoan inolako errurik ez egiteko xedez. Lan psikoanalitikoak amaitzerakoan, ordea, biologiarekiko loturak aurkitu behar ditugu, eta lasai gera gintezke lotura horiek oinarritzako puntu batean edo bestean ziurtaturik geratu badira. Niaren bulkaden eta sexu-bulkaden arteko aurkakotzak, zeini guk neurosien jatorria atxiki diogun, biologiaren eremuan du jarraipena, niaren iraupenaren eta espeziearen ugalketaren zerbitzura dauden indarren artean. Erne-plasma hilezkorren ikuspegi zabalagoa kontrajartzen zaigu biologian, eta horri baldintzapeturik daude, jarraieran garatutako organo bailiran, norbanako hilkor guztiak; eta hortik bakarrik uler dezakegu sexu-indarrek norbanako bakoitzaren fisiologian eta psikologian duten betekizuna. Biologiaren eremuko terminologiak eta ikuspegiak lan psikoanalitikoan nagusigoa har ez dezaten eginiko ahalegin guztiak gora-behera, guk aztertutako gertakarien deskribapenerako ezinbesteko gertatzen zaizkigu. Ikuspegi psikologikoen eta biologikoen arteko muga-konzeptu bezala ezartzen zaigu «bulkada», eta «gizonezkoen» eta «emakumezkoen» arima-ezaugarriez eta joerez hitz egin ohi dugu, nahiz eta sexu-ezberdintasunek, zehaztasunez hartzen badira, inolako ezaugarri psikikorik eskatzen ez duten. Guk bizitzaz gizonezkotasunez edo emakumezkotasunez hitz egiten duguna jardunkortasunaren eta pasibotasunaren ezaugarrietara laburbiltzen da ikuspegi psikologikoarentzat, hau da, ez bulkada berorietatik datozen ezaugarrietara, baizik eta berorien helburuetatik agertzen direnetara. Arima-bizitzako bulkada «jardunkor» eta «pasibo» horien arteko etengabeko elkarlotura ispilatzen da norbanakoen bisexualitatean; psikoanalisiarentzat aurrebaldintzetako bat da, hain zuzen ere, ezaugarri haxe.

Askok poztuko nintzateke biologiaren eta psikologiaren artean psikoanalisiak egin duen bitartekaritza zabala azpimarraturik geratuko balitz nire ohar gutxi hauen bitartez.

D) Historiaren garapenerako interesa

Psikologi gertakarien ez edozein azterketari dagokio psikoanalisiaren izena. Gertakari osoak beren osagaietan banatzea baino zerbait gehiago eskatzen du azken horrek; gertakari psikiko bat denboraz lehenago gauzatutako beste baten bitartez

argitzea eskatzen du, bata bestearengandik sortua delako. Osagilearen jardunbide psikoanalitikoak ez luke inolako gaixotasun-sintomarik desagertaraziko, bere jatorria eta garapena aztertuko ez balitu: garapen-gertakarien jarraipena egitera beharturik dago psikoanalisi bere hastapenetatik. Sintoma neurotikoen sorrera argitu zuen lehenik; aurrera egin ahala beste gertakari psikiko batzuk ere kontutan hartzera beharturik egon da, baita psikologia genetiko baten lana burutzera ere horien inguruan.

Pertsona helduaren arima-bizitza haurrarenetik argitzera beharturik ikusi da psikoanalisi, eta horrela esaera hura arretaz hartzera era berean: haurra da gizonaren aita. Haurraren psikeak helduenarekin duen lotura jarraitu du, baina baita bide horretan berez sortu diren aldakuntzak eta desbideraketak ere. Lehen haurtzaroko garaiei dagozkien oroitzapenetan hutsuneak ditugu gutariko gehienok, zatikako oroitzapen batzuk baino ez batitugu gordetzen. Baieztatu ere baieztatu daiteke, psikoanalisiak bete dituela hutsune horiek, eta haurtzaroari dagokion amnesia hori ere saihestu duela.

Zenbait aurkikuntza azpimarragarri egin ziren haurraren arima-bizitzan sakontzerakoan. Lehendik sumatzen zena baieztatu ahal izan zen, haurtzaroko oharpenek, bereziki lehen urtetakoek, pertsona baten geroagoko norabidean nolako garrantzi berezia duten, alegia. Psikoanalisiarentzat ez beste guztientzat arazo den honako paradoxa psikologiko honekin egin zen topo, esanguratasunez betetako oharpen horiek, hain zuzen ere, ez direla agertzen geroagoko urtetako oroitzapenetan. Lehen bizitapen horiek sexu-bizitzarako duten eredugarritasuna eta iraupena argienik kontutan hartu dituen psikoanalisi izan da. «On revient toujours à ses premiers amours» esaerak dioena egia herabe bat baino ez da. Helduen maitasun-bizitzako ezkutuki ugariak, haurtzaroko maitasun-uneak kontutan hartuz bakarrik konpon daitezke. Eragin horien teoriarako, kontutan hartu beharrekoa da haurtzaroko lehen bizitapenak ez direla zoriaren gertakari huts norbanakoarentzat, horretaz gain izakeraz dakartzan senei dagokien lehen jarduerari ere badagozkiela.

Beste aurkikuntza harrigarri baten mamia honako hau da, geroago izanen duten garapen guztia kontutan izanik ere, haurtzaroko arima-moldakuntzetatik ezertxo ere ez dela galtzen helduengan. Haurraren asmo, sen-eragin, jokamolde, jarrera guztiak aurki daitezke pertsona helduarengan, eta berriro ere ager daitezke konstelazio aproposen baldintzetan. Ez dira ezabatuak izan, gainjarriak izan dira, psikologia psikoanalitikoak esango lukeen bezala, bere espazio-adierazpen-moduaz baliaturik. Arimaren iraganaren izakerazkoa bilakatuko da, beraz, bere ondorengoek ez dutela desagertaraziko, iragan historikoan gertatu ohi denez; bere ondorengoekin batera indarrean jarraituko du, birtualki edo aldiberekotasun errealean. Horren froga baino ez da gizaki normalaren gaueroko ametsak haur-izakera horren berriztapen bat baino ez direla eta bere arima-bizitza guztia haur-mailara daramatela berriro. Neurosietan eta psikosietan agertzen da infantilismo psikiko horretarako (erregresioa) berritzulera, ze horien ezaugarria, neurri handi batean, arkaismo psikikoz moldaturik daudela esanaz deskribatuko bailitzateke. Arima-bizitzan haurtzaroko aztarnek oraindik gordetzen duten indarraren neurriak adierazten digu guri gaixotasunerako joeraren nolakotasuna, eta horrela hori garapenerako oztopo baten adierazgarri ere gertatzen zaigu. Haurtzarotik iraundakoak, gizaki baten material psikikoetara zanpatutakoak, moldatzen du bere inkontzientearen osagai nagusia, eta gure ustez gure gaixoen bizibidean sumatu ere suma daiteke, indar zanpatzaileek oztopaturik dagoen inkontziente hau nola berriro ekin zai dagoen, eta, geroagoko moldakuntza psikikoak ingurune errealeko zailtasunak gainditzeko gauza ez direnean, nola egoera horretaz baliatzen den ere.

Azken urte hauetako lan psikoanalitikoak beste honetaz ere jabetu da, «ontogenesia filogenesiaren errepikapen bat dela»⁷ esaldiak dioena arima-bizitzara ere aplikatu daitekeela alegia, psikoanalisiaren interesaren hedapen bat gertatu delarik horrela.

E) Kultur historiarentzako interesa

Gizabanako bakoitzaren haurtzaroa herrien lehen-historiarekin alderatuz modu ezberdinetako emaitza azpimarragarriak eskuratu ahal izan dira, nahiz eta lan hori hastapenetan aurkitzen den oraindik. Ikerketa-baliabide berri baten betekizuna jokatzen du horretan pentsakera psikoanalitikoak. Herrien psikologiaren eremuan bere aurrebaldintzaz baliatzeak arazo berriak azalarazi ditu eta lehendik aztertutakoak argibide berriz ikustarazi eta hauen konponbidea aurkitzen lagundu.

Lehenik eta behin, bidezkoa dirudi ametsen azterketatik eskuratutako ikuspegi psikoanalitikoak herri-asmakizunetara egokitzeak, mitoetara eta ipuinetara alegia⁸. Aspalditik sailtu ohi dira asmakizun horien interpretazioan; «ezkutuko zentzu» bat dutela uste da, zentzu hori estaltzen duten transformakuntzak eta birmoldakuntzak onartzeko prestaturik gaude. Ametsen eta neurosien eremuan lortutako maisutza eskaintzen du psikoanalisiak, horren bidez transformakuntza horien bide teknikoak aurkitzea ahalbidetu dezakeelarik. Hainbat kasutan, gainera, jatorrizko zentzu hartatik mitoak izan dituen aldakuntzetarako ezkutuko arrazoiak aurkitzen ere lagun dezake. Mitoen moldakuntzarako lehen arrazoiak ezin ikus daiteke naturazko gertakarien argibiderako behar teoriko batean edo ulergaitz bilakatu diren kultur arau eta ohiturak ziritu beharrean; oso bestela, ametsetarako eta sintomen moldakuntzarako arrazoi bezala frogatu ahal izan diren «konplexu» psikikoetan eta joera afektiboetan bilatu nahi dira.

Bere ikuspegiak, aurrebaldintzen eta ezagutzen transferentziaren bitartez gure kultur erakunde haundien, hala nola erligioaren, moralaren, zuzenbidearen, filosofiaren jatorrira argia ekartzeko prestaturik dago psikoanalisiak⁹. Badaezbadazko ezagutza psikologikoetan oinarrituriko hainbat eta hainbat argibide-saio deuseztatzeko eta sakonagoa iristen diren beste batzuek ordezkatzeko prestaturik dago psikoanalisiak, moldakuntza horietarako eragina sortaraz zezaketen egoera primitiboen aztarnak jarraituz.

Norbanakoen eta taldeen errendimendu psikologiko horien artean oso lotura hestua moldatzen du psikoanalisiak, bientzako jatorri dinamiko berdinak eskatuz. Honako oinarritzako ikuspegi honi lotzen zaio, arima-mekanismoaren betekizun nagusia izakia bere baitatik sortzen zaizkion beharren eraginez sumatzen dituen tensioetatik askatzea dela dioen ikuspegiari, alegia. Ingurunearen eraginez lortutako asepenaren bitartez bideratzen da betekizun horren zati bat; mundu erreala menperatzea ezinbestekoa da horretarako. Behar horietako beste zati bati, nagusiki joera afektibo jakin batzuei tartean, asepena ukatzen dio errealitateak. Betekizunaren bigarren eginkizun bat sortzen da egoera horretatik, asepena ukatu zaien joera horiei beste modu bateko irtenbidea prestatzea, hain zuzen ere. Horixe baino ez du adierazten kulturaren historia guztiak: gizakiak zein bidez baliatzen diren asetu gabeko desirak menpean hartzeko, berez aldakorrak diren eta teknikaren eskakizunak aldatzen doazen errealitatearen aldetiko babes- eta ukapen-baldintzetara egokituz.

Lehenik eta behin, ahalguztiduntasunaren haur-sinesmenari¹⁰ emanik agertzen digu gizakia herri primitiboen azterketak; arimaren hainbat eta hainbat moldakuntza ahalguztiduntasun horretako okerrak ezeztatzeko ahalegin bezala agertzen zaizkigu horrela, eta, aldi berean, errealitateak afektuen bizitzan izan ditzakeen eraginetatik babesteko saio moduan, eragin horiek hobeto menperatu eta afektuen asepenarako

erabilgarri ez zaizkion bitartean behintzat. Desplazerra saihestearen legeak gidatzen du giza jarduera, ahalik eta emankorragoa zaion ingurunera egokitzearenak tokia kentzen ez dion bitartean. Mundua menperatzen doan neurriarekin paretsu gizakiak munduaz duen ikuspegian ere garapen bat gertatzen da, ahalguztiduntasunaren sinesmenetik gero eta gehiago aldenduz, eta sineskerien alditik zientifikotasunera iraganez, erlijio-ikuspegitik pasa ondoren. Zentzu honetan mitoak, erligioa eta morala desiren asepen mugatuari argibide bat aurkitzeko saio bat baino ez dira.

Gizarte-erakunde handien ulerkuntzarako laguntza azpimarragarria ekarri du gizabanakoen neurosi-gaixotasunen ezagutzak, izan ere, erakundeen bitartekotasunez konpondu beharko liratekeen desira-konpentsazioen eremuko arazoak era indibidualean konpondu nahiaren adierazpen bezala agertzen baitira neurosiak. Gizarte-faktorearen desagerkuntzak eta sexualitatearenak hartzen duen gainindarrak ezerezero bihurtzen ditu irtenbide neurotiko horien betekizun psikologikoak eta arazo garrantzitsu hauen argibiderako baino ez digute balio.

F) Estetika-jakintzetarako interesa

Argibide onargarriak eskaintzen ditu ikuspegi psikoanalitikoak arte-munduarekin eta artistenarekin lotura duten arazo batzuentzat; beste batzuek, ordea, bere eremutik ihes egiten dute. Asetu gabe geratutako nahimenen indarra gutxitzea helburu duen jarduera bat ikusi nahi du psikoanalisiak artegintzan, eta hori bai artista sortzaile berarengan lehenik, eta baita entzulearengan edo ikuslearengan ere ondoren. Beste gizabanako batzuk neurosietara behartu eta gizartea bere erakundeak sortzera bultzatu dituzten gatazka berdinak dira artegintzarako indarra eragiten dutenak. Artistari sorkuntzarako gaitasuna nondik datorkion argitzea ez dagokio psikologiari. Bere askapena bilatzen du lehenik artistak, eta bere sorkuntza erakutsiz nahimen bertsuen asegabetasuna sufritzen duten besteengana hedatzen du askapen-nahi hori¹¹. Bere fantasiak beteak izan balira bezala aurkezten ditu, baina berorien desitxuraketa baten ondorioz baino ez dira iristen artelan izatera: nahimen horien gaitzesgarritasuna baretuko, berorien jatorri pertsonala ezkutatuko eta edertasun arauak gordez besteei dastapen-sariak eskainiko dizkien desitxuraketaren bitartez, alegia. Ageriko dastapen artistikoaren ondoan bulkada-askapenaren ezkutuko iturritik datorren beste indartsuago bat dagoela gordeta frogatzea eginkizun erraza zaio psikoanalisiari. Artistaren haur-oharpenen eta bere bizitza-patuaren eta bere lanen arteko lotura bulkada berorrekiko erreakzio bezala ikusi-nahia da ikuspegi analitikoaren aztergai erakargarriena¹².

Artegintzako eta arte-gozamenaren eremuko galdera gehienak lan sakonago baten beharrean aurkitzen dira oraindik, ezagutza analitikoaren argia egingo eta giza nahimenen konpentsazioen eraikuntza konplexuan zein toki dagokien adieraziko dien azterketa baten beharrean, alegia. Konbentzionaltzat onartutako errealitate moduan — non arte-ilusioei esker sinboloek eta ordezkio moldakuntzek benetako sentipenak ere eragin baititzaizkete—, irrikeri asebidia ukatzen dien errealitatearen eta desirak asebetetzen dituen fantasiazko munduaren artean kokatzen den tarteko eremu bat osatzen du arteak, gizarte primitibo haren ahalguztiduntasun-joerak oraindik bizirik dirauen eremu bat, hain zuzen ere.

G) Soziologiarentzako interesa

Egia da psikoanalisiak norbanakoaren psikea hartu duela bere aztergaitzat, baina hori arakatzerakoan ezin ihes egin ziezaioketen norbanakoak gizartearekiko harremanetarako dituen oinarri afektiboek. Aurkitu ere aurkitu du izaera erotikoa duten osagaiak jasotzen dituztela sentipen sozialek, eta osagai horiek gehiegi azpimarratuz eta ondoren erreprimatuz arima-gaixotasun batzuen ezaugarri bihurtzen direla. Norbanakoa gizartetik alderatzea eta lehenagoko aldietako komentuek eskaintzen zioten babesa gaixotasunaren bakardadez ordezkatzeko helburu duten neurosien izakera asoziala ere atzeman du orokorrean. Hainbeste neurosietako jaun eta jabe den erruduntasunaren konplexua beldur neurotikoaren aldarazpen sozial bezala agertzen da horrela.

Horretaz gainneurosien sorreran harreman eta eskakizun sozialek duten partehartzea ere neurri handi batean argitu du psikoanalisiak. Niaren aldetik sen-mugapena eta sen-zapalkuntza bideratzen dituzten indarrak kultur eskakizun sozialekiko menpekotasunetik sortzen dira nagusiki. Bestelakoan neurosira bideratuko luketen konstituzio berdinak eta haurtzaro-oroitzapen berdinek ez dute ondorio hori gauzaraziko menpekotasun hori ematen ez bada, edo norabanakoari bere gizataldetik eskakizun haiek ezartzen ez bazaizkio. Indartzen doan urduritasuna kulturaren emaitza dela dioen esaera zahar hark egiaren gutxienez erdia argitzen du. Hezkuntzak eta adibideek sumarazten dizkiote norbanako gazteari kultur eskakizunak; norbankoarengan bulkaden zapalkuntza bi faktore horiekiko askatasunean gauzatzen denean, zilegi da zera suposatzea, eskakizun primitibo hura, azkenik, gizakiaren ondare antolatu bilakatzera iritsi dela. Berez, espontaneoki bulkaden zapalkuntza gauzatzen duen haurrak kultur historiaren zati bat errepikatuko luke horrela. Gaur barneko mugapen bat dena kanpotik, agian garaietako beharrak horrela bideraturik, ezarritakoa izana da behin, eta bide beretik gaur heltzen ari den norbanakoari kanpoaldeko kultur eskakizun bezala planteatzen zaiona bulkaden zapalkuntzarako barne-egitura izatera ere irits daiteke.

H) Pedagogiarentzako interesa

Nabaritasun osoz frogatu den arau batean oinarritzen da psikoanalisiak hezkuntza-jakintzetarako duen garrantzia. Hezitzaile izan nahi duenak haurren arima-bizitzan sartzeko gai izan behar du ezinbestean, eta guk helduok ez ditugu haurrak ulertzen geure haurtzaroa ulertzen ez dugulako. Gure haurtzaroarekiko dugun amnesia garai horrekiko zenbateraino arrotu garen frogatzen du. Haurtzaroko nahimenak, gogoetak, garapen-gertakariak argitu ditu psikoanalisiak; lehenagoko ahalegin guztiak mugatuak eta okerrak ziren oinarritz, bere soin- eta arima-agerpenetan ezin garrantzi handiagokoa den sexualitatearen faktorea aintzakotzat hartzen ez zutelako. Haurtzaroaz —Edipo-konplexuaz, narzisismoaz, perbertsio-joeraz, uzki-erotismoaz, sexu-jakinminaz— psikoanalisiak aurkeztu dituen aurkikuntza ziurrenak nolako sinesgabetasun-harriduraz hartuak izan diren ikusteak gure arima-bizitaren, gure balioen, gure gogoeta-prozesuen eta haur arruntarenaren artean dauden tartak jartzen ditu begibistan.

Irakasleek psikoanalisiaren emaitzat ezagutu ditzatenean errazago gertatuko zaie haur-garapeneko zenbait aldirekin ados jartzea, eta beste zenbait gauzaren artean, haurraren ager daitezen zentzurik gabeko bulkada asozial eta perbertsoei gehiegizko garrantzia emateko arriskurik ez dute izango. Bulkada horiek indarkeriaz zanpatzeko joeratik urrutiratuko dira honako honetaz kontura daitezenean, hezitzaileak hainbeste beldurtzen dituen haurren perbertsioarekiko utzikeriak baino ondorio okerragoak

bidera ditzakeela era horretako eskuhartzeak. Joera indartsu horiek kanpotik indarkeriaz zanpatzeak ez du eragiten berorien inolako desagerkuntzarik edo menperaketarik haurraren, oso bestela, geroagorako neurosi-gaixotasunetarako joera gauzatuko duen zapalkuntza soil bat eragiten da horrela. Ikuspeirik gabeko hezkuntza gogor batek nerbio-gaixotasunen sorkuntzan duen partaidetza edo eskatzen den normaltasunak nolako lan- eta gozamen-gaitasuneko galera dakarren maiztasun handiz frogatzeko aukerak ditu psikoanalisiak. Baina erakutsi ere erakuts dezake, haurraren perbertsio-joera asozial horiek izaeraren moldakuntzan nolako eskuhartzea izan dezaketen, baldin eta zapalkuntzaren indarren menpera makurtu ordez, eta sublimazio-prozesuaren bitartez, jatorrizko beren helburuetatik askatuz baliozkoagoetara norabidetuko balira. Joera gaiztoenen lurretan garatu dira gure ezaugarriak onenak sublimazio- eta erreakzio-moldakuntzen modura. Baliozko indar-iturri horiei irtenbideak galeraztetik aldentzen saiatu beharko luke arreta guztiz hezkuntzak, eta indar horiek bide egokietara bideratuko lituzkeen prozesua eragitera mugatu beharko luke. Psikoanalisiak jantzitako hezkuntza batean oinarritzen da guk neurosien profilaxi indibidualetik itxaron dezakeguna. (Ikus honetaz Oskar Pfister Züricheko apaizaren lanak).

Ezin har nezakeen lantxo honetako helburutzat psikoanalisiaren aztergaia, hedapena, aurrebaldintzak, arazoak eta emaitzak jakintzagaiaz ineteresaturiko irakurlego bati aurkeztea. Nire asmoak beterik geratuko lirateke baldin eta jakintzagai honek besteentzat nolako interesak dituen eta berorien artean nolako loturak dauden argi geratuko balitz.

Psikoanalisiaren zailtasunetako bat

Hasieratik garbi utzi nahi dut ez dudala zailtasun intelektual bat aitatu nahi, hartzailearentzat (entzule edo irakurlearentzat) psikoanalisia ulertezina egiten duen zerbait; ez, zailtasun afektibo batez dihardut: psikoanalisian hartzailearen sentipenak bestekotzen dituen zerbaitetaz, psikoanalisiari interesgarritasuna eta sinesgarritasuna eskaintzeko gogo gutxituko zaiolarik horrela. Ikus daitekeenez, bi eratako zailtasunekin egiten du topo gure jakintza-arloak: zerbaitetarako sinpatiarik sumatzen ez duenak ulertu ere zailtasunez ulertuko du.

Gaia oraindik sartu gabekotzat jotzen dudan irakurleari diodan begiruneagatik, gehiago sakondu beharrean aurkitzen naiz. Banakako behaketa eta oharpen kopuru handi batetik abiatuz teoria moduko bat moldatu ahal izan da azkenik psikoanalisiaren eremuan, libidoaren teoria izenpean ezagutzen dena. Nerbioetako ondoezak argitzen eta sendatzen saiatzen da, ezaguna denez, psikoanalisia. Abiapuntu bat aurkitu behar zen horretarako, eta hori arimaren sen-bizitzan bilatu behar zela erabaki zen. Giza sen-bizitzaz moldatutako suposapenek osatzen zuten, beraz, nerbiositateaz genuen ikuspegiaren oinarria.

Arima-bizitzako arazoei buruz galdetzen badiogu, gogobetetzen duten erantzun gutxi eskainiko dizkigu gure eskoletan irakasten den psikoanalisiak. Baina inongoak kezkarriak badira, bulkaden eremuko berriak dira kezkarrienak.

Gure esku geratzen da eremu honetan zein eratako lehen orientabidea hartu. Herri-jakintzak gosea eta maitasuna bereizten ditu senen adierazpen moduan, bata norbanakoaren iraupena eta besteak bere ugalkuntza helburu dituztelarik. Bereizketa horri lotzen gataizkiolarik, norberaren iraupen- edo ni-sena sexu-senetatik bereizten dugu, modu berean, psikoanalisian, eta arima-bizitzan sexu-senak agertzen duen indarrari libido izena eman ohi diogu, sexu-beharra esan nahi duena, eta ni-senean goseari, agindu-nahiari eta antzeko joerei dagokien betekizun modukoa hartzen duena.

Uste horietan oinarriturik egin genuen gure lehen aurkikuntza esanguratsua. Aurkitu genuenez, gaixotasun neurotikoak ulertuko badira sexu-eraginei eman behar zaie, askogatik, garrantzirik handiena: sexu-funtzioen berezko gaixotasunak dira neurosiak. Ikasi genuenez, libido-kopuruari eta bera asetzeko aukerei eta asepen horren bidez lasaitzeko ahalbidei baldintzaturik dago gizaki bat neurosiaz gaixotuko den ala ez. Batek sexu-funtzioaren garapen-bidea nola burutu izan duenari, edo guk esan ohi dugunez, libidoak bere garapenean zehar hartu duen fijazioari baldintzaturik dago gaixotasunak izango duen modua. Psike-eragipen-teknika ez erraz baten bitartez hainbat neurosi-mota argitzeko eta aldi berean baita sendatzeko ere aukerak ditugu orain. Niaren senen eta sexu-bulkaden arteko gatazkatik sortzen diren neurosi-mota baten eremuan eskuratu ditu lorpenik onenak gure ahalegin terapeutikoak. Gizaketan zera gertatzen baita, norbanakoaren mugak gainditzen dituzten sexu-bulkaden eskakizunek arriskuan jartzen dutela nia, bere iraupena eta autobegiramena arriskuan jartzen baitituzte. Autodefentsari ekiten dio orduan niak, beren gogozko asepena ukatzen die sexu-bulkadei, eta nerbiositate-sintoma moduan agertzen diren asetze-ordezkapenen desbideraketetara behartzen ditu.

Zanpatze-prozesua berraztertzeko eta gatazka osasunarekin elkargarri den irtenbide egokiago batera gidatzeko aukerak sortzen ditu orduan terapia psikoanalitikoak. Sexu-bulkadei buruzko gure balorapenetan alderdikeriaren errua

aurpegiratzen digu oposizio ulergaitz batek: sexualitatearen eremukoez gain baditu beste interes batzuk gizakiak. Ez ahaztu eta ez ukatu dugun zerbait da hori. Kimikariarena bezalakoxea da gure ikuspegi alderdikoia: konbinaketa guztiak erakargarritasun kimikoaren indarrera berbideratzen ditu. Horrek ez du esan nahi, ordea, grabitatea ukatzen duenik, fisikariaren esku uzten baitu horren balorapena.

Libidoak gaixoarengan duen banaketaz kezkatu beharra daukagu lan terapeutikoan zehar; libidoa zein errepresentazio-objekturi itsatsirik daukan ikertzen dugu, eta lotura horretatik askatuz niaren zerbitzura jartzen dugu. Libidoak hastapenetan gizakiarengan zuen jatorrizko banaketaz halako irudikapen harrigarri bat moldatu dugu lan horretan. Honako gertakari hau onartu beharrean aurkitzen ginen, norbanakoaren garapenaren hasieran norbere pertsonari lotzen zaio libido guztia (joera erotiko guztiak, maitasun-gaitasun guztia), edo guk esan ohi dugunez, norberaren nia hartzen du. Geroago, bizitzako behar handien asepenari jarraituz, ni-tik kanpoko objektuetara egiten du ihes libidoak, eta horri esker iristen gara libido-bulkadak holakotzat onartzera eta ni-bulkadetatik bereiztera. Objektu horietatik askatu eta niara bil daiteke berriro libidoa.

Niak libidoa beregana biltzen duen egoerari narzisismoa esan ohi diogu: greziar esaerak dioenez, ispiluan ikusten zuen bere irudian maitemindu zen Narziso gaztetxo hura gogoratuz.

Narzisismotik objektuen maitasunerako urratsean aurrerapena onartzen diogu pertsonari. Baina ez dugu sinesten niaren libido osoa erabat objektuetara bideratzen denik. Niari loturik irauten du beti libidoaren zati batek; objektu-maitasuna oso garaturik izanik ere, beti irauten du narzisismo-zati batek. Objektuetara bideraturik dagoen libidoa isurtzen duen biltegi handi bat da nia; baina, era berean, objektuetatik ere berriro beregana biltzen duena. Ni-libido zen lehenik objektu-libidoa, eta berriro ere ni-libido bilaka daiteke. Pertsonaren erabateko osasunerako garrantzi handikoa da libidoak bere moldakortasuna erabat gal ez dezan. Erlazio horiek argitu asmoz, ameba batean pentsa behar dugu: amebaren substantzia likidoak pseudopodoak ateratzen ditu, bizi-substantzia hedatzen duten soin-luzapen batzuk, baina edozein unetan beregana bil ditzakeenak, horrela amebaren itxura berriro lehenera itzuliz.

Neurosiei buruzko libido-teoria deskribatu nahi izan dut adierazpen horien bitartez, teoria horretan oinarritzen baitira gaixo-egoera horren izakeraz guk ditugun ikuspegiak eta berorren aurkako gure jardunbide terapeutikoa ere. Normala denez, jokabide arrunten argibiderako ere baliagarri egiten ditugu libido-teoriaren auresuposapenak. Haur txikiaren narzisismoaz hitz egin ohi dugu eta gizaki primitiboaren narzisismo gainindartsuaren ondorioztat jotzen dugu berak bere pentsakizunekiko duen ahalguztiduntasunaren ustea eta, horren ondorioz, kanpoaldeko munduko gertakariak magia bidez kontrolatzeko nahia.

Sarrera-hitz hauen ondoren zera adierazi nahi nuke orain, narzisismo orokorrak, gizadiak berekiko duen maitasunak, hiru modutako irain jasan izan dituela ikerketa zientifikoaren eremuan.

a) Bere bizileku den lurra izadi osoaren ardatz geldo zela uste izan zuen gizakiak bere ikerketen hastapenetan, eta eguzkia, ilargia eta beste planetak lur horren inguruan zebiltzala biribilketan. Bere zentzumenek eskaintzen zizkieten oharpenei jarraitzen zien horretan xalotasunez, ez baitzuen lurraren mugimendurik sumatzen, eta askatasunez bere ingurura begiratzen zuen bakoitzean inguruneko munduak mugatzen zuen zirkulu baten ardatz-puntu sentitzen zen. Izadi osoan zuen nagusi-betekizunaren babes gertatzen

zitzaion, horrela, lurraren ardatz-funtzio hori eta erabat bat zetorren izadi horretako errege izateko sumatzen zuen nahiarekin.

Joera narzisista horren gainbehera hamaseigarren mendeko Kopernikoren izenarekin eta lanarekin lotzen dugu guk. Aurrez ere lurraren ardatz-funtzio hori zalantzan jarria zuten pitagoratarrek, eta Kristo aurreko hirugarren gizaldian Samoseko Aristarkok esana zuen, jadanik, eguzkia baino askozaz txikiagoa zela lurra, eta azken hau zeruko beste izaki horren inguruan mugitzen zela. Kopernikoren aurkikuntza, beraz, aurrez eginik zegoen. Baina hori orokorki onartua izan zenean jasan zuen gizakiaren berekiko maitasunak bere lehen iraina: irain kosmologikoa.

b) Izakide zituen abereen jauntzat izendatu zuen gizakiak bere burua bere kultur garapenean zehar. Baina ez pozik, nonbait, nagusitza horrekin, eta etendura bat eraiki zuen haien eta bere artean. Adimena ukatu zien eta anima hilezkorra hartu zuen beretzat; eta abere-munduarekiko zuen kidetza hautsiko zuen jatorri jainkotiarra erabaki zuen bere buruarentzat. Harrigarria bada ere, ez haur txikiak, ez gizaki primitiboak, ezta jatorrizko gizakiak agertzen du horrelatsuko harrokeriarik. Geroago gauzatutako handikeriazko garapen baten ondorio da hori. Totemismoaren garapenaldiko gizaki primitiboak ez zion erreparorik jartzen bere jatorria abere batetik zetorrela zioen ikuspegiari. Pentsakera zahar haren hondamendia bere duen mitoak abere-irudia ematen die jainkoei, eta lehenaldi haietako arteak abere-buruz adierazten ditu jainko horiek. Bere izakeraren eta abereenen artean ez du inolako ezberdintasunik sumatzen haurrak; inolako harridurarik gabe jartzen ditu abereak pentsatzen eta hizketan bere ipuinetan; giza aitarekikoa litzatekeen beldur-afektua txakur edo zaldi batengana bideratzen du, aitaren irudia inolaz ere gutxietsi nahi izan gabe hori egiterakoan. Hel dadinean bakarrik urrunduko da abereetatik, beste gizakiak abere-izenez iraintzeraino.

Gu guztiok ondotxo dakigunez, Darwinen, bere lankideen eta bere aitzindarien ikerlanek ekarri zioten amaiera harrokeria horri oraintsu mende erdi bat. Gizakia ez da abereak ez bezalakoa, ezta hobe ere; abereen jatorri berekoa da, abere-mota batzuetatik gertuago eta beste batzuetatik urrutiago dagoena. Bere geroagoko lorpenek ezin ezabatu izan dituzte abereekiko baliokidetasun horren froga diren soineko eta arimako ezaugarriak. Hauxe da giza narzismoaren bigarren iraina, irain biologikoa.

c) Hirugarren iraina izan zen sentituena, psikologiaren eremukoa.

Gizakiak, kanpoaldean jadanik guttietsia, subiranotzat jotzen du bere izakera bere arimaren eremuan. Bere niaren muinean behatzaile bat sortu du, bere barne-eraginak eta bere jokabideak kontrolatuko dizkiona, bere eskakizunekin bat datozen ala ez aztertuz. Horrela gertatuko ez balira, inolako begirunerik gabe inhibitua eta zokoratuak izanen dira. Barneko oharpenak, kontzientziak, arima-bizitzan bideratzen diren garrantzizko gertakari guztien berri ematen dio niari, eta berri horien gidaritzapean dagoen borondateak baldintzatzen du niak zer erabakiko duen eta berez modu autonomoz bideratuko litzatekeenean zer aldatuko. Arima hori, izan ere, ez baita gauza sinple bat; gain- eta azpi-antolatutako instantziaz eratutako hierarkia bat da, askotan elkarrekiko bateraezinak eta kontrajarriak diren bulkaden eta kanpoaldearekiko harremanen anizkortasunarekin bat etorritik elkarrekiko askatasunean gauzatu nahi duten joerek osatzen duten zurrumbilo bat. Eginkizun horretarako ezinbesteko da gorengo instantziak gertatu bidean prestatzen ari den guztiaz berri izan dezala eta, era berean, bere eragina gauza dadin bere nahia une guztietara hel dadila. Baina datozkion berrien zuzentasunari eta erabatekotasunari eta bere aginduen bideragarritasunari dagokienean ziurtasuna sentitzen du niak.

Oso bestela gertatzen da, ordea, zenbait gaixotasunetan, guk aztertutako neurosietan bereziki. Ez da eroso sentitzen nia; bere etxe barnean, bere ariman, mugekin egiten du topo. Nondik datozkion ez dakien pentsakizunak sortzen zaizkio bat-batean; eta horiek desagertarazteko ezer ezin duela egin sumatzen du. Bisitari arrotz horiek niari menpekotutakoak baino indartsuagoak ote diren iruditzen zaio; borondateak bestela onartutako aginte-baliabide guztien kontra jartzen dira, ez dute arrazoiketa logikoarekiko moldakortasunik, muzin egiten diote errealitateak baieztatutakoari. Edo arrotz batenak direla diruditen eraginak sumatzen ditu, nia horiek ukatu beharrean aurkitzen delarik, baina beldur die eta berorien aurkako babes-neurriak hartu beharrean ikusten du bere burua. Hori guztia gaixotasun bat, inbasio arrotz bat dela dio niak, eta bere ernetasuna fintzen du, baina, hala eta guztiz ere, ezin ulertu du nolatan suma dezakeen bere burua hain erabat galerazia.

Horrelako kasuetanizpiritu arrotz gaiztoak arima-bizitzara sartu direnik ukatu egiten du psikiatriak; zera baino ez du baieztatzen sorbaldak jasoz: endekapena, jaraupenezko joera, gutxiagotasun-izaera! Gaixotasun-kasu harrigarri hauek argitzeari ekiten dio psikoanalisiak, ikerketa arretatsu eta luzeak moldatzen ditu, kontzeptu eta jakintza-eraikuntza berriak sortzen ditu eta azkenik niari esan ere esan diezaioke: «Ez da ezer arrotzik sartu zugana; zeure arima-bizitzako zati batek zeure ezagutzatik eta zeure borondatearen nagusigotik ihes egin dizu. Horretxegatik zara hain ahula zeurekiko babespean; zeure indar-zatietako batez bestearen aurka borrokatzen zara, eta ezin bil ditzakezu zeure indar guztiak arrotz baten aurka ekiten diozunean bezala. Eta ez da zeure zatietatik okerrera eta garrantzirik gutxiena duena horrela zeure aurka jartzen zaizuna eta zugandik aske iheska doakizuna. Horren guztiaren errua, horrelaxe esan behar dizut, zu zeugan dago. Zeure sexu-bulkadekin nahi zenuena egin zenezakeela eta horiekiko inolako arretarik ez zenuela izan behar pentsatu zenuenean zeure indarrak gainbaloratu zenituen. Zeure aurka jarri zitzaizkizun orduan, eta zapalkuntzari ihes egiteko helburuz bere bide ilunari ekin diote eta zure gogoko ez den modu batez beren eskubide-eremua eraiki dute. Hori guztia nola bideratu duten, eta zein norabidetik ibili diren, zu konturatzeke gertatu den gauza da; horren guztiaren ondorioa da zuk ezagutzen duzun bakarra eta sintoma moduan minduraz sumatzen ari zarena. Ez dituzu onartzen desbideratutako zeure joeren etorkin moduan, eta ez dakizu haien asepenaren ordezkio direnik ere.

Beste baldintza batek ahalbideraturik gauzatzen da gertakari guztia: beste arazo garrantzitsu batean ere okerbidetik zabiltza. Zeure ustez zeure arima-bizitzan gertatzen den guztiaren berri jaso ohi duzu, zeure kontzientziak, garrantzizkoa den guztietan, guztiaren berri ematen dizulakoan. Eta zeure arimako zerbaitetaz berririk ez baduzu, horrelakorik ez dagoela bertan, suposatzen duzu. Bai, urrutirago ere bazoaz: «arimakoa» zuk «kontziente» denarekin berdintzen duzu, hau da, ezaguna zaizunarekin, nahiz eta argi eta garbi egon, une oroz zeure ariman zeuri kontziente zaizuna baino askozaz gehiago gertatzen ari dela. Izan zaitez honetan behintzat ikasle! «Arimakoa» eta kontzientzia ez dira gauza berdina zeugan; gauza bat da ariman gertatzen dena, eta beste bat zuk horretaz kontzientziarik duzun ala ez. Onartzen dut, bai, zeure beharretarako nahiko duzula zeure kontzientziarentzat duzun berriemaile-zerbitzuarekin. Garrantzizko guztienaren berri jasotzen duzulakoaren ametsetan kulunka zintezke. Baina zenbait kasutan, bulkaden arteko gatazkarenean adibidez, porrot egiten du zerbitzu horrek eta dakizunaren mugetara biltzen da zure nahimena. Hala eta guztiz ere, kasu guztietan mugatuak eta ziurtasunik gabeak dira zure kontzientziara iristen diren berriak; horretaz gain nahikoa maiztasunez gertatu ohi da gertatu ondoren izaten duzula gertakarien berri, eta berorietan esku hartzeko aukerarik ez duzula orduan. Gaixorik ez bazeunde ere, nork

neur lezake zure ariman gertatzen ari den guztia, horren berririk ez baduzu eta duzunean duzuna okerra bada? Goi-funtzionarioek damaizkioten berriekin konformatu eta herriak zer nahi duen jakiteko beregana makurtzen ez den erabateko diktatorearen antzera jokatzeko duzu zuk. Bil zaitez zeugan, zeure sakonean, eta ikas ezazu zeure burua ezagutzen; orduan ulertuko duzu zergatik duzun gaixotu beharra, eta, agian, gaixotu gabe ere onik aterako zara».

Horrelaxe irakatsi nahi lioke psikoanalisiak niari. Baina honako bi argibide hauek, sexualitateko bulkaden bizitza ezin har genezakeela erabat menpean, eta arimako gertakariak berez inkontzienteak direla eta niaren oharpenera modu mugatuan eta ez-ziurrean iristen eta menpekotzen direla esatea zera esatea da: «nia ez da nagusi bere etxean». Biek batera norberekiko maitasunaren hirugarren iraina adieraziko lukete, nik psikologikoa izendatuko nukeena. Ezin harrituko gara, beraz, nia psikoanalisiaren alde jartzen ez bada eta horretaz sinesgogor jarraitzen badu.

Oso gizaki gutxi izanen du argi, arimako gertakari inkontzienteak onartzea zein urrats garrantzitsua litzatekeen bai jakintzarentzat eta baita bizitzarako ere. Baina aitor dezagun berehala, ez dela psikoanalisi izan urrats hori ematen lehena. Filosofilari ospetsuak izan dira aitzindari, eta nagusiki Schopenhauer pentsalari handia, bere «Nahimen» inkontzientea psikoanalisiak onartzen dituen arima-bulkadekin berdintzekoa baita. Gizakiei bere sexu-joearen garrantzia, oraindik ez nahikoa kontutan hartua, ahaztu ezinezko indarra duten hitzez gogorarazi zien pentsalari huraxe bera. Psikoanalisiak honako honetan bakarrik izan du lehentasuna: narzisimoarentzat hain mingarriak diren bi baieztapenak, sexualitatearen garrantzi psikologikoarena eta arima-bizitzako gertakari inkontzienteena hain zuzen ere, ez dituela modu abstraktuan baieztatu, baizik eta nor bakoitzari pertsonalki dagokion eta arazoari dagokionez jarrera bat hartzera behartzen duen material batez frogatuz. Horretxegatik, hain zuzen ere, bereganatzen ditu izen handiko filosofialariarekin ausartzen ez direnen abertsio- eta kontra-jarrerak.

Ezikasiek praktikaturako analisiaren arazoa

Lantxo honen izenburua ez da berez ulargarria. Argibideak emango ditut beraz: ez-ikasia = sendagile ez dena, eta galdera litzateke: sendagile ez direnei (ezikasiei) ere zilegi ote zaie analisisa praktikatzea? Bere denborazko eta tokizko baldintzapenak ditu galdera honek. Denborazkoak, orain artean inor ez baita kezkatu psikoanalisi nork praktikatzen duen arazoaz. Bai, gutxiegia kezkatu izan gara horretaz; desio batean zetozen guztiak bat, inork ez lukeela praktikatutako behar, horretarako arrazoiak ezberdinak baziren ere, guztiek sumatzen zuten abertsioa berdina baitzen. Sendagileek bakarrik analiza dezaketela dioen eskabideak analisiarekiko jarrera berri eta aldeko bat adierazten du itxuraz, hau da, lehengo jarreraren adaska zerbait aldatu bat delakoaren susmoa uxa badezake behintzat. Onartzen da, bai, tratamendu analitiko batek, zenbait egoeratan, lehentasuna izan beharko lukeela; baina hori bideratzekotan, sendagileek bakarrik egon beharko lukete horretarako baimenduak.

Tokiz ere baldintzaturik dago galdera, ez baita zabaltasun berdinez onartua lurralde ezberdinetan. Eztabaida akademiko baten esanahia du Ameriketan eta Alemanian, ze lurralde horietan gaixo bakoitzak erabaki baitezake nork eta nola tratatuko duen; norberak erabaki dezake, gainera, «petrikilo» moduan edozein gaixo tratatzea, baldin eta bere jardueraren erantzukizuna bere gain hartzen badu. Legea ez da horretaz kezkatzen, gaixoari egindako kalte bat zigortzeko eskatzen ez zaion bitartean. Austrian alderantziz —bertakoentzat eta bertan ari naiz hau idazten— aldeztu aurretiko jarrerara du legeak: gaixoen tratamendua galerazten die sendagile ez direnei, ondorioen zain egon gabe¹. Hemen, beraz, ezikasiek = sendagile ez direnek gaixoak psikoanalisiaz trata ditzaketela ala ez galdetzeak zentzu praktikoa du. Baina galdera egin orduko legeak erantzuten duela dirudi. Gaixo batzuk dira neurotikoak; sendagile ez direnak dira ezikasiak; nerbio-ondoezak sendatzeko edo hobetzeko tratamendu-era bat da psikoanalisi, eta era horretako tratamendu guztiak sendagileen esku bakarrik daude; ez da zilegi, beraz, sendagile ez direnek nerbioetatik gaixotutakoen analisi bideratzea, eta zigorgarria litzateke horrelakorik gertatuko balitz. Gauzak hain arruntak izanik, bat ez da ausartzen ezikasiek bideratutako analisisen arazoari ekiten. Baina sortu, legeak aintzakotzat hartzen ez dituen arazoak sortzen dira, eta horretxegatik arreta eskatzen dute. Agian zera ere gertatuko da, kasu hauetako gaixoak ez izatea beste gaixoak bezalakoak, ezikasiak ez izatea egiazki ezikasiak, eta sendagileak ere ez izatea sendagile batetik itxaron daitekeena eta bere esakizunak arrazoitzeko gauza dena. Hori horrela dela frogatuko balitz, ez litzateke bidezkoa legea, inolako aldaketarik gabe, horrelatsuko kasuetara aplikatzea.

I

Tratamendu analitiko baten berezitasunen berri izatera beharturik ez dauden pertsonen esku egon da hori gertatu ala ez. Gure eginkizuna da, oraingoz ez prestaturikotzat jotzen ditugun epaile inpartzial horiek hortaz jakinaren gainean jartzea. Tamalez ezin gonbida ditzakegu horrelako tratamendu batean parte hartzea. «Egoera analitikoak» ez baitu hirugarren bat onartzen. Oso balio ezberdinekoa da, gainera, tratamendu-saio bakoitza, eta prestatu gabeko behatzaileak, horrelako saio batean parte hartuko balu, ez luke inolako ondorio erabilgarrikerik aterako; sendagilearen eta gaixoaren artean tratatzen ari direna ez ulertzeko arriskuan egongo litzateke, edo erabat aspertuko litzateke. Guk dezakegun modurik fidagarrienean eskainitako informazioarekin konformatu beharko luke, beraz, zorionez edo zoritxarrez.

Berak menpera ezin ditzakeen sentipen-aldakuntza mingarrien, edo bere energia guztia perlesiak jota balego bezala sentiarazten dion erabatasun beldur baten menpe egon daiteke gaixoa, oker jokatzeko beldur baita edo arrotzen aurrean erabat gutxiesten baitu bere burua. Agian ulertu ere ez du egingo zergatik sortzen dizkioten zailtasunak bere lanbideko eginbeharrek, eta era berean hartu beharreko edozein erabakik edo bestelako eginkizunek. Herstura-sentipen mingarriak sumatu zituen egun batez —lehenago ezezagunak zitzaizkionak—, eta ordutik aurrera ezin ibili da bakarrik kalean edo trenean ahalegin berezi bat egin gabe; agian hortik zehar ibiltzeari uko egin behar izan dio. Oraindik azpimarragarriagoa dena, inolako kontrolik gabe dabilta bere gogoetak eta ez dute borondatearen gidaritzarik onartzen. Beretzat garrantzirik ez duten arazoak ditu gogoetagai, baina ezin libera daiteke horietatik. Oso eginkizun barregarriak burutu beharrean aurkitzen da maiz: eraikuntzetako leihoak zenbatu beharra, adibidez,

eta eskutitzak postakutxara botatzea edo sukaldeko gasa itzaltzea bezalako eginkizun arruntetan zalantzak sortzen zaizkio geroago, ea hori benetan egin ote duen. Nekagarri eta haserregarri baino ez da, agian, hori guztia, baina egoera eramangaitza bilakatzen da honako beste ideia hauek bezalakoak burutik uxa ezin ditzakeenean: bere autogurpilekin haur bat harrapatu duela, ezezagun bat zubitik behera uretara bota duela, edo bere buruari zera galdetu beharra sumatzen duenean, egun horretan poliziak aurkitu duen bidegabekeriako hiltzailea bera ez ote den. Zorakeria bat da guztia, argi dago, eta berak ere badaki hori, ez baitio okerrik egin inori inoiz, baina bilatzen duten hiltzailea bera balitz ere berak sumatzen duen sentipena —erru-sentipena— ez litzateke handiagoa izanen.

Edo gure pazienteak —emakume bat, kasu honetan— beste erabateko ondoezak ditu eta beste eremu batekoak. Piano-jotzailea da bera, baina behatzak gogortu egiten zaizkio eta ezin burutu dute beren eginkizuna. Orain zera pentsatzen badu, gizarte-bilera batera joatea, gizartekotasunarekin elkarrezinezko litzatekeen behar natural bat sumatzen du berehalakoan. Hori dela eta kontzertuetara, antzerkira, dantzara, gizarte-bileretara joateari uko egin dio. Eta unerik desegokienetan sekulako burukominak edo bestelakoak sumatzen hasten da. Zenbait bazkalondotan botaka hasten da, luzera arriskugarri ere gerta daitekeelarik hori. Eta bizitzan zehar saihesten ezin daitezkeen sentipenak eramangaitz gertatzen zaizkio, gauza mingarria benetan. Kordea galdu ere galtzen du horrelakoetan, gaixotasun beldurgarrietan pentsarazten duten muskulukizkurtzapen eta guzti askotan.

Sentipen-bizitzak soinaren parte hartzea eskatzen duen eremu berezi batean sumatzen dira ondoezik beste gaixo batzuk. Beste sexuarekiko samurtasun-eraginei soin-adierazpen bat emateko gaitasunik gabe sentitzen dira gizonezkoak badira, gutxiago maite dituzten objektuekiko erreakzio guztiak ederki menperatzen dituzten bitartean. Edo gorrotatzen dituzten pertsonengana bideratzen zaie beren zentzualtasuna, beraietatik liberaturik egon nahi duten haien txegana hain zuzen ere. Edo betetzea gorrotagarri zaizkien baldintzak ezartzen dizkie. Beldurragatik, nazkagatik edo bestelako eragozpen bategatik sexu-bizitzaren eskakizunei erantzun ezinean aurkitzen dira emakumeak baldin badira, edo maitasuna egitera erabaki badira, naturak menpekotasun horren ordainetan ezarri duen saria ezin gozaturik aurkitu ohi dira.

Ondoezik sumatzen dira pertsona horiek guztiak eta sendagilearengana jo ohi dute, honek nerbio-ondoez horiek guztiak sendatuko dizkielakoan. Ondoez horiek sailkatzeko erabili ohi diren kategoriez baliatzen dira sendagileak. Bakoitzaren ikuspegiaren arabera izen ezberdinez diagnostikatu ohi dituzte: neurastenia, psikastenia, fobia, obsesio-neurosia, histeria. Sintomak agertu ohi diren organoak aztertu ohi dituzte: bihotza, urdaila, hesteak, ernalkinak, baina osasun onean aurkitu ohi dituzte. Ohiturazko bizimodua, atsedena, prozedura indargarriak, sendagai tonifikatzaileak aldatzeko aholkua eman ohi dute, eta behin-behingo hobekuntza lortzen dute horrela, edo agian ezertxo ere ez. Halako batez, zera entzuten dute gaixoek, bereziki era horretako gaixotasunak sendatzen dituzten pertsona batzuk badirela, eta horien analisi-bidera jartzen dira.

Nik gutartean suposatzen dudan epaile inpartzialak urduritasun-zeinuak egin ditu neurotikoen gaixotasun-adierazpenak eztabaidatzen jardun garen bitartean. Adi-adi jartzen da orain, gogor, eta hala dio: «Oraintxe jakinen dugu sendagileak lagundu ezin izan dien gaixoekin nola jokatu ohi duen analitikariak».

Elkarriketa moduko bat baino ez da gauzatzen bien artean. Ez du lanabesik erabiltzen analitikariak bere behaketarako, eta ez du sendagairik agintzen. Ahal denean, bere ingurunean bertan eta bere ohiko harremanekin jarrai dezala uzten dio gaixoari tratamenduak iraun dezan bitartean. Hau, ordea, ez da inolako baldintza, eta ezin joka daiteke beti horrela. Egunekeo halako ordu batean etorrazten du gaixoa sendagileak, hitz egiten uzten dio, entzun egiten dio, gero hitz egin egiten dio eta entzun diezaiola eskatzen.

Lasaipena eta arindura sumatzen dira orain gure epaile inpartzialaren aurpegian, baina halako mesprezu bat ere garbi ikus daiteke bertan. Zera pentsatuko balu bezala: hori besterik ez al da? Hitzak, hitzak eta hitzak besterik ez, Hamlet printzeak esango lukeen bezala. Egoera hitzen bitartez gainditzea erraza dela dioen Mefistoren satira hura bururatu ere egingo zitzaion, alemaniar batek inoiz ahaztuko ez duen huraxe, alegia.

Eta beste hau ere badio: «Aztikeria moduko bat da hau, zuek hitz egin eta putz egin baino ez duzue egiten, eta bere oinazeak desagertu egiten dira».

Horrelaxe litzateke, aztikeria bat baino ez, baldin eta emaitzak azkarragoak izango balira. Azkartasuna da aztikeriaren ezaugarrietako bat; zera esan ahalko litzateke: arrakastaren bat-batekotasuna. Tratamendu analitikoak, ordea, hilabeteak eta urteak ere eskatzen ditu; bere harrigarritasuna galduko luke holako aztikeria luze batek. Guk, gainera, ez dugu hitza gutxietsi nahi. Ahalmen handiko baliabidea da: elkarri gure sentipenen berri emateko bitartekaria da, eta gure eragina besteengan gauzarazteko baliabidea. On harrigarriak ekar ditzake hitzak, baita zauri mingarriak eragin ere. Egia da: ekintzak ziren hasieran, eta geroago iritsi zen hitza; baina, ikuspegi ugaritatiek begiratu, kultur aurrerapen bat suposatu zuen ekintzak hitzen bitartez gozatu izanak. Hitza, hasiera hartan, azti bat zen, gertakari harrigarri bat, eta bere indar zahar hartatik asko gordetzen du oraindik ere.

Zera dio epaile inpartzialak: «Suposa dezagun tratamendu analitikoa ulertzeko ni bezain gaizki prestaturik dagoela gaixoa, nola sinestaraziko diozu bere oinazeetatik askatu beharko lukeen hitzaren edo elkarriketaren indar harrigarrian?».

Egia da prestakuntza bat ezinbesteko du, eta oso bide erraza aurkitu ohi da horretarako. Zera eskatzen zaio, erabat irekia izan dadila analitikariarekin, eta burura datorkionetik ezertxo ere ez eskutatzeke, eta azkenik hainbat oroitzapen eta gogoeta ez adierazteko sumatzen dituen ihespide-nahi guztiak saihesteko erabat. Gizaki orok daki beste kideei gogo gutxiz adieraziko lizkiekeen gauzak daramatzala bere barnean, edo inolaz ere adieraziko ez lizkiekeenak. Bere «intimitatekoak» dira. Eta norberaren ezagutza psikologikorako urrats handia suposatzen duen beste hau ere sumatzen du: norberak berekiko ere onartuko ez lituzkeen gauzak ere badaramatzala, begibistatik ezkutarazi nahi lituzkeenak, eta, hala eta guztiz ere, kanpora atera orduko bere gogamenean zanpatzen eta ehizatzen dituenak. Norberaren gogoetak norberari ezkutatu behar zaizkion egoeran arazo psikologiko arraro baten arrastoak suma ditzake, agian, horrela. Berak bere baitan beti sumatu duen izaerak batasunik ez balu bezala litzateke, bere baitan bere izaerari beste norbait kontra jarriko balitzaio bezala. Bere izaeraren eta zentzu zabalean ulerturiko arima-bizitzaren arteko aurkakotasuna hasi zaio iluntasunez agertzen agian. Berak une honetan guztia adierazteko eskakizuna onartzen badu, hain ez ohiko baldintzetan elkarri gogoetak jakinarazteak eta adierazteak emaitza harrigarriak bidera ditzakeelakoaren itxaropena sumaraz diezaioke.

«Ulertzen dut», dio gure epaile inpartzialak, «beldurtzen duen zerbait, sekretupeko zerbait daramala bere barnean neurotikoak suposatzen duzu zuk, eta hori

adieraztera eragiten duzularik beldur horretatik askatzen duzula eta on egiten diozula. Aitortzako oinarri-arau bera duzu hori, Eliza Katolikoak bere arimekiko nagusigoa ziurtatzeko betidanik baliatu izan duen huraxe bera».

Bai eta ez, erantzun behar. Sarrera moduko baten betekizuna hartzen du aitortzak analisisan. Baina analisiaren izakera osatzetik edo horren eragina argitzetik oso urruti dago. Dakiena aitortzen du bekatariak, neurotikoak hori baino gehiago esan behar du analisirakoan. Eta guk behintzat ez dakigu, gaixotasun-sintomak zuzenean desagertarazteko hainbateko indarra sortu duenik aitortzak.

«Beraz ez dut ezertxo ere ulertzen», izanen da erantzuna. «Zer adierazi nahi da zera diozuenean, dakiena baino gehiago esan behar duela? Pentsa dezaket bai, aitor-aitak aitorlearengan baino eragin handiagoa izanen duzula zuk, analitikari moduan, zeure gaixoengan, izan ere denbora luzeagoz, modu sakonagoan eta indibidualagoan jarduten baituzu berarekin, eta eragin indartsuago horretaz gaixoa bere gogoetetatik eta bere beldurretatik askatzeko baliatzen baitzara zu. Bomitatzea, beherakoa eta dardarizoak bezalako soin-agerpen hutsak bide horretatik desagertaraztea harrigarria izanen litzateke; ezaguna zait, ordea, era horretako eraginak ere bidera daitezkeela pertsona egoera hipnotikoan sartarazten bada. Litekeenez, era horretako egoera hipnotikoa eragiten duzu gaixoarekiko zure ahaleginaren bitartez, zure pertsonarekiko sugestio-lotura bat bideratuz, nahiz eta zure helburua hori izan ez; sugestio-hipnosiaren emaitzak lirateke, hortakoz, zure terapia-bidearen mirariak. Eta nik dakidanez, zuk adierazi duzunaren arabera hilabeteak eta urteak eskatzen dituen zure analisiak baino askozaz azkarrago bideratzen du bere eragina hipnosi-terapiak».

Gure epaile inpartziala ez da guk hasieran uste izan dugun bezain ezjakina. Argi dagoenez, psikoanalisi bere aurretiko ezagutzen bitartez ulertzen eta berak aurrez dakien zerbaitekin erlazionatzen saiatzen da. Hori ez duela lortuko ulertaraztea dagokigu orain guri; eta analisisa jardunbide berezi bat dela, ikuspegi berrien —edo horrela nahi bada, suposapen berrien— bitartekaritaz bakarrik uler daitekeen bide berri eta berezi bat, alegia.

Aintzakotzat hartzekoa da zuk analitikariaren eragin pertsonal bereziaz adierazi duzuna. Bada horrelako eraginik eta eginkizun garrantzitsua du analisisan. Inolaz ere ez, ordea, hipnotismoaren antzekoa. Bi egoerak oso ezberdinak direla frogatu ahal izango nizuke. Nahikoa bekizu honako oharpen honekin, ez gara baliatzen eragin pertsonal horretaz —«sugestio-une» horretaz— gaixotasun-sintomak desagertarazteko, sugestio-egoeraz egin ohi denez. Gehiago oraindik, okerra litzateke zera ustea, une hori dela tratamenduaren ardatza eta eragilea. Hasieran horrela da; baina geroago gure asmo analitikoaren aurka dago hori eta horren aurkako neurriak hartzera behartzen gaitu. Adibide baten bitartez adierazi nahi dizut jardunbide analitikoa oharpen-desbideratzetik eta disuasiotik zein urrun dagoen. Bidegabekeria handi bat egin izan balu bezalako erru-sentipen baten larritasunpean aurkituko balitz gure gaixoa, ez diogu esango ez diezaiola arretarik eskaini kontzientzi sufrimendu horri, zalantzarik gabeko bere zuzentasuna azpimarratuz horretarako; inolako etekinik lortu gabe saiatua da horretan, jadanik, bera. Oso bestela, zera ohartarazten diogu, horrelatsuko sentipen indartsu eta iraunkor batek nolabaiteko egiazko arrazoi bat behar duela, agian oraindik aurkitu beharko litzatekeen arrazoi bat.

«Harritu eginen ninduke», dio epaile inpartzialak, «era horretako onarpen baten bitartez zure gaixoaren erru-sentipena gaindiarazten duzula jakiteak. Baina zeintzuk dira zure analisi-helburuak eta nola jokatu ohi duzu zure pazienteekin?».

II

Zerbait ulergarria esango badizut, analisiaren esparrutik at ezezaguna edo aintzakotzat hartzen ez den irakaspen psikologiko baten zati bat adierazi beharko. Teoria horretatik erraztasunez ondoriozta daiteke gaixoari zer eskatzen diogun eta hori nola lortzen dugun. Era dogmatikoan aurkeztuko dizut nik, erabat osatutako irakaspen bat bailitzan. Ez pentsa, ordea, sistema filosofiko baten modura sortua izan denik. Poliki-poliki moldatu dugu, osagai bakoitza eskuratzeko saio luzeak eginaz, eta behaketaren bitartez aldatuz eta birmoldatuz joan gara, azkenik gure helburuetarako itxura nahikoa egokia hartu dueino. Oraindik urte gutxi batzuk beste era batera antolatuta beharko nukeen aurkezpen hau. Ezin ziurtatuko dizut orain hartzen duen itxura hau erabatekoa izango denik ere. Ondotxo dakizunez, zientzia ez da agerkunde bat; bere hasierak aspaldikoak badira ere, ez du oraindik zehaztasun, ezaldakortasun eta hutsezintasun ezaugarririk: giza ezagutzak hainbeste desira ohi dituen ezaugarriak hiruak. Baina den bezalakoxea da guk eduki genezakeen guztia. Onar ezazu era berean, gure jakintza hau oso gaztea dela, gizaldi honen adinekoa, eta giza ikerkuntzari aurkez dakiokeen aztergai zailena duela landu beharrekoea, eta orduan nire aurkezpenerako jarrera egokia hartzea zeregin erraza gertatuko zaizu. Nire adierazpenak ulergaitz zaizkizunean edo argibide gehiago nahi duzun bakoitzean beldurrik gabe adieraz diezadazula eskatzen dizut.

«Hasi baino lehen ere eten nahi zaitut. Adierazi didazunez, psikologia berri bat aurkeztu nahi didazu, baina nik pentsatzen nuenez, psikologia ez da jakintza gazte bat. Nahikoa psikologia-joera eta nahikoa psikologilari ezagutzen ditugu, eta eremu horietan eskuratutako lorpen handiez entzun ahal izan dut nire eskola-aldian».

Ez dut hori guztia zalantzan jarriko. Baina sakonago aztertuko bazenitu, lorpen horiek zentzumenen fisiologiaren eremukoak direla konturatuko zinateke. Ezin garatu izan ziren arima-bizitzari zegozkion irakaspenak, oinarritzko eragozpen bakar batek ezindu baitzuen hori. Zer hartzen du horrek, beraz, orain eskoletan irakatsi ohi denez? Aitatutako zentzumenen fisiologiaren ikuspegi horiez gain gure arima-bizitzari dagokion sailkapen eta definizio andana bat, gero hizkuntza-ondareari esker eskola duen guztientzat oinarritzko ondare bilakatu dena. Hori guztia, ordea, ez da nahikoa arima-bizitzaz guk dugun ikuspegiarentzat. Ez ote zara bada konturatu filosofialari bakoitzak, olerkariak, kondairalariak eta biografoak bakoitzak bere psikologia moldatu duela, eta arima-ekintzen helburuez eta barne-loturaz bakoitzak bere aparteko aurrebaldintzak dakartzala, denak nahikoa erakargarritasunez apainduak, nahiz eta, era berean, inolako ziurtasunik gabeak badira ere? Ikus daitekeenez, oinarritza komun bat falta zaie guztiei. Eta horri zor zaio psikologiaren eremuan inolako begirunerik eta autoritaterik ez egotea. Bakoitzak berak nahi bezala «ehiza» dezake eremu horretan. Gai fisiko edo kimiko batez galderarik egiten baduzu, horretaz prestakuntza berezia ez duen edonork isildu egingo zaizu. Baina psikologiaren eremuko baieztapen bat egiten baduzu, edonork egingo dizu aurka eta horretara prestaturik egon behar duzu. Antza denez, eremu honetan ez dago inolako «ezagutza berezirik». Pertsona orok du bere arima-bizitza eta arrazoi horrexegatik edonork psikologotzat dauka bere burua. Hori ez da, halare, nahikoa titulu niretzat. Esan ohi denez, haurrak zaintzeko prest agertu zen emakume bati «haur txikiekin» ere moldatzen ote zen galdetu omen zioten. Argi dagoenez zera erantzun zuen, bera ere haurra izana zela behin.

«Eta psikologoen kontutan hartzen ez duten arima-bizitzaren “oinarritza komun” hori aurkitu ote duzu zuk gaixoetan egin dituzun behaketen bitartez?».

Ez dut uste jatorri horrek gure aurkikuntzaren balioa gutxiensten duenik. Enbriologiak, adibidez, ez luke inolako begirunerik mereziko jatorrizko (jaiotzatikako) akatsak zuhurtasunez argituko ez balitu. Beren pentsakizunen nondik-norakoa kontrolpean ez duten eta horren ondorioz berentzat inolako garrantzirik ez duten arazoez pentsatzera beharturik aurkitzen diren pertsona batzuek hitz egin dizut nik. Eskola-psikologiak horrelatsuko akats batentzat inoiz inolako argibiderik ekarri duela uste ote duzu? Azkenik, gu guztioi gertatu ohi zaigu gure pentsakizunak, gauez, inolako kontrolik gabe darabiltzagula eta gu geuk ulertu ezin ditugun gauzak moldatzen dituztela, arrotz gertatzen zaizkigunak eta gertakari patologikoen antza susmagarri bat dutenak. Gure ametsen ari naiz. Betidanik sinestu izan du herriak ametsen zentzu bat, balio bat dutela, zerbait adierazten dutela. Psikologia ofizialak ezin argitu izan du ametsen zentzu hori inoiz. Ez zekien ametsekin nondik hasi; eta argibide bat eman nahi izan duenean psikologiaren eremutik at jardun izan du beti, zentzumenen eraginetara joz horretarako, edo burmuinetako esparru ezberdinen lo-sakontasun ezberdina suposatuz, e. a. Esan ere, esan daiteke ametsen zentzua argitzeko gai ez den psikologia ez dela gai izan arima-bizitza arrunta argitzeko ere: beretzat jakintza izena eskatzeko ez luke, beraz, inolako eskubiderik.

«Erasokor jarri zara, eta gai sentibera bat ukitu duzula adieraziko luke horrek. Entzuna dudanez, analisiak garrantzi handia eskaini ohi die ametsen; hauen zentzua aurkitzen saiatzen da, eta gertakari errealek oroitzen dituenak bilatu ohi ditu beroretan, e.a. Entzuna dut, ere berean, analitikarien irizpideen esku geratzen dela ametsen zentzu bat aurkitzea eta ametsak interpretatzeko erari eta beroretatik ondorioak ateratzeko zuzentasunari buruzko beren arteko eztabaidetan ez dutela oraindik inolako adostasunik lortu. Hori horrela bada, ezin azpimarratuko duzu, egin duzun eran, analisiak psikologia ofizialekin alderatuz lortu omen duen lehentasun hori».

Zuzena da esan duzuna. Egia da, ametsen interpretazioak analisiaren teoriarentzat eta praxiarentzat sekulako garrantzia lortu duela. Eta erasokor agertu banaiz, hori niretzat defentsabide bat delako izan da. Zenbait analitikariek ametsen interpretazioarekin egin dituen hainbat eta hainbat bidegabekeriaren pentsatuko banu aurrera jarraitzeko indarrak galduko nituzke eta gure satirikari Nestroyren baieztapen ezkor hari arrazoi eman beharko nioke: «edozein aurrerapen hasieran dirudienaren erdia baino ez da izan ohi beti». Ez ote duzu, bada, zuk zeuk sumatu, gizakion eskura jarri ohi den guztia nahastu eta okerbideratu egin ohi dela? Arreta eta ardura apur batez gaindi daitezke ametsen interpretazioak dituen arrisku gehienak. Ez ote zaizu iruditzen, ordea, ez dudala nire gaian sakontzeko aukerarik izan geure elkarrizketan hainbeste desbideratzen bagara?

«Horrelaxe da; zuzen ulertu badizut, psikologia berriaren oinarriko premisa adierazi nahi zenuen».

Ez nuen horrekin hasi nahi. Ikerketa analitikoetan jardun dugun bitartean arima-aparatuaren egituraz inolako iritzia osatu dugun zuri adieraztea da nire lehen asmoa.

«Zeri deritzozu arima-aparatua eta zerez dago moldaturik, horrela galde badezaket behintzat?»

Laster argituko zaizu zer den arima-aparatua. Mesede bat eskatuko dizut: ez diezadazula galdetu zerez moldaturik dagoen. Ez du inolako garrantzi psikologikorik; teleskopioaren paretak metalezkoak ala kartoizkoak diren jakiteak optikariarentzat duen jakingarritasun eskasaren neurri berekoa du galdera horrek psikologiarentzat. Zerezkotasunaren arazo hori alde batera utziko dugu; ez, ordea, tokitasunari dagokiona.

Lanabes baten moduan ulertzen dugu guk benetan aparatu ezezagun hori; guk instantzia izena ematen diegun osagai anitzez maldaturik dagoena, osagai horietako bakoitzak betekizun berezia duelarik eta tokitasunezko lotura iraunkorrez elkarri erlazionaturik daudelarik, hau da, tokitasunezko «aurrean» eta «atzean», «azaleko» eta sakoneko» bezalako erlazioek elkarri erregeltasunez jarraitzen dioten betekizunen aurkezpen-zentzua dute guretzat. Ulergarri gertatu al natzaizu?

«Apenas, baina agian geroago ulertuko dut; dena dela, jadanik natur ikertzaileek erabili ohi ez duten arima-anatomia berezi bat da hori».

Zer nahi duzu, bada; jakintzaren arloko beste hainbat bezalakoxe laguntza-ikuspegi bat da. Batere landu gabeak izan ziren lehenengoak. Open to revision, esan daiteke horrelatsuko kasuetan. Ez dut beharrezkotzat jotzen herrikoi bilakatu den «izango balitz bezala» hortaz baliatzea hemen. Vaihinger filosofilariak «fikzio» izendatuko lukeen horrelako laguntza baten balioa berorretaz lor daitekeenari baldintzaturik dago.

Jarrai dezagun, beraz: jakintza arruntaren (egunerokoaren) eremuan jartzen gara eta arima-egitura bat sumatzen dugu gizakiengan: bere zentzumen-estimuluen eta bere soin-beharren oharmenten tartean alde batetik eta bere mugimen-ekintzenen bestetik kokaturik dagoena eta helburu jakin batez bien arteko bitartekaritza egiten duena. Bere nia deitzen diogu guk egitura horri. Ez da gauza berria hori; gutako bakoitzak egiten dugu suposamen hori, nahiz eta ez filosofialari izan, baina baita filosofialari diren batzuek ere jokatzen dute horrela. Ez dut uste, ordea, arima-aparatuaren deskribapena osatu dugunik horrela. Nia baino zabalagoa, handiagoa eta ilunagoa den beste eremu bat ere sumatzen dugu, guk zera izena ematen dioguna. Bien arteko erlazioez jardungo gara orain.

Arimaren bi instantzia edo lurralde horiek adierazteko izenordeak hots handiko grekeratik hartu beharrean hizkuntza arruntetik hartu izana leporatuko diguzu agian. Psikoanalisian gabiltzanoi bakarrik zaigu atsegin herri-pentsakerarekin harremanetan egotea, eta herriak erabili ohi dituen hitz arruntak aukeratzen ditugu, gaitzetsi ordez, jakintzaren arloan erabilgarri egiteko. Ez da inolako merezimendurik hori; horrelaxe jokatu beharra daukagu maiz, adimen argikoak izanagatik ere, eskolatu gabeak diren gure gaixoez gure irakaspenak uler ditzaten. Pertsona arruntaren hizkerako esamoldeekin lotura zuzena du zera inpersonal horrek. «Zerak (es) astindu ninduen», esan ohi da; «une horretan ni baino indartsuagoa zen zerbait (zera) zen». «C'était plus fort que moi».

Konparaketen bitartekotasunez bakarrik molda ditzakegu gure deskribapenak psikologiaren eremuan. Eta hori ez da harrigarria, beste zenbait arlotan ere horrelaxe gertatzen baita. Baina konparaketa horiek aldatzen joan beharra daukagu beti; bakar batek ere ez digu nahikoa irauten. Eta nik nia-ren eta zera-ren arteko erlazioak argitu nahi dizkizudanez, nia zera-ren fatxada izango balitz bezala uler dezazula eskatzen dizut: bere aurrealdea, zera-ren geruza kortikalaren kanpoaldea. Har dezagun azken konparaketa hori. Elkarjotzen duten kanpoko inguruneari zor dizkiote geruza kortikalek beren ezaugarriak, guk ondotoxoa dakigunez. Horretxegatik irudika genezake kanpoko ingurunearen (errealitatearen) eraginez arima-aparatuaren, zera-ren antzaldatutako aurpegia dela nia. Horrela konturatuko zara nolako seriotasunez erabili ohi ditugun tokizko ikuspegiak psikoanaliaren eremuan. Kanpoaldea da guretzat nia, eta zera, berriz, kanpotik begiratuta, alde sakona. Zera-ren (benetan arimazkoa den bakarra) eta errealitatearen artean kokatzen da nia.

«Ez dizut galdetuko nola jakin daitekeen hori guztia. Baina esaidazu zer lortu nahi duzun zera eta nia-ren arteko bereizketa horrekin eta zerk behartu zaituen hori egitera».

Jarraipen zuzenerako bidea irekitzen dit zure galderak. Garrantzizkoena eta baliozkoena zera jakitea da hemen, nia eta zera puntu askotan bereizten direla elkarrengandik; arimaren jardunbiderako nia-n baliozko diren arauak ez dira baliozko zera-n; beste helburu eta beste baliabide batzuk ditu nia-k. Zer esanik ugari legoke horretaz, baina aski izanen ote zaizu beste konparaketa eta beste adibide batekin? Pentsa ezazu gerra-denboran frontearen eta atzegoardiaren artean sortu zen ezberdintasunean. Garai haietan ez gintuen harritu frontean zenbait gauza atzegoardian ez bezala gertatu zela eta frontean galerazi egin behar izan zena atzegoardian zilegi zela jakiteak. Etsaiaren gertutasuna zen guztia nagusiki baldintzatzen zuena; arima-bizitzarentzat kanpoaldeko errealitatearen gertutasuna da. «Kanpoan», «kanpotar» eta «etsai» esanahi berdineko konzeptuak ziren. Eta hona orain adibidea: zera-n ez da gatazkarik ematen; kontraesanak eta aurkakotasunak elkarren ondoan irauten dute ikaragaitz, eta elkarri amor emanez konpondu ohi dira. Nolabait erabaki behar den gatazka sumatzen du nia-k horrelatsukoetan eta joeretako batek besteari amor ematen dionean konpondu ohi da. Sintesarako, batasunerako joera azpimarragarri batek ezaugarritzatzen duen erakuntza bat da nia. Zera-k ez du horrelako izakerarik; koherentziarik ez duen zerbait da, nolabait esateko: bere barneko joera bakoitzak bere helburuari jarraitzen dio besteeikiko inolako begirunerik gabe.

«Baina arima-erretaguardia hain garrantzitsua baldin bada, nolatan ulertarazi ahal izanen didazu analisiaren garaia iritsi den bitartean ezezaguna izana?».

Lehenago egin didazun galdera bat aztertzeraz narama horrek. Zera-ren eremurako bidea itxi zion psikologiak bere buruari bidezko dirudien baina onartezina den baldintza bati lotu zitzaionean. Hauxe da: arima-jarduera guztiak kontzienteak zaizkigula suposatu izana: arimaren ezaugarria kontziente izatea dela, eta gure burmuinetan kontziente ez diren gertakariak emango balira ezin onar daiztekeela arima-jarduera moduan eta ez dagokiola psikologiari horiek aztertzea.

«Bista-bistakoa da hori, nire ustez».

Gauza bera diote psikologialariek ere; baina erreztasunez froga daiteke hori okerra dela, hau da, bereizketa desegoki bat dela hori. Edozein autooharpen arinek frogatzen du, prestakuntzarik gabe inolaz ere bideratuko ez liratekeen burutapenak izan ditzakeela batek. Ezinbestean arima-izakerazkoak izan behar duten burutapen-prestakuntza horietaz ez duzu ezertxo ere jakiten: erabat moldatutako emaitza agertzen zaizu kontzientziara. Inoiz geroago bai izaten duzu prestakuntza-gogoeta horien berri kontziente, berreraikuntza moduan edo.

«Oharrena, seguru aski, desbideraturik ibilia izanen delako ez dugu prestakuntza horien berri izaten».

Ihesbideak! Ezin argitu ahal izanen duzu horrela gertakari erreala: maiz oso konplexuak diren arima-izaerazko jarduerak gauzatu ohi direla zeugan eta zure kontzientziak ez duela horien berri izaten, ez duela horietaz ezertxo ere jakiten. Ala zera onartzeko prest zaude, zure oharren gehixeago edo gutxixeago nahikoa dela arimazkoa ez den jarduera bat arimazko bilakarazteko? Gainera, zertarako eztabaidatu? Ikasteko prest dagoen edonorentzat burutapen ezkontziente horien izatea inolako zalantzarik gabe frogatzen duten hipnosi-esperimentuak badaude eta.

«Ez dut gezurrik esan nahi, baina uste dudanez, oraintxe hasi natzaizu ulertzen. Zuk nia esaten diozun hori kontzientzia da, eta horren zera inkontzientea esan ohi dena eta orain hainbeste aipatzen dena. Baina zertara dator izen berriez maskaratze hori?».

Ez dago hor inolako maskaraterik; beste izen horiek ez dira erabilgarriak. Eta ez zaitez saia jakintzaren ordeaz literaturaz baliatzen. Norbaitek kontzientziareaz hitz egiten duenean, nik ez dakit zer adierazi nahi izaten duen: topikoki ariman kontzientziaren azpian dagoen zerbait agian, edo kualitatiboki ezberdina den beste kontzientzia bat, lurrazpikoa edo, nolabait adierazteko. Kontzientzearen eta inkontzientzearen arteko bereizketa bakarrik da onargarria. Baina ondorio latzak lituzkeen okerra litzateke bereizketa hori nia-ren eta zera-ren artekoarekin berdintzea. Polita litzateke hori hain erraza balitz, jolas arina litzateke gure teoriarentzat, baina izan ez da hain erreza. Zera bakarrik da zuzena, zera-n gertatu ohi den guztia ezkontzientea dela eta horrela jarraitu ohi duela eta nia-n gertatu ohi dena bakarrik bilakarazi daitekeela kontziente. Eta hori ez beti gertatu ohi da horrela, ez da ezinbestekoa horrela izatea ere eta nia-ren eremu handiek luzaz iraun dezakete inkontziente izaten jarraitzen.

Gauza konplexua da arimako gertakari bat kontziente bilakatzearena. Ezin utz dezaket zuri adierazi gabe —orain ere dogmatikoki— guk horretaz pentsatzen duguna. Gogoratuko duzunez, zera-ren estalki kanpokoena, azalekoena da nia. Eta guk sinesten dugunez, nia-ren azalenera estalkian zuzenean kanpoko mundura begira dagoen instantzia berezi bat, egitura bat, organo bat aurkitzen da, eta hori eraginaz bakarrik gauzatzen da guk kontzientzia izena ematen diogun gertakaria. Kanpotik eragin daiteke organo hori, hau da, zentzumenen bidez kanpoaldeko munduko eraginak jaso ditzake, baina baita barrutik ere: horrela zera-ren barruko sentipenen berri jasotzen du lehenik, eta nia-n bideratzen diren gertakariena ondoren.

«Geroz eta jasanezinezkoagoa ari zait bilakatzen hau guztia eta geroz eta ulertezinagoa. Ea sendagile ez direnek ere tratamendu analitikoaz balia daitezkeen aztertze elkarriketa batera konbidatu nauzu. Zertara datoz, beraz, teoria ausart eta ilun horietaz eztabaida hauek, berorietaz ezin konbentzi banauzu?».

Badakit ezingo zaitudala konbentzitu. Ezinezkoa zait hori eta ez naiz horretan saiaturik. Gure ikasleei psikoanalisiaz azalpen teorikoak aurkeztzen ari gatzaiakienean ondotoxo suma genezake zuri bezain inpresio gutxi egiten diegula. Aurrez aurkeztu izan zitzaizkien abstrahikuntzei eskaini ohi zieten harrera hotza egin ohi diete irakaspen psikoanalitikoari ere. Agian batzuk beren buruak konbentzitu nahiean ibiliko dira, baina guk ez dugu horren berri txikiarik ere izaten. Baina aurrebaldintza moduan zera eskatu ohi diogu besteekin psikoanalisia praktikan jarri nahi duenari, berak bere burua psikoanaliza dezala lehenik. «Autoanalisi» horren bitartean (era desegokiz horrelaxe izendatu ohi da) analisiak baieztatu ohi dituen gertakariak norberak bere buruan —zehazkiago esanda, bere ariman— benetan eta errealki sumatu ondoren bakarrik bereganatu ohi ditu geroagoko bere analitikari-lana gidatuko dioten konbentzimentuak. Nola itxarongo dut, bada, nik zu, epaile inpartzial hori, gure teoriaren zuzentasunaz konbentzitzea, aurkezpen laburtu, zatikakoa eta iluna eta esperientzia zuzenaren indarrak ez duena baino egin ezin badizut?

Beste asmo batez dihardut hemen. Gure artean ezin eztabaidatuko dugu analisisa zentzuzkoa ala okerra den, bere aurkezpenetan arrazoi duen ala erabateko okerbideetik dabilen. Gure teoriak aurkeztzen dizkizut horrela adieraz baitiezaizkizuket erarik egokienean analisiaren gogoetagaiak zeintzuk diren, gaixo bakoitzarekin inolako aurreuposamenez ekiten dion eta nola jokatu ohi duen. Halako argi zehatz batez

begiratu ahal izango genioke horrela analisia prestatu gabeko pertsonak bidera ahal dezaketen ala ez galderari. Zauke lasai, ze niri jarraitu ahal izan badidazu, gainditua duzu zailena, eta erraza gertatuko zaizu ondorengo guztia. Atsedena ditxo bat hartzen utz diezadazu orain.

III

«Gaixotasun neurotikoa baten sorrera psikoanalisiaren teoretatik nola argi daitekeen adieraziko didazu noski, uste dudanez».

Horretantxe saiatu nahi nuke. Gure helbururako, ordea, nia eta zera beste ikuspegi batetik aztertu beharko ditugu, ikuspegi dinamiko hain zuzen ere, hau da, berorietan eta berorien artean jokoan dauden indarren ikuspegitik. Arima-aparatuen deskribapenera mugatu gara orain artean.

«Lehenagokoa bezain ulertezina ez bada!».

Ez dut uste. Berehala aurkituko diozu norabidea. Zera suposatzen dugu, beraz: arima-aparatua eragiten duten indarrak soinen atal ezberdinetan sortu ohi direla soin-behar handien adierazgarri moduan. Gogoratuko dituzu, noski, gure filosofialarierakariaren hitz haiek: gosea eta maitasuna. Indar-pare errespetagarria benetan! Arima-jarduerarako eragin diren neurrian bulkada izena eman ohi diegu guk indar horiei, hainbat eta hainbat hizkuntza modernok inbidiatzen diguten hitza. Bulkada horiek betetzen dute zera. Zera-n dagoen energia guztiek bulkada horietan dute jatorria, laburbilduz esan daitekeenez. Nia-n aurkitzen diren indarrek ere ez dute hori beste jatorririk; zera-n daudenetatik sortuak dira. Zein da, ordea, bulkaden helburua? Asepena, hau da, soin-beharrek desagertaraziko lituzkeen egoera. Behar-egoeraren tentsioaren desagertzea plazer-egoera moduan sumatzen du kontzientziak, eta tentsioaren ugaritzea, berriz, desplazatze moduan berehala. Plazer/displazer-sentipen multzoa sortzen da aldakuntza horietatik, eta horien bidez erregulatzen du arima-aparatuak bere jardura guztia. Plazer-arauaren nagusigoaz hitz egiten dugu guk.

Zera-ren bulkada-eskakizunek asepenik aurkitzen ez dutenean jasanezinezko egoerak sortzen dira. Eta esperientziak berehala erakusten duenez, asepen-egoera horiek kanpoko ingurunearen laguntzaz bakarrik lor daitezke. Kanpora begira dagoen zera-ren eremua jartzen da martxan horrela, nia alegia. Ibilgailua martxan jartzen duen indar eragile guztia zera-k jarria bada, nia da gidaritza hartzen duena, eta honen faltan ezin helbururik lortuko litzateke. Erabateko eta berehalako asepena eskatzen dute zera-n kokaturik dauden bulkadek, baina ez dute ezertxo ere lortzen horrela jokatu, edo kaltea besterik ez. Nia-ri dagokio orduan porrot horretatik babestea, zera-ren eskakizunen eta kanpoko ingurunearen eskakizunen artean bitartekari egitea. Bi norabidetan garatzen du niak bere jardura. Bere zentzumenen eta bere kontzientzia-sistemaren bitartez kanpoaldeko mundua behatzen du lehenik, kalterik gabeko asepenarentzat unerik egokiena aukeratu asmoz; bestalde zera-rengan eragina izan nahi du honen pasioak baretuz, bulkadek beren asepena atzeratzea eraginez edo, beharrezkotzat joko balu, beren helburuak alda ditzaten edo bestelako sari baten truke baita amore eman dezaten saiatur ere. Zera-rengandiko eraginak horrela saihestuz, lehenago bide-emaile bakarra zen plazer-araua errealitate-arauaz ordezkutzen du: helburu bera badu ere, kanpoko errealitatetik ezarritako baldintzak kontutan hartzen ditu honek. Geroago beste hau ere

ikasiko du nia-k, kanpoko errealitate horretara deskribatutako egokitzeaz aparte asepenarako beste bide bat badagolea hain, zuzen ere. Kanpoko errealitate horretan aldakuntzak eragin eta asepena ahalbidetuko luketen baldintzak sor ditzake bertan. Nia-ren goreneko ekintza litzateke jardunbide hori; noiz komeni den pasioak menperatzea eta errealitateari men egitea edo, alderantziz, pasio horien aldeko jarrera hartzea eta berorien alde errealitatearen aurka borrokatzea erabakitzea izanen da bizitzako jakinduriaren guna eta erabatekotasuna.

«Eta onartzen al du zera-k nia-ren aldetikako nagusigo hori, ze zuzen ulertu badizut, zera baita bien artean indartsuena?».

Bai, dena ondo doa nia-k bere erabateko antolakuntza eta bere erabateko gaitasuna dituenean, zera-ren eremu guztietarako sarrera duenean eta zera-rekiko duen eragina erabatekotasunez erabil dezakeenean. Izan ere, ez baitago jatorrizko aurkakotasunik nia-ren eta zera-ren artean, elkarrentzat dira biak eta egoera osasuntsuetan ezin bereiz daitezke elkarrengandik.

«Hori guztia zuzen uler daiteke, baina ezin ikus dezaket non aurki daitekeen gaixotasun-egoera baterako aukerarik era horretako harreman idealetan».

Arrazoi duzu; nia-k eta honek zera-rekiko dituen harremanek eskakizun ideal horiek bete ditzaten bitartean ez dago gaixotasun neurotikorik. Itxaron ez zitekeen une batean kokatzen da gaixotasunaren jatorria, nahiz eta psikologia orokorrean jantzirik dagoen bat ez den harrituko zera baieztatzen bada, hain zuzen ere garapen eta ezberdinketa garrantzitsuenek berez dakartela gaixotasunerako eta porroterako hazia.

«Teknikoegia zara inondik ere, nik ez baitzut ezertxo ere ulertzen».

Zeharbide bati ekin beharrean aurkitzen naiz unetxo batez. Indar deuseztatzailez beterik dagoen kanpoko mundu ikaragarri horrekin alderatuz gauza txiki eta ezereza da biziduna, ez al da hala? Nia-ri dagokion antolakuntza nahikoa garatu ez duen izaki primitiboa «trauma» horiei guztiei aurka egin beharrean aurkituko da. Modu «itsuan» biziko ditu bere bulkaden joerak, eta hortxe aurkituko du bere azkena askotan. Nia-ren eremuan gauzatutako bereizketa bizi-jarraipenerako urrats bat da. Deuseztatzetik (heriotzatik) ezin ikas daiteke ezer, baina trauma bat modu egokiz gainditu denean, antzeko egoerak gerturatzen ari direnean adi jartzen da bat, eta trauma-egoeran izandako bizitapenak era laburtu batez errepikatuz arriskua adierazten du angustia-sentipen batez. Arriskuaren bizipenarekiko erreakzio horrek ihesbideari ekinaraziko dio, eta ihes horrek bizitza babestuko dio modu eraginkorrean kanpoko munduko arriskuetatik, baita modu erasokorrean ere, ekiteko bezain indartsu senti dadin bitartean.

«Agindu zenuenetik oso urrutira doa hau guztia».

Agindutakora zenbat gerturatu naizen ez diozu oraindik antzematen. Geroago nia-ren antolakuntza jardunkor bat izanen duten izaki bizidunek ere oso ahula dute nia beren lehen haurtzaroan, eta zera-tik apenas desberdintzen dena. Pentsa ezazu zer gertatuko litzatekeen zera-k ni ahul horri bulkada-eskakizun bat ezarri nahiko balio eta nia-k aurka eginen, eskakizunaren asepenak arriskua lekarkeela ikusten duelako: egoera traumatiko bat sortuko litzateke, kanpoko munduarekiko gainditu ezinezko topeteko bat, ez bailuke horretarako behar hainbateko indarrik oraindik. Bulkada-arrisku hori kanpotikako arrisku bat bailitzan tratatuko du nia-k, ihesari ekiten dio, zera-ren eremu horretatik erretiratzen da eta bere zortera uzten du hura bestela, ohituraz, bulkada-eskakizunei eskaini ohi dizkien laguntza guztiak ukatu ondoren. Guk esango dugunez, nia-k bulkada-eskakizun horiek erreprimitu egiten ditu. Arriskua saihestea lortzen da horrela

momentuz, baina barne- eta kanpoaldearen arteko nahasketa hori ez da zigorrik gabe geratuko. Norberak ezin dio ihes egin bere buruari. Bestelakotan zuzenbideratzen saiatzen den plazer-arau berari jarraitzen dio nia-k errepresioa gauzatzerakoan; horren ondorioak nozitu beharra etorriko zaio. Horrek zera esan nahi du, nia-ren agintetzare-mua nabarmenki mugaturik gelditu dela horrela. Isolaturik geratu da bulkada-eskakizuna, bere bidera utzirik, eskurazineko, baina baita eragingaitz ere. Bere bideari jarraitzen dio orain. Geroago, nahikoa indar izan dezanean ere, ezin zuzenduko du nia-k errepresio hori; bien arteko elkardura okerturik dago, eta zera-ren eremu bat galarazitako lurra da nia-rentzat. Isolaturiko bulkada-eskakizunak, ordea, ez dio alferkeriari ematen, eta ukatu zitzaion bidezko asepenaren orde z ondorio psikikoak sortzen ditu, bere ordezkotza hartzen dutenak; nia-ri oraindik eragingarritasun gehiago kenduko dioten beste gertakari batzuekin harremanetan jartzen da eta azkenik nia-n eta kontzientzian agertzen da ezagutezinezko orde zko sorkari berri batean, sintoma berri bat moldatuz, nolabait esateko. Gaixotasun neurotiko bateko gertakariarekin egiten dugu topo, horrela, bat-batean: bere elkarduran ezindurik aurkitzen den nia, zera-ren zenbait eremutan inolako eraginik gabea, eta erreprimituarekin topeteko berri bat saihestu asmoz bere zenbait jarduerari uko egin beharrean aurkitzen dena, erreprimituriko eskakizunen ernamuin berri diren sintomen aurkako burruka hutsaletan ezerezten ari dena; eta bere barnean bulkada bakoitza bere kabuz dabil, pertsonaren osotasunari inolako begirunerik gabe bulkada bakoitzak bere interes apartekoei eta zera-ren sakonenean gorderik dagoen psikologia primitiboaren legee jarraitzen dielarik. Egoera bere osotasunean begiratuz gero, neurosien sorrera argitzeko formula erraz bat agertuko zaigu: zera-ren zenbait eremu modu desegokian erreprimitzeko saioa egin du nia-k, saioak porrot egin dio eta zera-k bere mendekua hartu du. Nia-ren eta zera-ren arteko gatazka baten ondorioa da neurosia; ikerketa arduratsuek adierazi dutenez, kanpoko mundu errealekiko menpekotasunean iraun nahi duelako sartzen da nia gatazka horretan. Kanpoko munduaren eta zera-ren artekoa da aurkakotasuna, eta nia-k, bere barne sakoneko izaerari leial jarraituz, kanpoko munduaren alde jokutzen duelako, zera-rekiko gatazkan sartzen da. Kontutan hartu, ordea, ez dela gatazka gaixotasunerako baldintzak sortzen dituena, —ze zera-ren eta errealtatearen arteko era horretako gatazkak ezinbestekoak baitira, eta bi horien artean bitartekari-lana egitea baita nia-ren etengabeko betekizuna—, baizik eta gatazka hori gainditzeko nia-k errepresioaren bide desegokia aukeratu izanak bideratzen duela neurosia. Baina badu nia-k horretarako nahiko arrazoi, eginkizun hori ezarri zitzaion garaietan heldugabea eta agintetzarik gabea baitzen oraindik. Haurtzaroan gertatu ohi dira errepresio garrantzitsuenak.

«Nahikoa berezia da bide hori! Kritikarik ez giteko zure aholkuari jarraituko diot, ze zuk zera baino ez baitidazu erakutsi nahi, neurosiaren sorreraz psikoanalisiak zer pentsatzen duen, eta horri lotuz, neurosiaren tratamendurako zein bide aukeratzen duen. Ba dut zer galdeturik, eta geroago joko dut horretara. Zure ideietan oinarrituz aurrerago jarraitzeko eta nik neuk teoria batera ausartzeko tentaldia sumatzen dut. Kanpoko mundua—nia—zera erlazioa garatu duzu eta hor ikusi nahi duzu neurosiaren sorrera, nia-k kanpoko munduekiko bere menpekotasunean zera burrukatzen duela, alegia. Ez ote litzateke aurkakoa ere gertagarri, hau da, era horretako gatazka batean nia-k zera-ri jarraitzen diola eta lehenago zion begirunea ukatzen diola orain kanpoko munduari? Zer gertatuko litzateke horrelako kasu batean? Nire ezjakintasunean arima-gaixotasunaren izaeraz moldatzen ditudan errepresentazioen arabera, nia-ren erabaki hori izan daiteke horrelako gaixotasun baten jatorrirako baldintza. Errealitatetik aldentze horrek dirudi arima-gaixotasunaren gune nagusia».

Bai, horretaz ere pentsatu izan dut nik neuk, eta argibide hori zuzena izan daitekeela ere pentsatzen dut, baina suposapen horren baieztapenak oso erlazio konplexuen eztabaida eskatuko luke. Elkarren senide izan behar dute, inolaz ere, neurosiek eta psikosiek, baina puntu erabakikor batean elkarrengandik bereizi beharra dute. Era horretako gatazka batean nia-k duen partaidetzan aurki daiteke, agian, puntu hori. Dena dela, bere egosgogortasun itsuari eutsiko lioke zera-k bi kasuetan.

«Jarrai ezazu aurrera. Nolako orientabideak eskaintzen ditu zure teoriak gaixotasun neurotikoen tratamendurako?».

Erraztasunez deskriba daiteke orain gure helburu terapeutikoa. Nia berrerratu nahi dugu guk, bere mugapenetatik askatu, bere lehenagoko errepresioengatik galdu zuen zera-rekiko nagusigoa berreskuratu dezala. Helburu horrekin bideratzen dugu analisia, helburu horretara gidaturik dago gure teknika guztia. Gertaturiko errepresio guztiak aurkitu beharra daukagu, eta nia, gure laguntzaz, gatazkak ihesa baino egokiagoa den beste bide batez konpontzera eragin nahi dugu. Errepresio horiek guztiek haurtzaroko lehen urtetakoak direnez, bizitzaro horretara bideratzen gaitu analisi-lanak. Gaixoaren oroitzapenetan birbizi arazi nahi ditugun ahazturiko gatazka-egoeretak bidea sintomek, ametsek eta gaixoaren bat-bateko burutapenek erakusten digute, nahiz eta guk lehenik itzuli eta esanahia aurkitu behar diegun, zera-ren psikologiaren eraginez gure ulerkuntzarako arrotzak diren adierazpideak hartzen baitituzte. Barne-erresistentziarik gabe gaixoak adieraz ezin dizkigun burutapenetatik, ideietatik eta oroitzapenetatik honako suposapen hau egin dezakegu, erreprimutakoarekin izanen dutela nolabaiteko lotura edo haren ernemuinak izanen direla. Gaixoak adierazpen horiek egiterakoan sumatzen dituen erresistentziak gaindi ditzala eragiten dugunean, iheserako joera gainditzera eta erreprimutakoaren gerturatzea onartzera hezten dugu bere nia. Amaieran errepresio-egoera bere oroimenean berregituratzea lortzen badu, gurekiko esanekotasuna ondoto saritua sumatuko du. Garaian arteko ezberdintasun osoa bere alde dago, eta nia heldu eta indartsuari haur-jolasa dela irudituko zaio, oso maiz, haurtzaroan beldurturik ihes egin zion gertakari hura.

IV

«Psikologia hutsa izan da zuk orain artean adierazi didazun guztia. Arrotza, gogorra, iluna zirudien guztiak, baina nolabait esan ahal baneza, baita garbia ere. Orain artean, egia da, oso gutxi nekien zure psikoanalisiak, baina halako susmo bat bai iritxia zitzaidan, izen hori merezi ez duten gertakariak kezkatu izan dela nagusiki. Orain artean zuk horrelakorik aitatu ez izana apropos gorde izan duzun zerbait dela iruditzen zait. Badut isilik gorde ezin dezakedan beste zalantza bat ere. Neurosiak, zeuk ondoto diozunez, arima-bizitzako nahasketak dira. Hain sakonak diren nahasketetan ez ote dute zerikusirik guretzat hainbesteko garrantzia duten etikak, gure kontzientziak, gure idealek?».

Gure orain arteko elkarriketetan gorenekoa bezala beherenekoa ez aitatu izanak harritzen zaitu, inondik ere. Hauxe baino ez da horretarako arrazoia, arima-bizitzako edukiez ez dugula ezertxo ere aitatu oraindik. Utz iezadazu orain niri elkarriketaren norabidea etetzen duenaren zeregina hartzen. Hainbeste psikologia aurkeztu badizut, honako asmo honetaz egin dizut hori, azterketa analitikoa psikologia aplikatuaren eremu bat baino ez delakoaren ikuspegia eragin nahi bainuen zugar, hau da, analisiaren

eremutik at ezagutzen ez den psikologia-mota bat, alegia. Psikologia, psikologia sakona edo inkontzientearen psikologia ikasia izan behar du lehenik analitikariak, gaur horretaz ezaguna den guztia bai gutxienez. Geroagoko gure ondorioetarako izanen dugu horren beharra. Baina esaidazu orain «garbitasuna» aitatu duzunean adierazi nahi izan didazuna.

«Begira, orokorki esan ohi denez, erabateko zehaztasunez hitz egin ohi da sexu-bizitzako gai isilikoenaz, eta baita lotsagarrienaz ere, analisi bitartean. Hori horrela balitz, —orain arteko zure agerpen psikologikoetatik ez dut nik horrek horrela izan behar duelakoaz inolako ondoriorik atera—, era horretako tratamenduak sendagileen esku uzteko nahikoa arrazoi sendoa balitzateke hori. Izan ere, nola pentsa daiteke bestela beren diskretutasunaz eta beren izaeraz inolako ziurtasunik ez duzun pertsonei hain arriskutsuak diren eskubideak eskuratzea?».

Egia da, bai; halako eskubide berezi batzuk dituzte sendagileek sexualitatearen eremuan; ernalkinak arakatu ditzakete eta, ekialdean ezin bazezaketen ere. Eskubide horren aurka burukatu zuten erreformatzaile batzuk ere izan dira, —zuk badakizu nortaz ari natzaizun—. Baina zuk, lehenik, hori analisisan ere horrela ote den jakin nahi duzu, eta horrela bada, zergatik den horrela? Bai, horrelaxe da.

Horrelaxe izan behar du, gainera, ze lehenik eta behin erabateko egizaletasunean oinarritzen baita analisisa. Edozein gaiz hitz egiten da hor, adibidez, negozio-kontuak erabateko zehaztasunez eta irekitasunez hitz egiten dira, eta beste edozein kideri, nahiz eta ez aurkari eta ezta haziendako ikuskari ere ez izan, adierazi ohi ez zaizkion kontuak esan ohi dira. Egizaletasunerako zuhurtasun hori analitikariari ere moral-erantzukizun larritz badagokiola ez dut nik eztabaidatuko; oso bestela, indar guztiz azpimarratzen dut nik hori. Beste bigarren arrazoi bategatik ere horrek horrela izan behar du, ze gaixotasun neurotikotarako arrazoiaren eta jatorrien artean sexu-bizitzako une batzuek berebiziko eta aparteko garrantzia jokatzen baitute, agian baita garrantzi espezifiko bat ere. Zer egin lezake analisiak, gaixoak dakarren materialera, aztergaira egokitu baino? Analitikariak ez du gaixoa behin ere sexu-eremura bideratuko, ez dio aurrez zera esango: zure sexu-bizitzako ezkututegiez jardungo gara! Bere adierazpenekin has dadin utziko dio, berak nahi duen hartaxetik, eta gaixoa bera bere sexu-gaiak aitatzen has dadin zain egonen da lasai-lasai. Nire ikasleei honako ohar hau egiten saiatzen nintzairen beti: gure aurkariak auresan digutenez, sexu-uneek inolako betekizunik ez duten kasuak ere aurkituko ditugu; babes gaitezen analisisan horrelakorik sartzetik, ez dezagun alferrik galdu horrelako bat aurkitzeko aukerarik. Baina gutako inortxok ez du horrelako batekin topo egiteko zortetik izan.

Ondotxo dakit, sexualitateaz egin dugun onarpena izan dela —agerian ala ezkutuan— besteek analisiaren aurka erakusten duten aurkakotasun-jarrerarako arrazoirik indartsuena. Desbideratuko ote gaitu, bada, horrek? Gure kultur bizitza zein neurotizaturik dagoen erakusten digu horrek, ze, antz guztien arabera, neurotikoek bezelatsu jokatzen baitute normalek ere. Alemaniako ikasien taldeetan psikoanalisiak epaiketa modu handitsuan burutu nahi izan zen garaietan —gaur askozaz bareago daude gauzak—, autoritate berezi bat onar ziezaiotela eskatzen zuen hizlarietako batek, berak zioenez bere gaixoei ere hitz egiten uzten baitzien berak. Diagnosi-asmoz eta analitikarien baieztapenak aztertzeke helburuz, agerian dagoenez. Eta zera zioen ondoren, ahoa itxiarazten diet sexu-kontuak aipatzen hasten direnean. Zer diozu zuk era horretako frogabideaz? Txaloz hartu zuen hizlaria ikasien taldeak, egoerari zegokionez lotsaturik sentitu ordez. Kontzientziak aurriritzi komunei eman ohi dien irabazle-ziurtasunak bakarrik argi dezake hizlari horren axolagabetasun logiko hori. Urte batzuk

geroago gizateria psikoanalisiak ezarri omen zion sexualitatearen zamapetik askatzeko beharrari makurtu zitzaizkion nire ordungo ikasleetariko batzuk. Batek zioenez, sexuzkoa izateak ez omen du sexualitatea adierazten, beste zerbait abstraktu, mistiko baizik; bigarren batek, berriz, zera zioen, gizakia agintetzara eta nagusigora daraman irrika gauzatzen omen den eremu bat baino ez dela sexu-bizitza. Ondorengo denboraldietarako behintzat onarpen handia aurkitu zuten.

«Norbaiten alde jartzera ausartzen naiz orain. Ausartegia iruditzen zait zera esatea, sexualitatea ez dela izaki biziaren berezko eta jatorrizko behar bat, baizik eta beste zerbaiten adierazpena. Nahikoa da abereen adibideak kontutan hartzea».

Horrek ez du ezertarako balio. Sexualitatearen nagusigo beldurgarriaren aurkako baliabide moduan baliagarri bazaio, edozein pozo nahasketa absurdu hartzeko ere prest dago gizartea.

Beste zerbait ere aitortu behar dizut: neurosien sorreran sexu-uneei hainbesteko betekizuna ematearen aurka zuk zeuk adierazi duzun higuina ez dator inolaz ere bat zeure epaile inpartzialaren eginkizunarekin. Ez ote zara era horretako antipatiaren eraginez epai zuzen bat ematerakoan okerbidetik jo dezakezulakoaren beldur?

«Min dagit zuk hori esateak. Zure niganako konfiantza zalantzan jarri dela dirudi. Zergatik ez duzu beste bat aukeratu nire ordeiz epaile inpartzial izateko?».

Beste horrek ere ez bailuke beste era batean pentsatuko. Baina hasiera beretik sexu-bizitzaren garrantzia onartzeko prest agertuko balitz, zera aldarrikatuko luke mundu guztiak: hori ez da inpartziala, zuen jarraitzaileetako bat da hori. Ez, zure iritzietan nolabaiteko eragina izateko itxaropenari ez diot inolaz ere amor ematen. Onartzen dut, ordea, lehenago aitaturakoa ez bezalakoa dela oraingo kasu hau. Adierazpen psikologikoei dagokienez berdin izan beharko litzaidake zuk nik esandakoa sinestu edo ez, baldin eta zera pentsatuko bazenu, arazo psikologikoak direla soil-soilik. Orain, sexualitateari dagokion honetan, zera nahi nuke, honako hau ulertzeko gai izan zaitezela, aurkakotasunerako zure arrazoirik nagusia beste hainbat eta hainbatekin konpartitzen duzun jatorrizko etsaigoa dela.

«Zuri era horretako ziurtasun gotorra eman dizun esperientzia falta zait niri».

Ongi da. Nire aurkezpenari jarrai diezaioket orain. Sexu-bizitza ez da berdekeria huts bat; oso bestela, arazo zientifiko larri bat da. Berri asko zegoen hor oraindik jakiteko, gauza berezi ugari argitzeko. Jadanik esana dizudanez, gaixoaren haurtzaroko lehen urteetaraino sakondu behar izan zuen analisiak, izan ere garai haietan eta nia-ren ahultasunen aldian gauzatu baitziren errepresio erabakikorrenak. Ba ote da, ordea, sexu-bizitzarik haurtzaroan? Ez ote da nerabezaroan hasten hori? Oso bestela, honako aurkikuntza hauek egin beharrean aurkitu ginen, sexu-eragina jaiotza beretik agertzen dela bizitzan eta sexu-eragin horietatik babesteko gauzatu ohi dituela haurtzaroko nia-k bere zapalkuntzak. Gertakari harrigarria hau, —ez da hala?—, haur txikia sexualitatearen indarraren aurka jartzen delakoa, geroago hizlariak jakintsuen aurrean egin zuen modu berean eta beren teoria bereziak moldatzen dituzten nire ikasleak bezalaxe? Nola gertatzen den hori? Esan daitekeen gauzarik orokorrena zera da, gure kultura guztia sexualitatea oinarritzat hartuz eraiki dela nagusiki; baina askozaz gehiago ere esan daiteke horretaz.

Lotsarazten gaituzten aurkikuntzen artean kokatu beharrekoa da haurtzaroko sexualitatearena. Dirudienez horren jakinaren gainean zegoen hainbat eta hainbat haur-sendagile, baita zenbait haur-erizain ere. Beren buruak haur-psikologialaritzat zeuzkaten

gizon zorrotz batzuek «haurtzaroaren profanazioaz» hitz egin zuten mesprezuzko tonuz. Beti bezala sentipenak arrazoiketaren tokian. Ohikoak dira era horretako jokabideak gure erakunde politikoetan. Oposizioko norbait altxatzen da eta herri-arduralaritzan, ejerzitoan, justizian eta antzekoetan egiten ari omen diren diru-administrazio okerra salatzen du. Eta horri erantzunez, gobernuaren aldekoen batek gehienetan, baieztapen horiek sentipen militarra, dinastikoa eta baita nazionala ere erasotzen dutela esango du. Eta hori horrela izanik, salaketa horiek guztiak gezurra baino ez direla. Sentipen horiek ez dute inolako irainik onartzen.

Helduena ez bezalakoa da, noski, haurren sexualitatea. Hasierako egoera horretatik guk ezagutzen dugun amaierako egoerara bitartean oso garapen konplexu bat egin ohi du sexu-funtzioak. Helburu ezberdinak dituzten bulkada partzial batzuekin batera garatzen da, antolakuntza-aldi ezberdinak iragan ohi ditu, azkenean ugalkuntzaren zerbitzura jarri bitartean. Hasierako bulkada partzialek ez dute garrantzi berdina azken egoera horretarako; desbideratuak izan beharko dute batzuek, baita berregituratuak ere, eta azken batzuek zantzuak. Hain zabala den garapen hau ez da gauzatzen ezbeharrik gabe beti: hainbat oztopo aurki ditzake garapenak, lehenagoko garapenaldi batzuekiko finkapenak gerta daitezke, eta sexu-funtzioaren jarduerak geroago eragozpenak aurki ditzanean lehenagoko finkapen-une horietara joko du atseginez sexu-joerak, guk libido izenez ezagutzen dugun joerak, alegia. Beren jatorriaz ezertxo ere esaten ez bazen ere, era guztietako nazka-zeinuz deskribatu ohi ziren sexu-perbertsioen ulerkuntzarako giltzarria eskaini zigun haurtzaroko sexualitatearen eta honek heldutasuna lortu bitartean egin ohi duen garapenaren azterketak. Benetan interesgarria da eremu hori guztia, baina gure elkarrizketa honen helbururako ez du jakingarritasun berezirik horretaz gehiago sakontzen jarduteak. Hori bai, eremu honetan soseguz jardun nahi bada, ezagutza anatomikoak eta fisiologikoak ezinbestekoak dira, zoritxarrez medikuntza-eskoletan behar hainbatekoak ikasi ezin badira ere; ezinbestekoa da, era berean, kultur historiaz eta mitologiak jantzirik egotea ere.

«Hala eta guztiz ere, ezin osa dezaket, oraindik ere, haur-sexualitateaz inolako errepresentaziorik».

Horrela bada, gaia zertxobait gehiago aztertuko dut; bestela ere nahikoa kostatzen zait hori uztea. Begira, hauxe da haurraren sexu-bizitzan harrigarriena iruditzen zaidana, bere garapen zabalena, osoena, bizitzako lehen bost urteetan gauzatzen dela; hortik nerabezaroa bitartean ezkutapen-aldia edo luzatzen da, non sexualitatean, normalki, inolako aurrerapenik ez den sumatzen; alderantziz, sexu-joerak nabarmenki ahultzen dira epe horretan zehar eta haurrak zekienetik eta jardungoetatik asko eta asko ahaztu egiten du. Sexu-bizitzaren loratze goiztiarra zimurtu ondorengo epe aldi honetan gero nerabearoko ekaitzari mugak jartzea eta helduaren sexu-joerei bideak erakustea dagokien lotsa, nazka eta moralitatea bezalako nia-ren jarrerak moldatzen dira. Sexu-bizitzako bigarren ekitaldi honek zerikusi handia du gaixotasun neurotikoen sorrerarekin. Gizakietan bakarrik gertatu ohi da dirudienez, agian horixe baita nerbioetatik jota egoteko gizakiak duen eskubideari dagokion baldintza. Sexu-bizitzako lehen goizaldi hori ahazturik egon zen psikoanalisi etorri aurretik, beste eremu batean arima-bizitzako azpiegitura guztia ahazturik egon zen bezalaxe. Zuzen antzemango diozunez, bi eremu horiek elkarri loturik daude barren-barrenean.

Sexualitatearen goizaldi honetako edukiei, aldakuntzei eta amaitzei dagokienez uste ez izateko moduko zehaztapen ugari legoke adierazteko. Hona adibide bat: zalantzarik gabe harritu ere egingo zara zera entzundakoan, aita jan egingo duelakoaren beldurrez oso maiz ikaratzen dela haurtxoa. (Ez al zara harritzen nik ikara

hori sexu-bizitzako adierazpenetan ere kokatzen dudala entzundakoan?) Agian zure eskola-garaietatik ahaztu ez duzun kontakizun mitologiko hura gogoraraztea zilegi bekit, Kronos jainkoak bere haurrak irentsi ohi zituela dioen hura, alegia. Zeinen harrigarri gertatu ote zitzaizun mito hori lehenengo aldiz entzun zenuenean! Baina uste dudanez, gutako inork ez zuen horretaz pentsatu. Otsoa bezalako abere jale bat agertzen den ipuin ugaritan pentsa genezake gaur, eta abere horretan aitaren irudia ezkutatzen dela konturatuko gara. Zuri zertxo bat ziurtatzeko baliatuko naiz egokiera honetaz, haurtzaroko sexu-bizitza ulertu ondoren bakarrik ulertu ahal izan direla mitologiak eta ipuinen mundua. Ikerketa analitikoaren beste emaitza bat duzu hori.

Ez zara gutxiago harrituko zera entzuten duzunean, aitzak bere sexukia kenduko ote dion beldur dela haur-mutikoa, zikiratze-beldur honek izanen duelarik, gero, eraginik handiena bere izaeraren moldakuntzan eta bere sexu-joeren norabidean. Orain ere mitologiak animatuko zaitu psikoanalisian sinestera. Bere semeak irentsi zituen Kronos bera izan zen bere aita zikiratu zuena eta, aldi berean, bera ere bere seme Zeusek —amaren aztikeriari esker salbu geratu zenak— zikiratu zuen mendekuz. Psikoanalisiak haurren sexualitate goiztiarraz dioen guztia psikoanalitikarien mugarik gabeko irudikapenetatik datorrela sinesteko joera bazenuen, honako beste hau ere onartu beharko duzu, ipuinetan eta mitoetan bildurik geratutako gizaki primitiboaren irudikapen-jardueren emaitzen izaera berekoak direla fantasia hauek. Beste ikuspegi bat, onargarriagoa eta seguruenik baita zuzenagoa ere, honako hau litzateke, giza kulturaren hastapenetan nagusi ziren une arkaiko berberak suma daitezkeela gaur ere haurraren arima-bizitzan. Etniaren historia berdina errepikatuko luke haurrak, modu laburtuan, bere arima-bizitzaren garapenean, enbriologiak soinaren garapenerako aspalditxo onarturik duen bezalaxe.

Hona haurtzaroko sexualitate goiztiararen beste ezaugarri bat, sexu-organo emeak ez duela inolako betekizunik jokatzen, haurrak ez baitu aurkitu ere egin oraindik. Arraren sexu-organoak bereganatzen du atentzio guztia: hori badagoen ala ez dagoen jakitea da interesatzen den guztia. Mutikoarenaz baino askozaz gutxiago dakigu neskatoaren sexu-bizitzaz. Ezberdintasun horretaz ez daukagu zergatik lotsatu beharrik; emakume helduaren sexu-bizitza bera dark continent bat (eremu ilun bat) da psikologiarentzat. Baina guk aurkitu dugunez, mingarria gertatzen zaio neskatoari mutikoaren sexu-organoaren balio bereko beste bat ez izatea, eta balio gutxiagokotzat jotzen du bere burua horregatik, eta «zakil-bekaizkeria» honetan du jatorria emakumeen berezko erreakzio-andana batek.

Haurraren ezaugarrietakoa da, era berean, bere bi gorotz-beharrek sexu-interesez beterik daudela ere. Heziketaren eraginez ezberdintasun garbia sortzen da geroago, txisteen praktikaz berriro desagertuko bada ere. Agian ez zaigu oso gogozkoa izanen hori, baina, oso ezaguna denez, epe luzea iraganen da haurraren jarretan nazka sortu artean. Haurraren garbitasun serafikoaren aldekoek ere ez dute hori ukatu.

Baina beste ezerk baino gehiago honako honek erakarri du gure oharpena, sendikotasunean gertuen dituen pentsonengana bideratzen dituela normalki haurrak bere sexu-nahiak, hau da, aitarengana eta amarengana lehenik, eta bere anai-arrebetara ondoren. Mutikoarentzat ama da bere lehen maitasun-gaia, eta neskatoarentzat aita, joera bisexual batek aldi berean aurkako joera eragiten ez duen bitartean behintzat. Aurkari ostopatzaile bezala sumatu ohi da beste gurasoa, eta areriotasun indartsuz sentitu ere bai ez gutxitan. Zuzen uler nazazu, otoi, ez baitut zera adierazi nahi, guk helduok guraso-haur-harremanen oinarritzko loturatzat ikusi nahi izaten dugun maitekortasun-mota bakarrik nahi izaten duela haurrak berak maiteen duen

gurasoarengandik. Ez, analisiak ez du inolako zalantzarik uzten honetan, maitekortasun horretaz aparte guk zentzu-asepenaz ulertu ohi duguna ere desiratzen dutela haurraren nahikariek, haurraren errepresentazio-gaitasuna iristen den neurriraino behintzat. Erraz uler daiteke honek ez duela sexuen elkartzearen benetako errealitatea inoiz benetan ulertzen; bere esperientzietatik eta sentipenetatik ateratako irudikapenak jarri ohi ditu horren orde. Haur bat izateko —edo sortzeko— asmoetan jo ohi dute gailurra gehienetan bere nahikariek. Mutikoak ere, bere ezjakintasunean, haur bat izateko nahi horri jarraitu ohi dio. Greziarren esaerari jarraituz Edipo konplexua izena eman ohi diogu arimaren eraikuntza horri guztiari. Sexu-lorapenaren aldiarekin batera eman beharko litzaioke amaiera normalki gertakari horri, oinarritz ezabatuz eta eraldatuz, eta eraldaketa horren ondorioak geroagoko arima-bizitzan emaitza handiak izatera bideraturik daude. Baina hori, normalki, ez da nahikoa idarrez gertatzen eta ondorio larriak izan ditzakeen konplexuaren berrindartze berri bat eragiten du nerabezeroak.

Zure isiltasunak harritzen nau. Horrek ez du adostasunik adierazten inolaz ere. Analisiak zera baieztatzen badu, haurraren lehen hautagaia intzestuzkoa dela —izen tekniko batez baliatuz adierazteko—, gizateriaren sentipen sagaratuenak mintzen ditu berriro ere inolako zalantzarik gabe eta, ondorioz, dagozkion sinesgaiztasuna, kontraesana eta salaketak jasotzera prestatu beharra izanen du. Eta, jaso ere, ugari jaso behar izan ditu. Edipo konplexua patuari, orokorrean gizakiari, loturik dagoen moldakuntza bat dela uste izanak baino kalte handiagorik ez dio beste ezerk egin gaurkideen onuran. Dena dela, gauza berdina pentsatu behar izango zuen greziarren mitoak, baina gaurko gizakiek, ezikasiek bezalaxe ikasiek ere, nahiago dute beste hau sinestea, natura bera izan dela intzestuaren aurkako babes moduan nazka ezarri duena.

Historiak etorri beharko du orain gure laguntzan. Julio Kaio Zesar Egiptora iritsi zenean, geroago beretzat hainbesteko garrantzia izango zuen Kleopatra erregina bera baino gazteagoa zen Ptolomeo anaiarekin ezkonduarik aurkitu zuen. Gauza arrunta zen hori egiptoarren dinastian; milaka urte batzuk lehenago beren arbasoek —faraoi zaharrek— ohiko zuten ohiturari jarraitu zioten Greziako jatorrizko ptolomeotarrek ere. Hori, ordea, anai-arreben arteko intzestua da, egungo garaietan askozaz era bigunagoan epaitu ohi dena. Garai zaharretako harremanen lekuko erregina dugun Mitologiara jo dezagun beraz. Berak adieraziko digunez, herri guztietako mitoak, ez greziarrenak bakarrik, aitaren eta alabaren, eta amaren eta semearen arteko maitasun-harremanez beterik gainezka daude. Intzestuan oinarriturik daude errege-erregin-dinastien genealogiak eta kosmologiak. Zure ustez, zein asmoz moldatu ziren kontakizun horiek? Jainkoak eta erregeak gaizkile moduan markaturik uzteko, eta gizateriaren nazka horiengana bideratzeko, agian? Oso bestela: intzestu-nahia garai zaharrenetako giza ondarea delako eta inoiz gainditua izan ez delako, jainkoei eta hauen ondorengo zirenei onartzen zitzaien nahi horiek asetzea, gizaki arrunten gehiengoari uko egin ziezaiela eskatzen zitzaion bitartean. Historiaren eta mitoen irakaspen horiekiko erabateko adostasunean aurkitzen ditugu, gaur oraindik indarrean, intzestu-nahiak norbakoitzaren haurtzaroan.

«Haur-sexualitateari dagokion hori guztia niri ezkutuan gorde nahi izana ez nizukeen barkatu izango. Gizateriaren jatorrizko historiarekiko dituen erlazioengatik oso interesgarria iruditzen zait».

Gure helburuetatik urrutiegira eramango ote gintuen beldur nintzen. Baina bere onurak ere izan ditzake nolabait.

«Adieraz iezadazu, baina, nolako ziurtasunak dituzun haurraren sexu-bizitzaz moldatutako zure analisiaren ondorioentzat. Historiarekiko eta mitologiekiko adostasun hutsean oinarritzen ote da zure konbentzimentua?».

Ez, inolaz ere ez! Zuzen-zuzeneko behaketan oinarritzen da. Honelatsu gertatu zen: helduen analisitik ondorioztatu genuen lehenik haurtzaroko sexualitatearen edukia, hau da, hogeitaz berrogei urte geroago. Haurretan beretan burutu izan dugu analisia geroagoko urteetan, eta ez zen garapen txikia izan bitarteko aldiaren gainjartze eta desitxuraketa guztien gainetik lehenago moldaturik genituen usteak baieztatu zirela ikustea.

«Nola? Haur txikiak hartu zenituzten zuen analisirako, sei urteko haurrak? Bidezkoa al da hori? Eta ez ote da kaltegarri haurrentzat?».

Ondorio onak eman ohi ditu. Ia-ia sinestu ere ezin da lau-bost urteko haur batengan gertatu ohi den guztia. Adimenez ere oso jardunkorrek dira adin horretako haurrak; sexualdi goiztiarra bera adimen-loraldia ere bada haur horientzat. Uste dudanez, ezkutu aldian sartzearekin batera adimenez kamutsagoak bilakatzen dira, oztopo gehiago aurkitzen dituzte. Epe horretatik aurrera galdu egin ohi du bere edertasuna haur ugari. Eta analisi goiztiarraren kaltegarritasunari dagokionez, zera adieraz diezazuket, orain ia hogeitaz saio hau burutzeko hartu genuen haurra gaur egun gazte osasuntsu eta ekintzazale bat dela, bere nerabezaroa, amets psikiko gaizto ugari izanagatik ere, arazorik gabe gainditu ondoren. Analisi goiztiarraren beste «biktimei» ez zaie, itxuraz, okerrago joanen. Era ezberdineko interesgarritasunak dituzte haur-analisi hauek; eta etorkizunean garrantzi handiagoa ere izan dezakete. Ezin jar daiteke zalantzan beren balio teorikoa. Helduen analisiaren erantzunik gabe geratzen diren galdera ugariarentzat informazio ziurrak eskaintzen dituzte, eta bide batez ondorio gaitzak izan ditzaketen erru-arriskuetatik gordetzen dute analitikaria. Neurosiak sortzen direneko uneak beren lanean harrapatzen ditu batek eta ezin utzi ditzake kontutan hartu gabe. Haurraren onerako, ordea, analisia heziketa-neurriekin konbinatu beharra dago. Jardunbide hau garapen-beharrean aurkitzen da. Honako oharpen honek bideratzen du beste interes praktikoa, haur-kopuru handi batek neurosi aldi garbi bat pasatzen duela bere garapen-bidean, alegia. Argiago ikusten hasi garenetik zera esateko tentaldia ere izaten dugu, haur-neurosiak ez direla salbuespena, baizik eta erabat ohikoak direla, haurraren izaeratik kultura sozialera dagoen bidean saihestu ezinezkoak balira bezala. Haurtzaroko urteetan gerta ohi diren neurosi-atakeak berez desagertzen dira kasurik gehienetan; baina ez ote dituzte, orokorrean, beren haztarnak uzten batezbeste osasuntsu direnetan ere? Alderantziz, geroago neurotiko bilakatzen direnetan ez dugu haurtzaroko gaixotasunarekiko loturarik faltan botatzen, haurtzarokoak nabarmenegia izan beharrik ez bazuen ere. Modu bertsuan, nik uste dudanez behintzat, eta internistek baieztatzen dutenaren arabera, gizaki guztiek jasan izan dute haurtzaroan tuberkulosi-gaixotasunen bat. Neurosiei dagokienez ez da kutsapenik eman ohi; bai, ordea, aurretiko joera bat.

Ziurtasunei buruzko zure galdera jorratu nahi dut orain. Haurrengan burutu ditugun behaketa zuzenen bidez konbentzitu gara, orokorrean, helduek beren haurtzaroaz eskaini ohi zizkiguten datuak zuzen interpretatu ohi genituela. Baina kasu andana batean beste era bateko baieztapen bat ere eskura izan dugu. Analisisirako materialetatik abiatuz haurtzaro aldian gertatu ohi ziren kanpoaldeko hainbat gertakari zirraragarri eraiki ahal izan genituen, gaixoen oroitzapen kontzienteetan inolako aztarnik utzi ez zutenak; baina zorioneko kasualitatez, guk suposatutako gertakari haiek

benetan halaxe gertatu zirelakoaren froga garbiak eskuratu ahal izan genituen gurasoeekin eta zaintzaileekin burutu genituen ikerketen ondorioz. Hori ez zen maizegi gertatzen, baina gertatu ohi zen bakoitzean sekulako zirarra sumatu ohi genuen. Jakin behar duzu, ahaztutako haurtzaroko bizitapenen berreraikuntzak ondorio terapeutiko handi bat izan ohi duela beti, baieztapen objektibo bat bideragarri bada eta ez bada ere. Hain goiz gertatu izanari, hau da, nia ahulean oraindik ondorio traumatikoak izan zitzaketenean gertatu izanari zor diete gertakari horiek beren garrantzia.

«Eta nolatsukoak dira, bada, analisiaren bitartez aurkitu beharreko gertakari horiek?».

Oso era ezberdinekoak. Ernetzen ari zen haurraren sexualitatea iraupenez oztopa zezaketen inpresioak lehenik, helduen arteko sexu-harremanen behaketak sortarazitakoak, edo berak beste heldu batekin edo beste haur batekin —uste baino ugariagotan gertatu ohi dena— izandakoetatik sorturikoak; baita entzundako une berean edo geroago ulertutako elkarrizketen ondorioz sortutakoak ere, zeinetatik haurrak, bere ustez, gauza harrigarriez eta sekretupekoez bere ondorioak ateratzen dituen; eta azkenik beste pertsona batekiko amoltsutasuna edo aurkakotasuna adierazten duten haur beraren aitorpenak edo ekintzak. Haurrari bere sexu-jardueraz ahazturikoa gogorarazten laguntzeak berebiziko garrantzia du analisisan, era berean baita amaiera ezarri zien helduaren eskuhartzea gogorarazteak ere.

«Aspalditxotik egin nahian nenbilen galdera orain egiteko aitzakia damait horretxek. Zerez moldatzen zen, zuk diozunez, analisiaren aurretiko garaietan, kontutan hartu ohi ez zen haurraren sexu-jarduera goiztiar hori?»

Sexu-jarduera horren ezaugarriarik ohikoena eta oinarrizkoena kontutan hartu ohi zen harrigarrikiro; esan nahi da, ez zela harrigarria, kontutan hartzeko modukoa baitzen. Norberaren sexukiak, errealitatean berauen osagai maskulinoak, estimulatuaz lortzen duen autoasepenean ikusi behar da haurraren sexu-jardueraren adierazpenik garrantzizkoena. Haurraren «ohitura oker» honen hedapen berezia ezaguna zitzairen betidanik pertsona helduei; bekatu larritzat joa izan ohi zen eta serioski zigortua. Haurraren joera immoral horien oharpen hau —gozapena sumarazten dielako jokatzeko dute haurrek horrela, beraiek esan ohi dutenez— bere jatorrizko garbitasunaren eta immoralitate-ezaren teoriarekin nola elkarlotu daitekeen, ez niri galdetu. Beste aldekoek dagokie arazo hori konpontzea. Beste arazo garrantzitsuago bat sortzen zaigu guri. Nola jokatu beharko litzateke haurtzaroko sexu-jarduera goiztiarraren aurrean? Hori zanpatuz bakoitzak beregain hartzen duen erantzukizuna ezaguna zaigu, baina ez gara ausartzen, hala eta guztiz ere, mugarik gabeko askatasuna uztera. Atzeratuagoko kulturen herrietan eta kultur herrietako mailarik baxuenetan erabateko askatasunez begiratu ohi zaio, dirudienez behintzat, haurraren sexualitateari. Norbanakoaren geroagoko neurosi-gaixotasunei muga gogorra ezarriko zaie seguruenik horrela jokatzeko, baina ez ote zaizkio muga larriegiak ezartzen kultur emankortasunerako gaitasun-lorpenari? Eszila eta Karibdis berri baten aurrean aurkitzen garela hemen adierazten du hainbat eta hainbat gertakari.

Neurotikoen sexu-bizitzaren ikerketen bidez eragiten diren interesgarritasunek lizunkeria biderarazteko giro egoki bat sortzen duten ala ez erabakitzea zure iritzira uztera ausartzen naiz.

«Uste dudanez, ondotxo ulertzen dut zure asmoa. Analisia praktikatu ahal izateko zenbateko ezagutzak beharko liratekeen adierazi nahi didazu, gero nik hori sendagilearen esku bakarrik utzi beharko ote litzatekeen erabaki ahal izan dezadan. Baina begira, orain artean gutxi hitz egin da hemen medikuntza-ezagutzaz, asko psikologiaz eta dexente biologiaz eta sexu-jakintzaz. Agian ez gara azkeneraino iritsi oraindik?».

Ez horixe, hutsune ugari dago oraindik estaltzeke. Zerbait eska ote diezazuket? Adieraziko al zenidake nola irudikatzen duzun tratamendu analitiko bat? Zuk zeuk burutu beharko bazenu bezala.

«Beno, egokia ere izan daiteke hori. Ez da nire asmoa eskuartean dakargun arazo hau honelako saio batez erabakitzea. Baina zure gustua egingen dut; erantzukizuna, ordea, zure kontura geratzen da. Suposatzen dut, beraz, gaixoa niregana datorrela eta bere ondoezaz kexatzen dela. Nire oharrei jarraitzen badie sendakuntza edo hobekuntza agintzen diot nik. Berak dakiena eta burura datorkiona erabateko irekitasunez adieraz diezaidala eskatzen diot, eta zenbait gertakariren berri ematea desatsegina gertatuko bazaio ere, nire oharrari bete-betean jarrai diezaiola. Ondo ikasi al dut arau hori?».

Bai, eta beste hau ere gehitu beharko zenioke, baita burura datorkiona garrantzirik edo zentzurik gabekoa dela irudituko balitzaio ere.

«Horrela da. Bera bereak kontatzen hasten da eta nik entzun egiten diot. Bai, eta gero? Eta bere nia oraindik ahula zenean sumatu eta landu beharrean beldurrez saihestu zituelako, nolatsuko inpresioak, bizipenak, nahimenak erreprimitu izan dituen ondorioztatu beharko nuke nik berak kontatzen didanetik. Nigandik horren guztiaren berri jasotzen duenean, garai hartako egoerara aldatzen da bera, eta hobekuntza bat sumatzen du nire laguntzaz. Bere nia-ri ezarri zitzaizkion mugapenak desagertzen dira eta sendatu egiten da. Zuzen al diot horrela?»

Ongi, ongi! Ikusten dudanez, sendagile ez den bat analitikari egin dudala aurpegiratuko didate berriro niri. Oso zuzen zereganatu duzu guztia!

«Buruz ikasitakoa esan ohi den bezala errepikatu dut zuri entzun dizudana. Ezin irudika dezaket eta nola jokatu nukeen, eta ulertu ere ez dut ulertzen horrelatsuko lan batek zergatik eskatzen duen eguneroko ordu bat hainbeste hilabetetan zehar. Pertsona arrunt batek ez baitu hainbeste bizipen izan normalki, eta haurtzaroan erreprimitu izan dena gauza berdina izanen baita, seguraski, kasu gehienetan.

Hala eta guztiz ere, era guztietako gertakarien berri jasotzen da analisia bideratzerakoan. Hona adibide bat: gaixoak kontatzen dizkizunetatik berak ahazturik dituen bizipenei eta erreprimiturik dituen irrika-eraginei antzematea lan nekeza gertatuko litzaizuke seguruenik ere. Hasieran zuretzat ere beretzat bezain zentzu gutxi duen zerbait esaten dizu. Analizatuak, ohikotasun guztien aurka esaneko izanaz, aurkezen dizun materiala oso modu berezian tratatzeko erabakia hartu beharko duzu. Landu gabeko meakinetik, prozesamendu berezi batzuen bitartez, baliozko edukia lortu ohi den bezalatsu. Agian bilatzen ari zaren baliozko eduki gutxi duten tonelada eta tonelada meaki lantzerantz prestatu egon beharko duzu. Horixe litzateke tratamenduaren hedapenerako arrazoi bat.

«Zure adibideari jarraituz, nola tratatzen duzu landu gabeko material hori guztia?».

Zera suposatuz, gaixoaren aitorpenak eta burutapenak bila gabiltzanaren desitxuraketak baino ez direla, zeharresanen antzekoak, nondik abiatuz horren guztiaren atzean ezkututzen denari antzeman behar diozun. Hitz bakar batez adierazteko, oroitzapenez edo burutapenez edo ametsez osatzen den material hori interpretatu egin behar duzu. Gaixoari entzuten zeunden bitartean, eta zeure ezagutza bereziei esker, moldatu zenituen itxaropenei erreferentzia eginez burutu ohi da hori.

«Interpretatu! Hitz arazotsua horixe. Ez dut gogo onez entzuten hori nik, ziurtasun guztiak apurtzen dizkidazu eta horrekin. Guztia interpretazioan oinarritzen bada, nork ziurta diezadake zuzen interpretatzen dudala? Nire nahimenera uzten da eta guztia».

Lasai, egoera ez da hain txarra eta! Zergatik askatu nahi dituzu zeure arima-gertakariak besteentzat onartzen dituzun arauzkotasunetatik? Nolabaiteko autodisziplina lortua baduzu eta halako ezagutza zehatz batzuk baldin badituzu, zure ezaugarri pertsonalek ez dute eraginik izanen zure interpretazioetan eta zuzena denari antzemanen diozu. Ez diot, ordea, analitikariaren nortasunak axolik ez duenik eginkizunaren zati honetan. Inkontzienteki erreprimitutakoari antzeman ahal izateko ezinbestekoa da halako sentiberatasun apur bat, eta honetan pertsona guztiak ez dira neurri berdinekoak. Eta honetantxe oinarritzen da analitikariarentzat betebeharrak hura, bere burua analisi sakon batera behartuz analisi-materiala inolako aurriritzirik gabe onartzeko prestatzekoa, alegia. Badago beste zerbait ere oraindik, behaketa astronomikoetako «ekuazio pertsonalei» parekatzekoa dena; beste eremuetan baino garrantzi handiagoa jokatu du beti psikoanalisian aldagai pertsonal horrek. Fisikari zuzena izatera ere iritsi daiteke pertsona eznormal bat; bere eznormaltasun horrek, ordea, arima-bizitzako irudiak inolako desitxuraketarik gabe ulertzen eragotziko lioke analitikari moduan. Inork bere eznormaltasuna frogatu ezin duenez gero, oso eginkizun neketsua izanen da psikologia sakoneko arazoetan adostasuna lortzea. Zenbait psikologiariren ustetan, gainera, ezinezkoa ere bada hori, eta edozein erok du bere erotasuna jakinduriaz hartzeko eskubide berdina. Aitortzen dut baikorragoa naizela ni kontu hauetan. Gure esperientziek erakusten digutenez, psikologiaren eremuan ere badira lor daitezkeen adostasun onargarriak. Egia da ikerketa-eremu bakoitzak dituela bere zailtasunak, gainditzeko saiatu beharko genukeenak. Beste jakintza-arlotan bezalaxe, analisiaren eremuko interpretazioaren gaitasunean ere askotxo dago, ordea, ikas daitezkeena: sinboloen bitarteko zeharkako adierazpen bereziekin zerikusia duen guztia, adibidez.

«Beno, ez dut inolako gogorik tratamendu analitiko bati ekiteko, ezta irudimenez ere. Zeinek daki nolako ustekabeekin egin beharko nukeen topo hor».

Ondo egiten duzu horrelako asmoei uko egitearekin. Ikus dezakezu zenbat ikasi eta saiatu beharra dagoen horretarako. Interpretazio zuzenak aurkitu orduko, eginkizun berri bat duzu aurrean. Zure interpretazioak gaixoari arrakastaz adieraziko badizkiozu, horretarako une egokienaren zain egon beharko duzu.

«Nola antzeman diezaioket unerik egokienari?».

Esperientziaren bitartez fin daitezkeen zentzu bat da hori. Oker bat eginen zenuke baldin eta interpretazio bat aurkitu orduko berehala gaixoari adieraziko bazenio, analisiaren iraupena laburtu asmoz. Aurkakotasun-, arbuio- eta haserre-adierazpenak eragingo zenizkioke, eta ez zenuke lortuko, inolaz ere, bere nia erreprimitutako eremuaz nagusitu dadinik. Hau da araua: zure interpretazioaren gidaritzapean urrats gutxi batzuk baino emateko beharra ez dagoen bitartearaino bera berez ingura dadin zain egon behar dela.

«Uste dudanez, hori ezin ikasiko dut nik. Eta interpretatzerakoan ohar horiei jarraitu badiet, gero zer?»

Aurkikuntza bat egin beharrean zaude, baina ez prestaturik horretarako.

«Zein litzateke?»

Zeure pazienteaz ekibokatu egin zarela, ez duzula bere laguntzarik eta bere aldetikako prestutasunik izango, bien arteko lanari era guztitako eragozpenak jartzeko erabakia harturik duela berak, hau da: ez duela sendatu nahi.

«Ezin! Hauxe da orain artean esan didazun guztietatik harrigarriena! Hainbeste sufrimendu dituen gaixoak, bere zailtasunez halako hunkigarritasunez hitz egiten duenak, tratamendurako bere aldetik hainbeste jartzen ari denak ez duela sendatu nahi! Zuk zeuk ez zenuen horrelakorik adierazi nahiko».

Lasaitu zaitez, horixe esan nahi nuen eta! Egia da nik diodana; ez egia osoa, baina bai egiaren zati handi bat. Egia da gaixoak sendatu nahi duela, baina baita nahi ez duela ere. Bere batasuna galdu du bere niak, eta ondorioz ez du nahimen-batasunik adierazten. Ez litzateke neurotiko bat izanen bestela balitz.

«Zentzuduna banintz ez nuke Tell izena izanen».

Bere nia-ra sartu dira erreprimutakoaren pujak; indar hartu dute hor, eta jatorri horren nahimenetan agintze gutxi du niak, erreprimutakoan gutxi duen bezalaxe; horretaz guztiaz, normalki, oso gutxi jakin ohi du gainera. Oso mota berezikoak dira gaixo horiek eta ohituraz guk itxaro ohi ez ditugun zailtasunak jarri ohi dizkigute. Batasuna duen nia normal baten neurrira eginak daude gure erakunde sozial guztiak: on edo gaizto bezala epaitu genezakeen nia, bere funtzioa bete edo eragin indartsu batez desegin dezakeena. Hortik honako epai-aukera hau: erantzukizun osoz edo batere erantzukizunik gabe jokatzeko duena. Horrelako erabakiak ez dira egokiak neurotiko baten kasurako. Onartu beharra dago zaila dela eskakizun sozialak horrelatsuko baten egoera psikologikora egokitzea. Azken gerratean ikusi ahal izan da hori neurri handi batean. Zer ziren zerbitzutik alde egiten zuten neurotikoak, benetako neurotikoak ala itxura hutsa egiten zutenak? Biak batera. Itxuragile bezala tratatzen baziren eta gaixo-egoera jasanezina gertatzen bazitzairen, sendatu egin ohi ziren; eta itxuraz sendatutakoak berriro zerbitzura bidaltzen baziren, berriro gaixotasunean bilatzen zuten azkar beren babesa. Ezin asma zitekeen horrelatsukoekin. Gauza bera gertatzen da bizitza zibileko neurotikoekin ere. Bere gaixotasunaz kexu dira, baina beren ahalmen guztiaz aprobetxatzen dira horretaz; eta hori kendu nahi bazaie, alegia hartako lehoiamak bere kumeak bezalaxe babesten dute beren gaixotasuna hauek; eta ez du inolako zentzurik kontraesan hori aurpegira botatzeak.

«Baina ez ote litzateke egokiena hain zailak diren pertsona hauek ez tratatzea eta beren kabura uztea? Zuri entzun ondoren ezin sinets nezake gaixo hauetako bakoitzagatik hainbeste lan egiteak ezertarako balio dezakeenik».

Ezin onar dezaket zuk egiten duzun proposamena. Zuzenagoa baita, ziurtasun osoz, bizitzako arazoak onartzea berorien aurka jardutea baino. Guk tratatzen ditugun neurotiko guztiek ez lukete mereziko, agian, hainbeste ahalegin; baina balio handiko pertsonak ere aurki daitezke horien artean. Honako hau lortzea jarri beharko genuke gure helburutzat, ahalik eta pertsona gutxien saia dadila hain arima-erreminta ahulez kultur bizitzaren aurka burrukatzen, eta arrazoi honetxegatik esperientzia zabala biltzen eta gertakari asko ulertzen saiatu beharra dugu. Asko irakats diezaguke analisi berri

bakoitzak, argibide berrien irabazia ekar diezaguke, gaixo bakoitzaren balio pertsonalak kontutan hartu gabe ere.

«Baina gaixoaren nia-n gaixotasunari iraunarazteko gogonahia moldatu bada, nolabait arrazoitu ditzakeen zio eta motiboetan oinarritu beharko du horretarako. Ezin uler daiteke, ordea, zergatik norbaitek gaixo egon nahi izan dezakeen, hortik zer irabaz dezakeen».

Hori ez da horrela, erantzuna ez baitago urruti. Pentsa ezazu gaixo daudelako lanik egin beharrik ez duten gerra-neurotikoetan. Lanbiderako eta lehiarako sumatzen den gaitasun-eza estaltzeko erabil daiteke gaixotasun bat bizitza zibilean, eta famili bizitzan, berriz, besteak sakrifizioak egitera eta maitasun-frogak adieraztera behartzeko edo baten nahimenera jarrarazteko. Oso azalean kokatzen da hori guztia eta guk «gaixotasun-irabazia» deitzen diogu horri; harrigarria hemen beste hau da, gaixoak, bere niak, ez diela antzematen arrazoi horien eta bere jokatzeko moduaren artean dauden loturei. Nia horretaz guztiaz jabetzera behartuz bakarrik burruka daiteke joera horien eraginaren aurka. Badaude, ordea, gaixotasunari lotarazten dituen beste arrazoi sakonagoak ere, burrukatzen hain errazak ez direnak. Ezin ulertu dira, tamalez, berriro teoria psikologikoetara jo gabe.

«Jarrai ezazu hori guztia argitzen, beste teoria apur batek ez digu kalterik egingo eta».

Nia-ren eta zera-ren arteko loturak aurkeztu nizkizunean arima-aparailuaren osagai bati dagokion ezagutza garrantzitsu bat aurkeztea ahaztu zitzaidan. Nia-gan beragan guk super-nia izena eman diogun instantzia bereizitu bat moldatu dela onartzeraz beharturik geunden. Nia-ren eta zera-ren artean kokapen berezi bat hartzen du super-nia horrek. Nia-ren osagai da, nia-ren goimailako antolaketaren zati da, baina lotura bereziki estua du zera-rekin. Zera-ren lehen objektu-jabetzaren hala-holako gertakari bat baino ez da errealitatean; Edipo-komplexuaren ondare hura desagertu eta gero. Nia-ri aurrez aurre jar dakioke super-nia hori, eta honek hura bere objektu moduan erabili ere erabil dezake, zenbaitetan erabili ohi duen moduan. Zerarekiko adostasuna bezain garrantzizkoa zaio nia-ri super-niarekikoa ere. Garrantzi handiko esanahia dute arima-bizitzarako nia-ren eta super-niaren arteko desadostasunek. Honez gero konturatuko zinenez, guk kontzientzia esan ohi diogun gertakariaren eramaile da super-nia. Arimaren osasunerako garrantzi handikoa da super-nia normalki moldaturik egon dadila, hau da: nahikoa inpersonala izan dadila. Ez da horixe neurotikoetan gertatu ohi dena, zeinetan Edipo konplexuak ez duen garapen egokia izan. Super-nia aurrez aurre jarri ohi zaio nia-ri holakoetan, aita zorrotza haurrari jarri ohi zaion bezalaxe, eta honako hau da holakoen moralitatearen eginkizun nagusia, super-niak nia zigortu dezala. «Autozigorpen» horretarako bitarteko bat bezala erabili ohi da gaixotasuna, eta erru-sentipen bat nagusituko balitzaio bezala jokatzera beharturik ikusten du bere burua neurotikoak, erru-sentipen horrek beharrezko du eta, bere lasaipenerako, gaixotasun hori zigor moduan.

«Oso misteriotsua gertatzen zait hori guztia. Eta zera da harrigarriena horretan, bere kontzientziaren indarra ez zaiola kontziente bilakatzen gaixoari».

Egia da. Hasi ere oraintxe hasi baikara garrantzizko harreman horien guztien esanahia kontutan hartzen. Arrazoi horrexegatik gertatuko zitzaizun iluna nire agerpena. Baina orain aurrera jo dezaket. Sendatzearen aurka jartzen diren indar guztiei gaixoaren «erresistentzia» izena ematen diegu guk. Gaixotasunak dakarren irabazia da erresistentzia horietako baten jatorria; «erru-sentipen inkontzienteak», berriz, super-

niaren erresistentzia adierazten du, eta izan horixe da faktorerik indartsuena eta beldurgarriena. Beste erresistentzia batzuekin batera topatu ohi dugu sendabidean zehar. Beldurragatik nia-k errepresio bat gauzatu badu lehen haurtzaroan, beldur horrek indarrean darrai oraindik eta nia-k erreprimaturikoa arakatu nahi duenean erresistentzi indar moduan agertzen da berriro. Uler daiteke, beraz, bulkada-eragin batek hamarkada luzeetan zehar bide bat egin badu, zailtasunez ekingo diola orain irekitzen zaion bide berri bati. «Zera-ren erresistentzia» izena eman diezaiokegu horri. Erresistentzia horien aurkako burruka da gure egikizunik nagusia sendabide analitikoan zehar; interpretazio-lana ia desagertu egiten da bitarte horretan. Burruka horren bitartez eta erresistentzia horiek gainditu izanaren eraginez gaixoaren nian gertatu ohi den aldakuntza hain da handia, ze bere etorkizuneko jokabideari lasaitasunez begiratu ahal izango baitiogu sendabidea amaitu ondoren. Horrela ulertuko duzu orain zergatik behar dugun hain epealdi luzea sendabiderako. Dena dela, ez sendabidearen iraupen luzea, ezta horretarako ditugun materialen aberastasuna dira erabakikorrenak. Bidea inolako eragozpenik gabe aurkitzea da interesgarriena. Bake aldian trenez ordu pare batean egin daitekeen bidea egiteko aste luzeak behar izan ditzake gudatalde batek aurkarien erresistentzia gainditu beharrean aurki dadinean. Arima-bizitzan ere denbora behar da horrelatsuko burruketarako. Tamalez zera baieztatu beharrean aurkitzen naiz, sendabide analitikoa oinarritz azkartzeko egin diren ahalegin guztiak inolako ondoriorik gabe geratu izan direla orain artean. Azterbide hori zuzen gauzatzea izan daiteke, dirudienez, epealdia laburtzeko biderik egokiena.

«Inoiz zurekin norgehiagokan hasteko eta beste pertsona batekin analisia burutzeko gogorik sumatu izan banu, erresistentziei dagokienez zuk adierazi dizkidazunek asmo haietatik urrundu izango ninduketen. Baina zer da zuk onartu zenuen eragin pertsonal berezi hartaz? Ez ote da erresistentzia horiek gainditzeko hainbatekoa?».

Eskerrak zuk horretaz galdetu izana. Eragin pertsonal horixe baita guk dugun lan-tresnarik dinamikoena; horixe da egoerara orain dakargun osagai berria, eta horrek biguntzen ditu erresistentziak. Gure argibide intelektualek ez dute horrelakorik lortzen, ze bere inguruneko aurriritzi guztiak bere egiten dituen gaixoak jakintza eremuko gure aurkariak bezain gutxi sinestuko baitigu. Analitikariari sinesten diolako hasten da lanean neurotikoa, eta analitikariaren pertsonarekiko halako sentipen-jarrera berezi bat duelako sinesten dio. Menpekotasuna zor dienei bakarrik sinestu ohi die haurrak ere. Lehendik ere adierazia dizut, zertarako baliatzen garen sugestio-eragin handi eta berezi horretaz. Inolaz ere ez sintomak erreprimitzeko —horrexek bereizten du analisi-jardunbidea psikoterapiaren beste jardunbideetatik— baizik eta gaixoaren nia bere erresistentziak gainditzera bultzatuko duen sen-eragin moduan.

«Ongi da, eta hori lortutakoan ez al da dena eragozpenik gabe gauzatzen?».

Horrela behar luke. Baina aurrikusi gabeko arazo bat sortu ohi da. Agian analitikariak izan duen ustekaberik handiena izan da, gaixoak berarekiko moldatzen duen sentipenezko erlazioa oso izakera berezikoa dela frogatzea. Analisia gauzatu zuen lehen sendagileak berak ere —eta ez naiz ni izan— arazo horrekintxe egin zuen topo, eta zer egin ez zekiela geratu zen. Gauzak garbi esateko, sentipen-erlazio hori maitemindurazkoa da. Harrigarria, ez da? Berezi horri beste hau ere gehitzen badiozu, erlazio hori eragiteko analitikariak ez duela ezertxo ere egiten; alderantziz, gaixoarengandik, gizaki moduan, urruntzen saiatzen dela, bere pertsona halako babes berezi batez inguratzen duela. Hareago oraindik ondorengo hau entzuten duzunean, maitemindurazko erlazio berezi honek bestelako eragingarri errealei uko egiten diela eta erakargarritasun pertsonalaren, adinaren, sexuaren eta egoera sozialaren

aldagaiak ez dituela kontutan hartzen. Konpultsiboa da maitasun hori zuzenki. Ez dut esan nahi bat-bateko maitemindurazko izaera hori urrundu beharko litzatekeenik. Ondotxo dakizunez, alderantzizkoa sumatu ohi da maiztasun handiz, baina analisi-egoeratan erabateko erregularitasunez gertatu ohi da, horretarako arrazoizko argibiderik aurkitu ezin badugu ere. Pentsa beharko litzatekeenez edo, halako begirunezko, konfidantzazko, eskerronezko eta giza begikotasunezko jarrera batek baino ez luke sortu beharko gaixoak sendagilearekiko moldatzen duen harremanetik. Horren ordeztu gertakari patologiko baten itxura guztia duen maitemindura hau sumatzen dugu.

«Hala eta guztiz ere, zure asmo analitikoaren onurari gertatzen dela hori guztia pentsatu beharko nuke. Norbait maite denean horren esaneko bilakatu ohi da bat eta edozer gauza egin ohi da bestearekiko maitasun horregatik».

Horrela da, hasieran lagungarri da hori, baina geroago, maitasun hori sakonagoa bilakatzen doan neurrian, bere izaera guztia agerira agertzen da, non analisi-eginkizunekin batera ezinezko gauza ugari aurkitzen den. Esaneko izatearekin ez da asetzen maitasun hori; eskakizun ugari bilakatzen da; samurtasunezko eta kutunkeriazko adierazpenak eskatzen ditu; erabatekotasuna exijitzen du, jeloskor bihurtzen da, eta bere asmoak eta nahiak lortu ezin dituenean bere beste aurpegia agertzen du garbi-garbian: etsaikortasunerako eta mendekurako prest dago. Aldi berean, maitemindura guztietan bezalaxe, baztertu egiten ditu beste arima-eduki guztiak, eta sendabidearekiko eta osasuntzearekiko jarrera ahultzen du; laburbilduz, ezin zalantzan jarriko dugu neurosiaren tokia hartu duenik, eta horixe izan da gure lanaren emaitza: gaixotasun-era bat beste batez ordezkatu dugu.

«Itxaropenik ez dagoela dirudi hori entzunda. Zer egiten da orduan? Analisia baztertu egin beharko litzateke; baina zu zeuk diozun bezala, analisi guztietan gertatzen bada hori, ezin gauzatu ahal izanen litzateke analisisirik».

Lehenik eta behin, egoera horretaz aprobetxatu behar dugu, bertatik zerbait ikasi ahal izateko. Horrela lortutakoak gertakari hori menperatzen lagun diezaguke agian. Ez al da benetan kontutan hartzekoa, neurosia bat —edozein izanik ere bere edukia— maitemindurazko egoera patologiko batez ordezkatu izana?

Neurosiaren oinarrian oker erabilitako maitasun-bizitzako zati bat dagoelakoaz dugun gure uste osoa erabateko ziurtasunez sendotzen du esperientzia honek. Oinarri sendoak hartzen ditugu berriro ikuspegi honen bitartez; maitemindura hori analisiaren aztergaitzat hartzera ausartzen gara orain. Badugu beste behaketa bat ere. Maitemindura analitiko hori ez da kasu guztietan nik adierazi nahi izan dudana bezain argi eta garbi agertzen. Zergatik ez da hori horrela gertatzen? Laster ulertuko duzu hori. Bere maiteminduraren zentzumenezko eta aurkariazko aurpegiek agertu nahi duten indar berdinez esnatzen dira berorien aurkako indarrak ere gaixoarengan. Horien aurka borrokatzen da eta geure begien aurrean erreprimitzen saiatzen da. Horrela uler genezake orain gertakaria. Analitikariarekiko maitemindurazko itxuran lehenago eginak dituen arima-esperientzia berdinak errepikatzen ditu orain: lehendik barnean zeramatzan eta bere neurosiaren sorrerarekin sakonki loturik zeuden arima-jarrerak transferitzen ditu analitikariarengana. Ordungo defentsa-ekintza berdinak errepikatzen ditu orain gure aurrean; ahaztutako bizitzaldi hartako zorte guztiak berriro nahi lituzke orain analitikariarekiko harremanetan. Bere barne-bizitzaren historiako guna erakusten ari zaigu, beraz, modu honetan; era agerikorrean errepikatzen du, oraingoa balitz bezala, oroitzapen hutsetan gogoratu beharrean. Transferentzi maitasunaren arazoa argituz

geratzen da horrela eta hain arriskutsua zirudien egoera berriaren laguntzaz aurrera jarrai dezake analisiak.

«Oso sotila da hori guztia. Eta hain erraz ulertzen al dizu gaixoak ez dagoela maitemindurik, baizik eta oso bestela, lehengo zati zahar bat antzeztera behaturik dagoela?».

Puntu honetantxe jartzen da guztia jokoan, eta «transferentzia» gauzatzerakoan erabiliko den trebetasunak baldintzatuko du lorpen guztia. Ikus dezakezunez, jardunbide analitikoari ezartzen zaizkion eskakizunek hementxe jotzen dute beren gorena. Errurik okerreina egin daiteke edo emaitzarik handiena ziurtatu. Ez luke inolako zentzurik transferentzia erreprimi-tuz edo inolako axolarik gabe tratatuz zailtasunei ihes egiteko tentaldiari amor emateak; bitartean burutu dena ugaria izanagatik ere, ez luke analisiaren izenik mereziko. Bere tranferentzi neurosiaren desatsegintasunak agertu orduko gaixoa analisiatik bidaltzeak ez luke inolako zentzurik izango eta koldarkeria bat litzateke; lehenik izpirituei dei egin eta hauek agertu orduko ihesari ekitea bezalakoxea litzateke hori. Egia da: zenbaitetan ez dago beste erremediorik; gauzatzen hasi den transferentzia ezin gidatu ohi da zenbaitetan eta analisisa eten beharra gertatzen da horrelakoetan, baina izpiritu gaiztoen aurka borrokatzen saiatu beharko litzateke lehenik dauden indarren heinean gutxienez. Trasferentziaren eskakizunei amore ematea, gaixoak kutunkerietarako eta zentzumen-asepenerako adierazten dituen nahiak betetzea, ikuspegi moralaren arabera, galerazirik egoteaz gain, helburu analitikoak lortzeko baliabide tekniko moduan ere ez litzateke onargarria. Neurotikoa ez da inolaz ere sendatuko beregan aurrez inkontzienteki moldaturik duen klitxe bat inolako zuzenketarik gabe errepikatzen utziz. Analisi-lanean bere geroagoko lankidetzaz ziurtatu asmoz bere eskakizunetako batzuei amor emanez tratatuak egitera makurtzen bagara, kontu izan dezagun apaizaren egoera irrigarri hartan aurki ez gaitezen gero, alegia, gaixorik dagoen aseguru-agentea konbertitu beharrean ikustea geure burua. Gaixoa ez da konbertituko, eta apaizak aseguru-poliza izenpetzen du. Transferentzi egoeratik ihes egiteko aukerabide bakar bat dago, gaixoaren iraganera itzultzea, berak egiatan bizi izan zuen edo bere fantasia-jardunez moldatu zuen iragan hartara, hain zuzen ere. Autosakrifizio, patxada, pazientzia eta trebetasun handia eskatzen dizkio horrek analitikariari.

«Eta zure ustez, non bizi izan du neurotikoak bere transferentzi maitasunaren arketipoa?».

Bere haurtzaroan, gurasoetako batekiko harremanetan normalki. Gogoratuko duzu noski nolako garrantzia eskaini behar izan genien guk sentipen-harreman goiztiar horiei. Hementxe ixten da zirkulu hura.

«Amaitu al duzu behingoz? Zertxobait nahasturik aurkitzen naiz entzun dizkizudan kontu horiek guztiak direla eta. Esaidazu, ordea, non eta nola ikasi ohi den analisisa bideratzeko behar den guztia».

Psikoanalisi-az irakasten duten bi institutu daude. Lehena Berlinen dago bertako erakundean Max Eitingon doktoreak sortua. Bigarrena «Vienako Elkargo Psikoanalitikoak» bere baliabide propioen bitartez, zailtasun handiz, gidatzen duena da. Agintarien partaidetza erakunde gazteari jartzen dizkioten era guztietako zailtasunetara mugatzen da oraingoz. Londresen irekitzekoa da hirugarrena E. Jonez doktorearen gidaritzapean dagoen elkargoaren eraginez. Analitikarigaiak analizatuak izan ohi dira institutu horietan, beraientzako garrantzizko diren eremu guztietan irakaskizunak eskaini ohi zaizkie eta kasu errazetan beren lehen saioetarako onartuak direnean

esperientzia duten analitikari zaharragoen aholkularitza izan ohi dute. Bi urte hartu ohi dira era honetako prestakuntzarako. Jakina, denbora hori iraganik ere hasiberri bat da bat, eta inolaz ere ez maisu bat. Praktikaren eta kide gazteenek zaharragoak topatu ohi dituzten elkargoetan egin ohi dituzten iritzi-trukaketen bitartez eskuratu beharko falta zaiena. Analisi-jardunbiderako prestakuntza ez da, inolaz ere, ez erraza eta ezta sinplea ere; lana zaila da eta handia erantzukizuna. Baina ikasbide guzti hori egin eta bere burua analizatzen utzi eta gaur-gaurkoz inkontzientearen psikologiaz irakats daitekeena ulertu, sexu-bizitzaren jakintza ezagutu, psikoanalisiaren teknika neketsua eta interpretazio-arteak eta erresistentziekiko burruka eta transferentziaren bideraketa ikasi dituenak ez da ezjakin bat psikoanalisiaren eremuan. Nahasketa neurotikoen sendakuntzan hasteko prestaturik dago eta denboraren poderioz terapia-mota honi eska dakiokkeen guztia lortzeko gaiturik egon da.

VI

Psikoanalisi zer den eta hori arrakastaz gauzatu ahal izateko beharrezko liratekeen ezagutzak zeintzuk diren niri adierazten ahalegin handia egin duzu. Ederki! Ez dit kalterik ekarriko zuri entzun izanak. Ez dakit, ordea, zure argibide horien bitartez zenbateraino baldintzatu nahi izan naizun. Ezer berezirik ez duen gertakari baten aurrean aurkitzen naiz. Gaixotasun berezi bat da neurosia; analisisa, berriz, gaixotasun hori tratatzeko jardunbide berezi bat, medikuntza-espezialitate bat. Medikuntza-espezialitate bat hautatu duen sendagile bat, ohikoa denez, ez da agiriak dioen prestakuntza-eremura soilik mugatzen. Eta hori bereziki sendagile berezilariei bakarrik lana eskaintzen dien hiri batean lana egitera mugatu nahiko balu. Zirujau izan nahi duena zirujau-klinika batean lan egiten saiatzen da lehenik urte batzuz; era berean okulista, edo otorrinolaringologoa, e. a.; baita agian inoiz erakunde publiko batetik edo sendategi batetik askatuko ez den psikiatra bera ere. Gauza bera gertatuko da psikoanalitikariarekin ere; espezialitate berri hau hauta dezanak ere, bere ikasketak amaitu ondoren, zuk aipatu dituzun institutu horietako batean eman beharko ditu beste bi ikasturte, baldin eta horrelatsuko epe luze bat beharrezko bada behintzat. Eta horrelaxe konturatuko da elkarrekin psikoanalitiko batean lankideekiko harremanak zaintzeak bere onurak badituela ere, eta guztia bere bidetik joan da inolako eragozpenik gabe. Ez dut ulertzen, beraz, sendagile analitikari ezprestatuaren arazoa non egon daitekeen».

Ongi etorria izan bedi zuk agindu duzun guztia bete dezan sendagilea. Nik nire ikasletzat onartzen ditudan bostetatik lau aurrez ere sendagile dira. Utz iezadazu, ordea, sendagileek analisiarekiko dituzten harremanak nola gauzatu diren eta, aurrikus daitekeenez, nola guzatzuko diren ere adierazten. Sendagileek ez dute analisisa beraiei bakarrik dagokiela esateko eskubide historikorik; oso bestela, analisiari ahalik eta kalterik handiena egiten saiatu dira orain dela gutxi bitartean: isekarik arinenetatik kalumnia larrienetaraino joz horretarako. Hori iraganekoa dela eta ez duela etorkizuna zertan baldintzatu beharrik erantzunen didazu. Ados nago horretan zurekin, baina beldur naiz etorkizuna ez ote den zuk aurrean duzun bezalakoa izanen.

Onar iezadazu «petrikilo» hitzari dagokion zentzua ematen badiot eta ez legez legokiokeena. Sendagile bezala onartzen duen agiri ofizialik gabe gaixoak tratatzen dituenak da petrikiloa legearen arabera. Beste definizio bat nuke nik atseginago: ezinbesteko diren ezagutzarik eta esperientziarik gabe tratamendu bat bideratzen duena

da petrikiloa. Ikuspegi honetan oinarrituz beste iritzi hau ematera ere ausartzen naiz, sendagilez osatzen dela petrikiloen kopururik nagusiena analisiaren eremuan, eta hori ez Europako lurraldeetan bakarrik. Maiztasun handiz praktikatzen dute analisia horretarako prestaketarik izan gabe eta zer denik ere ulertzeke.

Alferrik esanen didazu ezin sinets dezakezula sendagileek hain axolagabeki joka dezaketenik. Agiri bat ez dela gogak ematen diona egiteko baimen bat, ezta gaixo bat ehizatzeke hegazti bat ere, sendagile batek hori badakiela esanen didazu agian. Nahiz eta inoiz erruren bat egin, beti gogo onez diharduela onartzeko eskubidea luke sendagileak.

Gertakariak hor daude; eta zuk uste bezala, argi daitezen nahi genduke. Sendagile batek beste eremutan inolaz ere jokatuko ez lukeen moduan psikoanalisarenean nola joka dezakeen argitzen saiatuko natzaizu orain.

Honako hau hartu behar da kontutan lehenik: psikoanalisirako prestakuntza moduan beharko lukeenaren ia aurkako prestakuntza jaso duela sendagileak medikuntza-eskolan. Objektiboki frogatu daitezkeen gertakari anatomiko, fisiko eta kimikoetara gidatu diote bere ardura, horiek zuzen ulertuz eta egoki birmoldatuz lor baitezake bere arrakasta sendagileak. Bizitzaren arazoaren eremura bideratu diote bere ikuspegia, natura inorganikoan ere frogagarri diren indarren jokoetatik ulergarri den heinera mugatuz guztia, guri ere orain artean ulertarazi zaigun modura. Ez zaio bizitzagertakariaren arima-eremurako inolako jakinminik sortarazi; ez dagokio medikuntzari goimailako prozesu psikologikoen azterketa; beste fakultate bateko aztergaia da hori. Arima-bizitzako funtzioen desbideraketek bakarrik arduratu beharko luke psikiatriak, baina jakin badakigu zein eratan eta nolako asmoz egin ohi den hori. Arima-bizitzako desbideraketetarako soin-baldintzapenak bilatzen saitzen da eta bestelako gaixotasun-moduak tratatu ohi dituen modu berean tratatu ohi ditu haiek ere.

Horretan arrazoi du psikiatriak eta medikuntza-prestakuntza ona da inolako zalantzarik gabe. Alde bateko ikuspegia duela aurpegiratzen zaionean, ordea, ezaugarri hori zein ikuspuntutatik destainatzat hartzen den ere adierazi beharko litzateke lehenik. Ikuspegi mugatu bat eskaintzen du jakintza bakoitzak berez, eta horrek, gainera, horrelaxe izan behar du, ze eduki, ikuspegi eta jardunbide zehatz batzuetara mugatzen baita bakoitza. Kontraesanekoa ere bada jakintza-arlo bat beste baten aurka jarri nahi izatea eta nik ez dut horretan parte hartu nahi. Fisikak ez dio baliorik kentzen kimikari, ezta hau ordezkatzeko ere, honek hura ordezkatu ezin dezakeen bezalaxe. Inkontziente animikoaren jakintza den neurrian alde bakarreko ikuspegia du psikoanalisia ezinbestean. Medikuntza-jakintzari ere ezin kenduko diogu, honenbestez, alde bakarreko ikuspegia eskaintzeko eskubidea.

Jakintza-medikuntzatik sendakuntza praktikara iraganaz bakarrik aurkitu ahal izanen da bila gabiltzan ikuspegia. Izaki konplexu bat da gaixorik dagoen gizakia; honako ohar hau ere egin diezaguke, ulertzeko hain zailak diren arima-gertakariak ezin ken daitezkeela bizitzaz dugun iruditik. Gogoko ez zaigun arazo bat gertatzen zaigu neurotikoa, sendakuntza-jardunerako, justizia bideratzeko eta zerbitzu militarretarako bezalaxe, harridura sortzen diguna. Baina hortxe dago, eta medikuntzari dagokio oso gertutik. Arazo horretaz arduratzeko eta arazo hori tratatzeko orduan, ordea, ez digute ezertxo ere eskaintzen medikuntza-ikasketek: hori, ezertxo ere ez. Guk gorputzeko eta arimako bezala bereizten ditugun gertakarien artean dauden barne-loturei esker, organoen biologiatik eta kimikatik abiatuz neurosien agerpen-eremuaren ezagutzarako eta baita tratamendurako ere bide berriak irekiko direneko eguna aurrikus daiteke

jadanik. Urruti dago egun hori oraindik; medikuntzaren ikuspegitik begiratzulergaitzak gertatzen zaizkigu, oraingoz behintzat, gaixotasun-egoera horiek.

Eramangarria litzateke jasotzen duten medikuntza-prestakuntzak neurosien eremuko edonolako orientabiderik ukatuko balie sendagileei. Hori baino gehiago egiten du: jarrera oker eta kaltegarria harrarazten die. Bizitzako arima-faktoreekiko inolako interesik eragin ez zaien sendagileek ez die inolako garrantzirik eskaintzen horrelakoei eta ez-zientifikotzat jotzen dituzte. Hori dela eta, ez dute aintzakotzat hartzen era horretako gaixotasunekin egin daitekeena, eta ez dute betetzen horietatik letorkiekeen betekizunik. Horrela, bada, ezikasiek hartu ohi duten begirunerik gabeko jarrera hartzen dute ikerkuntza psikologikoari dagokionean eta beraiei legokiekeen eginkizuna errazten dute modu horretan. Tratamenduaren beharrean aurkitzen dira neurotikoak, eta gaixoak direnez eta sendagilearengana jo dutenez, sendabide berriak saiatu beharra dago beti ere horiekin. Zertarako hartu, ordea, prestakuntza luze baten nekeak? Bestela ere aurrera jo ahal izanen da; nork daki analisi-institutuetan irakatsi ohi denak zer-nolako balioa duen! Gai honetaz zenbat eta gutxiago jakin, orduan eta ekintzazaleago bihurtzen dira. Errealitate hau benetan ezagutzen duena da apala, berak baitaki zein mugatua den ezagutza.

Ez da bidezkoa, beraz, zuk, ni lasaitzeko asmoz, analisi-berezilaritzaren eta beste medikuntza-espezialitateen artean egiten duzun konparaketa. Zirujauai eta oftalmologoei eskolak berak eskaintzen dizkie etengabeko prestakuntzarako aukerak. Kopuruz gutxi, urtez gazteak eta autoritaterik gabeak dira analisi-institutuak, eta medikuntza-eskolak ez die inolako onarpenik eskaini eta ez die arretarik eskaintzen. Bere irakasleei hainbeste sinestu beharraren beharrez bere iritzi propioa moldatzeko aukerarik izan ez duen sendagile gaztea, ordea, onarturiko autoritaterik ez dagoen eremu batean behingoz kritikari jokoa egiteko aukeraz baliatuko da.

Petrikiloa analitikari bihurtaraziko duen bestelako erlazorik ere badago oraindik. Beharrezko prestaketarik gabe begietako ebakuntzak egiten hasiko balitz, kataratak kentzeko ahaleginetan eta iridektomietan izango lituzkeen porrotek eta eskura gaixorik ez izateak berehala jarriko liokete amaiera bere ausardiari. Analisia praktikatzea, ordea, arriskurik gabea da beretzat horrekin alderatuz gero. Begietako ebakuntzek, batzuetan beste, dituzten ondorio egokiak direla eta, jendea gaizki ohiturik dago eta zirujauak sendatuko duela itxaroten du. «Nerbioetako sendagileak» gaixorik sendatzen ez badu ere, inor ez da horretaz harritzen. Nerbioetatik gaixoturik daudenekin bideratutako terapien arrakastak ez du inor gaizki ohitu, baina neurologoak gutxienez «ardura ugari eskaini die». Ezin egin daiteke gehiegirik horretan: naturak edo denborak langundu behar du. Izan ere lehenik hilekoa datorkio emakumeari, gero ezkontza, eta ondoren menopausia. Hau da, azken batean heriok bakarrik konpontzen du benetan guztia. Eta horixe baino ez du egin nerbioetako sendagileak bere gaixoekin; baina ezertan nabarmendurik gabe egin duenez, ezin dakioke inolako destainarik egin. Ez da sendagaiaz edo inolako aparatuz baliatu bere lanean; gaixoarekin hitz egin baino ez du egin, gaixoa zerbaitetaz komentzitzen saiatu da. Ezin ekar dezake gaitzik horrek, batez ere mingarriak edo hunkigarriak diren gertakariak aitatzen ez direnean. Irakaspide zehatzak alde batera utzi dituen sendagilea saiaturiko da, bai, analisia hobeagotzen, honek dituen letagin pozoitsuak apurtzen eta gaixoarentzat atsegingarria egiten. Eta gaitzerdi bere saioa horretan geratzen bada, ze nolabaiteko erresistentziak gauzaraztera ausartu bada eta horrelatsukoetan nola jokatu beharko litzatekeen ez badaki, gorrotagarria ere gerta baitaiteke guztia.

Honako beste onarpen honetara ere behartzen gaitu zuzentasunak, trebetasunik gabeko zirujauak baino arrisku gutxiago dakarkiola gaixoari prestakuntzarik gabeko analitikariaren jardunak. Arrisku bakar baterako daude aukerak: inolako etekinik gabeko gastuetara bideraturik egon dela gaixoa eta sendatzeko aukerak murriztu edo okertu egin direla. Horretaz gain, terapiaren izen ona desitxuratu egingen da. Hau guzti hau ez da desiragarria, baina ezin alderatu da petrikilo zirujauaren labanak dakartzakeen arriskuekin. Eta nik uste dudanez, analisisiaz oker baliatu izanagatik ere ez lirateke okerbideratze larri eta iraunkorrak sortuko gaixotasun-egoeran. Erreakzio desatseginak berez desagertuko dira epe labur baten ondoren. Gaixotasunak bizitzan sortarazi dituen traumen ondoan ez dute inolako garrantzirik sendagileak emaniko tratu txar eskasek. Ahalegin terapeutiko desegokiak ez diola ezer onik ekarri gaixoari, besterik ez.

«Analisi-eremuko sasisendagileaz egin duzun deskribapena inolako etenik egin gabe entzun dizut, ez ordea sendagileen elkartearikiko aurkakotasun-sentipena nagusitzen zaizulakoaren inpresioa jaso gabe, horretarako dauden argibide historikoetarako bidea ere zeuk erakutsi didazularik. Baina honetan bat nator zurekin: analisirik bideratu beharko balitz, prestakuntza sakon bat izan duten pertsonak gauzatu beharko lukete hori. Eta zure ustez, analisiaren eremura sartzen diren sendagileek ez al dute ahalegin guztia egingen prestakuntza hori denboraz eskuratzen?»

Ni ezezkoan nago. Medikuntza-eskolak gure irakas-institutuarekiko duen jarrera aldatzen ez duen bitartean, handiegia izanen da sendagileek bideak errazten saiatzeko sumatuko duten joera.

«Prestakuntzarik gabekoek bideratutako analisiari dagokion arazoari, dirudienez, ez diozu zuzen-zuzenean ekin nahi. Suposatu beharrean aurkitzen naiz, analisisia bideratu nahi duten sendagileak, zure ustez, kontrolatu ezin direnez, eta nolabait zigor moduan eta mendeku apur batez, analisisia bideratzeko monopolioa kendu egin beharko litzaieke sendagileei eta sendakuntza-jarduera horretarako ateak prestakuntza berezirik gabekoei ere zabaldu».

Ez dakit nire arrazoiei zuzen antzeman diezun ala ez. Jarrera ez hain alderdikoi baten testigutza aurkezteko aukera ere izanen dut, agian, geroago. Baina honako eskakizun hau azpimarratzen dut nik, eginkizun horretarako prestakuntza berezi baten bidez gaitasuna lortu izan ez duenak ezin bidera lezakeela analisisia. Pertsona hori sendagilea izan edo ez, ez da oinarritzko arazoa niretzat.

«Zeintzuk proposamen dituzu, bada, egiteko?».

Oraindik ez naiz horretaraino iritsi, eta iritsiko naizenik ere ez dakit. Beste arazo bat aztertu nahi nuke zurekin, eta sarrera moduan beste puntu bat aitatu. Esaten denez, orokorrean analisiaren praktika galerazi nahi diete prestakuntzarik gabekoei dagokien agintariekin sedagile-elkargoaren eskariz. Prestakuntza egoki bat duten eta praktikaren bidez ederkitxo trebatu diren psikoanalisi-elkarteko sendagile ez diren kideak ere joko lituzke debeku horrek. Debekua emango balitz begira nolako egoera sortuko litzatekeen: praktika bat, ziurtasun osoz, oso era egokian gauza dezaketen pertsona batzuei oztupoak jarriko litzaizkieke, modu horretako ziurtasunik eskaintzen ez duten beste batzuei horretarako askatasuna eskuratuko litzaiekeen bitartean. Ez da hau xelegi batek lortu nahiko lukeen emaitza. Hala eta guztiz ere, arazo hau ez da larria, ezta konpongaitza ere. Ondorio txar handiegirik jasoko ez lukeen pertsona-talde mugatu bat baino ez litzateke arazoa. Alemania aldera joko lukete seguruenik ere, bertan, legezko debekurik ez dagoenez, beren praktikarako baimena epe laburrean lortu ahal izanen luketelarik. Horretara behartu nahiko ez balira eta legearen gogortasuna arindu nahiko balitzaie,

erraztasunez lor daiteke hori aurrez gertaturiko antzeko kasuetan bezala jokatzuz. Austria monarkikoan behin eta birritan gertatu izan denez, zenbait petrikilo ospetsuri halako eremu batzuetan medikuntzarako «ad personam» baimena eman ohi zitzaion, bere benetako gaitasunaz inolako zalantzarik ez zegoenez. Nekazaritza giroko petrikiloak izan ohi ziren gehienetan, eta garai hartan hain ugariak ziren artxidukesa haietako batengandik etorri behar zuen horretarako gomendioak; baina hiritarrentzat ere posible izan behar zuen horrek berezilarien iritziaren erako beste arrazoiren batean oinarrituz gero. Garrantzi handiagoa luke era horretako debekuak Vienako analitikarien institutuarentzat, ezin bereganatu ahal izango bailituzke medikuen taldeetako ez liratekeen kideak beren prestakuntzarako. Beste tokietan askatasunez jardun dezakeen lan intelektualaren norabideetako bat zapalduko litzateke horrela beste behin gure aberrian. Neu naiz azkena legez eta aginduez epai bat emateko gaitasuna neure buruarentzat onartzeko orduan. Baina gehiegikeriak ikusten ditut: petrikiloez dagoen legedia azpimarratzeak ez du esan nahi Alemaniako baldintzekin parekatzea bilatzen denik, gaur geroz ozenki nahi litzatekeen moduan, eta legedi hori psikoanalisiaren eremura aplikatu nahi izatea anakronismo hutsa da, ze legedi hori eman zenean ez baitzen analisirik ezagutzen, ezta gaixotasun neurotikoen izaera berezia ere.

Niri garrantzizkoagoa iruditzen zaidan arazoa aztertzerantz noa orain. Agintetzari menpekotu beharko litzaiokeen gaia ote da psikoanalisiaren praktika, ala ez ote litzateke egokiagoa bere garapen naturala egiten uztea? Ez dut erabakirik hartuko hemen orain, baina arazo hau zuri zure gogoetarako aurkezteko ausardia hartuko dut. Benetako furor prohibendi bat nagusitu da aspaldidanik gure aberrian; guk guztiok dakigunez, inolako emaitza egokirik ekarri ez duen babespenetarako, debekuetarako eta eskuhartzeetarako joera bat. Eta antza denez, Austria errepublikar berri honetan ere gauzak ez dira asko aldatu. Nire iritziz, orain arduratzen gaituen psikoanalisiaren kasuaz zure erabakia hartzerakoan baduzu zuk zer esanik; ez dakit, ordea, joera burokratikoaren aurka jartzeko gogorik edo eraginik izanen duzun. Dena den, ez dizut ezkutatu gure arazo honetaz dudan balio handirik gabeko nire gogoeta. Nire iritziz, legediaren indarra ahultzen dute gehiegizko aginduek eta gehiegizko galerazpenek. Ikusi ere ikus daiteke: galerazpenak gutxi direnean arduraz bete daitezke, baina edonora joanik galerazpenez inguraturik sumatzen badu batek bere burua, aintzakotzat ez hartzeko tentaldia sumatzen da formalki orduan. Beren jatorriagatik ez sakratutasunezko, ezta erabatekotasunezko izaerarako eskubidea dutela berez legeek eta aginduek, oso maiz beren edukia eznahikoa eta legeekiko gure sentiberatasunarentzat erasokor direla edo izatera iristen direla epe bat iragan orduko, eta gizartea gidatzen duten pertsonen geldotasuna kontutan harturik lege desegoki horiek zuzentzeko beroriek kontzienteki haustea beste aukerarik ez dela gelditzen ulertzeko prest egoteak ez du esan nahi, inolaz ere, bat anarkista denik. Legeekiko eta aginduekiko begirunea indartu nahiko balitz bidezkoa litzateke honako aholku hau, betearazteko eta beren hausketak zaintzeko zail gertatuko litzatekeenik ez bedi promulgatu. Sendagileek praktikan jarritako analisiak esan duguna errepika daiteke hemen ezikasiek bideratutako benetako analisiak ere, legediak galarazi nahi lukeen horrexetaz, alegia. Analisiaren prozesua ia ikustezina da; ez du sendagairik erabiltzen, ezta aparailurik ere; elkarrizketaz eta komunikazio trukaketaz osatzen da; ez da gauza erraza izanen ezikasi bati «analisi» praktikatzeko ari dela frogatzea, baldin eta berak aholkuak eta argibideak baino ez dituela eskaintzen eta adore-laguntza behar duen bati giza eragin sendagarria sumarazten baino ez dela ahalegintzen badio; eta sendagileak ere hori inoiz egiten duela eta, ezin galeraziko zaio berari. Edapen handia dute ingeles hizkuntzako lurraldeetan «Christian Science» delakoaren praktikek; kristau irakaspedeetara joz bizitzeko gaitza dialektikoki ukatzeko modu bat. Jardunbide hori

giza izpirituaren nahasketa tamalgarri bat baino ez dela baieztatzeko ez dut inolako zalantzarik; baina nor ausartuko litzateke hori galaraztera eta zigortzera Ipar Ameriketara edo Ingalaterran? «Zoriontasuna norberak bere modura lortzen» saiatzea galerazterainoko ausardia sumarazten dieten zorionerako bidean dabiltzanaren ziurtasuna ote dute, bada, gure agintariek? Eta beren kabura utzitako asko arriskuan eta beren buruari kalte egiteko egoeran egon daitezkeela onarturik ere, ez ote luke zuzenago jokatu agintaritzak ukiezinak diren lekeen eremuak zehaztuko balitu, eta gainerantzekoan, berari dagokionera mugatuz, gizakien heziketa esperientziaren eta elkarreraginaren esku utziko balu? Munduan hain da berria psikoanalisiak, gizateriaren talderik handienak hain gutxi daki horretaz, eta horrekiko zientzia ofizialak duen jarrera hain da zalantzakorra, ze bere garapenean dagoeneko legezko aginduz esku hartzen hasteko azkarregi dela uste baitut. Utz diezaiegun gaixoei beraiei ikasi ez duten pertsonengan laguntza animikoa bilatzea beraientzat kaltegarria dela aurkitzen. Eskain diezazkiegun horretaz argibideak eta jar ditzagun jakinaren gainean, eta galarazi beharra ezabatuko dugu horrela. Honako letrero motz eta adierazgarria daramate tentsio altuko kableek Italiako bide bazterretan: Chi tocca, muore. Paseatzaileek zintzilik dauden kableekiko izan dezaketen jokabidea kontrolatzeko nahikoa da hori. Gehiegizkoa eta iraingarria ere bada horri dagokion alemanezko hitz-jario ohartarazlea: erabat debekaturik kableak ukitzea, bizitzarentzat arriskugarria delako. Zertarako debekua? Bere bizia maite duenak berak debekatzen dio bere buruari, eta bere buruaz beste egin nahi duenak ez du horretarako baimenik eskatzen.

«Baina badira ezikasiek praktikatutako analisisiaz aurriritzi moduan aurkez daitezkeen kasuak ere. Horiei hipnosiaren praktika eta oraintsu berriki ezkutukeriaren praktika eta helburu horrekin sortutako elkarteak galerazten dituzten debekuez ari natzaizu».

Ezin esango dut erabaki horien miresle bat naizenik. Adimen-askatasunari kalte egiten dion aginte polizialaren gehiegikeria bat da azken hori inolako zalantzarik gabe. Direlako ezkutuko gertakarietan asko sinesten dudalakoaren susmotik urrutitxo nago ni, baita horien onarpena nahi dudalakoarenetik ere; itxuraz ezkutuko den mundu horrekiko pertsonak duten jakinmina, ordea, ez da era horretako debekuz itoko. Oso bestela, oso kaltegarria den zerbait ere egin ahal izan da horrela: aukera zanpatzaile horietaz iritzi askatzaile bat moldatzeko bidea itxi jakinmin inpartzialari. Baina Austriarako bakarrik da baliozkoa hori ere beste behin. Ikerkuntza parapsikologikoak ez du legezko oztoporik aurkitzen beste lurraldeetan. Hipnosiaren egoera ez da psikoanalisiarena bezalakoa. Arima-egoera eznormal bat eragiten du hipnosiak, eta erakusketa soilerako baliatzen dira horretaz ezikasiak. Hasieran hainbesteko itxaropenak sortu zituen hipnosi-terapiak bere hartan jarraitu izan balu, gaur analisiak dituen baldintza berdintsuak sortu izanen lituzke berak ere. Horretaz aparte, analisiaren etorkizunerako aurrekari bat suposatzen du, beste zentzu batean, hipnosiaren historiak. Neuropatologiaren eremuko irakasle gazte nintzenean, hipnosiaren aurkako borroka lehiatsuan saiatzen ziren sendagile guztiak: iruzur bat zela zioten, deabruaren arrisku handiko sorkari bat. Gaur, ordea, beren monopolio bihurtu dute hipnosia, eta ikerkuntzabide moduan inolako lotsarik gabe baliatzen dira horretaz eta zenbait neurologorentzat horixe da terapiarako baliabiderik nagusia.

Baina jadanik adierazi dizudanez, ez da nire asmoa, analisiaren gaiari dagokionez, legezko araubidea ala jarduteko askatasuna den egokiena erabakitzeko proposamenak egitea. Badakit printzipio kontua dela hau, eta beronen konponketan arrazoibideek baino garrantzi handiagoa jokatu dute erabakia hartu behar duten pertsonen joera eta

nahiek. Nire ustez laissez faire bezalako politika baten aldeko arrazoiak laburbilduak ditut jadanik. Baina beste era bateko jokabidea hartuko balitz, eskuhartze aktibo baterako politika alegia, ez nuke nahikotzat joko sendagile ez direnei analisiaren praktika galaraziko lieken debeku gerarazle eta bidegabeko bat. Zerbait gehiagoz kezkatu beharra legoke orduan: analisia praktikara eraman nahi luketen guztientzat hori zein baldintzetan gauza daitekeen erabaki beharko litzateke, analisia zer den eta bere praktikarako zein eratako prestakuntza eskatu beharko litzatekeen adieraziko lukeen agintaritza bat sortuz eta analisirako prestatzeko aukerabideak eraginaz. Edo gauzak daudenean utzi, edo ordena eta argitasuna sortu, baina inolaz ere ez erabat desagokia bilakatu zen agindu batetik mekanikoki bideratutako debeku soil batez egoera konplexu batean era zakarrean esku hartu.

VII

«Bai, baina sendagileak, sendagileak! Ezin eraman zaitut eskuartean dugun gure benetako gaira. Ihes egiten didazu behin eta berriz. Arazoa hauxe baino ez da, analisia praktikatzerakoan lehentasuna ez ote zaien sendagileei onartu behar, hori bai, zenbait baldintza bete ditzatenean beti ere. Sendagileak ez baitira, gehiengoan behintzat, analisiaren eremuko petrikiloak, zuk aurkeztu nahi izan duzun eran. Zororrek diozu zure jarraitzaileetako eta ikasleetako gehienak sendagile direla. Eta jakinarazi didatenez, ezikasiek praktikatutako analisiari dagokion kontu honetan horietariko gehiengoa ez dator bat zure ikuspuntuarekin. Suposa dezaket, hori bai, prestakuntza egokiari dagokion puntuan eta beste batzuetan zure ikasleak ere zure iritzi berekoak izanen direla, eta hala eta guztiz ere analisiaren praktika ezikasiei debekatzea jarrera horrekin bateragarri ikusten dutela. Hori horrela al da? Eta baiezkoan, nola argi dezakezu hori?».

Ikus dezakedanez, zuzen informaturik zaude: hori horrela da. Ez guztiak, baina nire lankideetarikoa talde handi bat ez dator bat nirekin arazo honetan; neurotikoen tratamendu analitikoa sendagileen esku bakarrik uztekoaren aldeko dira gehienak. Ikus dezakezunez, gure artean ere iritzi ezberdinak ager daitezke. Nire jarrera ezaguna da, baina ezikasiek praktikatutako analisiaren kasuko iritzi-ezberdintasun horrek ez du gure adostasun nagusia hausten. Nire ikasleen jarrera hori nola argi diezazukedan? Ziurtasunez nik neronek ere ez dakit; pentsatzen dudanez, taldekotasun kontzientziaren indarra izan daiteke. Nirea ez bezalako beste garapen bat izan dute horiek, lankideekiko aislamentuan ez dira eroso sentitzen eta, beren lanbidea dela eta, eskubide osoz onartuak izatea lukete gogozko; jasankortasun horren ordainetan opari bat eskaintzeko prest daude, horrek bizitzarako duen garrantziaz jabeturik badaude ere. Agian gauzak ez dira horrela; asmo onartezinez kulpitzea ez ezik miopia berezi bat dutela onartzea ere adieraziko luke horiei konkurrentzia-arrazoiak aurpegiratzeak. Beste sendagile batzuk analisia onartzeko prest daude beti, eta dituzten gaixoak beste sendagile batzuekin edo ezikasiekin banatu beharrak ez luke garrantzi handiegirik beren egoera materialerako. Agian beste zerbait ere kontutan hartu beharrekoa litzateke hemen. Analisiaren praktikan, ezikasiekin alderatuz, sendagileei abantaila batzuk ziurtatzen dizkieten zenbait aldagairen eraginpean joka dezakete nire ikasle hauek.

«Abantaila ziurtatu beharra? Hona, bada, arazoa! Abantaila hori onartzen duzu, beraz, azkenik? Arazoa konpondurik legoke horrela».

Onarpen horrek ez dit arazorik sortzen. Zuri zera erakus diezaizuke horrek, abantail hori dela eta ez nagoela zuk uste bezain itsuturik. Baldintzapen horiek aitatu baditut, horien eztabaidak beste azterketa teoriko batzuk ezinbesteko egiten dituelako izan da hori.

«Zer adierazi nahi duzu orain?».

Diagnosiaren arazoa lehenik. Dirlako ondoez neurotiko horietako batek jotako gaixoa sendabide analitiko tratatu nahi bada, kasurako terapia hori egokia dela ziurtatu beharko litzateke lehenik, ziurtasun hori lor daitekeen heinean behintzat, hau da: bide horretatik joz gaixoari lagun dakiokela. Bere ondoeza neurosia bat denean bakarrik gerta daiteke hori.

«Suposatu beharko nukeenez, beraz, kexuak agertzeko egiten dituzten adierazpenetan, sintometan ezagut daiteke hori?»

Korapilo berri bat sortzen zaigu hemen. Ezin antzeman daiteke beti ziurtasun osoz. Neurosi baten antza aurkez dezake kanpoaldetik gaixoak, baina beste zerbait ere izan daiteke: sendaezina izanen den burutiko eritasun baten hasiera, burmuinen desegite baterako prestakuntza. Ezberdintzea —diagnosi diferentzial bat egitea— ez da erraza gertatzen beti, ezta aldi bakoitzean berehala egin daitekeena ere. Sendagileak bakarrik har dezake horrelatsuko erabaki baten erantzukizuna. Eta esan bezala, ez zaio zeregin erraza gertatuko beti. Larritasunik gabeko itxura azal dezake denbora luzez gaixotasunak, azkenik bere izaera larria erakuts dezanaino. Neurotikoen ohiturazko kezka izan ohi da, gainera, burutik eginda bukatuko ote duten. Horrelatsuko kasu batean sendagileak, denbora luzez, iritzi okerra moldatu izan badu edo argitasunez ikusi ez badu, horrek ez du berez garrantzi handiegirik, ez baita kalte berezirik egin, ezta gehiegikeriarik bideratu ere. Horrelatsuko eri bat analisisiaz tratatu izanak ez lioke kalterik egin izanen gaixoari, baina inolako baliorik gabekoa gertatu izanen litzateke. Eta tratamenduaren amaiera txarra analisiari egotziko lioketen pertsona ugari aurkitu ahal izanen lirateke. Horretarako arrazoirik gabe ziurki, baina horretarako aitzakiarik ez ematen saiatu beharko litzateke beti.

«Adoregabetzailea dirudi horrek guztiak, eta neurosien sorreraz eta izaeraz adierazi didazun guztia baliogabetzen du gainera».

Inolaz ere ez. Beraiekiko zerikusia duten guztientzat, baita analitikariarentzat ere, neurotikoak gogaikarriak eta kezagarriak direla frogatuko luke horrek berriro ere. Nire adierazpenak adierazpide egokiagoz jantziko banitu, zure nahasmenean ordena jartzea ere lortuko nuke agian. Zuzenagoa ere izanen litzateke, seguru asko, orain kezkatzen gaituzten kasuei dagokienean zera esanen bagenu, benetan neurosi bat garatu dutela, baina hori ez dela psikogenoa, somatogenoa baino: horretarako arrazoiak soinean daudela, ez ariman. Uler al diezaidakezu?

«Ulertu, bai, uler dezaket; baina ezin batera dezaket bestearekin, psikologikoarekin».

Hori ere egingarri da, ordea, baldin eta substantzia biziaren nahasmenduak kontutan hartzen badira. Non aurkitu dugu neurosi baten esentzia? Honako honetan: kanpoaldeko munduaren eraginez elikatutako arima-aparatuaren goi-mailako antolakuntza, nia, ez dela zeraren eta errealtatearen arteko bitartekaritza-eginkizuna zuzen betetzeko gauza, zeraren grina-osagaien erremuetatik erretiratu egin dela bere ahultasunean, eta trukean ukapen horren

ondorio moduan mugapenak, sintomak eta emaitzarik gabeko erreakzioak onartu beharrean aurkitzen dela.

Hautzarotan gertatu izan da gu guztiongan erregularitasunez era horretako ahuleria bat, eta horretxegatik dute hainbesteko garrantzia geroagoko bizitzarako lehen hautzaroko bizipenek. Hautzaro horretako neke berezipean —Harri-Aroko lehen gizakietatik gaur egungo kultura dutenetarainoko bide ikaragarri hori oso urte gutxitan egin beharra dugu guk, eta baita bitarte horretan epe sexual goiztiarreko irriketatik babestu beharra ere— errepresioetara joz aurkitzen du bere ihesa gure niak eta hautzaroko neurosia bat sortzen da bide horretatik, zeinen ondorioz geroago heldu aroan agertuko den nerbio-eritasunetarako joera bat gauzatzen den. Hazitzen ari den izaki hori zorteak nola tratatuko duen da guztiaren gakoa. Bizitza gogorregia eta grinen eskakizunen eta errealtatearen debekuen arteko distantziak handiegiak badira, porrot egin dezake niak bi horien arteko adostasuna lortzeko ahaleginetan, hautzarotik dakarren joerak eragozten dion neurrian horretarako arriskua handiagotu egiten delarik. Errepresioaren gertakaria errepikatzen da horrela berriro: niaren kontrolpetik ihes egiten dute grinek, erregresio-bidea hartuz beren ordezkio asepena lortzen dute eta nia gaixoa neurotiko bilakatzen da inolako babesik gabe.

Arretaz kontutan har dezagun: niaren antolaketaren indar erlatiboa da honetarako guztirako puntu nagusi eta garrantzitsuena. Erraz gertatuko zaigu orduan gure etiologi ikuspegia osatzea. Nerviositateko arrazoi bezala, nolabait esateko, ezagunak zaizkigu hautzaroko niaren ahuleziak, sexu-grina goiztiarrak gainditu beharra eta hautzaroko kasualitatezko bizitapenak. Hautzaroko beste une batzuek ere ez ote dezakete beren zeregina jokatu honetan guztian? Adibidez, hasiera beretik nia ahalegin handietara behartzen duten zeraren grina-bizitzako jatorrizko indarra eta menperagaiztasuna? Edo ezagunak ez diren arrazoiengatik niak izan duen garapen ahul berezia? Une horiek, jakina, esangarritasun etiologikoa izanen dute, eta zenbaitetan esangarritasun berezia gainera. Zera-ren baitako grina-indarra kontutan hartu beharko dugu beti; gehiegi garatu denetako kasuetan ez du etorkizun handiegirik gure terapiak. Nia-ren garapena eragotz dezaketen arrazoiak gutxiegi dakigu oraindik. Nagusiki oinarritzat konstituziozko izaera duten neurosi-kasuak genituzke horrelakoak. Horrelatsuko konstituziozko, jatorrizko izaerazko joerarik gabe zailtasunez moldatuko lirateke neurosi-egoerak.

Nia-ren ahultasun erlatiboa baldin bada neurosiaren sorrerarako unerik erabakigarriena, geroagoko soin-eritasun batek ere neurosi bat sortarazi ahal izanen luke, baldin eta aldi berean nia-ren ahuleria bat ere bideratuko balu. Eta hori kasu ugartan eman ohi da. Zera-ren grina-bizitzan bere ondorioak izan ditzake era horretako gaixotasun batek eta grinen idarra nia-ren kontrolgaitasunetatik gora jaso. Horrelatsuko gertakariak hilekoaren nahasketaren eta menopausiaren itxura har dezakete normalki emakumarengan. Edo soin-eritasun orokor batek, baita nerbio-sistema zentralaren gaixotasun organiko batek ere, arima-aparatuaren elika-baldintzak erasotzen ditu, bere funtzioak mugatzera eta bere eginkizun xumeenak —nia-ren antolakuntzaren mantenua litzatekeelarik horietako bat— erabat uztera behartuz. Neurosiaren antzeko irudia, gutxi gora-behera, sortzen da horrelatsuko kasu guztietan; mekanismo psikologiko berdina du beti neurosiak, baina, ondotxo dakigunez, oso etiologia anizkorra, baita oso konplexua ere.

«Atsegingarriagoa gertatzen zatzaizkit orain. Sendagile baten antzera hitz egin duzu behingoz. Neurosiaren moduko medikuntza-arazo konplexu bat sendagileek bakarrik trata dezaketela dioen zure onarpenaren zai naukazu orain».

Zure oraingo ekitaldian erratu egin duzula aitortu behar dizut tamalez. Patologia apur bat baino ez da izan guk adierazi duguna; terapia-bide bat da, ordea, analisiarena. Onartzen dut; ez, exijitzen dut, analisia kontutan hartzekoa den kasuetan sendagile batek burutu behar duela, lehenik, bere diagnosia. Gure ardura eskatzen duten neurosietako kopuru handi batek izakera psikogenoa du zorionez eta patologikoki ez du inolako zalantzarik planteiatzen. Sendagileak hori horrela dela behin frogatuz gero, analitikari ezikasiaren esku utz dezake kasuaren tratamendua. Horrela jokatu izan da beti gure analitikari-elkarteetan. Sendagile diren eta ez diren kideen arteko harreman estuei esker ia erabat saihestu ahal izan dira beldur izateko ziren eragozpen guztiak. Analitikariari sendagilearen laguntza ezinbesteko egiten dion beste kasu bat ere bada. Neurosiarekin loturikoak diren ala horrekin zerikusirik ez duten arazo organiko oztopogarri huts diren interpretatzerakoan zalantzak sortarazten dituzten sintomak —ia beti gorputzekoak direnak— ager daitezke analisi-tratamendu bitartean. Sendagileari utzi behar zaio erabakitzen horrelakoetan.

«Analisi bitartean ere ezin utz dezake, beraz, sendagilea alde batera analitikari ezikasiak? Honen baliaigarritasunaren aurkako beste arrazoi bat».

Ez, aukerabide horretatik ezin molda daiteke ezikasiek praktikaturako analisiaren aurkako argumentaziorik, sendagile analitikariak berak ez bailuke beste era batean jokatuko kasu berean.

«Ez dizut ulertzen hori».

Tratamendu bitartean sintoma zalantzakorrak agertzen direnean analitikariak ez lukeela bere iritzien arabera jokatu behar dioen arau bat ere bada; oso bestela, analisiarekin zerikusirik ez duen beste sendagile baten, adibidez internista baten esku utzi beharko lukeela diagnosia, nahiz eta analitikaria bera sendagile izan eta bere ezagutzetan konfiantza izan oraindik.

«Nolatan arautu daiteke niri alferrikakoa iruditzen zaidan zerbait?».

Ez da alferrikakoa; eta arrazoi bat baino gehiago dago horretarako. Lehenik eta behin: tratamendu organikoak eta psikikoak ezin bidera daitezke zuzen esku beraren gidaritzapean. Bigarrenik: transferentziak sortzen dituen erlazioak direla eta, ezin aholka daiteke analitikariak berak gaixoaren soin-azterketa egin dezanik. Eta hirugarrenik: bere interes guztia, indar handiz, aldagai psikikoetan zentratzen duenez, analitikariak badu bere inpartzialtasunaz zalantzak izateko nahikoa arrazoi.

«Argi dakusat orain ezikasiek praktikaturako analisisaz zuk duzun jarrera. Analitikari ezikasiak ezinbestekoak direla diozu burugogor. Eginkizun horretarako prestakuntzarik gabe daudela ezin zalantzan jar dezakezunez, horien existentzia zuritu dezaketen aitzakiak eta justifikapenak denak batera nahasten dituzu zuk. Inolaz ere ezin uler dezaket zertarako behar diren bigarren mailako terapeuta izanen liratekeen analitikari ezikasiak. Jadanik analitikari izateko prestakuntza jaso duten ezikasi gutxi horiek alde batera utziko ditut, baina horrelako berririk ez litzatekeela prestatu behar uste dut, eta sendagile ez denik ez dutela prestakuntzarako onartuko agindu beharko lukete irakas-institutuek».

Zurekin bat nentorke baldin eta zera frogatuko balitz, jokoan dauden interes guztien onerako izanen litzatekeela mugapen hori. Utz iezadazu interes horiek hiru motatakoak direla adierazten: gaixoenak, sendagileenak eta —last not least—

etorkizuneko gaixo guztien interesak kontutan hartuko lituzkeen jakintzarenak. Aztertuko al ditugu hiru puntu horiek elkarrekin?

Gaixoari berdin zaio analitikaria sendagile den ala ez jakitea, baldin eta tratamenduaren hasieran eta tratamendu bitartean sor daitezen gertakarien arabera eskatzen den sendagile batek burututako diagnosiaren bitartez bere egoeraz iritzi okerra moldatzeko arriskua saihesten bada. Gaixoarentzat analitikaria beretzat konfidantzagarria egiten duten nortasun-ezaugarrien jabe izan dadila da garrantzizkoena, eta bere eginkizuna zuzen betetzeko gaitzen duten ezagutzen, ikuspegiak eta esperientziaren jabe izan dadila. Pentsa daiteke, bai, analitikariarekiko begiruneari kalte egingen litzaiokeela baldin eta gaixoak sendagile ez dela eta hainbat kasutan sendagile baten laguntzaren beharrean aurkituko dela baleki. Jakina, analitikariaren prestakuntzaren berri eman izan diogu beti gaixoari, eta beti frogatu ahal izan dugunez, taldekidetzazko aurriritziek ez dute inolako oihartzunik gaixoengan eta edozein tokitatik eskaintzen zaie sendakuntza onartzeko prest daude beti; sendagileen kidegoak aspalditxotik dakien kontua da hori, beren aurkako eraso iraingarri bezala hartua izan bada ere. Gaur egun analisia praktikan jartzen ari diren ezikasiak ez dira pertsona arrunt-arruntetakoak, baizik eta prestakuntza akademikoa dutenak: filosofian doktoradutza dutenak, pedagogoak eta esperientzia handia duten nortasun bereziko emakume bakar batzuk. Analitikarigai guztiek analisi-institutu batean jasan behar duten azterketa da norbait jarduera zorrotz honek eskatzen duen gaitasunaren jabe den ala ez jakiteko biderik egokiena.

Medikuntzako interesaren inguruan orain. Ezin sinets dezaket psikoanalisi medikuntzan txertatuz ezer irabazten denik. Bost urteko iraupena dute jadanik medikuntza-ikasketek eta beste seigarren bat behar da azken azterketak burutu ahal izateko. Urte pare bakoitzeko ikasleentzako eskakizun berriak agertzen dira eta horiek bete ezik eskasegitzat joko litzateke etorkizunerako duten prestakuntza. Oso neketsua da medikuntza-lanbiderako bidea, eta bere praktika ez da ez betegarria eta ezta abantailagarria ere. Sendagileak gaixoaren arima-eremuaz jakinaren gainean egon behar duela dioten eskakizun zuzena onartzen bada eta medikuntzarako prestakuntzari analisi-eremurako sarrera bat gehitzen bazaio, ikasi beharreko edukien kopurua gehitu egingo litzateke eta, ondorioz, ikasturteak luzatu egingo lirateke. Sendagileak psikoanaliarekiko dituzten eskakizunetatik letorkeen ondorio honekin ados egongo liratekeen ala ez, nik ez dakidan kontua da. Ezinbestekoa da, ordea, ondorio hori. Eta hau guztia sendagileak erreklutatzen direnako estamentuentzat baldintza materialak hainbeste okertu diren garaietan gertatzen denez, gaztedia ahalik eta azkarren bere soldata irabaztera beharturik aurkitzen denean gainera.

Ez duzu nahiko, noski, sendagiletzarako prestakuntza analisi-prestakuntzarakoarekin zailterik, eta agian egokitzen joko duzu etorkizuneko analitikariak, medikuntza-ikasketak amaitu ondoren, prestakuntza egokiaz kezka daitezela. Esan ere esan dezakezu, horrela sortutako denbora-galerak ez duela inolako garrantzirik, arimaren eremuko laguntza-emaitezarako aurrebaldintza litzatekeen gaixoaren konfidantzarik ez bailuke izanen, inolaz ere, hogeita hamar urteko gizon gazte batek. Honako erantzun hau eman lekiok horri, gorputz-gaixotasunetarako sendagile prestatu berriak ere ez lukeela begirune handiegirik sortuko bere erienengan, eta praktikari esperientziadunen gidaritzapean eman dezakeela bere denbora analitikari gazteak poliklinika psikoanalitiko batean.

Garai latz hauetan inolako justifikazio ekonomikorik izanen ez lukeen indar-alferrikaltze baterako egiten duzun proposamen horrek kezka handiagoa sortzen dit niri.

Egia da analisirako ikasketek medikuntzarako prestakuntzaren markoa gainartzen dutela, baina ez dute hau barnehartzen, honek ere haiek barnehartzen ez dituen bezalaxe. Goi mailako eskola psikoanalitiko bat sortu beharko balitz inoiz —gaur egun amets hutsa badirudi ere—, medikuntza-fakultateetan irakasten den gai ugari irakatsi beharko litzateke bertan: beti ere gairik garrantzizkoena izanen litzatekeen inkontzientearen psikologiarekin batera biologiarako sarrera bat, bizitza sexualari dagozkion ezagutzak sakontasun handiz, psikiatriaren eritasun-ikuspegiekiko familiaritasuna. Sendagilearentzat ezezagunak diren eta bere jardueran topatuko ez dituen beste gai batzuek ere izanen lukete beren garrantzia analisi-irakaskuntzetan: kulturaren historia, mitologia, erlijioen psikologia eta literatur jakintzak. Bere materialaren kopuru handi bat ulertu ezinik aurkituko litzateke analitikaria eremu horietako prestakuntza egoki bat gabe. Medikuntza-fakultateetan irakasten den gai-kopuru nagusiak ez lioke batere lagunduko bere eginkizunetan. Horrela tarso-hezurreko junturei, hidrokarburoen moldakuntzari, burmuinetako nerbioen bideei, baziloen bitartez sortutako eritasunez eta hauen sendakuntzaz eta sero-erreakzioez eta plasmaren berrikuntzaz medikuntzak aurkitu duenari dagokienez, berez balio handiko ezagutzak badira ere, zera esan daiteke, beretzat ez dutela inolako garrantzirik, berari ez dagozkionak direla, ez neurosia bat ulertzen eta ezta sendatzen ere lagunduko diotela zuzen-zuzenean, eta bere jarduerak lehiatsuki eskatzen dizkion adimen-gaitasunak trebatzeko orduan ere ez zaizkiola baliagarri izanen. Ez bedi esan, sendagileak beste espezialitate batean diharduenean —odontologian, adibidez— bezelatsukoa dela egoera. Kasu horretan ere azterketetarako prestatu behar izan zuen askok eta askok ez dio gehiegi lagunduko, eta fakultateak irakatsi ez zion ugari ikasi beharrean aurkituko da. Bi kasuak, ordea, ez dira berdinak. Patologiaren ikuspegi zabalek, zoldurari, zornetzeari eta nekrosiari eta soinkien arteko elkarreraginei dagozkien irakasbideek badute garrantzirik odontologoarentzat; beste arau eta gertakari batzuez osatutako mundura bideratzen du bere esperientzia analitikariak. Gorputzezkoaren eta arimazkoaren artean dagoen leizea filosofiak nolanahi gainditurik ere, gure esperientziarentzat eta gure ahalegin praktikoentzat printzipioz hortxe jarraitzen du.

Beste gizakiak fobia edo beldur obsesibo baten nekeetatik askatu nahi dituen pertsona bat medikuntzarako prestakuntzen zeharbidetik behartu nahi izateak ez du zentzurik eta zuzena ere ez da. Eta emaitzarik ere ez du izanen ahalegin horrek analisia nolabait desagertaraztea lortzen ez den bitartean. Har ezazu begibistan talaia batera iristeko bi bide ezberdin dituen bailara bateko ikuspegia: bideetako bat laburra eta zuzena da; bestea, berriz, luzea eta okerrune ugari dituen. Saia zaitez bide laburrerako pasabidea idazki-taula batez galeraztan, agian zuk apain eduki nahi duzun lorategi batetik zehar doalako edo. Zure debekua errespetatua izanen dela suposa dezakezu, baldin eta bide motza aldapatsua eta malkartsua bada eta bide luzea, alderantziz, laua eta eragozpenik gabea. Gauzak bestela balira, eta bide luzea balitz nekagarriena, erraztasunez asma dezakezu zeure debekuaren balioa eta zeure lorategiaren etorkizuna zeintzuk izanen diren. Zuri ezikasiak medikuntza ikastera behartzea bezain neketsua gertatuko litzaidake niri sendagileak analisia ikastera jarraraztea; horren beldur izatekoa da behintzat, ondotxo ezagutzen duzu eta zuk giza izaera.

«Tratamendu analitikoa ezin praktika daitekeela prestakuntza berezirik gabe, eta medikuntza-ikasketek gainkarga bat izanen luketela horretarako prestakuntza gehituz eta medikuntzako ezagutzak, neurri handi batean bederen, analitikariarentzat alferrikakoak direla diozunean asmatuko bazenu, zer gertatu da bere lanbideko eginkizun guztiak bete ahal izateko egokia litzatekeen sendagile-nortasun ideala lortzeko helburu harekin?».

Ezin aurrikus dezaket zein izanen den egoera arazotsu horrentzako konponbidea, eta izan ere ez naiz ni hori adierazteko pertsonarik egokiena. Bi gauza ditut garbi: lehena, analisisa zerbait kezkarria dela zuretzat eta hobe litzatekeela izan ere izango ez balitz —era bertsuan da kezkarria neurotikoaren kasua ere—; eta bigarrena: interes guztiak hartuko liratekeela kontutan, behin-behingoeko balioz, sendagileak hain ugariak diren neurosi psikogenoaren tratamenduen nekea kenduko lieketen terapeuta-mota bat onartzeko prest agertuko balira, eta gaixo horien onurarako terapeuta horiekiko etengabeko harremanetan iraunen balute.

«Arazo honi dagokionean, hori al da zure azken hitza? Ala baduzu zeresanik oraindik ere?».

Jakina, bada; hirugarren interes bat ere kontutan hartu nahi nuke: jakintzarena, hain zuzen ere. Esanen dudanak ez du gehiegizko garrantzirik izanen zuretzat, baina neurri berean gertatzen da esangarritsuagoa niretzat.

Halaxe da: ez dugu desiragarritzat jotzen medikuntzak psikoanalisi beregana dezala eta, horrela, bere betiko kokapena psikiatriaren eskuliburueta muga dadila, terapien kapitulura alegia, gure ezjakintasunean oinarritzen direnez beren emankortasun hutsala giza taldeen inertziari eta ausardi-ezari zor dien hipnosi-sugestioaren, autosugestioaren eta pertsuasioaren sendabideen ondoan. Etorkizun hobea merezi du eta halaxe izanen du. Gizakulturaren sorrera-historiaz eta artea, erlijioa eta gizarte-ikeruntzarenaz kezkatzen diren zientzia guztientzat ezinbesteko izatera ere iritsi daiteke «sakontasunaren psikologia» inkontzientearen irakasbide den heinean. Nire ustez, gainera, oso laguntza baliagarria eskainia die jadanik jakintza horiei beren arazoak konpontzeko orduan, baina orain artekoa oso laguntza txikia izan da kulturaren historialariak, erlijioaren eremuko psikologoak, hizkuntzen ikerlariak eta antzekoak eskaintzen zaien ikerketa-bide honetaz beren kabuz baliatzen has daitezenean lor daitekeenarekin alderatuz gero. Analisiak neurosien terapiarako duen erabilera izan ditzakeenetako bat baino ez da; eta etorkizunak erakutsi ere erakutsiko du, agian, ez dela erabilera hori garrantzirik handiena duena. Dena dela, ez litzateke zuzena izanen beste erabilera guztiak bakar horren izenean deuseztatzea, sendagileen interesak eremu horretakoak bakarrik direla eta.

Eta ondorio okerrik gabe trata ezin daitezkeen beste lotura batzuk agertzen dira hemen. Giza zientzietako ordezkariak psikoanaliaren eremuko ezagutzak ikasi behar baldin badituzte, gero bere metodoa eta ikuspegiak beraien materialetara aplikatu ahal izateko, ez da inolaz ere nahikoa izanen prestakuntza horretarako psikoanaliaren eremuko bibliografian jasotzen diren emaitzetara soilik mugatzea. Aukeran duten bide bakarretik ikasiko dute analisisa zer den ulertzen, beren buruak analizatuz soilik. Arrazoi intelektualengatik onartzen duten pertsonen mota berri bat, baina baita sari osagarri moduan beren lan-emaitzetan izanen duten hobakuntza gogo onez goraiapatuko dutenena ere, aldi berean, gehituko litzaioke horrela analisiaren beharrean aurkitzen diren neurotikoarenari. Hainbat medikuntza-ezagutzari balio eskasa eskainiko dioten analitikarien talde bat ezinbesteko izanen da analisi horiek gauzatu ahal izateko.

Guk analitikari-irakasle izena emanen geniekeen hauek, ordea, prestakuntza bereziki arduratsu bat behar lukete aurrez jaso. Prestakuntza hori zaharkiturik gera ez dadin, gainera, adibide egoki eta irakasgarrietatik esperientzia biltzen joan daitezen aukerak eskaini beharko litzaizkieke; beren ezagutza zabaltzen joateko irrikarik ez duten pertsona osasuntsuak analisirako prest agertuko ez direnez, neurotiko diren batzuen kasuetan oinarritu beharko du, kontrol zuhur batez lagundurik beti, medikuntza-

eginkizunetarako izango ez den analitikari-irakasleen prestakuntzak. Honek guztiak, jakina, mugikortasunerako askatasun dexentea eskatzen du eta ez du aukerarik uzten mugapen ziztrinetarako.

Psikoanalisiaren interesgarritasun teoriko huts hauei ez diezu sinesgarritasun handiegirik aurkituko agian, edo ezikasiek bideratutako analisiaren arazo praktikorako inolako eraginik ez dutela pentsatuko duzu. Utz iezadazu, ordea, psikoanalisiak petrikiloen eremutik at geratzen den eta sendagileen eskubidezkoa ez den beste erabilgarritasun-arlo bat ere baduela gogorarazten. Pedagogiaren esparruan duen aplikagarritasuna esan nahi dut. Haur bat garapen desegoki baten ezaugarriak adierazten hasten denean, deprimiturik, burugogor eta adigalkor agertzen denean, ezin ezer egingo du haur-sendagileak, ezta eskola-sendagileak berak ere, nahiz haurrak beldurra, apetitu-eza, bota-larritasuna, loezina bezalako sintomak agertu. Analisiaren eragina hezkuntza-neurriekin bateratzen duen tratamendu batek, haurren inguruneaz arduratzeko beldurrik ez duten eta haurren arima-bizitzako barrunbeetaraino sartzeko gai diren pertsonak praktikaturik, bi gauza lortzen ditu aldi berean: neurosi-sintomak desagertarazten ditu eta izaeraren aldakuntza oztokatzen du. Geroagoko bizitzako gaixotasun larrietarako haur-neurosiak, askotan itxuraz garrantzi handiegirik gabeek, duten esanahiaz dugun ikuspegiak adierazten digunez, profilaxi-bide bereziki egokia da haur-analisiaren hau. Ezin ukatuko da analisiak badituela etsaiak oraindik ere; pedagogo analitikari edo analitikari pedagogo hauen jardunaren aurka jartzeko zein arrazoi duten ez dakit, eta hori jakitea ere ezinezkoa dela pentsatzen dut. Dena dela, ezin ziurtasun hadiegirik izan horretarako ere.

Neurotiko helduen analisi-tratamenduaren gure arazora itzuliz, ez ditugula honi dagozkion ikuspegi guztiak aztertu oraindik esan behar. Ia jasan ezinezko den presio-indarra ezartzen digu gure kulturak: zigor zentzagarri bat eskatzen du. Gehiegikeria bat ote litzateke zera pentsatzea, gizakiak horrelako zigor zentzagarri baterako prestatzera deiturik dagoela psikoanalisi, dituen eragozpenak handiak izanagatik ere? Bere lurraldeko social workers direlakoei analisiaren eremuko prestakuntza bat eskaini ahal izateko hainbat diru jartzea ere bururatuko zaio inoiz, agian, amerkarren bati, kultur-neurosien aurkako talde burukatzaile bat osatu ahal izateko horrela.

«Ah, sendakuntzarako gudatalde berri bat!».

Zergatik ez, bada? Ereduen arabera dihardu beti gure irudipenak. Kasu horretan Europara etorriko liratekeen jakintzazaleen emana Viena alde batera utziz pasako litzateke, debekuaren trauma goiztiar bat jasana bailuke ordurako analisiaren garapenak. Barre egiten duzu? Ez diot hori zure iritzia erosteko asmoz, ezta pentsatu ere! Ondotxo dakit ez didazula sinesten, ziurtatu ere ezin ziurta diezazuket gauzak horrela gertatuko direnik. Baina gauza batez nago ziur ni. Ez du garrantzi handiegirik ezikasiek praktikaturako analisiari dagokion arazo honetan zuk zein iritziz moldatuko duzun jakiteak. Oso eragin mugatua izanen du. Psikoanalisiaren barne-garapenerako aukerak ez direla aginduen eta debekuen bitartez mugatu ahal izanen da garrantzizko gauza bakarra.

Ezikasiek praktikaturako analisiaren arazoaz aitzinsolasa

Sendagile ez den gure lankide Th. Reik doktorea petrikilo izatearen aitzakipean Vienako agintarien aurrean salatu izanak eskaini zidan ohar hauei² dagokien nire lantxoak idazteko aukera zuzena. Zegozkion sumarioak burutu eta adituen hainbat

txosten bildu ondoren salaketa hori alde batera uztea erabaki zela, ezaguna izanen da noski. Ez dut uste gertakari hori nire liburuari zor zaionik; izan ere, salaketa salatariarentzat berarentzat desegokia zen eran aurkeztu baitzen eta kaltetu bezala aurkeztu zen pertsonak ez baitzuen sinesgarritasun handiegirik merezi. Reik doktorearen aurka hasitako prozedura bertan behera utzi izanak ez du, noski, zera adierazten, Vienako Auzitegiak printzipiozko erabaki bat hartu duela ezikasiek praktikaturako arazo honi dagokionean. Nire defentsa-idazkian «bitartekari inpartzialaren» irudia sortu nuenean goi-mailako gure funtzionario baten irudia nuen neure begien aurrean: asmo oneko eta ohiko ez den osotasuneko gizon bat, norekin nik neronek Reik jaunaren kasuaz elkarriketa bat izan nuen eta nori, berak eskatu bezala, aditu-txosten pribatu bat eskuratu nion. Banekien ez nuela gizona nire alde jartzerik lortu eta arrazoi horregatik ezin bukatu izan nuen bitartekari inpartzialarekiko elkarriketa adostasun bat lortuz.

Ezikasiek praktikaturako analisiaren arazoaren inguruan analitikarien beraien artean ere jarrera bateratu bat lortzeko itxaropenik ez dut izan inoiz. Nire lan hark ez zuela inolako eraginik izan pentsa dezake bilduma horretan³ agertzen diren Hungariako Elkargoaren adierazpenak New Yorkeko taldearenarekin aldera ditzanak: aurrez zituzten iritziei heltzen baitiete, gerora ere, guztiek. Horixe ere ez dut, bada, nik sinesten. Kide askok beren punta-puntako jarrerak bigundu dituztela eta gehienek nire ikuspegia onartu dutela pentsatzen dut: ezikasiek praktikaturako analisiaren arazoa ezin konpon daitekeela aurretikoetatik jasotako ohituren bitartez; oso bestela, egoera berri bat sortu dela eta erabaki berri bat eskatzen duela, alegia.

Arazo osoari eman nion trataera berriak, antza denez, harrera ona izan zuen gainera. Analitikaria sendagile-agiriaren jabe izateak edo ez izateak ez zuela hainbesteko garrantzia, baizik eta analisia praktikatzeko beharrezko den prestakuntza berezia izatea zela oinarritzkoa azpimarratu nuen hasiera-hasieratik. Eta horri kideen artean hain eztabaida bizia sortu zuen beste galdera hau lot dakioke, zein ote litzatekeen analitikarientzako prestakuntzarik egokiena. Nik pentsatzen dudanez, eta horixe defendatzen dut hemen ere, ez, behintzat, Unibertsitateak etorkizuneko sendagileentzat derrigorrezkotzat jartzen duena. Sendagiletzarako prestakuntza jardunbide analitikorako zeharbide neketsu bat dela pentsatzen dut; egia da behar-beharrezko izanen duen ezagutza ugari eskaintzen diola analitikariari, baina inoiz baliagarri izango ez zaizkion beste askorekin zamapetzen du aldi berean, eta gertakari psikikoak zuzen ulertu ahal izateko beharrezko diren interesa eta pentsaera desbideratzeko arriskua dakar horrek berez. Oraindik sortzeke dago analitikarientzat izanen litzatekeen ikasketa-plangintza: giza izpirituaren zientzietako edukiakin batera —eduki psikologikoak, kultur historikoak, soziologikoak— anatomiaren, biologiaren eta garapenaren historiaren eremukoak ere kontutan hartu beharko ditu. Irakatsi beharrekoa hainbeste denez, analisi-jardunbidearekin zerikusi zuzenik ez duen guztia eta beste edozein ikasketak bezala adimenaren heziketarako eta zentzuen bidezko oharpenerako zeharbidez baino laguntzen ez duena alde batera uzteko nahikoa arrazoi badago. Proposamen horri era horretako analisi-fakultaterik ez dagoela eta hori guztia eskakizun ideal bat baino ez dela esanaz erantzutea gauza erraza da benetan. Egia da, ideal bat da hori, baina errealtate bilakaraz daitekeena eta bilakarazi behar dena. Horrelako burutzapen baten hasiera baino ez dira gure irakas-institutuak, beren mugapen guztiak kontutan harturik ere.

Eztabaidetan oraindik ere zalantza bizian jarri ohi den zerbait nik, aurreko atal horretan, errealtzat jo dudala konturatuko ziren, honez gero, nire irakurleak. Hau da, psikoanalisi ez dela medikuntzaren atal bat. Ezin uler dezaket nola norbaitek hori ezin

uler dezakeen. Psikologiaren osagaietako bat da psikoanalisia, eta ez sendakuntza-psikologia eritasun-gertakarien psikologia zaharrak ulertu ohi zuen moduan ulerturik, baizik eta psikologia soil-soilik; inolaz ere ez psikologia guztia, bai ordea bere azpiegitura eta agian baita bere oinarri nagusia. Sendakuntza-helburuetarako duen erabilgarritasunak ez du, ordea, oker ulertua izan behar; argindarrak eta x izpiek ere badute erabilerarik medikuntzan, baina fisikaren eremukoak dira biak. Arrazoi historikoez ere ezin alda dezakete bere benetako izakera. Nerbio-giharren prestakuntza batean egindako behaketa batean du bere jatorria argindarraren irakaspide guztiak; hori horrela izanik ere, gaur inork ez luke esango argindarrarena fisiologiaren osagaietako bat dela. Bere gaixoei laguntzeko ahaleginetan zebilen sendagile batek egindako aurkikuntza bat dela psikoanalisia esan ohi da. Horrek ez du, ordea, garrantzi handiegirik eremu horretaz epai bat osatzeko orduan. Arriskutsua ere bada argumentazio historiko hori. Bide horri jarraituz zera ere esan beharko bailitzateke, sendagilegoak oso modu desatseginetan —gorrotoz ere bai agian— jokatu zuela analisiaren aurka hasiera beretik; horretatik ondoriozta daitekeenez, elkargo horrek ez luke inolako eskubiderik analisiaren kontuetan. Eta horrelako ondoriorik onartzen ez badut ere, oso ezkorra naiz ni, eta jakin ere ez dakit psikoanalisiaz sendagileek egiten duten propaganda, libidoaren teoriaren ikuspuntutik abiatuz gero, Abrahamsek proposatzen dituen behe-mailetatik lehenengoan ala bigarrenengoan kokatuz uler daitekeen: deuseztatzeko asmoz gauzatutako jabetze bat den ala objektuaren iraupena ziurtatzeko helburuz bideratutakoa.

Oraindik une batez argumentazio historikoen eremuan jarraituz: nire pertsonari dagokionez gero, nire arrazoiak ulertzen lagun diezaioket horretarako interesik lukeenari. 41 urtez luzatzen den neure sendagile-lanaren amaieran nire buruaz lortu dudana ezagutzak diostanez, ni neu ez naiz benetako sendagilea izan. Nire jatorrizko asmoak desbideratzera behartu nindutelako iritsi nintzen sendagile izatera eta zeharbide luze baten ondoren jatorrizko norabidera iritsi izana da bizitzako nire irabazirik handiena. Ez dut gogoratzen sufritzen ari ziren gizakiei laguntzeko joerarik izan nuenik nire lehen urteetan; nire joera sadikoak indar handiegirik ez zuenez, bere ernamuinak garatzen ez nuen lan handiegirik izan. Ez nuen, gainera, mediku izatera inoiz jolastu; haurtzaroko nire jakinminak beste bide bat hartu zuen, antza denez. Gaztaroan, ordea, ikaragarri hazi zitzaidan mundu horretako ezkutukinak ulertzeko eta baita arazo horiek konpontzeko ekarpenak egiteko gogoia ere. Medikuntza-fakultatean izena ematea iruditut zitzaidan horretarako biderik egokiena, baina gero kimika eta zoologiaren eremura mugatu nahi izan nuen inolako arrakastarik gabe; azkenean, eta niregan eraginik handiena izan duen eta ordungo autoritaterik handiena zen Brücke doktorearen eraginpean, fisiologiaren eremura mugatu nintzen, garai haietan histologiaren gorabeheretara errezegi biltzen bazen ere. Sendakuntzarako inolako interesik ez banuen ere, medikuntzari zegozkion azterketa guztiak gainditurik nituen nire irakasle estimatuaren aholku batek, nire egoera ekonomiko ahula ikusirik, lanbide teoriko bat ekidin behar nukeela adierazi zidanean. Nerbio-sistemaren histologiatik neuropatologiara aldatu nintzen horrela eta, beste aholku batzuen eraginez, neurosiez kezkatzera. Sendakuntzarako jarrera egoki batekiko nituen mugek ez zieten kalte handiegirik egin nire gaixoei, hala uste dut behintzat. Izan ere, sendagilearen interes terapeutikoa afektiboki kargatuegia bada, horrek ez baitio mesede onegirik egiten gaixoari. Sendagileak hotz eta zuzen lan egin dezala da hoberena horrelakoentzat.

Aurkeztutako informe horrek, argi dagoenez, ez du gehiegi argitu ezikasiek praktikatzen duten analisiaren arazoa. Psikoanalisaren berezko balioaren eta medikuntza-erabileratik izan beharko lukeen askatasunaren alde jartzen zena ni

nintzenez, nire jarrera pertsonala bidezkozteko asmoz buruturik zegoen. Psikoanalisia, zientzia bat den heinean, medikuntzaren ala psikologiaren osagai bat den eztabaidatzea doktore jaunen arteko kezka bat dela, inolako garrantzirik gabekoa, aurpegiratuko zait. Eztabaidan dagoena beste zerbait dela: gaixoen tratamenduan analisiak duen erabilera, hain zuzen ere; eta hori horrela izan dadila nahi den neurrian, analisia medikuntzaren osagai berezi bezala onartu beharko litzatekeela, adibidez x izpiekin jokatu zen moduan jokatuz, eta sendabide terapeutiko guztientzat indarrean dauden araudi berdinak onartu beharko liratekeela analisiarentzat ere. Hori horrela da, onartzen dut; terapiak zientzia ezaba dezala ekidin baino ez dut nahi. Konparaketek, zoritxarrez, neurri batean bakarrik balio dute: bi konparagaiak elkarrengandik aldentzen diren puntura iristen gara beti. Radiologiarena ez bezalakoa da analisiaren kasua; x-izpien eremuko arauak aztertzeko eta ezagutzeko ez dute pertsonen beharrik fisikariek. Gizakietan gauzatzen diren arimageretakariak dira analisiak dituen aztergai bakarrik, eta, ondorioz, gizakietan bakarrik azter ditzake; ulerterrazak diren aldagai batzuen eraginez, gizaki normala baino askozaz aztergai irakasgarriagoa eta eskurakorragoa da gizaki neurotikoa, eta analisia ikasi eta erabili nahi duen bati aztergai hori ukatzen bazaio, prestakuntzarako lituzkeen aukeretatik erdiak edo kenduko litzaizkioke. Gaixo neurotikoaren interesak irakaskuntzaren eta ikerkuntza zientifikoaren interesetara makur daitezela eskatzen oso urrun leudeke, argi legokeenez, nire asmoak. Zenbait arreta kontutan hartuz gero, bi interes-mota horiek bateragarri direla eta era horretako konponbideak zuzen ulertutako sendagile-interesei ere laguntzen diela frogatzen saiatzen da ezikasiek praktikaturako analiziaz nik idatziriko lantxoak.

Nik neuk aitatu ditut arreta horiek guztiak; eta eztabaidak ez duela ezer berririk ekarri esan dezaket; baina zertxobait gehitu nahi nioke orainartekoari, errealitateari ez dagokion modu batean azpimarratu dituela kontuak. Zuzena da, bai, diagnosi diferentzialak sortzen dituen zailtasunei dagokienean eta kasu askotan soin-sintomak baloratzerakoan sortzen direnei buruz esandakoak; hori dela eta, ezinbestekoa gertatzen da horrelakoetan sendagilearen eskuhartzea. Baina horrelako zailtasunik ekartzen ez eta sendagilearen partaidetzarik eskatzen ez duten kasuen kopurua askozaz handiagoa da. Kasu hauek jakintzarentzat interes handiegirik ez badute ere, horrelatsukoak tratatzeko prestaturik dagoen analitikari ezikasiaren jardunbidea justifikatzeko hainbateko garrantzia jokatzen dute, ordea, bizitza errealean. Sendagile ez den batek sendakuntza-jarduera praktika zezanaren aurkako jarrera bereziki bortitza garatu zuen kide bat analizatu nuen orain urte batzuk. Begira, hiru hilabetetik gora daramatzagu lanean; analisiaren zein unetan behartu nintzen neure medikuntza-jakintzaz baliatzen?, galdetu ahal izan nion. Ez nuela horretarako beharrik izan, onartu zidan berak.

Analitikari ezikasiek sendagilearen partaidetza onartzeko prest egon behar duelako gaixoarengan ez duela begirune handiegirik eragingo, eta erinzain, masaiari edo antzeko batek duen baino prestigio gehiagorik ez duela izango dioen arrazoibideak ez du niretzat garrantzi berezirik. Konparaketa hori, berriro ere, ez litzateke aproposa hemen, zera kontutan hartuko bagenu behintzat, bere sentipenen transferentziaren arabera moldatzen duela gaixoak sendagilearekiko begirunea eta sendagile-agiriaren jabe izateak ez duela sendagileek uste bezainbateko garrantzirik gaixoarentzat. Arimen zuzendari zibil moduan dagokion begirunea eskuratzea ez litzaioke zailegi gertatuko praktikan diharduen analitikari ezikasiari. Analitikariak, sendagile edo ezikasía izan berdin dio, gizateriarekiko bete beharko lukeen eginkizuna adierazteko aproposa izan daiteke «arimen zuzendari zibila» formula. Protestanteen artean eta berriki baita katolikoenean ere ditugun apaiz lagunek bizitzako inhibizioetatik askatu ohi dituzte maiz beren elkartekideak, dituzten gatazkentzat zenbait argibide analitiko eskaini

ondoren irabazten duten sinesgarritasunaren bitartekotasunez. Gure aurkari diren norbanakoaren psikologi adlerianoaren jarraitzaileek ere aldakuntza bera lortu nahi dute gizartearekiko begirunea galdu dutenekin eta gizartearentzat baliagarri ez direnekin, beren arima-bizitzako ertz bakar bat argitu ondoren eta beren eritasunean berekoikeria-eta mesfidantza-joerek nolako partaidetza duten erakutsi ostean, gizartearekiko interesa eraginaz horretarako. Beren eraginkortasuna analisisan oinarritu izanari zor dioten bi jardunbide hauek badute tokirik psikoterapiaren eremuan. Gaixoaren ahalik eta analisisirik sakonena eta erabatekoena lortzea dugu helburu analitikari garenok; ez diogu bere zama arindu nahi elkarte protestantean, katolikoan edo sozialistan onartuz, baizik eta errepresioaren bitartez bere inkontzienteari loturik eskuraezinezko aurkitzen diren indarrak eta errepresio horiei iraunarazteko nia-k inolako etekinik gabe erre behar dituenak bere nia-ri itzuliaz, nortasun-izaera barnekotasunetik aberastuz. Arimazuzendaritza da, bere zentzurik onenean, guk horrela gauzatzen duguna. Helburu zailegia ezarri ote dugu, bada? Gure gaixoen gehiengoak ez duela horrelako ahaleginik merezi? Merkeagoa aterako litzaigukeela akatsak kanpoaldetik indartuko bagenu, barnealdetik berregituratzen saiatu ordez? Ezin erantzun diezaieket galdera horiei, baina nik badakit beste zerbait. Sendakuntzaren eta ikerkuntzaren arteko batasuna eman izan da psikoanalisian hasiera beretik; ezagutzak arrakasta eragiten zuen; ezin bidera zitekeen tratamendurik zerbait berria ikasi gabe; ezin argibiderik eskura zitekeen zerbait horren ondorio onuragarrien berririk izan gabe. Gure jardunbide analitikoak da baterakortasun preziatu horri eusten dion bakarra. Animen zuzendaritza analitikoak praktikatzen dugun neurrian bakarrik sakontzen dugu hain distiratsua agertu zaigun giza anima-bizitzaren barrunbeetan. Irabazi zientifiko horren aurrikuspina izan zen ahalegin analitikoaren ezaugarriarik argiena eta prometagarriena; nolabaiteko oharpen praktiko batzuen menpe jarri beharko ote genuen, bada?

Ezikasiek praktikatutako analiziaz idatzi nuen lantxoak zenbait puntutan oker ulertu izan ote denaren susmoa sortu didate eztabaida hartan eginiko zenbait adierazpenek. Sendagileak defentsiban jartzen dira nire aurka, analisisa praktikatzeko gauza ez direla aldarrikatu eta sendagileen inbasioari aurre egitera eragin izan banu bezala. Egon, ordea, ez dago horrelakorik nire asmoetan. Eta honako honetan egon daiteke oker-ulertze horretarako arrazoiak, prestakuntzarik gabeko sendagile analitikariak ezikasiak baino arriskugarriagoak jo behar izan nituela nire aurkezpen polemiko hartan. Behin Simplicissimus-ean emakumeei buruz agertu zen oharpen ziniko bat hartuz argi nezakeen arazo horretaz dudak benetako iritzia. Sexu ederrekoen ahuleziak eta zailtasunak ziren partaideetako baten kexugai besteak honelatsu erantzun zionean: emakumea da, ordea, gizadian dugun gauzarik onena. Onartzen dut medikuntzarako prestaturiko kideak ditugula etorkizunerako analitikarigai onenak, guk analitikariak prestatzeko nahi genituzkeen fakultateak eratzen ez diren bitartean. Eskatu, ordea, eska daiteke, etorkizunerako prestakuntza ez dezatela aurrez izan duten prestakuntzaz ordezkatu, medikuntza-fakultateetako irakaskuntzaren bidez eragin ohi den aldebakarreko ikuspegia gainditu dezatela, eta laguntzabide psikologikoen bitartez ulertu beharko liratekeen gertakari psikologikoak endokrinologiarekin eta nerbio-sistema zentralarekin jolastuz interpretatzeko tentaldiari aurre egin diezaiotela. Eta era berean itzaropena ere badut, gertakari psikikoen eta hauen oinarri organiko, anatomiko eta kimikoen arteko erlazioei dagozkien arazo guztiak ikasketak bi eremuetan burutu dituen sendagilearen erantzukizupen jarriko direla. Kontutan eduki behar da, aldi berean, psikoanalisi ez dela horretan agortzen, eta beste aldeari dagokionean, ezin utziko dugula alde batera aurrez giza zientzietan prestaturiko pertsonen lankidetzak. Arrazoi praktikoak bitarteko direla, sendagileek praktikatutako analisisa analisiaren

erabilgarritasunetik bereizteko ohitura hartu dugu, baita gure argitalpenetan ere. Hori ez da zuzena. Errealitatean bereizketa horren arteko muga psikoanalisi zientifikoaren eta honek medikuntza-eremuetan eta medikuntzazkoak ez direnetan dituen erabilgarritasunen artean dago.

Ezikasiek praktikaturako analisiaren aurkako jarrerarik ozpintsuena gure kide amerikarretatik datorrena da. Bidezkoztat jotzen dut horri hainbat oharpen eginaz erantzutea. Haien aurkakotasuna aldagai praktikotik ikusi behar dela uste dudala badiot, ez dut uste hori analiziaz abusatzea izan daitekeenik. Analitikari ezikasiek analisiarekin ausarkeria eta oker ugari egiten dituztela beren lurraldeetan eta horren ondorioz gaixoei eta analisiaren izen onari kalte handiak egiten dizkietela ikusten dute horiek. Ulergarria ere bada, beraz, kontzientziarik gabeko gaizkile horiei dagokienaz harat joanaz ezikasiei analisiaren eremuan edozein partaidetza ukatu nahi izatea beren haserrean. Argibide hau nahikoa da jarrera horri balioa mugatzeko. Ezikasiek praktikaturako analisiaren arazoa ezin erabaki daiteke, ondorioz, aldagai praktikotik oinarrituz soilik eta ezin izango dira guretzat erabakikorrak Ameriketako tokian tokiko harremanak.

Ezikasiek praktikaturako analisiaren aurka gure kide amerikarrek arrazoi praktikotik oinarriturik hartutako erabakia praktikotasunik gabea iruditzen zait niri, ez baita gauza arazoaren egoera hori sustatzen dutenetako aldagai bakar bat ere aldarazteko. Errepresio-saio baten balioa baino ez du. Analitikari ezikasia bere jardunean oztoka ezin bada, eta horren aurkako burrukan gizartearen laguntza eskuratzina bada, ez ote litzateke bidezkoagoa ezikasi horren izatea onartzea prestakuntzarako aukerak eskainiz, berarekiko eragina indartuz, sendagileriaren aldetikako onarpenerako eta lankidetzarako posibilitateak eragingarri moduan erabiliz, bere prestakuntza etiko eta intelektualarekiko interesa gehiarazten zaiolarik horrela? Oharrak

Psikoanalisiaz

¹ Ondotxo dakit baieztapen hau egia ez dela, baina 1880 urteko egoerara eraman nahi ditut nire entzuleak hitzaldi honetan. Ordutik hona egoera aldatu bada, hemen gogorarazten ari naizen ahalegin haiek eskuhartze handia izan zuten.

² Liburu horretatikako hautapen batzuen, geroagoko beste historia-kasu batzuz horniturik, A.A. Brill doktoreak New Yorken moldaturiko ingelesezko itzulpen bat eskuragarri dago.

³ Askozaz gehiago geroago berreraikitako horietako oroigailuetako batek. E. Jones doktoreak adierazi zidanez, Chère reine hitzetatik letorke Charing bera.

⁴ Der Witz und seine Beziehung zum Unbewussten. Viena 1905, 3. argitalpena, 1921, 60. or. (Lan guztien bildumako VI. liburukian dator).

⁵ G.G. Jung. Diagnostische Assoziationsstudien, I. liburukia, 1906.

⁶ Die Traumdeutung, 1900 (7. argitalpena, 1922; lan guztien bildumako II eta III liburukietan dator).

⁷ Zur Psychopathologie des Alltagsleben, 1905; 10. argitalpena, 1924.

⁸ Analyse der Phobie eines fünfjährigen Knaben (Jahrbuch für psychoanalytische und psychopathologische Forschungen. Bd. I, 1. Hälfte, 1909. Lan guztien bildumako VII. liburukian datorrena).

⁹ Bleuler, Sexuelle Abnormitäten der Kinder. Jahrbuch der Schweizerischen Gesellschaft für Schulgesundheitsflege, IX, 1908.

¹⁰ Drei Abhandlungen zur Sexualtheorie (Vienan, 1905; 5. argitalpena 1922. Lan guztien bildumako V. liburukian dator).

¹¹ Jahrbuch für Kinderheilkunde, 1879.

¹² Iku O. Rank, Der Künstler. Viena, 1907, 2. argitalpena 1918.ean.

¹³ S. Ferenczi, Introjektion und Übertragung. Jahrbuch für psychoanalytische und psychopathologische Forschungen, I. liburukia, 2. erdia, 1909.

Psikoanalisiarekiko
interesak

¹ Über Psychoanalyse, 6. argitalpena, 1922. (Lan guztien bildumako VIII. liburukian dator).

2 Zur Psychologie des Alltagslebens. (10. argitalpena, 1924. Lan guztien bildumako IV. liburukian dator). Ikus honetaz gainera Maeder, A.A. Brill, E. Jones, O. Rank eta besteren lanak.

3 Die Traumdeutung (7. argitalpena 1922; lan guztien bildumako II. eta III. liburukietan dator). Hortaz, gainera, Über den Traum izeneko lan txikia (3. argitalpena, 1921; lan guztien bildumako II. eta III. liburukietan dator). O. Rank, W. Stekel, E. Jones, H. Silberer, A.A. Brill, A. Maeder, K. Abraham, S. Ferenczi eta beste batzuen lanak gehitu behar.

4 Psikoanalisiak ez du onartzen topiko psikologiko honen egoera anatomiko batekiko edo geruzapen histologiko batekiko erlaziorik.

5 Ikus Abel, Über den Gegensinn der Urworte. Referat im «Jahrbuch für psychoanalytische und psychopathologische Forschung», 2. liburukia, 1910. (Lan guztien bildumako 8 garren liburukian jaso).

6 Über den Einfluss sexueller Momente auf Entstehung und Entwicklung der Sprache (Imago I, 1912).

7 Abraham, Spielrein. Jung.

8 Abraham. Rank. Jung.

9 Honetarako argibideak ikus, Jung, Wandlungen und Symbole der Libido, 1912, eta Freud, Übereinstimmungen im Seelenleben der Wilden und der Neurotiker. Imago, I eta II.

10 Ferenzci, Entwicklungsstufen des Wirklichkeitssinnes. Intern. Zeitschr. für ärztl. Psychoanalyse I. Freud, Magie und Allmacht der Gedanken. Imago, II, 1913.

11 Ikus O. Rank, Der Künstler. Viena, 1907.

12 Ikus O. Rank, Das Inzestmotiv in Dichtung und Sage. Viena, 1912. Arazo estetikoetarako erabilgarritasunari dagokionez baita, Freud, Der Witz und seine Beziehung zum Unbewussten, 1905.

Ezikasiek
analisiaren arazoa

praktikatutako

¹ Gauza bera Frantzian.

² «Internationaler Zeitschrift für Psychoanalyse» izeneko aldizkariak (XIII. urteko 2. eta 3. zenbakietan) 1927.ko udan ezikasiek praktikatatuko analiziaz antolatu zuen mahainguru baten ondoren idatzitakoa da aitzinsolas hau.

³ Aurreko oharrean adierazten den aldizkarian agertzen direnak.